

GRAMATIKAREN  
JABEKUNTZA  
GARAPENA  
ETA HAUR  
EUSKALDUNAK



ANDONI BARREÑA  
AGIRREBEITIA

**Argitarapen Zerbitzuak  
publikaturiko antzeko lanak**

**GB sintaxi ikastaro bat**

Howard Lasnik eta Juan Uriagereka

**Hitz-ordena, galdegaia eta komaren  
erabilera. Idazkera Teknikoa 1**

Juan Carlos Odriozola eta

Igone Zabala

**Izen-sintagma. Idazkera Teknikoa 2**

Juan Carlos Odriozola eta

Igone Zabala

**Eskariak:**

Argitarapen-Zerbitzua  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Leioa

ESKATU GURE KATALOGOA

GRAMATIKAREN  
JABEKUNTZA-GARAPENA  
ETA HAUR EUSKALDUNAK



GRAMATIKAREN  
JABEKUNTZA-GARAPENA  
ETA HAUR EUSKALDUNAK

*Andoni Barreña Agirrebeitia*

Bilbao



SERVICIO EDITORIAL  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO

ARGITARAPEN ZERBITZUA  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

1995

Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren laguntzaz argitaratu da.



© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-7585-704-3

Lege gordailua: BI-2.101-95

Fotokonposaketa: Ipar, S.C.L.

Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimaketa: Imprenta BOAN

Padre Larramendi, 2-behea - 48012 Bilbo

*Arantza, Jurgi eta Oitzi*





*Esploradore nekatu batek zer ikus lezake  
tristeziaren metro koadratu baten mugetan,  
limoiondoz inguraturiko kaminoak ezpadira;  
zer ikus lezake ardo usaineko muinoak eta  
eskifaia eroek gidatu ontzi gorriak salbu;  
Ikus lezazke apika kristalezko irla batzuk,  
urre edo zilarrezko ziutate bat goizaldean;  
suge erraldoiak eta tigreak, ikus lezazke  
bale urdinak ozeano epel batetan murgiltzen;  
ikus lezazke bi emakume soineko laranjatsuz  
eguzkiak sututako horma baten ondoan eserita;  
Ikus lezazke egun berreskura ezin guzti horiek  
txori imajinarioen multzokada lez pausatzen.*

Bernardo Atxaga



Irakurle, hauexek dira zuk baino lehenago liburu honen kalbarioa duintasunez jasan dutenak:

**Arantza:** testu honen prestaketaren aitzakiaz berari pasatu dizkiodan senide-ardurak eraz ebatsi eta matxista hitza esan gabe erreprimiteak ze ondorio ekarriko dion ez dakit. Horrez gainera, erromantikotasun apur bat zor diodala ere ezin ukatu. Erromantikotasuna?... Zer da erromantikotasuna? Maitasuna inguratzen duen arnasa.

**Jurgi eta Oitz:** (456) *ama, zertarako egiten du aitak hainbeste lan?*, (356) *ez du olgatu gura ala?*, (178) *bera bezalakoa izateko joaten gara gu ikastolara?*, (421) *Oitz telebistako izarra izan dadin prestatzen ari da aita?*,... Horra hor ASO, OSA eta SOS hurrenkeretako esaldi batzuk.

**Peru eta Mikel:** ikastolako kide batzuk mezarara bidaltzen dituzte. Gu, ez. Gu txikitatik beste errito batean sartu gaituzte. Hasi beharko dugu pentsatzen ematen dugun zerbitzu honi probetxua nola atera, ezta? *Beste grabaketa bat gura duzu? Ba, oraindino ez dugu Parke Jurasiko ikusi...* (4;06;11).

**Haurren gurasoak:** hilabeteak joan eta hilabeteak etorri *Eh?! Berriro hemen? Orduan, oraindik ez da esperimantua amaitu?* pentsatzen duten bitartean irribarre adeitsuari ikararik gabe eusten gastatu behar izan dituzten kaloria guztiak gimnasia bihurtuko balira...

**Itziar Idiazabal:** ikerketa-hertzaina izanik, lanari ekin diezaiodan zigorrez eta sariz ahalegindu da. Gidatze-eskolak eta gizalegezko zein legezko jokaera-motak ere dohainik, kexatu gabe eta betoskoa jarri barik erakutsi dizkit behar izan dudun guztietan.

**Andolin Eguzkitza:** testua irakurri ei duenatariko bat da. Egia izan zein ez, erakutsi duen sineskortasun amoltsuak eta interes samurrak asko lagundu dit aurrera egiteko orduan. Jainkoari eskerrak oso sineskorra naiz. Jainkoen kontuetan izan ezik, jakina.

**Jürgen Meisel:** oporrak hartzearren heldu ei zen Euskal Herrira eta ondo jatearren errepikatzen ei du ostera bera. Hatsarre-neuronak eta parametro-ezagutzak partituz galtzen da tximeleta zuri izoztu legez Henry Bengoaren modura Bilboko eta Hamburgeko kale heze hits behelainotuetan zehar jaramon apur bat egin gura dioten menturazale norabidegabekten artean.

**HEGEHJeko lankide guztiak:** laborategiko txanden kontuak alai eta irribarretsu jasatean, bideoaren aurrean harkatzez harmaturik bizkaitarrek zer diogun deszifratzen ordu amaigabeak ematean, urruneko gauetan zein hurreko egunetan garuna ihardunean izatean, edozein traba gaintitu daitekeela erakutsi didazue. Erle-langileak, baina eztenik gabekoak.

**Edorta Barruetabeña:** aurkitu duen akats eta inkoherentzia piloa kontutan hartuta, seguruenik liburua oso-osorik eta benetan irakurri duen bakarra. Orain Behaketa Zerbitzuan dago. Datozen urteotan ikusiko dugu ze ondorio ekarriko dion tamainako kolpe psikologikoa pairatzeak.

Asfaltozko oihan honetan atsedentoki eta ur edangarri freskoa izan zaretzen guztiei, arras galdutako esploratzaile honen partez, lili bat.

Liburu honetan aipatzeaz lortzen duzuen betikotasunaren truke, zuen barkamena lortuko dudalakoan...

# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b> .....	17
<b>Sarrera</b> .....	21
<b>1. Hizkuntza-jabekuntzari buruzko ikerketak</b> .....	27
1. 1. Chomsky-ren ekarpena: Gramatika Unibertsalaren kontzeptua .....	29
1. 2. Chomsky eta hizkuntza-jabekuntzari buruzko oinarriak .....	30
1. 3. Gramatika Unibertsalaren hipotesia .....	32
1. 4. Gramatika Unibertsala eta hizkuntza-jabekuntzaren garapena .....	32
1. 5. Garunaren eta Gramatikaren atalkako eraketa .....	34
1. 6. Hizkuntza-jabekuntzaren ikerketa eta Hatsarre eta Parametroen Eredua .....	37
1. 7. Hyams-en ikerketa: pro-drop parametroaren jabekuntza .....	38
1. 8. Radford-en ikerketa: funtzio-kategorien jabekuntza .....	40
1. 9. Funtzio-kategorien jabekuntzari buruzko beste ikerketa batzuk .....	41
1.10. Meisel-en ikerketa: jabekuntza mailakatua .....	46
1.11. Ouhalla-ren ekarpena .....	46
<b>2. Hipotesien aurkezpena</b> .....	49
2.1. Gramatikaren jabekuntza goiztiarra .....	49
2.2. Gramatikaren jabekuntza mailakatua .....	49
2.2.1. <i>Gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aroa</i> .....	51
2.2.2. <i>Aditz-kategoriaren erabilerak mugatzen duen aroa</i> .....	52
2.2.3. <i>INFL funtzio-kategoriaren erabilerak mugatzen duen aroa</i> .....	54
2.2.4. <i>KONP funtzio-kategoriaren erabilerak mugatzen duen aroa</i> .....	55
2.3. Funtzio-kategorien jabekuntza mailakatua .....	56
2.3.1. <i>INFL funtzio-kategoriaren jabekuntza mailakatua</i> .....	57
2.3.2. <i>KONP funtzio-kategoriaren jabekuntza mailakatua</i> .....	57
2.4. Gramatikaren jabekuntza-garapen goiztiarra .....	57
2.5. Gramatikaren jabekuntza-garapeneko zailtasunak .....	58

<b>3. Korpusa eta lanerako metodologia orokorra</b> . . . . .	59
3.1. Aztertutako haurrak . . . . .	59
3.2. Datu-bilketa . . . . .	61
3.3. Transkribaketa-erizpideak . . . . .	61
3.4. Erreferentzia-indizeak . . . . .	64
3.5. Aztertutako hizkuntza-unitateak . . . . .	65
<b>4. Euskararen jabekuntzaren deskribapena</b> . . . . .	69
4.1. Lehen aroa: gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aroa . . . . .	69
4.1. 1. <i>Izen-sintagmaren determinazioa</i> . . . . .	71
4.1. 2. <i>Izen-sintagmaren osagaiak eta hurrenkera</i> . . . . .	74
4.1. 3. <i>Gramatika-kasuen erabilpen-eza</i> . . . . .	75
4.1. 4. <i>Beste kasu-markak</i> . . . . .	75
4.1. 5. <i>Adizki jokatuak adierazten duten pertsona-komuntadura eza</i> . . . . .	76
4.1. 6. <i>Adizki jokatuagabeen aspektutasun-eza</i> . . . . .	77
4.1. 7. <i>Aditzen ezaugarriak</i> . . . . .	78
4.1. 8. <i>Menderagailu-eza</i> . . . . .	79
4.1. 9. <i>Komplementagailu-eza</i> . . . . .	79
4.1.10. <i>Ezeztapenaren lehenengo formak</i> . . . . .	79
4.1.11. <i>Hitzordena</i> . . . . .	80
4.1.12. <i>NZ-esaldiak</i> . . . . .	83
4.1.13. <i>Laburbilketa</i> . . . . .	84
4.2. Bigarren aroa edo AS-en egitura eta lehen gramatika-ezaugarriak erabiltzen dituzten aroa . . . . .	86
4.2. 1. <i>Izen-sintagmaren mugaketa eta osagaiak</i> . . . . .	88
4.2. 2. <i>Gramatika-kasuen erabileraren hasiera</i> . . . . .	89
4.2. 3. <i>Beste kasu-marken erabilera</i> . . . . .	92
4.2. 4. <i>Adizki jokatuaren erabilera</i> . . . . .	92
4.2. 5. <i>Adizki jokatuagabeen aspektua</i> . . . . .	93
4.2. 6. <i>Modu-adizkiak</i> . . . . .	94
4.2. 7. <i>Ez eta bai partikulen erabilera</i> . . . . .	96
4.2. 8. <i>Menderagailuen erabilera</i> . . . . .	98
4.2. 9. <i>Komplementagailuen erabilera</i> . . . . .	99
4.2.10. <i>Aditz-multzoaren egongunea</i> . . . . .	99
4.2.11. <i>Hitzordena</i> . . . . .	100
4.2.12. <i>Ezezko zein baiezko esaldien osagai-hurrenkera</i> . . . . .	102
4.2.13. <i>NZ-esaldiak</i> . . . . .	104
4.2.14. <i>Laburbilketa</i> . . . . .	107
4.3. Hirugarren aroa edo INFL funtzio-kategoriaren erabileraren hasierak mugatzen duen aroa . . . . .	108
4.3.1. <i>Izen-sintagmaren osaketa</i> . . . . .	110
4.3.2. <i>Gramatika-kasuen erabileraren bermaketa</i> . . . . .	111
4.3.3. <i>Gainerantzeko kasuak</i> . . . . .	112

4.3.4.	<i>Aspektu-marken erabilera</i> . . . . .	113
4.3.	5. <i>Adizki jokatuak</i> . . . . .	114
4.3.	6. <i>Ahal eta ezin partikulen erabilera</i> . . . . .	120
4.3.	7. <i>Menderagailuen erabilera</i> . . . . .	121
4.3.	8. <i>Konplementagailuen erabilera</i> . . . . .	121
4.3.	9. <i>Ez eta bai partikulen erabilera</i> . . . . .	122
4.3.10.	<i>Ez eta bai partikulen eragina perpausaren eraketan</i> . . . . .	124
4.3.11.	<i>Aditz-multzoaren egongunea</i> . . . . .	125
4.3.12.	<i>Esaldi deklaratzailen hurrenkera</i> . . . . .	126
4.3.13.	<i>NZ-esaldiak</i> . . . . .	126
4.3.14.	<i>Laburbilketa</i> . . . . .	135
4.4.	Laugarren aroa edo KONP funtzio-kategoriaren erabilerearen hasierak mugatzen duen aroa . . . . .	136
4.4.	1. <i>Izen-sintagmaren mugaketa</i> . . . . .	138
4.4.	2. <i>Gramatika-kasuak</i> . . . . .	138
4.4.	3. <i>Gainerantzeko kasuen erabilera</i> . . . . .	140
4.4.	4. <i>Subjektuarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizki jokatuak</i> . . . . .	140
4.4.	5. <i>Zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizki jokatuak</i> . . . . .	141
4.4.	6. <i>Osagarri zuzenarekiko komunztadura derakusaten adizki jokatuak</i> . . . . .	142
4.4.	7. <i>Adizki jokaturik eza</i> . . . . .	143
4.4.	8. <i>Modu-adizkiak</i> . . . . .	144
4.4.	9. <i>Adizki nagusien aspektu-markak</i> . . . . .	144
4.4.10.	<i>Menderagailuen erabilera</i> . . . . .	145
4.4.11.	<i>Konplementagailuen erabilera</i> . . . . .	145
4.4.12.	<i>Aditz-multzoaren egongunea</i> . . . . .	148
4.4.13.	<i>Ezeztapena eta ezezko aditz-multzoaren eraketa</i> . . . . .	148
4.4.14.	<i>Egin aditza</i> . . . . .	150
4.4.15.	<i>NZ-esaldiak</i> . . . . .	150
4.4.16.	<i>NZ-esaldien ekoizpena hiru urtetik lau urtera bitartean</i> . . . . .	158
4.4.17.	<i>Laburbilketa</i> . . . . .	165
4.5.	INFL-en gramatika-ezaugarrien erabilera mailakatua . . . . .	166
4.5.1.	<i>Aditz-multzoak aditz-lexema hutsak direnean</i> . . . . .	167
4.5.2.	<i>Aditz-multzoko lehen gramatika-ezaugarrien agerrera</i> . . . . .	169
4.5.3.	<i>Subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren agerrera</i> . . . . .	170
4.5.4.	<i>Zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera</i> . . . . .	183
4.5.5.	<i>Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera</i> . . . . .	187
4.5.6.	<i>Aditz-denbora ezberdinen erabilera</i> . . . . .	194
4.5.7.	<i>Aditz-modu ezberdinen erabilera</i> . . . . .	198
4.5.8.	<i>INFL-en gramatika-ezaugarri ezberdinen erabilerearen laburpena</i> . . . . .	199
5.	<b>Emaitzak eta eztabaida-gaiak</b> . . . . .	201
5.1.	Gramatikaren jabeakuntza-garapen goiztiarra . . . . .	201
5.2.	Gramatikaren jabeakuntza goiztiarra . . . . .	201

5.3. Gramatikaren baitaratze goiztiarra . . . . .	202
5.4. Gramatikaren jabekuntza mailakatua . . . . .	203
5.5. Funtzio-kategorien jabekuntza mailakatua . . . . .	204
5.6. Deskribaturiko jabekuntza mailakatuaren beste ikuspegi bat . . . . .	205
5.7. Gramatikaren jabekuntza beregain gertatzen da . . . . .	207
5.8. Gramatikaren jabekuntzako estrategia berezia . . . . .	207
5.8.1. <i>Ergatibo-kasuaren -k markaren gauzatze-eza</i> . . . . .	208
5.8.2. <i>Absolutibo-kasuaren ordez ergatiboa erabiltzea</i> . . . . .	208
5.8.3. <i>Adizki jokatu iragankorretan singularreko lehen subjektu-pertsonari dagokion -t morfemaren ekoizte-eza</i> . . . . .	208
5.8.4. <i>Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura desegokia</i> . . . . .	209
5.8.5. <i>Mendeko perpaus denboradunetako adizki jokatuari erantzen zaien -n konplementagailuaren ekoizte-eza</i> . . . . .	209
5.8.6. <i>Konplementagailu askeen erabilera</i> . . . . .	210
5.8.7. <i>Iraganaldiko adizkien ordez orainaldiko adizkien erabilera</i> . . . . .	210
<b>Bibliografia</b> . . . . .	213



## Hitzaurrea

Euskararen azterketan bide luzea egin da aspaldian. Garai bateko ikerketa filologikoei jarraituz, geroz eta datu zehatzagoak ditugu euskararen bilakaerari buruz, hala, hiztegi kontuan, nahiz, gramatikaren atal ezberdinen deskribapenean, zein, esplikazio mailan.

Hizkuntzalaritzaren historian, haur hizkuntzaren azterketa, nahiko berandu garatutako jakintza arloa da. Ez da harritzekoa. Izan ere, haurrak, «gizaki osatu gabetzat» jo izan dira mendeetan, eta beren azterketa zientifikoa guztiz aldera utzia egon da, nahiz eta Rousseauk, hemezortzigarren mendeaz geroztik, indartsu azpimarratu haurra eta haren ikasketak giza zientzietan zuen garrantzia. Nolanhi ere, Piaget, Wallon eta Vigotsky izan ziren hogeitamargarren hamarkadan, Epistemologiazko helburuekin, haurraren pentsakera seriooki aztertzen hasi zirenak. Hauen azterketa xeheak medio, konturatu gara zeinen garrantzitsuak diren, haurraren jaiotza ordutik bertatik, hasi, eta lehen egun, hilabete eta urteetan gertatzen diren aurrera-pausoak eta honen ondorioz lortzen den ezagutzaren bilakaera. Hizkuntzalaritzan ere, salbuespenak salbuespen, nahiz eta mende honen haseran haur hizkuntzaren egunkari motako bilketa ospetsuak bideratu badira ere (Alemanian, Stern senar-emazteak 1907an idatzitako Die Kindersprache liburua, adibidez), ez da beranduago arte garatu jakintza arlo hau. Psikolinguistikaren disziplinartekotasuna eta aportazio enpirikoak beharrezkoak izango dira haur hizkuntzari dagozkion lan-hipotesi esanguratsuak frogatze bidean jartzeko (Sinclair, 1967; Bever, 1970; McNeil, 1970, Slobin, 1973, 1977; Brown, 1973; Bloom, 1970; Bowerman, 1973 etabarren lan aitzindariak lekuko).

Ez da harritzekoa, beraz, euskararen jabeakuntza azterketak azken hamarkada honetan abiatu izatea. Eta oso pozgarria da neretzat hemen aurkezten dudan lanaren plazaratzea. Aspaldiko nahia izan dut, izan ere,

eginkizun honi erantzun beharra. Euskararen jabe-kuntzan, zenbait behaketa xume edota saio esperimental sakonagoak ere eginak genituen arren, beharrezkoa iruditzen zitzaigun behaketazko ikerketa longitudinal osatuago bat burutzea, haur euskaldunen lehenengo hizkuntzaren deskribapen xehekatu bat eduki ahal izateko. Hala, ikerketa honetan aztertzen diren behaketa datuak, 1987ko urrian hasi ginen biltzen, Peru eta Jurgi haurrak bi urte bete baino lehentxeago. Orduantxe elkartu ginan Hanburgoko Unibertsitateko J.M. Meisel eta bere lantaldearekin egitasmo honetan; eta orduz geroztik, elkar-lanean ihardun dugu bilketa enpirikoa nahiz azterketa teorikoa bideratzen. Andoni Barreña iker-taldera etorria zen 1988ko udara aldera Mikel eta Oitz haurren grabaketan ardura bere gain hartuz. Aspaldikoa, beraz, egitasmo honetan Andoni Barreñaren partaidetza zuzena eta berea, oso-osorik, lan honetan agertzen den azterketa sakon bezain interesgarriaren meritua.

Tesilan honetan gramatikaren jabe-kuntza-garapena aztertzen da: ia batiere morfologia markarik ez dagoenetik hasi eta haurrak esaldi egitura konplexuak osatzera iristen diren arte. Garapen hori era ulergarrian eta konparagarrian egin ahal izateko, zientifikoki alegia, gramatika sortzailea eta bereziki uztarduraren teoria jarraitzen du Barreña. Teoriek izan ditza-keten gorabeherak alde batera utziz, lan hau erreferentzi puntu bat da euskal gramatikaren jabe-kuntzan. Bertan, lau atalok bereizten direlarik, hain zuzen: Gramatika markarik gabea, Aditz Sintagmaren arabera egituratua, INFL kategoriaren baitakoa eta KONP kategoriaren menderakuntzan abiatzen dena. Nolanahi ere, proposamen gisara bederen, ibilbide baten mugariak dira: eztabaidatu, osatu, berregin beharko direnak, agian, baina nahitaez kontutan hartu beharrekoak, euskararen gramatika jabe-kuntza haurrengan aztertu nahi duenarentzat eta, orohar, euskal gramatikaren aztertzaile eta teoriagile ororentzat.

Bestalde eta aipatutakoaz gain, lan honen ekarpena, bertan agertzen diren datuen aberastasun eta fidagarritasunean datza. Arrazoi ezberdinek indartzen dute baieztapen hau. Batetik, bilketarako erabili den lan-metodoari esker, haur txikien bapateko hizketa sistematikoki eta zuhurki jaso delako, horrelako materiale bilduma berezia, euskaraz, lehenengo aldiz egiten delarik. Bigarrenik, ahozko hizkuntz bilketak, eta batez ere, bapateko ekoizpenak jasotzen dituen lanak, oso urriak direlako gurean eta gureaz, haurrengandikakoak zein adinekoengandikakoak. Hirugarrenik, lan honetan proposatzen diren antolamendu eta esplikazioez gain, agertzen diren adibide ugarietako esker, beste azterketa zenbait egiteko ere aukera ematen duelako. Eta azkenik, lan egiteko moduaren zorroztasunagatik. Gutxitan ikusten den zintzotasunez jokatu du Barreña datuekin; nahiz eta haiek erabat gustokoak ez izan, zenbait baieztapen kontrajartzen zutelako edo osagarritzko azalpenak ematera behartzen zutelako egilea, zailtasunak zailtasun, entzundakoari eta transkribatutakoari bere horretan heldu dio Barreña, eta ez, soilik, komeni izan zaionari.

Euskararen irakaskuntzari buruzko aipamen bat ere egin nahi nuke. Garai batean uste genuen, eta batek baino gehiagok, egun ere, hala usteko du: ikerketa honen ekarpena haur eskolako irakaskuntzarako behar-beharrezko baliabidea izango dela. Zeharbidez da baliagarria. Batez ere, haur oso gazteak euskaraz esan dezaketenaren muestra aberats bat delako. Hala ere, lan hau ez da adin bateko haur euskaldunek edo elebidunek lortu behar luketen euskara mailaren eredu edo erreferentzi puntua. Kontuan izan, hemen bakarrik hiru haur agertzen direla; beraz ez da estatistikak baieztatu lezakeen baremo baten antzeko zerbait. Adibideak dira, adibide egiazkoak, hori bai, baina ez dira halabeharrez lortu beharreko mailaren eredu. Besteak beste, bi arrazoi aipa ditzakegu: aurrena, etxe-giroan, eta adinekoa eta umearen arteko solasaldiak bakarrik jasotzen direlako, eta bigarrena, aztertzen diren hizkuntz ekoizpenak, gramatika-egituren baitan bakarrik neurtu eta azaltzen direlako. Haatik, gure eskolaurretan eta eskoletan, landu beharko litzatekeen hizkuntza, hori baino askoz gehiago da. Irakasleak, esaldien egiturak baino zerbait gehiago izan behar du kontutan haurren hizkuntza landu, aberastu eta neurtu behar duenean.

Honenbestez, euskal hizkuntzalaritza eta psikolinguistikak ikerketa honen haritik badute, harrobi berri bat lan-hipotesi oparoak bideratu ahal izateko.

*Itziar Idiazabal*



## Sarrera

Lan honetan murgildu nintzenean euskararen jabekuntzaren ikerketa deskriptiboa egitea zen nire helbururik nagusiena. Ikuspegi horretatik, haur euskaldunen, elebakarren zein elebidunen, hizkuntza-jabekuntzaren garapeneko datu guztiak garrantzitsutzat jotzen nituen.

Nire ustez, datu eta ikerketa gutxi genituen haur euskaldunen hizkuntza-jabekuntzaren garapenari buruz. Horrexegatik uste nuen ikerketa longitudinalaleko datuen arabera haurren hizkuntzaren jabekuntza-garapena begiratzea eta aztertzea inportantea zela. Beraz, haur euskaldunen lehenetariko hizkuntza zelakoa zen zehaztea, deskribatzea helburutzat izan nuen, baina guzti hori haur zehatzen garapena behatuz, haur bakoitzaren garapena jarraituz.

Baina hizkuntzaren garapen goiztiar honen eremua hain zabala izanik, laster konturatu nintzen nire ikerketaren mugak zehaztea oso inportantea zela. Ezin zitezkeen hizkuntzaren jabekuntzaren arlo guztiak bildu eta ikertu. Mugatu beharra zegoen. Eta aukeraketa horretan gramatikaren jabekuntza hartu nuen ardatz bezala.

Ikerketa longitudinalala egiteko asmoa nuenez, hasteko aztertu behar nituen haurren kopurua zehaztu beharra zegoen.

Hiru haur aukeratu nituen, bat elebakarra eta beste biak euskara-gaztelania elebidunak. Hiruren elebakartasuna zein elebitasuna etxekoa zen eta haur hauek espontaneoki ekoizten zuten hasierako euskara ikertu nahi nuen, gutxienez hitz biko esapideak egiten zituztenetik hiru urte bete arte, geroago, zenbait arlotan, lau urtera arteko ekoizpenari begiratu badiot ere.

Hiru haurren datuak baino ez ditudala aztertu esatean, estatistikoki kopuru honek duen muga adierazi nahi dut. Baina ikusi ahal izango banu hiru hurrek bide bera gauzatzen dutela, arlo honetan aurrerapauso itzela

emango genukeela pentsatzen nuen, zaila bailitzateke onartzea halabeharrrak bultzatzen dituela hiru haur euskararen gramatikaren jabekuntza-garapena era berean gauzatzen.

Bide horretatik abiatuz, gramatikaren jabekuntzaren garapena ikertzeko asmoaz, gramatika-kasuen, aditzek adierazten duten pertsona-komuntaduraren, aditz nagusien aspektuen, menderagailuen, konplementagailuen, osagai-hurrenkeraren, ezeztapenaren eta NZ-perpausen (zati-galderak) jabekuntza aztertu ditut batez ere.

Gramatikaren jabekuntza hau bideratzeko orduan *Gobernu eta Uztardura Teoriaren* ildotik abiatzea erabaki dut. Azken urteotan hizkuntzaren jabekuntzaren arloko ikerketetan ekarpen garrantzitsuak eman dituen metodo zehatza eta erabilia izan delako egin dut hautaketa hau.

Beste hizkuntzetan ikertutakoa ikusirik, haurrek gramatikaz jabetzean aro ezberdinak gauzatzen dituztela ikusteko aukera izan dugu. Hipotesietariko lehena, beraz, jabekuntza mailakatuaren aldekoa da, eta mailaketa perpauusak berak duen ordena hierarkikoaren arabera gauzatzen dela uste da. Horrela, ikerlana hasterakoan, nire ikuspuntu teorikoaren arabera, gramatikaren jabekuntzaren bidean haurrek honako aroak beteko dituztela pentsatzen nuen:

1. Inolako gramatika-ezaugarririk gabeko aroa. Hitz biko eta gehiagoko esaldiak ekoizten hasterakoan gertatuko dena.
2. Aditz-kategoriaren egitura eta lehen gramatika-ezaugarriak erabiltzen hasten diren aroa.
3. INFL funtzio-kategoriaren erabileraren hasierak mugatzen duen aroa.
4. KONP funtzio-kategoriaren erabileraren hasierak zabaltzen duen aroa.

Ikerketan zehar euskararen gramatikaren jabekuntzaren garapen mailakatuaren aldeko frogak sendotzen joan diren bitartean, urrats edo aro ezberdinak mugatzeko erabili ditudan gramatika-erizpideak ere heltzen joan dira. Zeregin honetan asko lagundu didate beste hizkuntzetako jabekuntzari buruzko ikerlariak eginiko ikerketek, eta argiago dakusat agian hizkuntza guztietan antzeko garapena izango dutela haurrek.

Guzti horrexegatik, haur euskaldunek euren hizkuntzaren jabekuntza-garapenean, gramatikarenean hain zuzen, egiten dituzten aro ezberdinak berezteza izan dut ikerlan honetako helburua.

Haurren hizkuntzaren jabekuntzaren arloan ikertzen jarraitu baino lehenago, oinarri hau sendo eraikitzea beharrezkotzat jotzen dut, eta beraz jabekuntza-garapenean gertatutako edozer aro ezberdinen barruan mugatzen ahalegindu naiz, ez baita gertatuko, nire ustez behintzat, ezein gramatika-garapen berezirik garapen orokorretik at.

Helburu deskriptiboa kontutan izanik, baina eredu teorikoa jarraiturik, eginkizunik garrantzitsuena aro bakoitzean euskarazko ekoizpenak agertzen dituen formak zehaztea eta deskribatzea izan da. Aro bakoitzari zein hizkuntza-unitate dagokion ikertzen saiatu naiz, beraz.

Horretarako, lehen esan dudan legez, hiru haurren korpus osoak arakatu ditut. Haurrek ekoitzi dituzten datu guztiak arakatu eta interpretatu ditut. Hau baita, nire ustez, hipotesiak bahetzeko bidea. Eginkizun honek haur bakoitzaren korpusaren azterketa xehea egitera eroan nau.

Ikerketan zehar haur guztiek era berean betetzen dituztela aro ezberdinak ikusi ahal izan dut. Baina, era berean, haur bakoitzak jokabide bereziak ere badituela esan dezaket. Aro ezberdinetan agertzen dituzten hizkuntza-unitateak beretsuak izanik, aroen hasiera-data zein iraupena badirudi gizabanakoen esku daudela.

Ildo honetatik, beste hizkuntzetan gertatzen den legez, zera ikusi dut: hizkuntzaren jabekuntza-garapenean burutzen diren aroak ez dagoela haur bakoitzaren arabera gauzatzerik, estrategiari dagokionez behintzat. Garapena aurrerabide honi loturik gertatu beharko zaio, baina, noski, honek ez du esan gura garapena haur guztiek era berean gauzatu behar dutenik. Aro ezberdinen erabilera, nolabait, haur guztiek egin behar duten ibilbidea dugu, eta helmugara, hots, gizaki helduen hizkuntza mintzatura, berau jarraiturik helduko dira. Baina haurrak, haur bakoitzak, bere erara erabiliko du bide hau, eta aro bakoitzean, adibidez, buruturiko aldia, edo arineketa aldia hastearen unea erabakitzea, bakoitzaren giza-inguruaren eta buru-heldutasunaren arabera gertatuko da. Bidea markaturik egonez, gizabanakoaren ezberdintasunek bidea erabiltzeko era-aniztasuna ezarriko dute.

Nire lana, beraz, euskararen gramatikaren jabekuntza-garapenaren aro ezberdinen berezketari dagokionez, bikoitza izan da. Alde batetik aro ezberdinak bereztea eta zehaztea; amankomun izango duten bidea mugatzea. Bestetik, gerta daitezkeen gizabanakoen arteko ezberdintasunak nondik nora joan daitezkeen ikustea: zer dagoen estrategia amankomunari lotuta eta zer dagokion bakoitzaren egoerari.

Planteiamendu honek sortu dezakeen eztabaidak, noski, beste batera garoaz. Esaten ari banaiz gramatikaren jabekuntzaren garapenean, nolabait, haurrek jarraitu behar duten bidea markatuta dagoela, zerez dagoen markatuta aztertzea garrantzitsua izango da. Gramatika-ahalmen goiztiar batek markatuko ote du bide hau? Ala, ostera, giza-inguruaren eragina izango da bultzatzailea?

Asko izan daitezke arlo honetan planteiatzen zaizkigun itaunak, eta asko eta ezberdinak izan dira orain arte eman diren erantzunak. Batzuentzat haurrek jaiotzatik, sortzetik hobe, genetikoki bereganaturik daukate gramatika-ahalmenaren aukera. Beste batzuentzat, berriz, giza-inguruaren eragina

da erantzulerik garrantzitsuena. Batzuentzat haurrek, giza-inguruarekiko harremanen bidez, genetikoki duten ahalmena garatzen dute, besteentzat, ostera, giza-inguruarekiko harremanen bidez eraikiko dute ahalmen hori. Errotik kontrajarriak diren bi jarrera hauen artean erdiko bideak proposatzen dituztenak ere badirela ahaztu barik.

Baina honez gain, hots, gramatika-ahalmenaren jatorriaren eztabaidaz gain, berau noiz hasten den agertzen edo eraikitzen ere eztabaidagarria da. Batzuentzat, betidanik duten zerbait da eta hasiera-hasieratik erabiltzera behartuta egongo dira, besterentzat, ordea, hasierako ahalmen bakarra esperientziaz bideratuko dutena izango da, eta berandu baten baino ez dute eraikiko gramatika-ahalmena.

Badugu, beraz, beste galdera bat: gramatika-ahalmen goiztiarrik denentz. Nire ustez behintzat, haurrek badute, sortzetik, genetikoki bereganaturik, besteak beste, gramatika-ahalmena, edo beste hitz batzuekin esanik, badituzte gramatika unibertsalaren ezaugarriak. Nire hasierako jarrerak, gramatika-ahalmen goiztiararen alde jartzen ninduen. Halere, eritzi hau ikerketako datuek azaldu egin beharko nuela argi nekusan, eta ikerlan honetan eritzi honen frogaketarako balioko duten datuak eskaintzen ditudala uste dut. Alegia, euskaraz ere, eta oso adin goiztiarrean, hiru urtetarako hain zuzen, gramatikaren atal nagusiak menderatzen dituztela haurrek.

Bestalde, argi dakusat ahalegin hau, gure gizarteak arlo honetan ibili behar duen bidearen urrats bat baino ez dela. Etorriko dira nire urratsa norabide zuzenean eman dudantaz aztertuko dutenak, eta hurrengo urratsak emango dituztenak ere. Pozik egongo nintzateke euskararen jabekuntzaren ikerketan aurrera emandako urratsa balitz, berau baita asmoa.

Halere, berresan nahiko nuke, ez naizela hutsetik abiatu. Badira beste hizkuntza batzuetan halako ikerketak egin dituztenak, eta badirudi zenbait hizkuntzatan behintzat, haurrek bide bera jarraitzen dutela hizkuntza-jabekuntzaren garapenean. Kontutan izan dut, beraz, besteek ibilitako bidea.

Lan honen eraketari buruz, lana bera nola taiutu dudana adieraziko dut.

Lehen atalean orain arte hizkuntzalari sortzaileek Hatsarre eta Parametroen Eredua deituriko teoriaren ingurutik burututako hizkuntza-jabekuntzari buruzko zenbait ikerketa garrantzitsuren nondik norakoa deskribatzen saiatu naiz.

Bigarren atalean, beste hizkuntzetako ikerlarien lanak ikusirik eta euskararen gramatika-ezaugarriak kontutan izanik, hipotesiak aurkezten ditut, aztertutako datuez bahetu beharko ditudanak, alegia.

Hirugarren atalean ikerketako funtsa den korpua zein den azaltzen dut. Haurren zein aho-ekoizpen azertu dudana, nola bildu dudana delako



ekoizpena, zein adinetako ekoizpena den, eta abar. Honekin batera datu bilketan erabilitako lan-metodologia orokorra zein izan den ere aurkezten dut.

Laugarren atalean datu-azterketari heltzen diot. Atal honetan hiru haurren datuak batera aurkezten ditut, aldez aurretik adierazitako aro ezberdinen arabera. Irakurleari erreztasuna eskaintzearen datuak horrela aurkeztea erabaki dut.

Boskarren atalean ikerketaren emaitzarik behinenak biltzen ditut. Baieztaturiko, ezeztaturiko zein zehazturiko hipotesiak bertan aurkitu ahal izango ditu irakurleak. Honez gain, azkenik, ikerketan zehar azaldu zaizkidan hainbat uste edo hipotesi berri agertzen ditut. Hauek hurrengo ikerketetarako abiapuntu baino ez dira, edo izan beharko luketela uste dut. Eztabaidagai ere badira beraz.

Sarrera hau amaitu aurretik, argi utzi nahi dut, berresanetan sartzen naizen arren, irakurleak kontutan hartu behar duela hemen azaltzen ditudan datuak, hots, haurren ekoizpenak, hiru haurren hileroko ordu erdiko solasalditxoari dagozkienak baino ez direla. Argi dago gai direla hau guztiau ekoizteko, horrela erakutsi baitigute, baina seguruena haurren eguneroko hizkuntzan gertatzen diren beste hainbat fenomeno ez dira isladatu. Edozelan ere, euren gaitasuna hemen agertzen denetik ezin da murriztu.



# 1. Hizkuntza-jabekuntzari buruzko ikerketak

Hizkuntzaren jabekuntzari buruzko lehenengo saiakerak XIX. mendean egin ziren arren, lehenengo lan metodikoak XX. mendean burututakoak dira.

Horrela, 1907. urtean Stern senar-emazte alemaniarrek beraien hiru seme-alaben jarraipenez eginiko ohar zehatzak argitaratu zituzten. Ronjat-ek, 1913. urtean, bere seme frantses-aleman elebidunaren ikerketa argitaratu zuen: *Le développement du langage chez l'enfant bilingue*. Geroago, hirugarren hamarkadaren inguruan beste hainbat ikerlarik ekin zion antzeko ikerketak egiteari: Grégoire-k (1933, 1937), zeinek fonetikaren garapena zehaztasunez egin baitzuen, eta Leopold-ek (1939, 1947, 1949), adibidez.

Ordurako hasia zen Piaget-en (1923) ekarpena gauzatzen. Piaget-en kezka psikologiaren arlotik zetorren, ez hizkuntzaren arlotik, baina berak urratutako bideek arras baldintzatu dute ondoko hizkuntza-jabekuntzaren ikerkuntza. Garai honetakoa dugu Vygotsky-ren (1934) emari garrantzitsua ere.

XX. mendearen bigarren erdian Skinner (1957) eta Chomsky (1957) zientzilari iparramerikarren ekarpenak hasi ziren gauzatzen. Eta batak zein besteak haur-hizkuntzaren jabekuntza zuzenean ikertu ez duten arren, berauek hizkuntza-jabekuntzaren garapenari buruz egindako teorizazioak eta bultzatutako eskolak oinarritzkoak gertatzen dira gaur egun ere arlo honetan. Ezagunak dira, halaber, bien arteko jarrera kontrajarriak, konduktismoaren defendatzailea bata, eta innatismoarena bestea.

Europan, bitartean, Piaget-en ildoari jarraituz, haurren psikologia aztertzeari ekin zitzaion batez ere. Aipatzekoak dira, Sinclair eta Ferreiro. Bruner eta Halliday ingelesak, berriz, hizkuntzaren alderdi komunikagarri eta funtzionala azaltzen saiatzen dira.

Espanian urratutako bideak urriak izan arren, aipagarriak dira Siguán (1968), Alarcos Llorach (1968) eta Gili Gaya-ren (1971) ikerketa-lanak.

Brown-en (1973) aipamena, beharbada, era berezian egin beharko nuke. Ikerketa askotako emaitzak eta metodologiak aipatu ondoren, proposamen bat egiten du haurren hizkuntza-heldutasuna neurtzeko: batetik, haurren esaldien luzera zelan neurtu, eta bestetik neurketa horri eman diezaiokegun heldutasun-balioa. Ezaguna eta erabilia bihurtu da beraren E.B.B.L.<sup>1</sup> neurria hizkuntza-jabekuntzaren edozein ikerketatan. Brown-ek haurren hizkuntza-heldutasuna neurtzeko zehazki zera proposatzen du: grabaketa bakoitzean haurrak ekoizten dituen 100 esaldi jarraitako morfemak zenbatzea, eta zenbaketa horri balio bat ematea berak mugatzen dituen bost maila ezberdinen artean<sup>2</sup>. Horrela, haurren hizkuntzaren jabe-kuntzaren garapena, nolabait behintzat, maila ezberdinetan zehazten du, ikerketa errazteko asmoz. Metodo hau eta beraren balioa kritikatu izan den arren, guztiz erabilia da gaur egun<sup>3</sup>.

Hirurogeitamarraren ostean, hizkuntzaren jabekuntzari buruzko ikerketak ugaltzen joan ziren. Sasoi honetan, ikerlaririk gehienek komunikagarritasuna eta inguruaren eragina zituzten ardatz. Horrela ikus daitezke Bellugi, Fraser eta Brown-en lanak, Leonard-enak (1976), Bowerman-enak (1973), De Villiers eta De Villiers-enenak (1979), Volterra eta Taeschner-enak (1978) eta abarrenak. European, Bronckart-en (1977) eta beraren eskolaren eragina handia izango den neurrian, ezin daiteke utzi aipatu barik Slobin-en (1973) eragina Estatu Batuetan zein Mendebalde osoan.

Gure inguruan, gaztelaniaren jabekuntzari buruz, lehen aipatutakoez gain, M. S. Echeverria-k (1978) Txilen egindakoa aipatu behar da. Hernandez Pina-k ere (1984) bere semearen gaztelaniaren jabekuntza sistematikoki aztertua du. Aipagarriak dira baita ere Siguán-en inguruan Serra-k, Vila-k eta abarrek egindakoak (gaztelaniarenak zein katalanerarenak), eta Madrilen Lopez Ornat-ek (1987 eta 1990) eta Gallo-k (1990) egindakoak.

Euskararen jabekuntzari buruz azterketa gutxi egin den arren, aitzindari-tzat jo ditzakegu Idiazabalek (1982, 1986, 1991, 1991, 1991, 1992 eta 1994) egindakoak. Aipagarriak dira, halaber, Garai eta Garai-Gordobil-en (1991), Ezeizabarrena-ren (1991 eta 1994), Elozegi-ren (1991), Almgren eta Barreñaren (1991) eta Biain, Soto eta Zuñiga nafarren lanak beste batzuren artean.

<sup>1</sup> Esaldiaren Bataz Besteko Luzera. Ingelesez «Mean Length of Utterance» edo M.L.U. Hemendik aurrera ebbl-a.

<sup>2</sup> Euskararen neurketarako ikus Idiazabal (1991). Lan honetan, Idiazabalek, euskara ikasten diharduten haurren ebbl-a zelan neurtu proposatzen du, morfema ezberdinei balioak emanez.

<sup>3</sup> Ikus, adibidez, Platzack (1990). Lan honetan, beste ikerlari askoren moduan, ebbl-neurketa darabil erreferentziatzat. Interesgarria da, bestalde, Bickerton-en (1991) lana, ipuspuntu kritiko baina guztiz balioagarritik aztertzen baitu ebbl-aren arazo guztia.

### 1.1. CHOMSKY-REN EKARPENA: GRAMATIKA UNIBERTSALAREN KONTZEPTUA

Noam Chomsky-k (1986) *Knowledge of Language: Its Nature, Origins and Use* deritzon bere liburuaren sarreran, bere ibilbidearen eragin-garrien laburpen gisa, giza-ezagutzari buruzko arazo bik luzaro kezkatu dutela dio. Lehena, nola litekeen hain esperientzia mugatua izanik horrenbeste ezagutzea, eta bigarrena, nola litekeen hain gutxi ezagutzea ezagupen-iturria den ingurua hain nabari agertzen zaigularik.

Lehena zehaztuz, pentsamenduaren eta ulermenaren arlo batzuetan gure ezagutza handia, zehatza eta taiukera artikulatukoa dela dio, eta nolabait, esperientzia bera eta oinarritzko ezagutza bera dituzten beste gizakiekin batera dugula. Eta hau guztiau aztertzerakoan berari agertzen zaion arazoa zera dela: eraginaren eskasia. Berarentzat, gure ezagutza-sistemaren eta berau zuzendu duen esperientziaren artean izugarritzko jauzia dago. Gizakiak duen esperientzia hain mugatua izanik, nola azaldu ezagutza-sistemaren zehaztasuna eta aberastasuna? Ezagutza-sistema, gizakiaren esperientziaren eta beraren organismoak hura eraikitzeke eta erabiltzeke darabilen metodoaren elkar eraginaren ondorioa da.

Arazoa, beraz, planteiaturik dago. Zein eta zelakoa da gizakiok daukagun hornidura genetikoa? Gogoan izan beharko genuke delako hornidura genetikoa eguneroko bizitzan daukagun esperientzia mugatutik eraiki dugun ezagutza-sistemarainoko jauzia bideratzen duen baliabidea dela. Delako hornidura genetikoak giza-espeziearen benetako ezaugarria izan behar du, eta ardatza gainera giza-ulermena eta giza-pentsamenduarentzat.

Hizkuntzari dagokionez guztiz aztergarri iruditzen zaio Noam Chomsky-ri ezagutza-sistema hau. Lortutako ezagutza ia mugatzeraino hel gaitzke-elako, eta ezagutza hori eraiki duen esperientziari buruz datu ikaragarri zabalak izan ditzakegulako. Guzti honek, berak dioenez, gizakiaren hizkuntza-ahalmena osatzen duen hornidura biologikoaren aurkikuntzaren ateetan gaudela sinesterazten dio.

Gizakiok, beraz, neurri batean behintzat, hitz egiteko ahalmena herentzia genetikoari zor diogula pentsa dezakegu. Eta horrela esan dezakegu, gizakiok beste abereengandik berezten gaituen ezaugarrietariko bat hitz egiteko ahalmena dela. Gure munduaren historian zehar, mutazio genetikoak eta aukeraketa naturalak elkar-eraginda organismo-espezie berriak sortu dira. Era horretara, pentsa zezakeen eta mintza zitekeen bat sortu da: homo sapiens sapiens-a, alegia.

Gizakiok hizkuntza darabilgun bakarrak gara. Eta gizaki orok ezagutzen du ahalmen hori.

Gizakiok, edo agian hobe haurrak, giza-ingururik gabe ezin daitezke hizkuntza baten jabe bihur, hau da, giza-inguruan soilik gara daitezke giza-hizkuntzak. Edozein giza-hizkuntza garatu ahal bada, orduan, argi dago hizkuntza partikularrak ez daudela biologikoki hornituak. Gizakiok biologikoki bide dugun hizkuntza-hornidura, alegia, hizkuntza partikularren gainetik dago, giza-hizkuntza partikular guztiak batzen dituen sistemaren bat osatzen duelarik.

Gainera, gizakiok ez dugu hizkuntza-ahalmena aukeran, giza-inguruan hazi ezkerro derrigorrezkoa dugu hizkuntzaz jabetzea, giza-normaltasun-ezean izan ezik, noski. Ez dugu gure hitz egiteko ahalmenaren garapena gurata kontrolatzen, gibelaren haziera edo besoena kontrolatzen ez ditugun moduan. Horregatik, Chomsky-k dioenez, hizkuntza-ahalmenak hornidura genetikoaren ondorioa izan behar du.

## 1.2. CHOMSKY ETA HIZKUNTZA-JABEKUNTZARI BURUZKO OINARRIAK

Baina nola izan liteke haurrak bere ama-hizkuntza ikastea daukan eta jasotzen duen hizkuntza-esperientzia mugatua eta okerrez betea izanik?

Chomskyren eritziz haurrak jasotzen duen hizkuntza-esperientzia, entzuten duenaren bidez, mugatua eta okerrez betea da. Baieztapen hau egitean ondoko hiru arrazoi-multzoetan oinarritzen da:

1. Haurrek helduei eta beste haur nagusiagoei entzuten dizkien hizkuntza-ekoizpenek hainbat era desegoki eta akastunak edukitzen dituzte. Perpaus amaitugabeak edo etenak, konturatubako akatsak, diskurtsuaren erdian egindako aldaketak, ... edo haurrari hizkuntza ikasten laguntzeko asmoz egindako sinplifikazioak. Aipatutako produkzio desegoki guztiak haurrak entzuten duenaren ehuneko bosta baino ez balitz ere, zera galde dezakegu, zelan lortzen du eredu zuzenaren eraiketa?
2. Haurrak perpaus-kopuru mugatua baino ez du entzungo. Eta bere esperientziak gain, gai da inoiz entzun ez dituen perpausak ekoizteko. Haurrak badu, beraz, esperientzia mugatua izanda ere, ekoizpen mugagabea gauzatzeko ahalmena. Pentsa dezagun bestela, nola erabiltzen dituen edo erabil ditzakeen, bederen, erlatiboaren errekurtsibitatea, menderakuntza edo koordinazioa bera. Gramatika sortzailea da, egundo entzunbakoa ulertzeko zein sortzeko ahalmena ematen diguna, bapatekoa den ulermen- zein sormen-ahalmena gainera.
3. Haurrak hizkuntzaren ezagutza inkontzientea du. Badaki zer esan daitekeen eta zer ez, eta guzti hori egundo zuzenean esan ez zaiola-

rik, erakutsi ez zaiolarik. Ezagutza hau, beraz, ez dago entzuten duen inputean. Haurrak ez du ikasten bere ama-hizkuntza teoriko-ki. Gainera ez dauka esperientzia ezezkorrik, hau da, txarto dauden hainbat forma ez du inoiz entzuten eta haatik badaki txarto daudena. Adibidez, inork ez dio erakusten 4 edo 5 urteko haur bati, ondoko perpausetatik zein dagoen zuzen eta zein ez:

- (1) Zein lagun esan duzu etorri dela gaur goizean?
- (2) ? Zein lagun esan duzu ea etorri den?<sup>4</sup>
- (3) \* Zein lagun esan duzu etorri denean joan zarela?

Goian jarri ditudan hiru adibideotan *zein lagun* mendeko perpausetik mugituz, perpausaren hasierara aurreratu dut. Baina direlako mendeko perpausak ezberdinak dira. Batzuetan mugimendua gauza daitekeen arren, beste batzuetan ez. Nork erakutsi dio aukera hori haurrari? Jakin badaki, ulertzen duelako eta erabil dezakeelako. Zelan daki, beraz?

Halere, esan behar da, seguruen, desegokiak diren perpausak egundo ere ez dituela entzungo; edo, entzutekotan, oso gutxitan entzungo dituela. Hizkuntza-esperientziak ez badu hizkuntza-ezagutza bideratzeko azalpenik, hizkuntza-ezagutzarako beste iturriren bat edo batzuk izan beharko ditu haurrak. Eta hizkuntza-ezagutzarako iturri hauek esperientziatik at egon beharko dute.

Haurrak entzuten duen hizkuntzaren imitazio hutsak ezin du justifikatu daukan hizkuntza-ahalmen ikaragarria. Helduen esanetatik hizkuntza ikasteko beharrezkoak ditu baliapide genetikoak. Hona hemen baieztapen honen alde Chomskyren zenbait argudio:

1. Haurrak eredu zuzenak, ez-zuzenetatik berezten ditu.
2. Gurasoek haurrei eginiko hizketaren hainbat azterketa egin ondoren, berauek darabiltzaten perpausik gehienak aginduak eta galderak direla esan daiteke. Haurrak entzundako perpaus deklaratzailen inputa, alegia, murriztagoa da, eta haurrak badu arlo honetan ere zuzen dagoenaren zentzua.
3. Hizkuntza-ezagutza zuzenean inork irakatsi barik gauzatzen du.

Zertan oinarritzen da berezketa horiek egiteko?

Gainera oso gauza bitxia izaten da, hizkuntza bereko hiztunen artean, hizkuntza-jabekuntzaren arloan, ia errakuntza berak gertatzen direla. Pentsa dezagun, adibidez, adizkien iraganak egiteko, haur euskaldun askok, *-n* morfema hutsa eransten dietela orainaldiko adizkiei. Edo *ezin dut* produkzioaren ondoan, *ahalin dut* esaten dutenean. Edo bizkaieraz ikasten dihardu-

---

<sup>4</sup> Halako adibideetan, perpausaren hasierako galdera-ikurrak (?) zera adierazten du: zalan-tzan jartzen dugula perpausaren zuzentasuna. Perpausaren hasieran izartxoak (\*) jarriez gero segurutzat jotzen dugu okerra dela (ikus (3) adibidea).

ten haurrek *eban* (*zuen*), *eben* (*zuten*), *ebazan* (*zitu*) eta *ebezen* (*zituzten*) adizki laguntzaileei *z-* eransten dietenean. Antzerako jokabideak gertatzen dira gaztelaniaz ikasten duten haurrengan; adibidez, partizipioen arloan egiten dituzten erregularizazioez, (*ponido*, *puestoren* ordez); aditz irregularren arloan egiten direnez (*cabo queporen* ordez); singularreko bigarren pertsonari zenbait aditzalditan dagokion *-s* morfema forma guztietara hedatzen dutenean (*vinistes*, *anduvistes*, ...); artikuluen generoa gauzatzean gertatzen diren generalizazio okerreiz (*el mano*, *el moto*, *la agua*, *el torre*, ...).

Eta ikusi ditugun zailtasun guztien gainetik, haurrak, inolako irakaspen zuzenik gabe, ezagutza-sistema aberatsa menderatuko du laster batean. Eta hau guztiau, errakuntza *gutxi* egiten duela.

Nola liteke, bada, esperientziak ematen diona baino gehiago jakiteko gai izatea?

### 1.3. GRAMATIKA UNIBERTSALAREN HIPOTESIA

Giza-organismoak zenbait baliapide berezi izan behar du hizkuntza-esperientziaz gain. Baliapide hauek genetikoki ekarriak izan behar dute. Hizkuntza, hain zuzen, baliapide genetiko hauen emaitza da. Horrela, hizkuntza jakin bat garatu ahal izango da haurren garunean.

Baina, edozein haur gai baldin bada edozein giza-hizkuntza ikasteko, horretarako ikasten ari den hizkuntza horretaz baliatzen den giza-taldean bizi bada, biologikoki hornitutako baliapideek hizkuntza zehatz edo jakinen gainetik egon behar dutela argi dago. Ez dira, beraz, hizkuntza partikularrak genetikoki transmititzen, horiek esperientziaz jasotzen dira eta. Biologikoki hornitutako baliapideek, ordea, giza-hizkuntza ororen berezitasunak eta ezaugarriak besarkatu behar dituzte.

Genetikoki hornitutako hizkuntza-baliapide multzo honi Gramatika Unibertsala deitu zaio. Gramatika Unibertsala, beraz, esperientziaren eragingarriez baldintzaturik hizkuntzaren hazpena bideratzen duen hornidura genetikoaren zatia da, eta lor daitekeen hizkuntza-ezagutza mugatzen duena, hots, gramatikaren iharduera.

### 1.4. GRAMATIKA UNIBERTSALA ETA HIZKUNTZA-JABEKUNTZAREN GARAPENA

Baina zelan ikasten du haurrak bere ama-hizkuntza?

Hizkuntzaz jabetzeko ahalmena gramatika menderatzea da. Gramatika menderatuz, haurrak sistema mugatu batez, perpaus-kopuru mugagabea



ekoitzi ahal izango du. Gramatika Unibertsala, orduan, giza-espezieko izaki guztiok jasotzen dugun hornidura genetiko beraren zatia da; esperientziak Gramatika Unibertsalari eragingo dio, hizkuntzaren jabe-kuntza gauzatu. Horrela haur bakoitzaren hizkuntza-esperientzia ezberdina izango denez, hizkuntza<sup>5</sup> ezberdinak sor daitezke. Haur bakoitzaren esperientzia zehatzak mugatuko du zein hizkuntza ikasiko duen, edo zein hizkuntzaki.

Gramatika Unibertsalak aukera-multzoak bideratzen ditu, eta haur bakoitzak, izango duen hizkuntza-esperientzia zehatzaren bidez, hautatuko du aukerarik egokiena ikasten ari den hizkuntza bideratzeko. Hizkuntza guztiak, beraz, Gramatika Unibertsalaren aukera-multzoen arteko hautapenak bultzatu eta gauzatu dituen eragingarriak izango dituzte. Eta horrela, haurra, bere baitan, gramatika zehatza jabetuz joango da.

Gramatika Unibertsala, beraz, hornidura genetikoaren zatia den neurrian, nolabait, garunaren hasierako egoerari buruzko hipotesia dugu, hots, sortzetiko ahalmena.

Bestalde, Gramatika Unibertsalaren teoria giza-hizkuntzen ezberdintasuna ere azaltzen saiatzen da. Giza-hizkuntza ugari izan arren, teoria honen arabera behintzat, aldaerek mugatuak izan behar dute. Eta galdera hauek parametroen teoriaren bidez azaltzen saiatzen da.

Parametroen teoria hizkuntzen tipologiak gain, hizkuntzaren jabe-kuntza ere azaltzen ahalegintzen da. Gramatika Unibertsalaren teoriaren bidez, beraz, haurra biologikoki zeraren jabe da:

1. Hizkuntza orotarako aldaezinak diren oinarri unibertsal batzuen, adibidez gramatika-kategoria ezberdinak bururen bat izatea. Oinarri hauei hatsarreak deitzen zaie.
2. Gramatika-aukerak gizakiari ematean hizkuntza-aldaerak bideratuko dituzten parametro-multzoena. Adibidez, gramatika-kategoria ezberdinen burua hasieran edo azkenean jartzearen aukera. Horrela, hizkuntza partikularrak berezi egiten dira.

Azalpen hau onartzen duen teoria *Hatsarre eta Parametroen Eredua* izenagaz ezagutzen da.

Haurrak, hizkuntza-esperientzia zehatzaren bidez, direlako parametro horiek balore batez ezarri beharko ditu. Hizkuntza bakoitzak, elementu eragingarrien bidez baldintzatuko dio haurrari parametro bakoitzaren baloreen arteko aukeraketa, gure adibidean, gramatika-kategorien buruak ea azkenean edo hasieran jartzen diren.

---

<sup>5</sup> Hizkuntza hitzari zentzu zabala ematen diot lan honetan.

Hizkuntzak, halandaze, parametroak balore ezberdinetan ezartzeaz ezberdinduko dira. Eta haurrak, bere ama-hizkuntzaz jabetzeko, Gramatika Unibertsalaren horniduraz gain, esperientziako elementu eragingarriez gramatika partikular horren parametroak ezartzeari ekin beharko dio. Horrela jabetuko da bere bihotz-gramatikaz.

Hau guztiau ikusita, Hatsarre eta Parametroen Ereduaren aldekoek baidute zenbait hipotesi frogatzeko, edo beraien teoriaren egiazkotasuna sendotzeko behintzat. Eta parametroen teoria hau irimotzeko, gutxienez, hiru bide hauetatik abiatu behar dute:

1. Parametroak eta beraien ezarketak zeintzuk diren finkatu, horrela hizkuntza bat bestetik ezberdinduz.
2. Gramatika Unibertsalaren hatsarreak eta parametroak bereizi.
3. Esperientziako elementu eragingarrien bidezko parametro hauen ezartzeaz teoria sinesgarria eta gertagarria eraiki.

Gainera, agian, parametroen arteko lotura eta elkar baldintzatzea ere argitu egin beharko da. Adibide bat jartzearen, demagun, hizkuntza bat *buru-azkenekotzat* jotzen dugula, hau da, edozein gramatika-kategoriatako burua beti azkenean izango duela. Parametro honen ezartzeak beste parametroren baten ezartzea ere baldintzatuko ote du? Baietz dirudi. Badirudi horrelako hizkuntza batek, posposizioak erabiliko dituela, eta ez preposizioak, edo aditza azkenerantz jartzeko joera izango duela.

Eta zenbat ezartze-modu izango du parametro bakoitzak? Honetaz oso gutxi dakigu, eta dena eztabaida eta hipotesi hutsa izan arren, badirudi ikerlari eta zientzilari gehienek parametro bakoitzak bi aukera dituela onartzen dutela, zeren hori baita bideragarri den sistema bakarra.

Baina guzti hori, lehenago aipatu dugunez, frogatzeke dago. Sinesgarri bihurtzeke. Gainera, ez da parametro-teoria hizkuntzalari sortzaileek defendatzen duten bide bakarra. Azkeneko urteotan badira, parametro-teoria bazterturik, beste azalpen-mota batzuk ematen dituztenak, hala nola, Gramatika Unibertalaren arau-multzoa garunak edo garunaren atal zehatzen batek prozesatzeko erari dagokiona dela.

## 1.5. GARUNAREN ETA GRAMATIKAREN ATALKAKO ERAKETA

Guzti honez gain, badirudi gramatikaren hatsarreek honako berezitasun hauek dituztela:

1. Beraien ezaugarriak funtsezkoenak unibertsalak direla eta gizakiok sortzetik ditugula.

2. Abstraktuak direla, hots, perpausen gainazaleko egitura mugatzeko sare konplexu baten bidez elkar eragiten dutela.
3. Zenbait ezagutza-prozeduratan zuzenki eragiten dutela.

Guzti honek, nolabait, onarterazten digu, gizakiok daukagun gaitasun edo ahalmen gramatikal hau autonomoa dela berez, baina hizkuntza osatzerakoan beste zenbait garuneko ahalmenez batera diharduela. Nola liteke hori? Hori azaldu ahal izateko, Gramatika Unibertsalaren hipotesiaren aldeko hizkuntzalari eta zientzilariek zera uste dute: gizakiaren garuna atalka dagoela eratua.

Hizkuntza-gaitasuna autonomoa da. Baina hizkuntza-gaitasun autonomo honek berak ere subsistema autonomo ezberdinak eduki behar ditu, hala nola, lexikoa, osakin sintaktikoa, forma fonetikoa eta forma logikoa. Eta hauek ere beren subsistema autonomoak izan ditzakete. Adibidez, sintaxiaren sistemak halakoak lirateke: uztardura-teoria, gobernu-teoria, kasuaren teoria, eta abar.

Sistema eta subsistema hauek autonomoak direla esaten dutenean zera esan gura dute: aske direla beraiek osatzen dituzten barne-arauak eratzean, eta aske direla, halaber, hizkuntzaren gauzatzean duten iharduera zehatzean.

Baina antza, ez da hizkuntza-gaitasuna soilik horrelakoa. Gizakiaren garuneko ahalmen guztiak ere atalka osatuta bide daude.

Horrela, hizkuntzaren konplexutasuna atalen arteko eraginez azal daiteke, eta hizkuntzaren gauzatze erreala gramatika-arloko, psikologia-arloko, ezagutza-arloko eta abarreko atalen eraginez ondorio bezala jotzen da.

Lehenago esan dudan legez, gramatikaren barru-egitura bera ere atalkakoa litzateke. Eta konplexutasun sintaktikoa, adibidez, gramatikaren sistemak elkar-eragiketaren ondorioa litzateke, sistema bakoitzak bere oinarri orokor bereziak litzukelarik. Horretan legoke, gainera, zientzilarien lana, sistema horiek bilatzen eta mugatzen, eta beraien arteko eragiketaren ondorioak zehazten.

Gramatika, beraz, ez du hizkuntza-gaitasunak soilik osatuko. Sistema askoren elkar-eragiketaren ondorioa izanen da, hala nola, oharmena, oroimena, ikusmena, munduarekiko ezagutza, eta abar. Sistema horiek arau berak dauzkate, besteekiko mendekotasunik ez dutenak, beraiek ere sortzetik dituela gizakiak, hau da, inork zuzenean erakutsibakoak. Baina, era berean, gramatika sistema askea ere badenez, era berezian ikertzeko gai ere bada. Sistema hau aztertzea, hots, gramatika aztertzea da hizkuntzalarien zeregina.

Baina zein froga daukate hizkuntzalari sortzaileek eta psikologoek gizakiaren garunaren atalkako eraketaren alde? Azkeneko urteotan, eta hiz-

kuntzalaritzako arlo ezberdinetako datuak bilduz gizakion garunaren atalkako eraketaz froga ugari ditugula uste dut.

Gramatikaren autonomiak, adibidez, bereziki osakin sintaktikoaren autonomiak, oinarri sendoa lortu du aspaldion, baldintza ez-normaletan gertatzen den hizkuntzaren jabekuntzaren arloan egin diren hainbat lan eta ikerketa ezberdinetatik. Horrela, hizkuntza-trebetasunak ezagutzako beste trebetasunetatik beregain direla esan dezakegu, eta libreki menderatzen dituela gizakiak. Era berean, gramatikaren beste arloetatik ere aske menderatzen dituela gizakiak trebetasun eta prozedura sintaktikoak.

Gizakiaren garunaren atalkako eraketaren aldeko hainbat datu kaleratu da aspaldion. Zehatzago oraindik, osakin sintaktikoaren beraren autonomia frogatzen duten datuak ere. Kean-ek (1988) eta Curtiss-ek (1988) idatzitako lanetan baldintza ez-normaletan gertatutako hainbat hizkuntza-jabekuntza ezberdin azaltzen zaizkigu goiko hipotesia frogatu guran. Datu horietan, adibidez, sintaxiaren eta semantikaren jabekuntza berezirik gertatzen dela frogatzen da, direlako baldintza ez-normalak gertatzen diren hainbat egoeratan. Adibidez, aipagarrienetarikoa oso ezaguna den *Genie* neskatoaren kasua da. Neskatoak, bere senideek indarrez txokoraturik, ez zuen inolako harreman zuzenik izan gizartearekin 13 urte izan zituen arte. Harrezkero, bereziki jagona izan zen eta hizkuntzaren jabekuntza, haurtzaroran egin beharrean, gaztaroan burutu behar izan zuen. Ezin izan zuen *Genie*-k hizkuntza egokitasunez menderatu, ordea. Baina hizkuntza-arloko atzerapena ezin daiteke adimen-arazoan ondoriotzat jo, zeren neskatoaren ezagutza-garapena (hizkuntza-arlokoa izan ezik) egoki samarra izan baitzen. *Genie*-ren lexiko eta semantika-arloko jabekuntza ia arrunta izatera heldu zen. Baina, sintaxi eta morfologia-arloko arauen ikasketa, ordea, larriki kaltetua gertatu zen. Hizkuntza-jabekuntza hasi eta zortzi urtetara (haren jarraipena amaitu-tzat jo zenean), beraren perpaus-ekoizpena zeharo ez-gramatikala zen.

Alderantzizko kasuak ere aurkezten zaizkigu, hots, ezagutza-sistema orokorraren garapenean hutsuneren bat duten haurrek badituztela atzerapenak beraien funtzio semantikoen garapenean, baina ez, esanguratsu behintzat, beraien gramatika-jabekuntzan. Kasu hauetan, gramatika-arloan erdiesten duten ezagutza ez dirudi ezagutza orokorraren arloan lortzen dutenik. Neurologia edo neurolinguistika arloko hainbat datuk ere osakin sintaktikoaren autonomia bermatzen dutela dirudi. Arlo honetako datuak biltzen eta taiutzen saiatu dira Newmeyer (1983) eta Kean (1988), adibidez. Beraien esanak laburturik, arlo honetako lanak hizkuntzalari sortzailleen usteak bermatu egiten dituztela esan dezaket.

Afasiaz jotako gizakiak, adibidez, bi multzo handitan ezberdintzen dira, kalteturik daukaten garunaren aldearen arabera: Broca-rena edo Wernicke-rena deritzena. Batzuren hizkuntza-ekoizpena gramatikatasun-ezak markatzen duela dirudi, hots, ezagutza-arloko eta semantika-arloko kalte

gutxi eta sintaxi-arloko hutsune ugari. Besteen hizkuntza-ekoizpena, ostera, normalizat jo dezakegu sintaxi-arlotik begiraturaz gero, baina hutsune semantikoak jositakoak dago. Badirudi, gainera, Broca-ren aldean kaltetua duten afasikoei semantika-arloko ezagutza bizkortu egiten zaiela.

Ildo honetatik jarraiturik badira zera diotenak: garunaren ezkerreko hemisferioan datzala sintaxi-arloko ezagutza egokia, eta eskumako hemisferioan, ostera, semantika eta pragmatika-alderdiak. Horrela, dirudienez, eskumako hemisferioa kalteturik duten gizakiek esanahi metaforikoak dituzten perpausak literalki interpretatzen dituzte. Beraiek, beraz, egoki ulertzen dute perpausen gramatikatasuna, baina desegoki komunikazioaren pragmatikatasuna.

Halako argudioekin, hizkuntzalari sortzaileek frogatuztat jotzen dute, ez soilik hizkuntzaren atalkako eraketa, ezpada garun osoarena ere; eta hari berari jarraiturik, hizkuntza-gaitasuna, eta agian gizakiak sortzetik ukan ditzakeen garunaren beste zenbait gaitasun ere.

## 1.6. HIZKUNTZA-JABEKUNTZAREN IKERKETA ETA HATSARRE ETA PARAMETROEN EREDUA

Lehenago ere ikusi dugunez, eredu innatista honen arabera, gizakiak sortzetik dauka hizkuntza-gaitasuna, eta beraz, Gramatika Unibertsala ere bai. Gramatika Unibertsalak gizakiok hitz egiten dugun edozein hizkuntzaren jabekuntzaren biderapena gauzatuko du, haurrak entzuten duen hizkuntza-ekoizpenak neurri mugatua baino ez diola laguntzen. Delako Gramatika Unibertsalak, hatsarre unibertsalez gain (hizkuntza guztietarako balagarriak direnak), parametroen bidez haurraren aukeran jarriko ditu hainbat hautapen-egitura. Haurrak, entzuten duen hizkuntzaren arabera, parametroen baloreetako aukeraren bat hautatuko du, ikasten diharduen hizkuntzaren parametroari dagokion balorea ezarritik. Halere, lexikoaren jabekuntza ez dela parametrizatua izango uste da.

Dagoeneko, zenbait parametro ezberdin identifikatzeko ahaleginak egin dira. Hala nola, *pro-drop* parametroa, azaleko egituraren subjektu sintaktikoen gauzatzea edo isiltzea onartzen duena, *buru-parametroa*, kategorietako buruen eta beraien konplementatzaileen egongunea mugatzen duena, *mugadura* parametroa, mugimendua burutzerakoan igaro daitezkeen/ez daitezkeen mugez diharduena, kasuaren ezarketaren norabidea bideratzen duen parametroa, INFLen<sup>6</sup> ezaugarriak mugatzen di-

---

<sup>6</sup> Gobernu eta Uztardura teoriaren arabera INFL funtzio-kategoria da perpausaren burua. INFL funtzio-kategoriak perpaus osoa besarkatzen du eta buru konplexua dauka, gutxienez KMZ (aditz-komuntadura), DNB (aditz-denbora) eta MOD (aditz-modua) adierazten dituelarik.

tuen parametroa, izenordainen eta anaforen gobernu-kategoria zein den zehazten duen parametroa, eta abar.

Halere, gutxi, oso gutxi dakigu parametroez. Parametroez idatzi den gehiena, dena ez esatearren, hipotesi hutsa baino ez da.

Gainera, zenbat diren parametroak eta beraien arteko erlazioak zeintzuk diren, guztiz zehaztu barik dago. Dena da hipotesi hutsa, frogatubako hipotesia. Gainera parametroen bapateko jabekuntza (Otsu 1981) gaur egun baztertuta dago, eta beraien ezarketa ez dela bapatekoa (Roepel 1988) onartzen da. Baina, zein da parametroek ezartzeko behar duten denboraldia? Zein da ezarritako parametroaren balio intralinguistikoa? Oraindik erantzunbako itaunak dira.

Parametro-teoria defendatzen duten hizkuntzalari sortzaileek beste hainbat hatsarre ere onartzen dituzte. Adibidez, parametroek balore neutroren bat daukatela (eta berari lotua gauzatzen dela hasieran parametroa), eta delako balorea bakarrik esperientziaren bidez alda dezakeela haurrak (ikus, adibidez, Atkinson 1987).

### 1.7. HYAMS-EN IKERKETA: *PRO-DROP* PARAMETROAREN JABEKUNTZA

Ikus dezagun, adibidez, *pro-drop* parametroaren jabekuntzaz esan dena. Aipagarria da Hyams-ek (1983, 1986 eta 1989) burututako lana *pro-drop* parametroaren ezarketa dela eta. Hyams-ek (1983) bere doktorego tesian *pro-drop* (berak *KMZ/PRO*<sup>7</sup> parametroa zeritzon) parametroarekin zerikusia izan dezaketen hainbat alderdiren jabekuntza ikertzen saiatu zen.

Haur ingelesek, 18 hilabete dituztenetik 36 hilabete izan arte, sarri askotan, ingelesez derrigorrezkoak diren subjektuak isildu egiten dituztela eta objektuak, berriz, gehienetan gauzatzen dituztela ikusita, subjektuen isiltzea *pro-drop* parametroaren balore neutrotzat jo zuen Hyams-ek. Haurrek orok, beraz, hasierako hipotesizat beraien ama-hizkuntza *pro-drop* balitz bezala jokatuko lukete. Hau da, parametro honen balio neutroak subjektuaren isiltzea onartuko luke.

Subjektuaren berrezartzea *pro-drop* ez diren hizkuntzetan, orduan, entzundako inputeko elementu eragingarrien bidez gauzatu beharko litza-teke.

<sup>7</sup> *KMZ* aditz-komuntadura da. *PRO*, Gobernu eta Uztardura teoriaren arabera, zera da: lau kategoria isiletariko bat. Beste hiru kategoria isilek euren pareko kategoria gauzatuak ere badi-tuzte, *PRO* kategoria isilak, aitzitik, ezin du pareko kategoria gauzaturik izan, beraren ezaugarriak anaforenenak eta izenordainenak baitira. Halere, *PRO* kategoria isilak bere eragina za-baltzen du perpausean.

Hyams-en hipotesi honek eragin handia izan du jabekuntzaren ikerketa eta teorietan. Aipagarriak dira Lebeaux-ek (1987) eta Meisel-ek (1988) egindako kritikak. Meisel-en ustez, aztertu den jabekuntzaren unean, eta Hyams-ek aipatzen duen ekoizpena berrazterturik, subjektuez gain, funtzio-kategoriak (INFL eta KONP<sup>8</sup>), objektuak eta aditzak ere falta dira. Gainera, Meisel-en ustez, haur bakoitzak jokaera ezberdina erakusten du isiltzen duen elementu-motaz: subjektuaren isiltzeak, adibidez, zerikusi handia dauka bere *tema* edo *mintzagai* izaeragaz, berori delarik hain zuzen ezabagarriena komunikagarritasunaren arabera.

Halere, Hyams-ek (1989) bermoldatu egin ditu bere hasierako hipotesiak, eta beraren lanaren garrantzia handia da oraingoz (ikus, adibidez, Hilles 1988). Hyams-ek zera uste du, gramatika-garapena etengabea dela, eta haurrak, jakin barik, helduen gramatika duela helburu. Honelako formula bat proposatzen du hau guztiau adierazteko:

$$G_0, G_1, G_2, G_3, \dots G_s \quad (G_0 = \text{Gramatika Unibertsala da}; G_s = \text{helduena})$$

Bitarteko baloreek, bere ustez, ez lukete aurretik onartutakoa bortxatu behar; halere, goizetiko gramatika bat helduen gramatikatik ezberdina izan daiteke aukeratutako balorearen batean, baina beti onartutako mugen barnean. Gainera, bere ustez, parametro baten ezarketa behin-behinekoa izan daiteke. Horrela gertatuko litzateke *pro-drop* parametroaren lehen ezarketaz *pro-drop* ez diren hizkuntzetan, esate baterako.

Hyams-ek, ingeleseko korpua aztertutik, isildutako subjektuek, *pro-drop* hizkuntzetan bezala, bi ezaugarri dituztela dio: 1. aukerakoak direla, eta 2. inguruak ulerteraz diezazkiguketela. Horrez gain, aro honetan modu-aditzak eta laguntzaileak ere falta direla dio, eta azken hauek delako parametroa, balore zuzenean berrezartzen denean agertzen direla. Bide honi jarraituz, haur ingelesek, lehen aditz laguntzaileak perpaus deklaratzailetan eta galderazkoetan parametroa berrezartzean egiten omen dituzte. Italieraz, ordea, modu-aditzak aditz arruntzat jotzen dituzenez, lehenago agertzen ei dira haurren ekoizpenetan.

Baina nola gertatzen da subjektuaren berrezarketa? Zerk eraginda? Bere ustez, ingelesez, *it* eta *there* subjektu espletiboak<sup>9</sup> berrezarketa prozesuari eragiten diotenak dira. Beraiek liriateke *eragingarriak*, beraz.

<sup>8</sup> Gobernu eta Uztardura teoriaren arabera KONP funtzio-kategoria perpausaren gainetik dago, INFL funtzio-kategoriaren gainetik alegia. KONP funtzio-kategoriak, besteak beste, mendeko perpausetako menderagailu-atzizkiak gauzatzea ahalbideratzen du.

<sup>9</sup> Ingelesez derrigorrezkoa da subjektua perpausaren hasieran gauzatzea. Horrela, perpausa pertsonagabea denean ere, *it* edo *there* subjektutzat jartzea beharrezkoa da.

Halere Hyams-en lanak kritika zorrotzak izan ditu (ikus, adibidez, Meisel 1988) lehenago ere esan dudan moduan, eta bere hipotesi guztiek eztabaidagarriak izaten dira.

### 1.8. RADFORD-EN IKERKETA: FUNTZIO-KATEGORIEN JABEKUNTZA


Baina badira beste alderdi batzuk ere irmo aztertu direnak. Horiatariko bat da, adibidez, funtzio-kategoriaren jabekuntza.

Radford-i (1986) jarraituz, haurrek, hizkuntza ikasten ari direneko aro goiztiarlean, ez dute subjekturik ekoizten. Berak dioenez, ez da egia aro goiztiar honetan *pro-drop* deituriko parametroa bermaturik dutelako subjektuak isildu egiten dituztenik. Radford-ek zera uste du, 19-25 hilabeteetako haurrek ekoizten dituzten esaldiak nagusiek darabiltzaten *esaldi txikiak* bezalakoak direla. Eta direlako *esaldi txiki*en ezaugarriak *esaldi arruntekin* erkatu ezkeron honako hauek dira:

1. Ez dute KONP-ik, eta beraz ez dituzte NZ-hitzak aurreratzen ezta aditz laguntzailerik ere (kontutan izan ingelesari buruz diharduela). 2. Ez dute INFL sistemarik, eta beraz ez dute modu-aditzik, ez aditz laguntzailerik, ezta komunztadura-markarik. 3. Ez dute aditz-kategoriarik izanenik, aditz-kategoriaren derrigorrezkotasuna INFL-en osagarria izatetik baitatorkio<sup>10</sup> bere ustez. 4. INFL"-ek gobernatutako subjektu-nominatibo eza ezagutzen dute. 5. Ezin daitezke aske erabil, txertaturik bai, ordea. 6. Hortaz, *esaldi txiki*en egitura: IzS XS<sup>11</sup> da.

Radford, hainbat haur ingelesaren aro honetako (19-25 hilabeteetako aroa hain zuzen) ekoizpena aztertu ondoren, honako ondorioetara iristen da ekoiztutako ezaugarriari buruz:

<sup>10</sup> Gobernu eta Uztardura teoriaren arabera honako hau da perpausaren egitura (K= KONP, I= INFL, A= Aditza, esp= espezifikatzailea eta osag= osagarria):



<sup>11</sup> IzS = Izen-sintagma; XS = edozein kategoria lexikori dagokion sintagma.



1. Ez dute konplementagailurik (*that*). 2. Galderetan ez dute aditz laguntzaileen aldarazketa<sup>12</sup> gauzatzen. 3. Ez dute NZ-hitzen aurreratzerik ezagutzen. 4. Ez dute *to* infinitiborik. 5. Ez dute modu-aditz laguntzailerik gauzatzen. 6. Ez dute ezeztapen-partikula erabiltzen. 7. Ez dute aditz-denborarik ezagutzen. 8. Ez dute komunztadurarik. 9. Ez dute subjektu nominatiborik gauzatzen. 10. Subjektu *zabalen* gauzatze-eza, sarri behintzat, gertatzen da. 11. Ez dute aditz-sintagmarik (A") izanenik. 12. Ez-mugatuak izan litezke.

Lehenengo hiru ezaugarriak, bere ustez, KONP funtzio-kategoriarik ez izatearen ondorio lirateke, eta beste guztiak INFL funtzio-kategoria ez erabiltzetik letorzkie.

Haurrek, aro goiztiar honetan, beraz, lexiko-kategoriak baino ez lituzkete gauzatuko eta ondorioz, berauen gorengo isladapenak baino ez. Radford-ek beste zerbait ere ikusi zuen, helduen *esaldi txikien* hurrenkera *IzS-XS* izanik, haurren hurrenkera, ostera, *XS-IzS* dela, hain zuzen. Hau, berak dioenez, hizkuntza-garapenaren aro honetan kasu-iragazkirik ez dutelako da. Gogora dezagun kasu-iragazkiak *IzS* guztiak egoki gobernatuak egotea eskatzen duela. Baina, *esaldi txikietan*, INFL-ik ez egotean, ezin du subjektua gobernatu. Ingelesezt, aditzaren aurreko elementua gobernatzen denez, nagusien ordena *IzS-XS* da, eta haurren hizkuntza goiztiarrena, aldiz, *XS-IzS* izan daiteke.

Radford-en arabera 19-25 hilabete bitarteko aro honetan, beraz, haurrek gauzatzen dituzten esaldiak *XS-IzS* egiturakoak dira, *XS* zera izan daitekelarik: *IzS*, *AS*, *AdjS* edo *PrepS*<sup>13</sup>.

## 1.9. FUNTZIO-KATEGORIEN JABEKUNTZARI BURUZKO BESTE IKERKETA BATZUK

Aldridge-k (1986), Radford-en lanak zabaldutako bidea onartuz eta jarraitzeko asmoz, noiz eta nola agertzen den haurrengan INFL funtzio-kategoria ikertu nahi izan zuen. Horretarako, hasteko, INFL sistemaren ezaugarriak zeintzuk diren azalduz hasi zen:

1. INFL, I"-ren (= IS) burua da. 2. INFL mugatua zein ez-mugatua izan daiteke. 3. INFL mugatuak oinarrian sortutako modu-aditzak edo AS-etik INFL-era mugitutako A lexikoa ukan dezake. 4. INFL mugatuak

<sup>12</sup> Ingelesezt galderak gauzatzeraikoan aditz-multzoaren barruan gertatzen den hurrenkera-aldaketari deritzot aldarazketa.

<sup>13</sup> Iz = Izena, A = Aditza, Adj = Adjektiboa, Prep = Preposizioa.

DNB eta KMZ dauzka. 5. INFL ez-mugatuak oinarrian sortutako *to* partikula ez-mugatuak izan dezake. 6. INFL-ek, nahitaez, AS ez-mugaturen bat osagarritzat subkategorizatu behar du.

Aldridge-ren ustetan 26 hilabeteren inguruan (berak adin hau hiru hilabetetan aurreratu edo atzeratu egin daitekeela dio), badute haurrek has-tapen-INFL bat, ez DNB-ik, ez KMZ-ik ez daukatenean. Eta horrela dela frogatzen ahalegintzen da.

Horretarako ea *to* partikula ez-mugatuak eta modu-aditzak noiz agertzen diren ikertzen saiatzen da. Eta zera dio: *do*, lehen modu-aditza, 27 hilabetez agertzen bide dela, *can* eta *will* 30 hilebetekaz eta *shall* 39kaz. Direlako aditz modal hauek, jada, subjektuek eta predikatu ezberdinekaz agertzen ei dira (lehenagoko *don't know* bezalako produkzioak ez-produktibotzat baztertu egin dituelarik). Horiak INFL-en buru direla dio, beti AS-en bat subkategorizatzen baitute. Gainera, galderetan, KONP-era mugitzen dira, INFL badela baieztatuz. *To* partikula 26 hilabetez (hiru hilabete lehenago edo geroago ere izan daitekeela onartuz) agertzen da, eta beti A ez-mugaturen bat subkategorizatzen duelarik, bere INFL izaera bermatzen du eta preposizioetatik bereizten.

Bere ustez, haurrak ezberdinu egiten ditu INFL mugatuak eta ez-mugatuak. Eta horregatik, modu-aditzak perpaus lokabeetan baino ez ditu erabiltzen, eta *to*, aitzitik, mendekoetan baino ez.

Honez gain, aro honetako haurren INFL-ek ez ei du ez DNB-ik ez KMZ-ik. Modu-aditzen iraganak, adibidez, ez ditu 42 hilabete izan arte erabiliko, eta beraz, ez du oraintasun/iragantasan ezberdinketa ordurarte gauzatuko. Komunztadura-markarik ere ez du gauzatzen, horrela, 26 hilabetez, -s singularreko 3. pertsonaren marka ere ez du oraindik erabiltzen.

Laburbilduz, aro honetan haurrak bi egitura ezberdin erabiltzen dituela dio:

#### 1. *IzS-XS*. 2- *IzS-INFL-AS*

Lehenak aurreko aroko *esaldi txikiak* lirateke, bigarrenak, ostera, denborarik eta komunztadurarik gabeko hastapen INFL-dunak lirateke, eta aro honetan agertuko lirateke lehen aldiz. Bere ustez, bi aro ezberdinetako berezitasunak batera agertzea guztiz arrunta litzateke.

Haur frantses-aleman elebidun biren datuak aztertu eta gero, Parodi (1989) ere Radford-ek erakutsitako bideetatik abiatzen da. Hitz biko ekoizpena azterturik, haur biek *IzS* eta *XS* egiturak bereizten dituztela dio. Bere ustez, *IzS-XS* hurrenkerako esaldiak ekoizten dituzte. Gainera, *XS* mul-tzoko elementuak predikatuak dira, eta *IzS*-koak, aldiz, lehengo argumentuak. *XS*-ak predikatutzat ihardun ditzakeen sintagmen isladapenak direla dio, eta ez dutela, beraz, AS-en isladapena izanetik.

Baina, bere ustez, haurrek osagaien izaera menderatzen duten eran, ez dute ordenarena menderatzen. Parodi-k aztertutako haur bakoitzak joera bera ei du erabiltzen dituen hizkuntza bietan, baina joera hori aldatu egiten ei da haurraren arabera. Horrela, haur batek IzS-XS ordena erabiltzen duen bitartean, besteak, ordena hau ere erabiltzen duen arren, XS-IzS ordena darabil gehienetan. Hau ikusirik zera dio, badirudiela haur bakoitzak nahi duen ordena aukera dezakeela (haurrak erabiltzen dituen hizkuntza bietan ordena bera gorde arren), eta beraz, argi dagoen gauza bakarra, osagai bien arteko ezberdintasuna ezagutzen duela dela.

Radford-ekin bat dator aro honetako produkzioak *esaldi txikitzat* hartzerakoan. Ados dago, orobat, aro honetan haurrek erabiltzen dituzten kategoriak buru lexikoen isladapenak direla esatean, eta INFL eta KONP funtzio-kategoriak ez dituztela erabiltzen baieztatzerakoan (horrela, haur baten frantsesaren erabilera, 3;08 adinaz, ahuldu egiten denean, funtzio-kategoriak ere desagertu egiten zaizkiola dirudiela dio). Baina, ordena ezberdinen erabilera tinkoan oinarriturik IzS eta XS osagaien arteko ezberdintasuna ezagutu egiten dutela uste du.

Anitz hitzeko aroko datuak aztertzean, INFL-en lehen agerrera oraingoz A2<sup>14</sup> perpaus-ereduetako ordena agertu baino lehenago gertatzen ei da. Baina INFL-en agerpen sistematiko eta naharoa A2 ordena ekoizten dutenetik aurrera gertatzen ei da. Hau ikusirik, zera uste du, hizkuntzaren ordena-ereduak ekoizten hasten direnean INFL eta KONP funtzio-kategoriak ere erabiltzen dituztela. Gainera, hitz biko aroan hizkuntza biak egituraren arabera ezberdintzen ez zituzten arren, anitz hitzeko aroan, aitzitik, egoki ezberdintzen dituztela dio. Honez gain, berak aztertutako haurren datuetan, hitzordenaren erabileraren eta kasu-marken agerriaren arteko erlazioa badela uste du.

Meisel-ek (1990) hiru haur frantses-alemaniera elebidunak aztertu ondoren zera dio hitz biko aroz: haurrek jokaera ezberdinak izan ditza-ketela, baina bakoitzak bereari beti utsiz, elebiduna izan arren. Horrexe-gatik uste du, ez dela ezinezkoa pentsatzea aro hau beharrezkoa den materiale lexikoaz jabetzeko baino ez dela, geroago gramatika-hatsarreak erabiltzeko eta parametroen baloreak nola ezarri behar diren jakiteko gai izan dadin.

Meisel-en ustetan, jabekuntzan zehar, aldi batzuetan ia aldaketarik ez gertatzea, eta beste aldietan, oster, gramatika-arlo ezberdinetako bapateko garapenak gertatzea, haurren hitz-ekoizpen goiztiarra gramatika-hatsareek bideratzen dutenaren froga litzateke. Gramatika-ezagutza, beraz, oso

---

<sup>14</sup> A2 izenez ezagutzen den fenomeno hainbat hizkuntzatan gertatzen da, alemaniera barne. Aldaketaren arrazoiak argi ez dauden arren, aditza perpausaren bigarren egongunera mugitzeari deritzo A2 (aditza bigarrena).

goiz izango lukete haurrek, eta ez litzateke, inola ere, gramatikalizazio-prozeduraren baten ondorioa.

Horrela, Brown-ek adierazitako II-IV hizkuntza-heldutasun mailetan, adibidez, haurrek aditz-inflexioa eta aditz-mugatasuna hizkuntza bietan eta ia aldi berean (hilabete bat edo biren aldia) burutzen dituztela ikustea, garapena urratsez urrats bideratzen denaren ustearen aurkako froga litzateke. Horrez gain, bapateko jabekuntza honek, parametroen ezarketa frogatuko luke. Halere, haurrek bospasei hilabeteko aldia inflexio-atzizkiak erabiltzeko beharko dutela esaten du.

Bere ustez, gramatika-ezagutza eta jokaera semantiko-pragmatikoa batera dituzte haurrek. Baina ez du onartzen, informazio pragmatikoan oinarriturik gramatika-ezagutza eraikitzen dutenik. Haurrek duten gramatika-ezagutza helduen antzekoa litzateke, beraz.

Horrela, anitz-hitzeko aroan, eta ebbl-a 1,7 - 2,0 artekoa dutenean, komunztadura emankor darabilteela esaten du, eta aro honetan, beraz, funtzio-kategoriarik gabeko aldia oso laburra dela esan daitekeela ere bai.

Lebeaux-ek (1989), ordea, berak hizkera telegrafikoa deitzen duen haur gazteen hizketa harreman tematikoen gauzatze hutsa baino ez dela dio. Berarentzat, hizkera honek ez dauka ez ezabatutako osagairik, ezta kategoria hutsik. Funtzio-kategoriez biluztutako helduen perpausen egitura daukake.

Platzack-ek (1990) suedieraren jabekuntza hiru haurrengan aztertu du. Horretarako 20 hilabete zituztenetik 42 hilabete egin arte egin izan zitzaizkien grabaketez baliatu da. Haur hauek, 20-27 hilabeteetako tartean (hots, hitz biko aroan, eta ebbl-a 2,00 baliora heldu baino lehen), ezaugarri bereziak dituen hizkera erabiltzen dutela dio. Hona hemen direlako ezaugarriak:

1. Mugatasun-kontzeptuak ez du paper sintaktikorik jokutzen.
2. Ez dauka oraindik A2 fenomenorik, helduen hizkuntzan den bezalaxe. Ez dago subjektu-aditz aldarazketarik eta osagai bat baino gehiago joan daiteke aditzaren aurrean.
3. Ez dago mendeko perpausik.
4. Aditz ergatibo<sup>15</sup> baten argumentua ezkerretara zein eskumatara gerta daiteke.
5. Kanpoko argumentua barruko argumentuaren ezkerretara zein eskumatara gerta daiteke.
6. Ez dago subjektu espletiborik.

Hau guztiau kontutan izanik, suediera goiztiarrean ez dela funtzio-kategoriarik dio, eta hemen azaldutako esaldiak AS-en muga barruan daudela. Horrela, Lebeaux-ek eta Radford-ek esandakoak batu egiten dituela uste du, eta aro goiztiar honetan ekoizitakoak AS-ak direla.

<sup>15</sup> Ergatibo terminoa erabiltzean, suedieraren berezitasun zehatzaz dihardu.

Halere, Platzack-ek onartu egiten du aztertutako 200 esaldietako 31tan (% 16, beraz) AS-en gaisetiko funtzio-kategoriaren bat badela dirudiela, aditz mugatudun esaldiak baitira. Salbuespen hauek, halere, haur bakar batek baino ez ditu gauzatzen, eta denak, bere ebbl-a handiena denean.

Clahsen-ek (1990), aitzitik, haur alemanen hainbat datu aztertu ondoren, INFL-en ezaugarriak (DNB, KMZ, ...) funtzio-kategoria ezberdinak direla eta hauek sintaxian gorengo isladapenak gauzatzen dituztela onartuz, zera uste du: INFL (I<sup>n</sup> barne) behintzat badela alemaniera goiztiarrean, eta ezin daitekeela funtzio-kategoria-osagairik (inflexioak, modu-aditzak, A2-ren ondorioak, ...) gabeko aro bat argiro muga alemanieraren garapenean.

Bere ustez, haurren gramatika goiztiarrean funtzio-kategorien izatea/ez izatea haurrak ikasten duen hizkuntzaren araberakoa da. Horrela, ingelesa edo suediera ikasten diharduten haurrek funtzio-kategoriarik gabeko gramatikak ardaztuko duen sintaxi-garapeneko aro bat ukan dezaketen bitartean, morfologia eta inflexio aberatsagoa duten hizkuntzetan, alemanieraz adibidez, gaitzagoa da halako aroa ezagutzea.

Halere 1990.eko udan Budapest-en egindako *Fifth International Congress for the Study of Child Language* izeneko biltzarreko Berman-ek eta Meisel-ek zuzendutako *Early Grammatical Development* mintegian izandako lanen aurkezpenen eta eritzien eztabaiden ondoren, badirudi haurren hizkuntza-jabekuntzaren ikerkuntzaren arloan diharduten ikerlaririk gehienak ados daudela haurren gramatika goiztiarrean funtzio-kategoriarik ez dela segurtatzean (edo guztiak ez direla, bederen).

Halere, adostasun honen gaisetiko, badira erantzun argirik oraindik ez duten hainbat arazo:

- Zer da gramatika goiztiarrean gauzatu barik uzten dena?
- Hizkuntza guztien jabekuntza-garapenean era berean gertatuko ote da?
- Ezberdintasunik balitz, zeintzuk lirake ezberdintasunak? Zein hizkuntzatan? Zergatik?
- Funtzio-kategorien ez-gauzatze hau prozedura-murrizpen bezalako faktore ez-gramatikalen ondorioa ote? Ala hizkera telegrafiko hau, berriz, fenomeno guztiz gramatikala ote da?
- Hitz-elkarketa goizetikoek haurrek helburutzat duten hizkuntzaren ezaugarrien murrizpenak ote dituzte?
- Haurren goizetiko produkzioak Gramatika Unibertsalaren hatsarreen arabera gauzatutakotzat jo ote daitezke?
- Hala balitz, zer ote lirake? *Esaldi txikiak* ala AS-ak bezalakoak?
- Zerk gaitzen du haurra lehenago ez dituen funtzio-kategoriez jabetzen? Beste hurrekiko eraginak? Ezagutzaren garapenak? Gramatika Unibertsalaren hatsarreen heldzeak? Zenbait lexiko-egitura eragingarri zehatzen jabekuntzak?

- Zelan eta noiz jabetzen da haurra ez dituen funtzio-kategoriez?  
Haur guztiengan prozedura berbera gertatzen ote da? Hizkuntza guztietan gauza bera gertatuko ote da?

### 1.10. MEISEL-EN IKERKETA: JABEKUNTZA MAILAKATUA

Meisel-ek (1992a) hauetariko zenbait itauni ihardesteko asmoz, bere ikerketak zehazteko eta sakontzeko haurren jabekuntza-garapenean ondo-ko arloak ikertzea proposatzen du, besteak beste, noski. Hona hemen berak adierazirikoak:

- Komunztadura eta mugatasun ezaugarrien gauzatzea.
- INFL eta KONP funtzio-kategorien gauzatzea gramatika zehatzean.
- Mugatasun-parametroaren ezarpena.
- X" egituraren isladapen guztien buru-ezarpenen hautapena.

Bere ikerketan, haur frantses-aleman elebidunak azterturik, honako ondorioetara heltzen da:

Hasiera baten, haurren hizkuntza *aurre-sintaktikoa* dela, hots, proto-hizkuntzaren antzekoa dela, harreman sintaktikorik gabekoa. Ondoren, haurren ekoizpena Gramatika Unibertsalaren gramatika-hatsarreek bideraturikoa dela, eta kategoria eta gramatika-arauen agerpena prozesu autonomoa dela, gaitasun pragmatikotik berezia.

Haurrek erabiltzen duten lehen esaldi-egitura AS-ena da, subjektua AS-en espezifikatzaile-gunean gauzatzen dutelarik. Fenomeno hau 2;00 edo 2;02 adinaren inguruan gertatzen ei da.

Ondoren haurrek aditz-komunztadura eta aditz-denbora, ordena horretan, erabiliko dituzte. Une honetan funtzio-kategorien erabilera gauzatzen hasten dira. Lehena INFL funtzio-kategoria da. Azkena, geroago darabiltelarik, KONP funtzio-kategoria izango da.

Horrela, Meisel-en eritziz, haurren hizkuntzaren gramatikatzea, gaitasun pragmatikotik berezirik garatzen den prozesu autonomoa da, eta beraren garatzeak perpausaren egitura hierarkikoa isladatzen du.

### 1.11. OUHALLA-REN EKARPENA

Ouhalla-k (1992) istripu edo garun-kalte batez gramatikatasuna galtzen duten edo erabiltzen ez duten gizakien hizkuntza ikerturik eta gramatikatasun-ezaren fenomenoak hizkuntzaren jabekuntzan erkaturik zera uste du: haurren hasierako hizkuntza funtzio-kategoriarik gabekoa dela.

Egoera berbera gertatzen ei da, bere ustez, garun-kalteren bategatik gramatikatasun-eza ezagutzen duten gizakien hizkuntzan eta hizkuntza lehen aldiz ikasten ari diren haurren garapenean.


Baina eremu honetako ikerketa sakonduz, zera ere badio: erabiltzen duten perpaus-egitura aditz-sintagmari dagokiona dela. Baina egitura honen buru-ezarpena oraingoz hautatu barik dutenez, era ezberdinetan erabil dezaketela AS-en egitura.

Ouhalla-k, une honetan erabil ditzaketen AS egitura ezberdinak ikertzean, ondoko hauek proposatzen ditu, subjektua espezifikatzaile-gunean eta osagarria osagarri-gunean agertzen direla kontutan izanik:


—S(subjektua) —A(ditza) —O(sagarria)

A - O - S  
S - O - A  
O - A - S


(4a) S - A - O




(4b) A - O - S



(4c) S - O - A



(4d) O - A - S



Kontuak horrela, ikerketaren zereginak handiak direla iruditzen zait.





## 2. Hipotesien aurkezpena

Atal honetan, beste hizkuntzetan haurren hizkuntza-jabekuntzaren garapenaren arloan ikertutakoa eta aurkitutakoa ikusirik, haur euskaldunen gramatikaren garapena zelan uste dudan gertatuko dela azalduko dut.

Hona hemen itxaroten ditudan hipotesiak zehazturik:

### 2.1. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA GOIZTIARRA

Haurrek ikasten diharduten euskararen oinarrizko gramatika-ezaugarriak oso une goiztiarrean erabiliko dituztela uste dut. Hiru urte betetzen dituztenerako, orohar, dagoeneko gramatika-ezagupenak erabiliko dituzte, eta gai izango dira euskara egoki erabiltzeko. Gai izango dira egundo entzun ez dituzten perpausak burutzeko, eta gai izango dira, nolabait behintzat, gramatika-zuzenketak egiteko, hots, euren hizkuntza zuzentzeko. Baieztapen honek ez du esan nahi haurrek hiru urtez gramatika osoaren jabekuntza edo erabilera egina izango dutenik, oinarrizko jabekuntza edo erabilera burutua izango dutela baino. Ondoko azpiataletan oinarrizko gramatikatzat zer ulertzen dudan zehaztuko dut.

Bestalde, jaiotzetik hizkuntza bi ikasten diharduten haurrek, delako jabekuntza edo erabilera hizkuntza bietan lortuko dutela uste dut. Halere, ez dut guzti hori baieztatu ahal izango, ikasten ari diren hizkuntza bietariko bat baino ez dudalako aztertuko: euskara, hain zuzen ere.

### 2.2. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA MAILAKATUA

Haurrek gramatikaren erabilera goiztiar hau aro ezberdinetan egingo dutela da nire bigarren hipotesia. Oinarrizko gramatikatzat jo dudan erabilera gaitasuna ez dute haurrek bapatean gauzatuko, aro ezberdinetan baino.


Aroez hitzegitea bezain zilegi, gramatika-ezaugarriak urratsez urrats, Gramatika Unibertsalak bideratzen duen eran, gauzatzen direla esatea litzateke. Eta horixe da, hain zuzen, aroez dihardudanean adierazi nahi dudana.

Uste baldin badugu euskararen gramatikaren jabekuntza-garapenean aroak edo urratsak egingo dituztela hurrek, aro horietan zein hizkuntza-egitura eta zein gramatika-ezaugarri erabiliko duten eta zein hizkuntza-egitura ez duten erabiliko zehaztu beharko dut euskararen gramatikaren arabera.

Pentsatzekoa da, halaber, gramatikaren erabilpena edo jabekuntza mailakatua bada, inolako gramatika-ezaugarrikerik erabiliko ez duten aro bat ere izanen dutela.

Horrela, holofrasearen ondoren, hitz biko egiturak ekoizten hasten direnean, eta beste hizkuntzetan gertatzen dena ikusirik, haur euskaldunek beteko dituzten aro ezberdinak perpausaren egitura hierarkikoak mugatuko dituela uste dut.

Gobernu eta Uztardura teoriaren arabera perpausaren egitura (5)ean ikus dezakeguna denez, pentsatzekoa da ondoko aroak, behinik behin, eskatzen dituela:



- Gramatika-ezaugarrikerik eta sintaxi-aurerik gabeko aroa.
- Aditz-sintagmaren erabilerak mugatuko duen aroa.
- INFL funtzio-kategoriaren erabilerak mugatuko duen aroa.
- Eta azkenik, KONP funtzio-kategoriaren erabilerak mugatuko duen aroa.

<sup>16</sup> Perpausaren egitura hau orokorrean onartu behar da, jakina baita hizkuntza ezberdinek espezifikatzaileak eta osagarri ezberdinak (K'-ena I<sup>16</sup>, I'-rena A<sup>16</sup> eta A'-rena osag. deitu duguna) egongune ezberdinetan, ezkerretara zein eskumatara jar ditzaketela.

Deskriba dezadan, bada, itxaroten ditudan aro edo urrats hauek banan banan.

### 2.2.1. Gramatika-ezaugarriarik eta sintaxi-araurik gabeko aroa

Lehen aro edo urrats baten, hitz biko ekoizpenak burutzen hasten direnean, haur euskaldunek ez dute ez INFL ez KONP funtzio-kategoriarik erabiliko. Ezta aditz-kategoriarik ere. Areago, ez dute inolako gramatika-ezaugarriarik erabiliko. Hizkuntza-mota hau, bada, gramatika-ezaugarriarik gabeko hizkuntza auresintaktikoa litzateke. Uste orokor honen ondorioz, haurrek aro honetan gauzatzen duten hizkuntza auresintaktikoa ez dute inolako sintaxi-arauen bidez eraikiko, ez inolako gramatika-ezaugarrien bidez. Hona hemen aro honetako ekoizpenak izango ez duen hainbat berezitasun:

INFL funtzio-kategoriaren eta aditz-kategoriaren egiturak ez erabiltzean, beraien espezifikatzaileak ere ez dute erabiliko, eta beraz, euskararen eremuan, ez dute gramatika-kasurik izango, argumentuek INFL-en eta AS-en barruan hartzen baitute kasua. Horregatik, beraz, lehen aro honetan, ez dute haurrek ez ergatiboaren, ez absolutiboaren, ezta ere datiboaren erabilerarik egingo.

Ez dute, ezta, aditz ez-jokatuaren aspektu ezberdinen erabilpenik egingo. Erabilpena gerta dadin bi aspektu-marka ezberdinen erabilpen kontrajarria eskatzen dut. Adibidez, ez dituzte aspektu ez-burutua eta gertakizuna adierazten duten aspektu ezberdinak erabiliko. Gainera, aspektu burutuaren erabilpena egin arren, ez dute aspektutasunaren zentzuaz egingo, ekoizpen honetan, aditza lexema hutsa baino ez baita izango (kontutan izan aspektu burutua adierazten duen markaren erabilera hau helduen hizkuntza mintzatuan ere horrela gertatzen dela).

Ez dute adizki jokatuak adierazten duten mugatasun eta komunztadura ezaugarriarik erabiliko, berauek INFL-en barruan ekoizten baititugu. Adizki jokatuak, euskaraz agertzen duten ezaugarri guztiekaz (komunztadura, denbora, modua, besteak beste), bete-betean INFL funtzio-kategoriaren barruan ekoizten ditugula onartuko dut, beraz. Aro honetan erabil ditzaketen adizki trinkoak edo laguntzaileak, bada, aditz lexema hutsak izango dira.

Ez dute, ezta, aditz perifrastikodun ezezko perpausetan gertatzen den aditzaren hurrenkera-aldarazketa gauzatu ahal izango.

KONP funtzio-kategoriarik ez erabiltzean, ezingo dute KONP-eko espezifikatzaile mugimendurik gauzatu, eta beraz, ezingo dituzte NZ-hitzak egongune horretan gauzatu, helduen hizkuntzan NZ-hitzak, orokorrean, egongune horretara mugitzen direla onartzen baitugu (ikus Ortiz de Urbina 1986 eta 1987).

Ezingo dute, ezta, konplementagailurik erabili, ez baitute berauek ahalbideratzen duen KONP funtzio-kategoriarik erabiliko. Ez da beraz, mendeko perpaus denboradunik agertuko.

Adizki ez-jokatuei eransten zaizkien menderagailuak ere ez dituzte aro honetan erabiliko.

Guzti horregatik, darabilten hizkuntza auresintaktiko honetako hitz biko egiturak honelakoak izan daitezkeela uste dugu:

Orokorrean, lau lexema-kategoria ezberdin erabili ahal izango dituzte: izenak, adjektiboak, adberbioak eta aditzak.


Hitz biko ekoizpenek ez dute hurrenkera jakin bat izango, lau kategoria ezberdinetako hitzak ezein hurrenkeratan ager daitezkeelarik. Beste berba batzuekaz esanda, ez dute sintaxi-egiturarik erabiliko, eta burutzen dituzten esaldiek gramatika eta sintaxi-arauetatik kanpoko hatsarrez osatuak izan beharko dute.

Beharbada, hitz biko ekoizpenak, hurrenkerari dagokionez, mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez eraikiko dituzte. Honekin zera esan nahi dut: haurrak, nolabait, informazio ezaguna ekoizpenaren hasieran gauzatuko duela, eta eskatzen edo adierazten duen informazio berria, aitzitik, azkenean. Horrela, deiktikoak hasieran erabiliko dituzte. Nolanahi ere, ez dut uste, hasierako mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatiko hauen erabilera hurrengo sintaxi-garapenaren oinarria izango denik.

### 2.2.2. Aditz-kategoriaren erabilerak mugatzen duen aroa

Bigarren aro edo urrats baten, zilegi denez, gramatika-ezaugarriak erabiltzen hasiko dira haurrak. Baina zeintzuk izango dira erabiltzen hasiko diren gramatika-ezaugarriak?

Nire ustez haurrek erabiliko duten lehen gramatika-egitura aditz-sintagmarena (AS) izango da. Gramatika-ezaugarri honen erabileraz baliaturik mugatuko dut bigarren aro hau. Horrela, haurra perpausaren egitura erabiltzean oinarritik hasiko da (ikus (6) egitura).




Horrela, hipotesi honen arabera, haurrek, 2 urte duten sasoiaren inguruan, A'' edo AS-en egituraren erabilera egingo dute.

Horregatik, aro edo urrats honetan, orain arte erabili dituzten aditz-lexemez gain, zenbait adizki laguntzaile eta trinko erabiltzen hasiko dira. Gehienetan direlako adizki jokatu hauek orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak izango dira. Halere, adizkiok, trinkoak zein laguntzaileak, komunztadurarik gabekoak izango dira. Esan gura dudana zera da: haurrek ez dituztela berauek egoki erabiliko, komunztaduraren arabera begiraturik behinik behin. Adizki hauek edozein gramatika-pertsonari lotuak erabiliko dituzte, ordea.

Adizki jokatu hauek, nolabait, aditz-kategoriaren eragingarriak lirateke, eta aditz-lexemak eta adizki jokatuak bereziko lituzkete.

Aro honetan, eta AS-en erabilera buruturik, gramatika-kasuen eta gainerako kasuen erabilera ere hasiko da. Horrela, haurrak, ergatiboa, absolutiboa zein datiboa erabiltzen has daitezke. Halaber, gainerantzeko kasuak ere erabiltzen hasiko dira: genitiboak, inesiboa, eta abar.

Guzti horregatik, goian jarri dudan egitura (7) ere bihur daiteke.



Baina, adibidez, gramatika-kasuak erabiltzeko gai izango direla esateak ez du nahitaez erabiliko dituztenik esan gura. Kontutan izan behar dugu, esate baterako, ergatiboaren kasuaren erabileran zailtasun fonetikoak ere gerta daitezkeela.

Gainera, gogoan izan behar dugu balitekeela haurrek aurreko aroko egiturak ere erabiltzea, bigarren aro honetan lortu dituzten egitura zein gramatika-ezaugarri berriak beti erabili beharrean.


Era berean, zer ez duten erabiliko aipatzeari ere gomenigarri deritzot. Hona hemen:

INFL funtzio-kategoriaren egitura eta INFL-i dagozkion gramatika-ezaugarriak, hala nola, aditz-komunztadura, aditz-denbora eta aditz-modua.

KONP funtzio-kategoriaren egitura eta KONP-i dagozkion gramatika-ezaugarriak, hala nola, denboradun mendeko perpausetako subordinagailuak (hemendik aurrera konplementagailuak).

Aditz-aspektu ezberdinak ere ez dut uste aro honetan erabiliko dituztenik, berauen agerrera aditz laguntzaileen erabileraren ostean itxaroten baitut.


Bestalde, mintzagaia ere erabiliko dutela pentsatzekoa da. Fenomeno hau aurreko aroan erabili dutela gogoratzerik baino ez dago. Eta aurreko aroan gertatu den moduan, orain ere mintzagaia esaldiaren hasieran gauzatuko dutela uste dut (ikus (8) egitura).



### 2.2.3. INFL funtzio-kategoriaren erabilerak mugatzen duen aroa

Hirugarren aroan, nire ustez behintzat, hurrek erabilera berriak egingo dituzte gramatika-ezaugarriei eta sintaxi-egiturari dagokienez. Horrela, INFL funtzio-kategoriaren egitura (I" edo INFLS) eta berari dagozkion gramatika-ezaugarriak erabiltzeari ekingo diote.

Kontutan badugu bigarren aroan AS-en erabilera lortu dutela, eta nire hipotesiak egituraren erabilera perpausaren hurrenkera hierarkikoak bideratzen duela diola, hurrengo urratsa INFLS erabiltzea da (ikus (9) egitura).




INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak erabiliko dituztela esaterakoan zera esan nahi dut: aditzak komunztadura eta guzti ekoizteko gai izango direla. Halere, bada egin beharreko argipen bat, hots, INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak konplexuak direnez —gogora dezagun funtzio-kategoria honek subjektuari, zehar-osagarriari zein osagarri zuzenari dagozkien aditz-komunztadurak, aditz-denbora eta aditz-modua besarkatzen dituela gutxienez— pentsatzekoa da gramatika-ezaugarri guzti hauek ez direla bapatean agertuko, era mailakatuan baino. Horregatik, nire ustez, agertuko den lehenengoa subjektuari dagokion aditz-komunztadura izango da.

Aditz-aspektu ezberdinak ere behin aditz laguntzaileak komunztadurra-esanguraz erabili ondoren agertuko direla uste dut, eta beraz, aro honetan ikusiko ditugun eritzikoa naiz.


Erabiliko ez dituztenak, aitzitik, KONP funtzio-kategoriari dagozkion egitura eta gramatika-ezaugarriak dira. Oraingoan, beraz, ez dute konplementagailurik (denboradun mendeko perpausetako subordinagailurik) erabiliko.

Bestalde, mintzagaia, aurreko aroetan gertatu den bezalaxe, erabiltzeko gai izanen dira. Mintzagaia, bada, une honetan darabilten egiturari ezkerretan atxikirik gauzatuko dutela uste dut (ikus (10) egitura).



#### 2.2.4. KONP funtzio-kategoriaren erabilerak mugatzen duen aroa

Laugarren aroan, perpausaren hurrenkera hierarkikoa ikusirik, KONP funtzio-kategoriari dagozkion egitura eta gramatika-ezaugarriak erabiliko dituztela uste dut. Baina kontutan izan behar dugu euskararen eremuan, Ortiz de Urbinak (1986, 1987, 1988) dioenez, kategoria honen burua ezkerretan gauzatzen dela (ikus (11) egitura).




Egitura hau gauzaterakoan, dagoeneko mintzaide helduek egiten ditugun bezalako perpausak ekoitziko dituzte. Hau guztiau, nire ustez, nabari geratuko da, besteak beste, galdegaidun perpausak zein NZ-galderak osatzera-koan. Kontutan izan dezagun KONPS-en erabilerak egitura-egongune berri baten erabilera ere badakarkiola. Horrela, haurrek, hemendik aurrera, hainbat fenomenotan erabil dezaketen ezkerteratzeko mugimenduaren lurreragunea ezagutuko dute: K" egituraren espezifikatzailea hain zuzen. Egongune horretara, adibidez, galdegaiak zein NZ-hitzak aurreratu ahal izango dituzte.

Honez gain, KONP funtzio-kategoriaren erabileraren bidez, haurrek konplementagailuak erabiltzeko gaitasuna izanen dute. Horrela, denboradun mendeko perpausak gauzatu ahal izanen dituzte. Pentsatzekoa da hasieran erabiliko dituzten konplementagailuak *-ela*, *-en* eta *-elako* izango direla.

Bestalde, INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarri berriak dagoeneko erabiltzea ere baliteke. Gogora dezagun INFL funtzio-kategoriaren erabileraren hasieran subjektuarekiko aditz-komunztadura baino ez dela agertuko esan dudala. Une honetan beraz, baliteke beste komunztadura-motak ere agertzea.

Bestalde, mintzagaia delakoa ere erabiltzeko gai izango dira. Aurreko aroetan gertatu den bezalaxe, mintzagaia, une honetan darabilten egiturari ezkerretan datxekie, hots KS-ari (ikus (12) egitura).



### 2.3. FUNTZIO-KATEGORIEN JABEKUNTZA MAILAKATUA

INFL eta KONP funtzio-kategoriaren konplexutasuna ikusirik, haurrek kategoria hauen jabe-kuntza era mailakatuan gauzatu dutela uste dut. Jarraian banan banan zehaztuko ditut fenomeno biak.



### 2.3.1. INFL funtzio-kategoriaren jabekuntza mailakatua

Lehenago ere aipatu dudan legez, INFL funtzio-kategoriak besarkatzen dituen gramatika-ezaugarrien nolakotasuna konplexutat jotzen da euskararen eremuan. Gutxienez, subjektuarekiko, osagarri zuzenarekiko eta zehar-osagarriarekiko aditz-komunztaduraz gain aditz-denbora eta aditz-modua ere bere ezaugarritzat jotzen ditut (ikus Laka 1988, adibidez).

Perpausaren egitura aro ezberdinetan erabili badute hurrek, zilegi deritzot kategoria honen konplexutasuna urrats ezberdinetan erabiliko duten hipotesia eusteari.

Horrela, gramatika-ezaugarriok ordena honetan ager daitezkeela uste dut: aditz-komunztadura, aditz-denbora eta aditz-modua.

Bestalde, aditz-komunztaduraren arloan, subjektuarekiko komunztadura lehena izango dela uste dut.

### 2.3.2. KONP funtzio-kategoriaren jabekuntza mailakatua

KONP funtzio-kategoriaren inguruan INFL-arenean beste gramatika-ezaugarri biltzen ez bada ere (ikus Ortiz de Urbina 1986, 1987, 1988, adibidez), jarraian aipatuko ditudan fenomenoek konplexutasuna ikusirik berarek mailakaturik erabiliko dituztela uste dut.

NZ-galderak<sup>17</sup>, denboradun mendeko perpausetako konplementagailuak (*-en, -ela, -elako,...*), mendeko zehar-galderak<sup>18</sup> (perpaua berean NZ-hitzaren aurreratzeaz gain konplementagailua ere ekoiztea) eta urruntasun luzeko mugimendua<sup>19</sup> (mendeko perpausiko NZ-hitzak perpau nagusiko KONP-en espezifikatzaile-egongunea edo NZ-hitzaren egongunea betetzea), ez dut uste une berean ager daitezkeen fenomenoak direnik. Berarek erabilera, ene ustez, mailakatua izango da.

Konplementagailuak eta NZ-hitzen aurreratzea hasieran ikusiko ditugula uste dut, mendeko zehar-galderak eta urruntasun luzeko mugimendua deritzan fenomenoak, ostera, beluago agertuko zaizkigulakoan nago.

## 2.4. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA-GARAPEN GOIZTIARRA

Gramatikaren jabekuntza-garapena aroz aro, mailakaturik, gertatuko dela azaldu dut dagoeneko, eta beraren oinarrizko jabekuntza hiru urtera-

<sup>17</sup> Halakoak dira, adibidez: *Nork ekarri dizu kotxe hori?; non jezarri da zure laguna?; ...*

<sup>18</sup> Hona hemen adibide bi: *Badakizu non jarri dudan etxea?; ea zer daukagun gaur bazkaltzeko (esan dizut); ...*

<sup>19</sup> Hona adibideak: *Nor uste duzu etorri dela?; zer esan duzu ekarri duela?; ...*

ko lortuta izango dutela ere esan dut. Baina noiz hasiko da jabekuntza-garapen hau?

Beste hizkuntzetan gertatzen dena ikusirik, gramatika-garapena urte bi dituztenean burutzen hasiko dela uste dut.

Besteak beste, Bickerton-ek (1991) dioenaren arabera, bi urtegar, bi urteren inguruan hain zuzen, garunaren heltze neurologikoa gertatzen da hurrengan, eta fenomeno honek haurrei Gramatika Unibertsalaren hatsarreak erabiltzen hastea ahalbideratzen die.

Era berean, eta Meisel-ek (1992) dioenez, gramatika-garapen hau aurretik haurrek erabili dituzten hatsarre semantiko-pragmatikoetatik berezirik agertuko delakoan nago. Gramatika-garapena, beraz, autonomia izango da, Gramatika Unibertsalaren hatsarreei dagokielarik, eta ez, hatsarre semantiko-pragmatikoei.

## 2.5. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA-GARAPENENKO ZAILTASUNAK

Guzti honez gain, haurrek hainbat gramatika-ezaugarri bereganatzera-koan edo erabiltzerakoan zailtasunak izan ditzaketela ere uste dut. Interesgarria litzateke zailtasun horiek, partikularrak ala orokorrak diren ikustea, hots, haur guztiengan berak direnentz.

Gainera, nik zailtasuntzat aurre-hartu ditudan fenomeno horiek, zehatzago arakatur, zailtasunei ala estrategia bereziei dagozkienak diren argitzen ahalegindu beharko dut, bietarikoak aurkitzea ere baliteke eta.

Beste barik, eta jakinik beste hainbat gauza interesgarri eta aberasgarri ere agertuko zaizkigula, hurrengo ataletan aurkezturiko hipotesien baieztatzea edo ezeztatzea suposatuko duen azterketa eta korpusaren zein metodologiaren aurkezpena egingo ditut.

### 3. Korpusa eta lanerako metodologia orokorra

Atal honetan ikerketan aztertu dudan korpusaren zehaztasunak emateaz gain, lanean erabili dudan metodologia zein izan den erakusteari ekingo diot.

#### 3.1. AZTERTUTAKO HAURRAK

Ikerketa honetan hiru haur euskaldunek ekoiztako hizkera aztertuko dut. Haurretariko bat, Oitz, elebakarra da. Beste haur biak, Mikel eta Peru, ostera, euskara-gaztelania elebidunak dira.

Oitz haur elebakarra 1986.eko azaroan jaio zen Bizkaiko Berriz herrian. Bere gurasoak euskaldunak dira biak. Ama irakaslea da ikastola baten. Aita ere irakaslea da euskaraz iraskasten den ikastetxe baten. Guraso biak euskaraz egiten dute euren artean. Horretarako bizkaieraren Durangaldeko azpieuskalkia darabilte, baina euskara estandarraren eragin handia dutelarik. Haur elebakar honek badu 1983. urtean jaiotako anaia nagusia, elebakartzat jo dezakeguna haurrak 3 urte izan dituen arte. Bi anaien berbazko komunikazio osoa euskaraz gertatzen da. Gurasoek etxetik kanpo lan egiten dutenez, jaiotzetik neska-zaintzaile bat eduki du haur honek. Zaintzaile honek euskaraz hitzegiten dio haurrari, bizkaieraz, hain zuzen. Horrez gain, haur honen senide-harreman guztiak, edo ia guztiak, euskaraz gauzatu izan dira, hiru urte bete arte behintzat. Adin bereko beste haurrekiko harremanak ere euskaraz izan ditu. Gomenigarria deritzot aztertuko dudan Mikel haurragaz sarritan olgatu duela esateari.

Bestalde, haur honek eskolaratzea 2;10-eko<sup>20</sup> adina zeukala hasi zuen. Adin horretaz inguruko ikastola baten egin zuen bere eskolaratzea, euskarazko eremuan, noski.

---

<sup>20</sup> Haurren urteak eta hileak adieraztean, ohizkoa denez, horrelaxe jarriko dut. Egunak ere erants diezazkioket.

Gaztelaniarekiko beraren harremanak 3 urte zituenean hasi zituen. Alde batetik, beraren aitita gaztelaniaz hitz egiten hasi zitzaion. Bestetik, ikastolan haur erdaldunak ezagutu zituen. Guzti honi, beharbada, erdal telebistako marrazki bizidunen ikusketa gaineratu beharko nioke.

Mikel haur elebiduna ere Berrizen jaio zen 1986.eko abenduan. Haur honen ama euskalduna da, aita, aitzitik, gaztelaniaduna da. Ama beti zuzendu zaio euskaraz semeari, eta gauza bera egin du semeak amagaz. Aita jaiotzatik zuzendu zaio gaztelaniaz semeari, eta era berean, semea gaztelaniaz aitari. Aita medikua da, euskaraz ondo samar ulertzen du eta hitzegin ere egiten du zerbait. Ama idazkaria da, eta bizkaieraz mintzatzzen da, euskara estandarra ere ezagutzen duelarik. Badu haur honek 1984. urtean jaiotako arreba. Arreba ere elebiduna da jaiotzez, baina aztertuko dudan haurrak 4 urte izan arte beraien arteko berbazko harremanik gehienak euskaraz izan dituzte. Amaren eta aitaren arteko harremanak gaztelaniaz dira. Etxeko harreman orokorrak gaztelaniaz izaten dituzten arren, amak seme-alabekiko eta seme-alabek amarekiko harremanak, senide osoa dagoenean ere, euskaraz gauzatzen dituzte. Halere, batzuetan, haurra amari gaztelaniaz ere zuzentzen zaio, gaztelania denean uneko hizkuntza orokorra edo gaztelaniazko perpaus eginak ekoizterakoan.

Guraso biek etxetik kanpo lan egiten dutenez, jaiotzetik neska-zaintzaile bat eduki du haur honek, eta honegaz bizkaieraz hitz egiten du. Mikel haurra 2;09-ko adina zeukala hasi zen eskolara joaten. Berrizko herriko eskolara joaten da euskarazko eredura. Bestalde, senide-harremanak, amaren aldeko Berrizko senideekin euskarazkoak dira, aitaren aldeko senideekin, aldiz, gaztelaniaz. Jolas-lagunak euskaldunak eta gaztelaniadunak dituzte, hizkuntza biak darabiltza arlo honetan.

Peru 1985.eko abenduan jaio zen. Bere guraso biak euskaldunak diren arren, segidan ikusiko dugun legez, haur hau elebiduntzat jo dezakegu. Peruren ama euskaldun berria izanik, euskara estandarrez mintzatzzen zaio semeari. Aita, aldiz, nafarra izanik, batez ere nafarreraz mintzatzzen zaio, baina euskara estandarren eragin handia duelarik. Guraso biak dira irakasle, bata eskola baten, bestea unibertsitatean, euskara, ahozkoa zein idatzizkoa, egoki menderatzen dutelarik. Etxeko senitarteko giroa euskalduna da, beraz.

Peruri elebitasun izatea jaiotzetik izan duen neska-zaintzaitetik dator, berau gaztelaniadun hutsa baita. Guraso biek lan egiten dutenez, neska-zaintzaile gaztelaniadun honek zaindu du batez ere Peru astebarruan, eta berarekin gaztelania ikasi duela esan dezaket. Neska-zaintzailea jaiotzatik mintzatu zaio gaztelaniaz Peruri.

Neska-zaintzailearen eraginaz gain, haurtzaroko jolaskideak ere gaztelaradunak eduki ditu haur honek. Eta guzti honegatik bere egoera elebidun orekatutzat jo dezakegu, hizkuntza biak aldi berean eta orekaturik ikasi baititu.

Peru, bestalde, 1988. urtean, 2;09ko adina zuenean ikastola batera hasi zen joaten, euskarazko eredura, hain zuzen.

### 3.2. DATU-BILKETA

Gasteizko Unibertsitateko Haur Euskara Gaztelania Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza (HEGEHJ)<sup>21</sup> taldeak Alemaniako Hamburg Unibertsitateko B.U.S.D.E.<sup>22</sup> proiektuarekin batera gauzatzen duen datu-bilketan hiru haur hauek jarraitu ditu.

HEGEHJ eta BUSDE proiektuen asmoa zera da: haurrek urte bete t'erdí dutenetik bost urte izan arte, hilero ordu erdiko bideo-grabaketa bi egitea hizkuntza bakoitzeko, elebidunen kasuan, noski.

Gainera, azterketa-lanari ekin aurretik bideo-grabaketen transkribaketa ere derrigorrezkoa denez, asmoa hilero hizkuntza bakoitzean gutxienez grabaketa bat transkribatzea da. Halere, beharrezkotzat edo interesgarritzat jotzen denean, grabaketa gehiago ere transkribatzen dira (grabaketak ikusi ahal izateko 1. taulara jo daiteke).

Grabaketak giro espontaneoan egiteko asmoa izan du HEGEHJ taldeak, eta horrela, gehienak gurasoren batekin edo lagunekin eginak izan dira. Grabaketak egiterakoan ez dago inolako prestaketa berezirik elkarrizketa gidatzeko edo nagusiaren jokabidea zuzentzeko. Guztiz espontaneotzat jo ditzakegu, beraz.

### 3.3. TRANSKRIBAKETA-ERIZPIDEAK

Aztertuko ditudan euskarazko grabaketen transkribaketak HEGEHJ taldeak egin ditu. Zeregin horretan transkribatzaileaz gain, transkribaketa-zuzentzaileek ere ihardun izan dute. Grabaketa transkribatuen zuzentzai-

<sup>21</sup> HEGEHJ taldea Gasteizko Unibertsitateko Euskal Filologia Sailean jaio zen 1987. urtean, eta lanean dirau Itziar Idiazabal irakaslearen gidaritzapean. Talde honetako partaideak honako hauek dira: Itziar Idiazabal, Margareta Almgren, Kristina Elosegí, Mariho Ezeizabarrera, Idoia Imaz, Izaskun Soloeta, Elena Urzelai, Susana Irizar eta Andoni Barreña.

<sup>22</sup> BUSDE: Baskisch und Spanish: Doppelter Erstspracherwerb (Euskara eta Gaztelania: Bi lehen-hizkuntzen jabekuntza). Ikerketa proiektu hau Hamburg Unibertsitateko Romanisches Seminar deritzon Saileko katedratikoa den Jürgen Meisel irakasleak zuzendurikoa da.

lea, grabaketak egiten dituen eta haurrak ondo samar ezagutzen dituen lankidea izan da gehienetan.

Erizpideei buruz zera esan dezaket, oinarrian BUSDE projektuko lankideek lehenago DUFDE<sup>23</sup> projektua burutzean izandako esperientzia sakonaz baliatu garela. HEGEHJ taldekideen lana erizpide horiek euskarazko transkribaketetarako taiutzea izan da, ondoren berauek erabili ahal izateko.

Transkribatzean jarraitutako haurren berbazko ekoizpenez gain berarekin hitz egiten ari diren beste gizaki guztien berbazko ekoizpena ere transkribatu da. Baina berbazko ekoizpenez gain, berbakide guztien ekintzak eta jokabideak ere idatzi dira: zer egiten duten, zer seinalatzen duten, nora begiratzen duten, zegaz olgutzen duten, nori hitz egiten dioten, eta abar.

Horiez gain, jarraitutako haurrek ea kantatzen duten, beste berbakideen hizkuntza imitatzen duten, edo imitatzen saiatzen diren, hitz egiterakoan etenak izan dituzten eta abar ere adierazi egiten da.

Askotan, eta beharrezko ikusi duelako, haurrak esaten duenaren interpretazioa ere egiten du transkribatzaileak, baina interpretazioa dela adieraziz. Sarri gertatzen da hori haurren hasierako hileetan, oraindik beraien hitzak, nagusien hizkuntza-arauak jarraituz, ebakitzeko gauza ez direnean.

Bestalde, transkribaketak ortografia estandarra erabiliz egin dira. Ez da, beraz, sistematikoki, transkripzio fonetikorik egin. Transkripzio fonetikoak ondo ulertzen ez diren hitzetan eta esaldietan egin da. Sarri gertatzen baita, transkribatzaileak zein zuzentzaileak ez duela haurren edo beste mintzaideen berbazko ekoizpena ondo ulertzen. Orduan transkribaketa fonetikoari lotzen zaio.

Hala eta guztiz ere, sarri-sarri, ezer ulertzen ez denean, zerbait ekoitzi dela baino ez da jaso.

Transkribaketetan berbazko ekoizpenaren intonazioa ere, azpimarragarria izan denean behintzat, kontutan izan da. Adibidez, galderak eta aginduak sistematikoki bereizi dira. Askotan, azken hauen identifikazioan berbazko ekoizpenaz gain ingurua ere gogoan hartu behar izan da.

---

<sup>23</sup> Deutsch und Französisch: Doppelter Erstspracherwerb (Frantses eta alemaniera: bi lehen-hizkuntzen jabekuntza). Ikerketa proiektu hau Hamburg Unibertsitateko Romanisches Seminar deritzan Saileko buru den Jürgen Meisel irakasleak zuzendu zuen. Proiektu honen asmoa haur frantses-alemaniera elebidunen datu-bilketa eta azterketa burutzea zen, eta amaiturik zegoen BUSDE eta HEGEHJ taldeena hasi orduko, datu-bilketari dagokionez behinik behin.

Hala eta guztiz, zera erantsi beharko nuke: HEGEHJ eta BUSDE taldeen projektuaren asmoa haurren gramatikaren jabeakuntza aztertzea denez, fenomeno morfosintaktikoak zehatz eta osotasunean jaso direla, eta faktore pragmatikoak eta fonetikoak fenomeno morfosintaktikoen lagungarritzat jo direla.

Haurrak morfemaren bat gauzatzen ez duenean, zegokion arren, adibidez ergatibo kasuaren deklinabide-atzizkia edo adizki laguntzaile edo trinkoren baten pluralgilea, ez da jasotzen. Baina ez duela ekoitzi adierazi egiten da. Jokabide berbera erabiltzen da gehiegizko morfemak ekoitzen dituenean, adibidez ez dagokion ergatibo-morfemaren bat: ekoitzen duena jaso, baina ez dagokiola adierazi. Horrez gain, askotan, bizkaierazko zein beste euskalkietako fenomenoek interpretazioa batuaz ere ematen da.

Horregatik, zera esan behar dut, nire lan hau egiteko grabaketa transkribatuz gain grabaketez ere baliatu naizela, grabaketa guztiak zehatz aztertu baititut transkribaketak berraztertuz. Horrez gain, sarri, zalantzak aurkeztean, beti hastapeneko materialea berraztertu dut.

### 1. Taula

#### Hiru haurren grabaketa transkribatuen zerrendak adinaren arabera taiturik

##### *Oitz haur elebakarra:*

1;05;19	1;06;22	1;07;20	1;08;29	1;10;12	1;11;05	2;00;05	2;00;26
2;01;19	2;02;00	2;03;09	2;04;11	2;04;24	2;05;05	2;05;21	2;06;05
2;06;25	2;07;05	2;08;13	2;08;19	2;09;00	2;10;12	2;10;29	2;11;12
3;00;10	3;01;12	3;02;04	3;03;07	3;04;08	3;05;14	3;06;24	3;07;23
3;08;24	3;09;04	3;10;14	3;11;25	4;00;25			

##### *Mikel haur elebiduna:*

1;06;27	1;07;14	1;07;27	1;09;04	1;09;22	1;10;12	1;11;06	2;00;00
2;00;22	2;01;06	2;02;11	2;03;11	2;04;00	2;04;11	2;05;10	2;06;11
2;07;01	2;08;19	2;09;04	2;10;04	2;11;09	2;11;16	3;00;20	3;01;04
3;02;15	3;03;01	3;04;12	3;05;10	3;06;14	3;07;27	3;08;23	3;09;22
3;10;17	3;11;17	4;00;17					

##### *Peru haur elebiduna:*

1;11;00	1;11;10	1;11;29	2;01;03	2;02;14	2;03;12	2;04;15	2;05;26
2;07;09	2;07;30	2;09;05	2;10;11	2;11;15	3;00;17	3;01;24	3;02;14
3;03;07	3;04;04	3;05;09	3;06;17	3;07;11	3;07;27	3;09;02	3;10;10
3;11;17	4;00;15						

### 3.4. ERREFERENTZIA-INDIZEAK

Hurrek ekoiztako berbazko produkzio guztien erreferentzia-indizeak izan ahal izateko adina eta ebbl-a deitutakoa erabili ditut.

Adinaz ezer berri gutxi adieraz dezaket. Zera baino ezin dezaket esan: ez dela oso indize egokia gertatzen, haurren hizkuntza-jabekuntza gonbaratzeko; hurrek, adin ezberdinez hizkuntzaz jabe daitezkeela arras ezaguna baita. Indize honen erlatibotasuna azpimarratzeari oso garrantzitsua deritzot.

Bestalde, hizkuntza-jabekuntzaren ikerlariak laster ohartu ziren haurren adina beraren hizkuntza-maila adierazteko neurri Baliagarria ez zela, eta horregatik neurriren bat asmatzeari ekin zioten. Horrela, Brown-ek (1973) Esaldiaren Bataz Besteko Luzera delakoa asmatu zuen. Brown-ek hitzak eta morfemak oinarritzat hartu zituen bere zenbaketarako. Bere asmoa horrela bil daiteke: haurrak ekoizten dituen hitzen eta esaldien luzera neurtu eta neurketa horri eman dakioken hizkuntza-heldutasun-balioa proposatu. Horrela, grabaketen transkribaketetan, hasierako 100 esaldi jarraien batz besteko hitz- eta morfema-kopurua harturik, eta bertako esaldirik luzeenaren morfema-kopurua berezita, bost hizkuntza-maila bereizi zituen. Brown-ek berak proposaturiko bost hizkuntza-mailok, bakoitzaren ebbl-balioekaz eta esaldi luzeenaren (EL) morfema-kopuruagaz 2. taulan aurkezten ditut.

Baina neurri honek, ez luke baliorik izango edozein adinetako haurren hizkuntza-maila neurtzeko. Hasteko, haurrak 4,00 baliora ailegatzean neurri-sistema hau gainditu egiten du, eta antza denez, hori, gutxi gorabehera, hiru urteren inguruan gertatzen da.

Halere, arras erabilia da neurketa-mota hau gaur egun ere. Baina hizkuntza bakoitzerako aplikazioa egiterakoan delako hizkuntzaren berezitasunak kontutan izatea ere beharrezkoa da. Horregatik, nik erabiliko dudan neurketa honetan Idiazabal-ek (1991) euskararako egindako egokipena hartuko dut oinarritzat.

Orokorrean hitzari bateko balioa eman diot, eta erantsitako morfemak eta berauen kontrastasuna neurtuz gainerako balioak finkatu ditut.

Transkribaketa bakoitzeko lehen 100 esaldiak batz bestekotu ditut, transkribaketa osoan 100 esaldi ekoizten ez dituenetan izan ezik. Kasu hauetan, ekoizten dituzten esaldiak baino ez ditut batz bestekotu.

Neurketa honen emaitzak 3. taulan ikus daitezke. Berton hiru haurren adinak, ebbl-neurriak, hizkuntza-maila eta el-balioak adierazi ditut.



Lehenago ere esan dudan legez, hiru haurren gonparaketa-taulatik ateara daitezkeen bapateko ondorioak erlatibatu egin beharko genituzke, haur bakoitzak bere aurrerabide berezia baitu hizkuntza-jabekuntzaren garapenean. Taulak bapatean adierazten digunak ez du inolako baliagarritasunik une bakoitzean zertaz eta zelan jabetzen den adierazi barik.

Horrez gain, ebbl-aren neurri hauek haurren grabaketei buruzkoak dira, eta haurren egoera orokorreko gutxi gorabeherako isladatzat baino ezin daitezke jo, jakina baita grabaketa-uneko egoera arras garrantzitsua dela haurraren berbazko ekoizpena gauzaterakoan. Horrela ulertu beharko ditugu, beti ez bada ere, askotan gertatzen diren ustezko atzerakadak haurren hizkuntza-jabekuntzaren garapenean, ebbl-neurrien arabera, noski.

## 2. Taula

### Brown-en ebbl-neurketa

Maila	Ebbl-a	El-a
I	1;00 - 1;75	5
II	1;76 - 2;25	7
III	2;26 - 2;75	9
IV	2;76 - 3;50	11
V	3;51 - 4;00	13

### 3.5. AZTERTUTAKO HIZKUNTZA-UNITATEAK

Ondoren, korpus zabal horietatik ikerketa honetarako erabiliko ditudan hizkuntza-unitateak zeintzuk diren azaltzen ahaleginduko naiz.

Orokorrean haurrek ekoitziriko hitz aske eta esaldi guztiak kontutan izan ditudala esan dezaket. Baina ulertezinak eta errepika zuzenak direnak baztertu egin ditut araketatik.

Horrela, haurrek ekoitzitakoa ezin izan dut kontutan izan esaldia ulergarria ez denean, edo guztiz ulergarria ez denean. Antzera gertatzen da esaldiaren interpretazioa zalantzazkoa denean. Kasu hauetan, direlako esaldi ulergaitzak eta interpretagaitzak baztertu egin ditut azterketatik. Hona hemen halako adibide batzu:

## 3. Taula

Hiru haurren ebbl-neurriak, ebbl-mailak eta el-balioak adinaren arabera

Adina	Ebbl/Mai./El		
	Oitz	Mikel	Peru
1;05	1,12 - I - 2		
1;06	1,14 - I - 3	1,03 - I - 2	
1;07	1,23 - I - 3	1,08 - I - 2	
		1,10 - I - 2	
1;08	1,41 - I - 4		
1;09		1,35 - I - 4	
	1,44 - I - 5		
1;10	1,38 - I - 4	1,71 - I - 5	
1;11	1,75 - I - 5	1,96 - I - 6	1,12 - I - 2
			1,24 - I - 2
			1,21 - I - 3
2;00	1,77 - II - 7	2,43 - III - 6	
	1,93 - II - 4	2,13 - II - 7	
2;01	1,94 - II - 8	1,97 - II - 6	1,26 - I - 3
2;02	2,28 - III - 6	2,41 - III - 10	1,36 - I - 3
2;03	2,36 - III - 7	2,76 - IV - 9	1,56 - I - 3
2;04	2,45 - III - 8	3,38 - IV - 10	2,10 - II - 5
	3,34 - IV - 10	3,95 - V - 9	
2;05	3,23 - IV - 10		
	3,40 - IV - 10	3,17 - IV - 9	1,83 - II - 5
2;06			
	3,79 - V - 11		
	3,43 - IV - 11	2,99 - IV - 11	
2;07	3,40 - IV - 17	2,96 - IV - 8	2,61 - III - 6
	3,27 - IV - 7		
2;08	4,12 - + <sup>24</sup> - 17		
	3,97 - V - 15	3,41 - IV - 12	
2;09	4,64 - +- 15	3,66 - V - 11	3,25 - IV - 8
2;10	4,14 - +- 15	4,24 - +- 12	3,57 - IV - 10
	4,35 - +- 15		
2;11	3,89 - V - 19	3,82 - V - 10	
	3,41 - IV - 13	3,27 - IV - 8	
3;00	4,21 - +- 15	4,40 - +- 18	2,98 - IV - 7
3;01	5,36 - +- 17	4,45 - +- 19	3,45 - IV -
3;02	4,45 - +- 13	4,53 - +- 14	3,19 - IV -
3;03	5,17 - +- 14	5,37 - +- 14	3,75 - V -
3;04	5,44 - +- 17	4,60 - +- 15	3,25 - IV -
3;05	4,93 - +- 19	4,56 - +- 18	4,25 - +- -
3;06	6,27 - +- 19	5,09 - +- 16	5,13 - +- -

<sup>24</sup> Ikur hau ebbla 4,00 baliotik gainera denean hizkuntza-maila adierazteko jarri dut, maila-kontaketak balio handiagorik ez baitu onartzen.

Mikel Oitzekin ari da jostatzen berak 2;04-ko adina duelarik. Une honetan haur biek batera hitzegiten dute, eta ezina da Mikelek esaten duena ulertzea. Horrela dago transkribaturik:

(13) *Mikel: Nik ikusi [x]. [xxx] [xxx]. Txikitxue....*

Parentesi arteko hitzek haurrak ekoitzi duena ez dela ulertzen adierazten dute. Halako ekoizpenak ez ditut azterketan kontutan izango.

Beste behin, Oitz amarekin ari da 2;07-ko adina duelarik. Horrela hitz egiten dute:

(14) *Ama: Motorra. Eskabadorien(eskabadorearen)<sup>25</sup> motorra ez da? Martxan jarriko dozu, ez ta? Oitz: Mmm! Mmm! Aaa! Mmm! E [goa] etori kamioi!*

Adibide honetan parentesi arteko informazioa fonetikoki ezagutu dezakegun arren, ez dago batere argi haurrak zer esaten duen, ezta zer esan gura duen ere. Horrexegatik, halako ekoizpenak, gutxi batzuk izanik ere, baztertu egin ditut azterketatik.

Batzuetan, haurrek une horretan jolasten eta hitz egiten ari diren gizakiek esaten dituzten hitzak eta esaldiak imitatu egiten dituzte, edo imitatzen saiatzen dira behinik behin. Halako imitazio zuzenak ere, baztertu egin ditut aztertu dudana korpusetik, ene ustez, ez dutelako haurraren gramatika-ahalmena isladatzen, imitatzeko ahalmena baino. Argiago gera dadin zer ulertzen dudana imitazio zuzentzat, hona hemen adibide bat:

Mikel, 1;07;27-ko adina duenean, bere amarekin eta bere arrebarekin ari da jolasten, eta ondoko elkarrizketa burutzen dute bainu-ontzi barruan ari direnean:

(15) *Arrebak: Ez!. Josek ez deko(dauka) kotxerik  
Amak: Badeko!  
Arrebak: Ez!  
Amak: Bai!  
Arrebak: Ez!  
Amak: Bai!. Motorrean ibiltzen da baina kotxie be(ere) badeko  
Arrebak: Ez deko!  
Mikel: Ez keko  
Amak, semeari hitz eginez: Ez deko?  
Mikel: E keko*

---

<sup>25</sup> Haurrek ekoitzirikoa bizkaiera mintzatuan adierazten dudanean, parentesien artean jarrarian jartzen dudana eman daitekeen translazioa baino ez da.

eta sintaxi-arauak erabiltzerakoan aro edo urrats ezberdinak gauzatuko dituzte euren gramatika-garapenean, bapateko erabileraren jokabidea alboratzen dutelarik. Baina hitz biko eta anitzeko esaldiak ekoizten hastean, aldi batean behintzat, haurrek ez dute inolako gramatika-ezaugarririk ez sintaxi-araurik erabiliko.

Hitz biko eta anitzeko esaldien ekoizpenetan ikus daitekeen gramatika-ezaugarririk eta sintaxi-araurik gabeko aldi honi lehen aroa deritzot.

Lehen urrats honetan, haurrek, besteak beste, lau lexiko-kategoria ezberdinetako hitzak erabiltzen dituztela esan dezaket: izenak, adjektiboak, aditzak eta aditzondoak. Esaldiak ekoiztean, lexiko-kategoria ezberdinetako hitz-elkarketak egin ditzakete.

Badirudi haurrek esaldiak mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez moldatzen dituztela, baina hatsarre pragmatiko hauek ez dute zerikusi zuzenik izango hurrengo gramatika-garapenagaz, hots, ez dira gramatika-garapenaren oinarria izango, mintzagaia gauzatzeko jokabideari aro guztietan eutsiko baitiote.

Nolanahi ere, lehen aro honetan haurrek ez dute gramatika-ezaugarririk ez sintaxi-araurik erabiliko.

Horregatik haurrek ez dute gramatika-kasurik, ez pertsona-komunztadurarik derakusan adizki jokaturik, ez menderagailurik edo konplementagailurik, ezta aditz nagusiek derakusaten aspekturik erabiliko. Eta osagai-hurrenkera burutzean, esaldi deklaratzailuetan zein NZ-esaldietan, mintzagai-galdegai hitzordena ikus dezakegu berauen eraiketan.

Lehen aro honen iraupena eta aro honetan erdiesten duten ebbi-aren neurria eta maila 4. taulan erakusten ditut.

#### 4. Taula

Lehen aroaren iraupena, adinaren eta ebbi-neurriaren arabera

	Adina	Ebbi-a
Oitz haur elebakarra	1;05;19 - 1;11;05	1,12 - 1,75 (I)
Mikel haur elebiduna	1;06;27 - 1;07;27	1,03 - 1,10117 (I)
Peru haur elebiduna	1;11;00 - 2;01;03/2;02;14	1,10 - 1,25/1,61 (I)

Jarraian, ikus ditzagun banan banan, goratxoago aipatu ditudan lehen aro honetako hizkuntza-bereztasunak:

#### 4.1.1. Izen-sintagmaren determinazioa

Izentzat eta adjektibotzat jo ditzakegun lexiko-kategorietako ekoizpenak arakatzerakoan zera aurkitu dut: batetik, haurrek inolako determinazioz ez duten izen bereziak, pertsona-izenordainak eta beste zenbait izenordain darabiltzatela; bestetik, nini-hizkuntzako zenbait hitz berezi, gehienetan ere determinazioz gabe; eta azkenik, izen eta adjektibo arruntak *-a* mugatzaileaz.

Batzuetan, beraz, helduen arauak eskatzen duen moduan, delako materialexikoa, artikulurik gabe ekoizten dute. Hauxe da, adibidez, izen berezi, izenordain eta deiktikoekaz egiten dutena. Hona hemen zenbait adibide<sup>26</sup>:

- (16) *Ju(r)gi(k) atara (O. 1;07;20)*
- (17) *Andoni, hemen ni (O. 1;08;29)*
- (18) *hau? (M. 1;07;27)*
- (19) *[emini] ni (M. 1;07;27)*
- (20) *hau Piu (P. 1;11;10)*
- (21) *ni(k) (a)pu(r)tu (P. 2;01;03)*

Nini-hizkerako hitz bereziak beste hainbeste gertatzen dela ikus dezakegu. Hona hemen adibide batzuk:

- (22) *hori popo(t) (O. 1;08;29)*
- (23) *hori txotxo (O. 1;07;20)*
- (24) *guaugau (P. 1;11;10)*
- (25) *hau pipi (P. 1;11;10)*

Halere, nini-hizkerako hitz bereziak, batzuetan *-a* marka eta guzti ekoizten dituzte. Hona nola:

- (26) *popota apu(r)tu (O. 1;06;22)*
- (27) *hori kua (O. 1;08;29)*
- (28) *hau mumua (P. 1;11;29)*

Izen eta adjektibo arruntzat jo ditugunak, ostera, *-a* markaren erabilera derakusate:

- (29) *a(rg)ia (O. 1;05;19)*
- (30) *ikusi haria! (O. 1;10;12)*

<sup>26</sup> Adibidea ematerakoan esaldi osoa jarri dudanez, sarritan izenak, izenordainak edo deiktikoak ez diren osagaiak ere agertuko zaizkigu.

- (31) *hori nirie*<sup>27</sup> (O. 1;10;12)  
 (32) *etxie, ama, etxie!* (O. 1;11;05)  
 (33) *e(s)nie* (M. 1;07;14)  
 (34) *abioie* (M. 1;07;27)  
 (35) *e(s)nia* (P. 1;11;00)  
 (36) *handia* (P. 1;11;29)  
 (37) *hori txi(ki)a* (P. 2;01;03)  
 (38) *t(r)ena ez* (P. 2;01;03)

Baina hitz mailegatuekaz jokabide bikoitza dutela dirudi. Gehienetan *-a* markaz ekoizten dituzten arren, zenbaitetan delako mugatzaile barik gauzaten dituzte. Hona hemen artikuludun zenbait adibide:

- (39) *han t(r)ena* (O. 1;07;20)  
 (40) *petea(pastela)* (M. 1;07;14)  
 (41) *a(b)ioie* (M. 1;07;27)  
 (42) *pape(r)a* (P. 1;11;00)  
 (43) *hemen lua(grua)* (P. 2;01;03)

Jarraian *-a* markarik gabeko hitz maileguak ikusiko ditugu. Bildu ditudan adibide hauetan guztiz nabaria geratzen da mintzaide helduaren eragina haurren hizkuntzan. Lehenengo adibidean, Oitz bere aitita gaztelaniadunaz agertzen da olgatzten, eta aitatik gaztelaniaz egiten du. Haur honek grabaketa honetan baino ez darabil hitz hau artikulua barik. Peruk ekoizten duen bigarren adibidean, inguru eta guzti jarriko dudanez, mintzaide helduaren eragin nabarmenez gain ez dut uste gainerantzeko azalpenik behar duenik. Hirugarren adibidea Mikelena da, eta bertan ere nabarmen gertatzen da mintzaide helduaren eragina. Hona hemen adibideok:

- (44) *ezin t(r)en* (O. 1;07;20)  
 (45) *P.: Ez.* (P. 2;01;03)  
*Mintzaidea: Ez?.*  
*P.: Apula (azula).*  
*Mintzaidea: Hori zer da?*  
*Peru: Opula.*  
*Mintzaidea: Fula?*  
*Peru: Hau pula. Fula.*  
*Mintzaidea: Nik zer den hori ez dut ulertzen.*  
*Peru: Fula.*  
*Mintzaidea: Urdina?*  
*Peru: Ofula.*  
*Mintzaidea: Fula?. Galdetuko diogu aitari aber zer dan 'fula'. Nik ez dakit zer dan 'fula'. Eta hau? (jostailu bat erakusten diolarik).*

---

<sup>27</sup> Kontutan hartu behar dugu Oitz eta Mikel haurrek, Bizkaiko hego-ekialdekoak izanik, bokale-harmonia fenomeno delako eta, egoera jakinetan *-a* artikulua *-e* ebakitzen dutela

- Peru: Ulia (= horia ala gorria?).*  
*Mintzaidea: Gorria?*  
*Peru: Hau fula.*  
*Mintzaidea: Azul?*  
*Peru: Aful.*  
*Mintzaidea: A! Urdina da hori.*  
*Peru: Ful.*  
*Mintzaidea: Azul!*  
*Peru: Aful.*  
*Eta apur bat geroago begiratur, honelaxe segitzen dute:*  
*Peru: Hau hau fula.*  
*Mintzaidea: Hori urdina da, bai. Azul.*  
*Peru: Ful.*  
*Mintzaidea: Urdina da hori, bai. Azula.*  
 (46) *Mintzaidea: Be(g)itu! Zer da hau? Sague? (M. 1;09;22)*  
*Mikel: Sabue.*  
*Mintzaidea: Sague.*  
*Mikel: Um!.*  
*Mintzaideak: Beitu! Karakol! Mikel! Bai!*  
*Mikel: Ako?*  
*Mintzaidea: Bai.*

Badirudi, beraz, *-a* markabako hitzak inguruaren arabera ekoizten dituztela hurrek, hots, arlo honetan mintzaide helduen eragina dutela *-a* marka ez ekoizterakoan.

Hau guztiau ikusirik, zera esan behar dut: hurrek hasiera-hasieratik, holofrase-arotik hain zuzen, izentzat edo adjektibotzat jo dezakegun materiale lexiko arrunta (izen bereziak, izenordainak eta nini-hitzak izan ezik) *-a* marka eta guzti ekoizteko joera dutela. Baina joera hau, mintzaidearen eraginaren arabera alda daitekeela hurrengan. Eta aldaketa argi ikus daiteke zenbait mailegu eta nini-hitzetan.

Guztiz ados gaude Idiazabalegaz (1991b:178) zera dioenean:

*Biengan*<sup>28</sup> (*Oitz eta Perurengan, hain zuzen*) *agertzen da beranduago bat determinatzaile hitza -a atzizkia baino.*

Baina *bat* determinatzailearen erabilera, Idiazabalek adierazten duenez 2;04 adinaz ikus dezakegu Perurengan eta 2;00 adinagaz Oitzengan, hots, nire ustez hurrengo aroan aurkitzen direnean haur hauek. Idiazabalen ildotik jarraituz, *-a* ez den determinatzailearen bat erabiltzean gramatika-ezau-garriak erabiltzen hasten direla esan dezakegu, baina lehenago ez dut uste halakorik esan daitekeenik.

<sup>28</sup> Ikerlan honetan Idiazabal-ek haur bi hauen hizkuntza-ekoizpena baino ez du aztertzen.

Ene ustez, hurrek, bildu ditudan adibideetan behintzat, hasieran hitz mailegatuak eta nini-hitzak ere *-a* marka eta guzti darabiltzate. Halere, egia da, haurren ekoizpenetan une berean *-a* markarik gabeko adibideak gauzatzen dituztela hitz mailegatu eta nini-hitzetan.

Esan gura dudana zera da: garai goiztiar honetan hurrek burutzen duten *-a* markaren erabilera ez diotela gramatika-ezaugarriren bati zor, ezagupen semantikoei baino. Gramatika-ezaugarria, nire ustez, hurrek izenak *-a* markaz gaineko beste zenbait determinatzailez gauzatzean erabiltzen dutela erakutsiko digute.

Bestalde, lehen aro honetan hainbat mailegutuan eta nini-hitzetan *-a* markaren erabilera-eza semantika-arlokoa dela iruditzen zait, eta inola ere ez gramatika-arlokoa<sup>29</sup>. Eta semantika-arlokoa denez, euren inguruan entzuten duten moduan erabiltzen dute materiale lexikoa, hots, batzuetan *-a* markarik gabe zenbait hitz mailegaturekin eta zenbait nini-hitzekin.

Orain arte esandakoaz gain, aro honetan sintagmarik ere ez dutela gauzatzen iruditzen zait. Haurren ekoizpenak, bada, izen- eta adjektiboremuetan behinik behin, hitzetara mugatzen dira, eta ez dira inola ere sintagmak eraikitzen iristen.

#### 4.1.2. Izen-sintagmaren osagaiak eta hurrenkerak

Goian aipatu dudan legez, aro honetan ez dut uste hurrek izen-sintagmarik osatzen dutenik. Hitz biko edo anitzeko ekoizpenak, beraz, hitz-elkarketa hutsak baino ez dira.

Jarraian Oitzek ekoizirik hainbat adibide aurkeztuko dut:

(47) *Amane Pe(d)ro* (O. 1;08;29)

(48) *An(d)oni ti(k)ta(k)* (O. 1;08;29)

(49) *Mikel popota* (O. 1;11;05)

(50) *ama, niria popota* (O. 1;11;05)

Baina zer adierazi nahi du hurrak ekoizpen hauen bidez? Lehenengoan, alabaren eta aitaren izenak ekoitziz, *alabaren aita* edo antzeko zerbait izan behar duela dirudi. Bigarrenean, *Andoniren erlojua*. Hirugarrenean *Mikelen popota*. Eta laugarrenean *nire popota* edo *popota nirea da*.

<sup>29</sup> Jakina da, bestalde, euskarazko *-a* artikularen eta inguruko hizkuntza erromanikoen artikulatu determinatuen arteko ezberdintasuna. Horrela, euskaldun bati *mesa* euskaraz zelan esaten den itauntzen badiote, *mahai-a* erantzungo du. Edo Euskal Herrian bizi diren erdaldunak euskarazko maileguak erabiltzeko era, unitate lexiko bakoitzari *-a* marka erantsiz: *Tú eres un lapurre txikie* (Oitz haurraren aitak esana).



Baina beste guztietan hurrenkerera ohikotzat jo dezakegun neurrian ez da gauza bera gertatzen lehenengo adibidean. Inguruaz aztertuz haurrak *aitaren alaba* edo antzeko zerbait esan beharko lukeela iruditzen zait. Hurrenkerera, bada, alderantzizkoa beharko luke: *Pero Amane*.

Ekoizpen honek ere, aro honetako haurrek, izen-sintagmaren egitura alboratuz, hitz-elkarketa hutsak gauzatzen dituztela pentsatzera bultzatzen nau, horrela aurreko azpiatalean erakutsi dudan eritzia bermatuz.

#### 4.1.3. Gramatika-kasuen erabilpen-eza

Lehen aro honetan ez dut ikusi ahal izan gramatika-kasuren batez erakitako adibide bakar bat ere, baina hurrengo aroaren hasiera-hasieratik nabarmena da gramatika-kasu ezberdinen erabilera. Deklinabide-markarik eza adibideetan erakusten zaila egiten den arren, hona hemen lehen aro honetako ergatibo markarik gabeko hainbat adibide:

- (51) *aitita(k) apu(r)tu* (O. 1;06;22)
- (52) *Ju(r)gi(k) atara*<sup>30</sup> (O. 1;07;20)
- (53) *Ju(r)gi(k) apu(r)tu* (O. 1;07;20)
- (54) *hori popo brun-brun*<sup>31</sup> (O. 1;08;29)
- (55) *ni(k) (a)putu* (P. 2;01;03)
- (56) *hau no*<sup>32</sup> (M. 1;07;14)

Inguruari begiraturik datiboaren markarik gabeko adibide bat ere aurkitu dugu Oitzen korpusean:

- (57) *Mintzaidea: Ta nori esango dotze(g)u(diogu) etortzeko gurekin?*  
*Oitz: Amane* (O. 1;08;29)  
*Mintzaidea: Amaneri.*

#### 4.1.4. Beste kasu-markak

Aurreko azpiataletan gramatika-kasu-markarik eta genitibo-markarik (ikus 4.1.2. azpiatala) ez darabiltela ikusi dugun bezalaxe, beste kasu-markarik ere ez darabiltela esan dezaket.

<sup>30</sup> Kontutan izan bizkaieraz *atara* aditzak adizki laguntzaile iragankorra eskatzen duenez, subjektuak ergatibo-marka behar duela. Adibide honek, bada, honelakoa izan beharko luke: *Jurgik atara dau (du) (zerbait)*.

<sup>31</sup> Inguruaren arabera, *popot horrek* edo *halako* ergatiboren bat beharko luke.

<sup>32</sup> Adibide honen inguruak ere *honek* izan beharko lukeela adierazten digu.

Hona hemen Oitzen korpusean bilduriko deklinabide-atzizkien ekoizpen-eza erakusten digun adibide bat inguru eta guzti:

(58) *Mintzaidea: Ta norena dok tiktak-tiktak hau ba?*

*Oitz: Amane*

...

*Mintzaidea: Hori Amanerena da?*

*Oitz: Amane*

...

*Mintzaidea: Ta norena dok hori?*

*Oitz: Amane (1;08;29)*

Ekoizpen-ezaz gain, badira zalantzazko hainbat adibide:

(59) *ekolala (O. 1;07;20)*

(60) *nirie (O. 1;07;20)*

(61) *hori niria (O. 1;08;29)*

(62) *kortan (O. 1;08;29)*

(63) *ni(re)a (P. 1;11;10) (P. 1;11;29)*

Baina adibide hauek azterturik argi geratzen da lexikaldurik ikasi dituzten hitzak baino ez direla.

Oitzek darabiltzan *ekolala* eta *kortan* hitz hutsak baino ez dira, bertan ez baitut inolako deklinabide-atzizkiren erabilera emankorrik ikusten. Haur honek hitz hauei baino ez die eranstean *-ra* eta *-an* atzizkiak, aro honetan, noski. Atzizki hauek ez dira emankorrak, beraz. Eta gainera hitz horiek esanahi zehatza dute: anaia, eta anaia baino ez, etxetik irtetzen deanean, irteera adierazteko esaten duena lehenengo; eta edonor kanpoan dela erakusteko bigarrena.

*Nirea* hitzari buruz antzeko zerbait esan dezakegu. Peruk eta Oitzek darabilten hitz hau oso arrunta da gure hizketan eta umeen mundutik hain hur geratzen denez lexikaldurik ikasi dutela uste dut. Gainera, ez dago halako atzizkirik duen beste adibiderik eta ez du emankortasunik erakusten.

#### 4.1.5. Adizki jokatuak adierazten duten pertsona-komunztadurarik eza

Adizki jokatuak adierazten duten pertsona-komunztadurarik ere ez darabilte lehen aro honetan. Baina adizki jokatuak, aitzitik, badarabiltzate. Halere, aztertu ditudan hiru haurren datuetan, haur elebakarrak aro oso honetan ez darabil adizki jokatu bat ere, beraren gurasoek bilduriko egunerokoan agertzen diren arren. Beste haur biek badarabiltzate adizki jokatuak, baina ez dute pertsona-komunztadurarik, ez aditz-denborarik edo aditz-modurik adierazten. Ez dituzte, beraz, INFL-i dagozkion ezaugarriak erabiltzen.

Aldi honetan darabiltzaten adizki jokatuak trinkoak dira, *dago* eta *daki* hain zuzen (eta honelaxe gertatzen da haur elebakarraren gurasoek bildutako egunkarian ere), orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak hain zuzen:

- (64) *han da(g)o(z)*<sup>33</sup> (M. 1;07;14)  
 (65) *(nik) no tati(daki)(t)*<sup>34</sup> (M. 1;07;14)  
 (66) *e(z) da(g)o* (M. 1;07;27)  
 (67) *(nik) en(ez) daki(t)* (P. 1;11;29)  
 (68) *e(z) da(g)o aki* (P. 1;11;29)

Hauek dira grabaketetan zehar bildu ahal izan ditudan adibide guztiak. Erne begiratzen badiegu berehala konturatuko gara Mikelek ekoizten dituen hiru adibideetatik bitan subjektuarekiko pertsona-komuntadura ez dela egokia, singularreko hirugarren pertsonari dagokion adizkia baitarabil pluraleko hirugarren pertsonari eta singularreko lehen pertsonari dagozkienak erabili beharrean. Peruk ekoizten dituen adibide bietako baten gauza bera gertatzen da.

Argi dago, beraz, singularreko hirugarren pertsonari dagokion adizkia beste edozein pertsonarekin erabiltzen dutela, adibideotan ikusi dugunez singularreko hirugarren pertsonagaz gain, singularreko lehen pertsonagaz eta pluraleko hirugarren pertsonagaz baitarabilte.

Bestalde, darabiltzaten adizki trinkoak *jakin* eta *egon* (eta *izan* haur elebakarraren gurasoak egunkarian bildutako datuen arabera) aditzen adizkiak direla esan behar dut, eta aditz hauen agertzen diren forma bakarrak direla.

Guzti horregatik, une honetan darabiltzaten singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizki trinko hauek aditz-lexemen funtzioa betetzen dutela uste dut.

Honez gain, arlo honetan, indikatiboko orainaldiko adizkiak baino ez ditudanez ikusi, aditz-denbora eta aditz-modu ezberdinak ere ez darabiltzatela argi dago.

#### 4.1.6. Adizki jokatuabeen aspektutasun-eza

Adizki jokatuabeek, esaldiko osagai bakarra izan zein ez, ez derakusate aspektu-markarik, hots, aditz-aspektu kontrajarririk. Badirudi hauek ere aditz-lexema hutsak direla.

<sup>33</sup> Ekoizpen honi buruz zera esan behar dut: 1;07;14 adinaz gauzatzen duen arren, ez duela euskarazko grabaketan ekoizten, gaztelaniazkoan baino. Hona hemen mintzaide helduaren eta haurraren arteko elkarrizketa: *Mintzaidea: A ver, dime tú si estás corriendo las vacas. ¿Están corriendo? Mikel: Han. Mintzaidea: ¿Dónde están? Mikel: Han da(g)u. Mintzaidea: ¡Ah! ¡Están allí! Mikel: ¡Allí!*

<sup>34</sup> Adibide hau ere gaztelaniazko zatian agertzen da.

Adizki jokaturik gabek, euskara mintzatuan gertatzen den legez, aspektu-baliorik erakusten ez dutenean, hots, aditz-lexema hutsak direnean, aspektu burutua adierazten duen markagaz agertzen zaizkigu. Ikus dezagun, adizki jokaturik gabeko aginteretan, adibidez, zein den haurren mintzaide helduen jokabidea (eta inguruko mintzaide heldu zein gazte guztiena ere gauza bera da):

- (69) *ekarri kotxe hori! (Oitzen amak)*  
 (70) *hartu pintura hau! (Mikelen amak)*

Horrela, haurrek, inolako gramatika-ezaugarririk gabeko lehen aro honetan, aditz-lexemak adierazteko gramatika-teorian aspektu burutuari edo perfektuari dagokion marka erabiliko dute, baina itxurazko aspektu perfektu markadun aditz jokaturik gabek ez dute inolako aspektutasunik adieraziko, aditz-lexema hutsak izango baitira. Hona hemen zenbait adibide:

- (71) *popota apu(r)tu (O. 1;06;22)*  
 (72) *ikusi tita! (O. 1;08;29)*  
 (73) *hau ipini (O. 1;10;12)*  
 (74) *ni igon (O. 1;11;05)*  
 (75) *ke(n)du (M. 1;07;27)*  
 (76) *eto(rr)i (M. 1;07;27)*  
 (77) *ha(r)tu (P. 1;11;00)*  
 (78) *apu(r)tu pupila(gurpila) (P. 2;02;14)*

Ez dut aldi honetan inolako aditz-aspekturik erakusten duen adibiderik bildu ahal izan. Adizki jokaturik gabek erakusten dizkiguten aspektuen erabilera, beraz, beranduago agertuko dela uste dut.

#### 4.1.7. Aditzen ezaugarriak

Aditzaren lehenengo agerrerak *-tu*<sup>35</sup> morfemaz, adizki trinko bakar eta berezi batzuez edo nini-hizkerako hitz berezietz burutzen dituzte. Lehen moetatukoak 4.1.6. azpiatalekoak dira. Adizki trinkoak orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak dira, eta 4.1.5. azpiatalean aurkeztu ditut. Azkenik, hona hemen nini-hizkerako hainbat adibide:

- (79) *tita(erlojua) punba (O. 1;08;29)*  
 (80) *Arantza hemen apatxin (O. 1;11;05)*  
 (81) *ni punba (P. 1;11;29)*  
 (82) *apapo(amaitu) (P. 1;11;29)*

<sup>35</sup> Gogoan izan *-tu* atzizkiak dihardudanean bere kideez ere badihardudala, *-i* eta *-n* atzizkiez esate baterako.

Aditz jokatu gabeen erabilera aspektu perfektuari edo burutuari dagokion morfemaz gauzatzen duten arren, nire ustez, aditz-lexema hutsari dagokie. Esan gura dudana zera da: aspektu perfektuari dagokion markaren erabilera ez dagokiola gramatika-ezaugarriren bati, ezagupen semantikoari baino. Gogoratu behar dugu helduen mintzairan ere aspektu perfektuari dagokion markaren erabilera, sarritan, aditz-lexema hutsari dagokiola.

#### 4.1.8. Menderagailu-eza

Mendeko perpaus denboragabeetan adizki jokatu gabeen eranstean zaizkien menderagailurik ez dute erabiltzen lehen aro honetan (-*ta*, -*tzen*, -*tze-ko*, ...). Ez du haur batek ere halako menderagailurik ekoizten lehen aro honetan. Geroago ekoitziko dituzte.

#### 4.1.9. Konplementagailu-eza

Gauza bera esan dezaket mendeko denboradun perpausetako adizki jokatuari eranstean zaizkien konplementagailuei buruz (-*en*, -*ela*, ...). Lehen aro honetan ez du haur batek ere halakorik erabiltzen.

#### 4.1.10. Ezeztapenaren lehenengo formak

*Ez* ezeztapen-partikula, aditzarekin izan ezik, beti ezeztatuaren ondoren jartzen dute lehen aro honetan. Hona hemen zenbait adibide:

- (83) *hori ez* (O. 1;07;20)
- (84) *hara ez* (O. 1;10;12)
- (85) *hau no* (M. 1;07;14)
- (86) *lua ez* (P. 2;01;03)
- (87) *hau ez* (P. 2;01;03)

Kontutan izan behar dugu ezeztatutakoa beste mintzaideak esaten duena edo jolaskideak egiten duena denean, hots, erabilera anaforikoa denean, ezeztapen-partikula esaldiaren hasieran joango dela, ondoko esaldia komak adierazten duen etentxo batez bereizirik. Hona hemen adibideak (lehenengoan Oitz eta bere mintzaidea ari dira; bigarrenean Peru eta berea):

- (88) *Mintzaidea: Hori Jurgi(re)na da?*  
*Oitz: Ez, niria* (O. 1;10;12)
- (89) *Mintzaidea: Urdina? Hemen, hemen hasiko da. Hemen. Hau hemen.*  
*Peru: Ez, hemen punba* (P. 1;11;29)  
*Mintzaidea: Hortik erori e(g)iten da, e!*

Aditza denean ezeztatutakoa, adizki trinkoa bada, ezeztapen-partikula aurrean agertuko da (ikus 4.1.5. azpiataleko adibideak). Aditza, ordea, jokatugabea bada, ezin dut gauza handirik esan, Oitzen adibideak baino ez baititut bildu. Haur honek, *ez* eta *ezin* ezeztapen-partikulak adizki jokatugabeen aurrean jartzen ditu beti aro honetan. Hona hemen adibideak:

(90) *ez ibili (O. 1;11;05)*

(91) *ezin hartu (O. 1;11;05)*

(92) *ezin igon (O. 1;11;05)*

Zentzu honetan, behaketa bat dator Ezeizabarrenak (1991) egindakoa-gaz, aro honi dagozkien datuetan zein hurrengo aroetako datuetan. Ezeizabarrenak bere lanean ezeztapen anaforikoez gain, ezeztapen-partikulak edozein osagairen ostean doazela dio. Baina aditzekaz ezeztapen-partikulak aurrean ekoizten dituztela dio, eta aditz jokatugaz *ez* ezeztapen-partikulak duen harreman estua azpimarratzen du, beti baitoa bere aurre-aurrean.

#### 4.1.11. Hitzordena

Hitzordenaren arloan fenomeno bi dira azpimarragarrienak, ene irudiko behinik behin. Batetik esaldiaren barruan aditzak hartzen duen egongunea. Bestetik beste lexiko-kategorietako ekoizpenek hartzen duten egongunea.

Hasteko, eta gorago adierazi dudan bezala, esan dezadan haur hauek ekoizten dituzten hitz biko egituretan, besteak beste<sup>36</sup>, lau lexiko-kategorietako materialea ikus dezakegula: aditz, izen, adjektibo eta aditzondo izenez bilduko ditudanak.

4.1.11.1. Esaldi deklaratzailletako aditzaren egonguneari begiratu zera ikus dezakegu: aldi honetan Oitz haur elebakarrak aditza ekoizten duen guztietan, 19 aldiz, esaldiaren amaieran ekoizten duela, Peru haur elebidunak, ordea, amaieran ekoizteko joera du, 14-tik 12-tan hain zuzen. Mikelek, bestalde, adibide bakar bat baino ez du, eta amaieran jarri du aditza (ikus 5. taula). Baina hau guztiau, lehenago ere esan dudan bezala, esaldi deklaratzailleei begira da. Hona zenbait adibide:

(93) *popota apu(r)tu (O. 1;06;22)*

(94) *ajgia apu(r)tu (O. 1;07;20)*

(95) *hau bota (O. 1;07;20)*

(96) *ni hemen apatxin (O. 1;11;05)*

<sup>36</sup> Haurren ekoizpenetan sarritan ikus ditzakegun lokailuak, indargailuak eta abar, oster, ikerketa honetatik kanpo uztea erabaki dut.

- (97) *ni igon* (O. 1;11;05)  
 (98) *han da(g)o(z)* (M. 1;07;14)  
 (99) *ha(r)tu [otate]* (P. 1;11;29)  
 (100) *ni punba* (P. 1;11;29)  
 (101) *holan punba* (P. 2;01;03)

Argi dago nagusiki aditza esaldiaren amaieran jartzeko joera dutela. Baina Oitzengan jokabide hau bakarra den bitartean, Peruk esaldiaren hasieran ere jartzen du aditza. Mikelen jokabideaz, adibide bakar bat izanik, ez dago gauza handirik esateko. Halere, kontutan izan Peruren azken grabaketako ekoizpena (2;02;14-koa hain zuzen) ez dudala batere argi aro honetakoa ala hurrengoa denentz<sup>37</sup>.

### 5. Taula

Lehen aroko hitz bi edo gehiagoko esaldi deklaratzaileretan aditzak hartzen duen egongunea

	Adina	Esaldi kopurua	Aditza amaieran	Aditza hasieran
Oitz	1;05;19	1	1	—
	1;06;22	2	2	—
	1;07;20	3	3	—
	1;08;29	2	2	—
	1;10;12	1	1	—
	1;11;05	10	10	—
Guzt.		19	19	—
Mikel	1;06;27	—		
	1;07;14	1	1	—
	1;07;27	—	—	—
Guzt.		1	1	—
Peru	1;11;00	—	—	—
	1;11;10	—	—	—
	1;11;29	3	2	1
	2;01;03	4	4	—
	2;02,14	7	6	1
Guzt.		14	12	2

<sup>37</sup> Peruk oso gutxi hitzegiten du grabaketa honetan, eta ekoizten dituen datu apurrekaz zailtzak ditut lehen edo bigarren aroan kokatzeko grabaketa hau

Baina, esaldi deklaratzailerak arakatu ditudan legez, agindu-esaldiak arakaturako banitu zera esan beharko nuke: halakoetan aditzaren egongunea, dirudienez, esaldiaren amaiera zein hasiera izan daitekeela (ikus 6. taula).

Agindu-esaldiak Oitzek (guztira 21) eta Peruk (guztira 1) baino ez dituzte ekoizten (hitz bikoak edo anitzekoak esan nahi dut). Hortaz, Oitzen jokabideari buruzko ondorioak baino ezin daitezke atera. Baina, ezer esan baino lehen, dakusagun zenbait adibide:

(102) *niria emon!* (O. 1;10;12)

(103) *emon niria!* (O. 1;10;12)

(104) *ipini hori!* (O. 1;11;05)

(105) *hori hartu!* (O. 1;11;05)

Hau guztiau ikusirik, badirudi agindu-esaldietan joera ezberdina duela Oitz haur elebakarrak, halakoetan aditza esaldiaren hasieran zein amaieran jartzen baitu.

## 6. Taula

Oitz haur elebakarraren lehen aroko agindu-esaldietako aditzaren egongunea

Oitz	Esaldi kopurua	Aditza amaieran	Aditza hasieran
1;05;19	—	—	—
1;06;22	1	—	1
1;07;20	—	—	—
1;08;29	6	1	5
1;10;12	8	4	4
1;11;05	7	5	2
Guzt.	22	10	12

4.1.11.2. Eta beste lexiko-kategorietako ekoizpenak non jartzen dituzte? Badirudi beste lexiko-kategorietako ekoizpenak, hots, aditzak ez direnak, batez ere izen eta aditzondo multzokoak, esaldien hasieretan zein amaieretan jartzen dituztela, deiktikoak nagusiki hasieretan jartzen dituzten arren. Hona hemen zenbait adibide:

(106) *hori txotxo* (O. 1;07;20)

(107) *hemen ma(ura)* (O. 1;08;29)

(108) *ma(ura) hemen* (O. 1;08;29)

(109) *aita hemen* (P. 1;11;29)

(110) *hau Piu* (P. 2;01;03)



- (111) *(ha)ndia hemen* (P. 2;01;03)  
 (112) *hemen (ha)ndia* (P. 2;01;03)  
 (113) *hor Maxu* (P. 2;02;14)  
 (114) *ni auto* (P. 2;02;14)

Ondoriorik azpimarragarriena, ene irudiko behinik behin, zera da: deiktikoak (*hemen, hau, hori, ...*) esaldien hasieran jartzeko duten joera nagusia dela, bakarra ez den arren. Eta hau Oitz eta Perurengan, zeren Mikel ez baitu halako adibiderik ekoizten lehen aro honetan.

Laburbilduz, esaldi deklaratzaileretan eta agindu-esaldietan aditzaren egongunea dela eta joera ezberdinak dituzte. Horrela, Oitzek, esaldi-mota bietako adibideak ekoizten dituen haur bakarrak, deklaratzaileretan aditza beti amaieran jartzen duen bitartean, aginduetan amaieran zein hasieran jartzen du. Bestalde, badirudi esaldi deklaratzaileretan joera ezberdinak dituztela haurrek, zeren nagusiki Oitzek eta Peruk, adibideak ekoizten dituzten haurrek, aditza amaieretan jartzen badute ere, Peruk lantzean behin hasieran ere jartzen du.

#### 4.1.12. NZ-esaldiak

Lehen aro honetan Oitzek baino ez ditu ekoizten halako esaldiak (ikus 7. taula). Hona hemen zenbait adibide :

- (115) *hori no(re)na?* (O. 1;08;29)  
 (116) *hau no(re)na?* (O. 1;10;02)  
 (117) *hau nun?* (O. 1;10;12)  
 (118) *ni nun?* (O. 1;11;05)  
 (119) *popota no(re)na?* (O. 1;11;05)  
 (120) *hori no(re)na?* (O. 1;11;05)

### 7. Taula

Lehen aroko NZ-esaldien ekoizpen-kopuruak

Oitz		Mikel		Peru	
1;05;19	—	1;06;27	—	1;11;00	—
1;06;22	—	1;07;14	—	1;11;10	—
1;07;20	—	1;07;27	—	1;11;29	—
1;08;28	1			2;01;03	—
1;10;02	2			2;02;14	—
1;11;05	5				
Guzt.	8	Guzt.	—	Guzt.	—

Lehen aro honetan Oitzek ekoizten dituen 8 NZ-esaldi hauek honako osagai-hurrenkera erakusten digute:

(121) Iz- NZ

NZ-esaldi hauek osagai bi dituzte: deiktikotzat edo subjektutzat (nik nahiago dut horrela ez deitzea) har daitekeen izena NZ-esaldiaren hasieran eta NZ-hitza honen ondoren, esaldiaren amaieran. Ez da halakoetan inolako aditzik agertzen.

NZ-esaldi hauek esaldiaren hasieran erakusten duten osagaia deiktiko formaduna eta mintzagaiaren funtzioa betetzen duenetakoa dela uste dut, eta horregatik halakoak gauzatzerakoan haur hau mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez baliatu delakoan nago. Ez dut inolako gramatika-ezaugarririk edo sintaxi-egiturarik ekoizpen hauetan ikusten.

Kontutan izan behar dugu helduen mintzairan halako hurrenkerako NZ-galderak burutzea onartzen dela, baina haur honengan % 100 osatzen dutela halakoek aro honetan, eta maiztasun hau, hain zuzen ere ez dela helduengan gertatzen dena.

#### 4.1.13. **Laburbilketa**

Lehen aroko ekoizpena ikusirik, gramatika-ezaugarririk gabeko aroa dela baieztatu dezaket. Haurrek, aro honetan, gramatika-ezaugarririk ez erabiltzeaz gain, sintaxi-araurik ere ez baitarabilte esaldiak eraikitzean.

Hitzordenaren arloan, eta batez ere aditzaren egongunea erabakitzeko orduan, badirudi haurrek joera ezberdinak erakusten dituztela esaldi deklaratuile eta aginduetan: esaldi deklaratuileetan aditza esaldiaren amaieran jartzeko joera argia dakusat Oitzen eta Peruren ekoizpenetan. Eta ez da hain argia, aitzitik, Mikelen ekoizpenean, adibide bat baino ez baitu ekoitzi. Agindu-esaldietan, aditza amaieran zein hasieran jartzeko joera, Oitzengan baino ezin izan dut ikusi, beste haur biek ez baitarabilte halako esaldi-motarik.

Hau guztiau, aditza esaldi deklaratuileen barruan ekoiztean haur bakoitzak joera bereziari eustearen fenomeno hain zuzen, Parodi-k (1989) ere adierazten du haur frantses-alemaniar elebidunen hizkuntza-jabekuntzaren garapena aztertzerakoan. Parodi-ren eritziz haur bakoitzak bere jokabidea markatzen du, eta horri eusten dio ikasten ari den hizkuntza guztietan. Bere ikerketaren arabera nabarmena da haurren arteko jokabideak ezberdinak izan daitezkeela. Ikerketa honetan, badirudi haur guztiek aditza esaldi deklaratuileen amaieretan jartzeko joera dutela, Mikelen eta Peruren ekoizpenetan egiten ditudan oharrak kontutan izanik, noski.

Bestalde, aro honetako hainbat esaldi, nire ustez behinik behin, mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez taiutzen dituzte haur hauek. Esan nahi dudana zera da: ez dutela aditz-kategoriaren edo INFL eta KONP funtzio-kategorien egiturei dagozkien sintaxi-araurik erabiltzen esaldien eraiketa gauzatzean, eta badirudiela esaldiaren hasieran ekoizten duten mezua informazio jakina, ustez jakina, edo deiktikoa dela, berbal-diaren inguruan ikus-ikutu daitekeena, eta esaldiaren amaieran ekoizten dutena informazio berria edo aurrekoari buruzko iruzkina dela. Hona hemen eritzi honen alde bildu dudan hainbat adibide:

- (122) *a(rg)ia. a(rg)ia (b)apez. a(rg)ia (b)apez. (O. 1;05;19) (Grabatzen ari diren gelako argia itzaltzean)*
- (123) *han t(r)ena (O. 1;07;20) (Erabilgarria edo interesgarria iruditzen zaion jostailua aipatzean)*
- (124) *hori no(re)na? (O. 1;08;28) (Adibide honetan mintzagaia osagai deiktikoa da, eta galdegaia galdetzailea, NZ-hitza)*
- (125) *oihala ez! (O. 1;10;12) (Egoera honetan haurrak ez du nahi amak oihala jar diezaien. Oihala mezu jakina da, berataz ari baitira ama eta haurra. Ezeztapenak haurraren gogoia adierazten du)*
- (126) *o(ra)jin hartu (O. 1;11;05) (Egoera honetan, bere amak 'orain' beste leku batera kotxea bidaltzea proposatzerakoan, haurrak 'orain' hartzea kontraproposatzen du)*
- (127) *hau no (M. 1;07;14) (Mintzaide helduak hartzea proposatzen dion gauzakia ez duela gura azaltzeko)*
- (128) *hau mumua (P. 1;11;29) (Haurrak mintzaide helduari zerbait 'hau' seinalatzen dio)*
- (129) *Peru: ha!  
Mintzaide heldua: hau zer da?  
Peru: ua.  
Mintzaide heldua: usoa.  
Peru: ua.  
Mintzaide heldua: bai, usoa da hau.  
Peru: hau mamua. (P. 1;11;29) (Egoera honetan sabaitik zintzilik dauden gauzakeriez dihardute: uso bat eta mamu bat, hain zuzen. Mintzaideak uste du haurrak usoaz diharduela, baina haurrak zuzendu egiten dio ustea)*
- (130) *ni otate(berriro)<sup>38</sup> (P. 1;11;29) (Jostailua berriro hartu nahi duela esatean)*
- (131) *ni punba (P. 1;11;29) (Bere jostailua jausi egin dela adieraztean; ni, noski, nirea baita)*
- (132) *hemen aita (P. 1;11;29) (Ipuina ikusten ari dela, aita seinalatzen duenean)*


<sup>38</sup> Badirudi *otate* gaztelaniazko *otra vez* izan daitekeela.

Berresanik, argi dakusat hatsarre semantiko-pragmatikoak darabiltzaitela lehen aroko hainbat esaldi burutzean. Alabaina ez dut esan gura halako hatsarreez esaldi eta egitura guztiak eraikitzen dituztenik.

#### 4.2. BIGARREN AROA EDO AS-EN EGITURA ETA LEHEN GRAMATIKA- EZAUGARRIAK ERABILTZEN DITUZTEN AROA

Aurkezturiko hipotesiaren arabera bigarren aro honetan, haurrek lehen gramatika-ezaugarriak erabiltzeari ekingo diote. Edo alderantziz esanik, lehen gramatika-ezaugarrien erabilerak mugatuko du bigarren aro honen hasiera. Lehen gramatika-ezaugarri hauek, nire ustez, aditz-kategoriaren barruan egongo dira.


Horrela, haurrek egiten duten sintaxiaren lehen erabilera, hurrenkera hierarkikoaren arabera perpausaren egituraren oinarria da: AS<sup>39</sup>, hain zuzen (ikus (133) egitura).



Baina kontutan izaten badugu Ouhalla-k (1991,1992) zabalduko bidea, une honetan, haurrek AS-en burua eta osagarria (goiko zuhaitzean Iz'') edozein egongunetan jar ditzakete. Horrela, espezifikatzaile-egongunetan subjektua agertuko dela onartuz, lau hurrenkera ezberdin erabili ahal izango dituzte AS-en egitura gauzatzean (ikus (134), (134a), (134b), (134c) eta (134d) egiturak).


- (134) (a) S(ubjektua) - A(ditza) - O(sagarria)  
 (b) A - O - S  
 (c) S - O - A  
 (d) O - A - S

(134a) S A O




<sup>39</sup> Gogoan izan AS eta A' gauza bera adierazteko era bi direla, egiturari dagokionez, noski. Ildo beretik, IzS eta Iz'' hizkiek ere gauza bera adierazten dute.


(134b) A - O - S



(134c) S - O - A




(134d) O - A - S




Egitura hauez gain beste bi ere itxaroten ditut. Alde batetik, adberbioak ekoiztean hauek A'-ri atxikituko dizkiote (ikus (135) egitura). Bestetik, mintzagaiak ekoiztean, lehen aroan bezala, esaldiaren hasieran ebakiko ditzute, A'' -ri atxikirik (ikus (136) egitura). Halere gogoan izan behar dugu egitura bakoitzak espezifikatzaile eta osagarrien egonguneen arabera aldaerak ere izan ditzakeela.

(135)



(136)



Gramatika-ezaugarriei dagokielarik, izen-sintagmaren osaketa, gramatika-kasuen erabilera, beste kasu-marken erabilera eta aditz-multzoaren nolabaiteko gauzatzea gertatuko dela iruditzen zait.

Ildo honetatik jarraituz, izen-sintagmaren osaketan, *-a* markaz gain, beste mugatzaileak ere ikustea itxaroten dut. Honez gain baliteke genitiboak ere agertzea.

Gramatika-kasuen arloan ergatiboa, absolutiboa eta datiboa erabil ditza-ketela iruditzen zait. Baina honek ez du esan gura beti erabiliko dituzte-nik. Erabileraren hasieran baino ez garela egongo iruditzen zait.

Aditzek, ostera, ez dut uste INFL-ezaugarririk isladatuko dutenik. Zentzu honetan, beraz, lexemak izango direlakotan nago, nahiz adizki nagusiak zein laguntzaileak edo trinkoak agertu.

Bestalde, ez dut uste aditz-aspekturik oraingoz erabiliko dutenik. Eta arrazoi ezberdinetan oinarriturik, ez dut uste konplementagailurik edo menderagailurik ikusiko dugunik.

Baina lehen aroan gertatu den legez, bigarren aro hau ere hiru haurrek adin ezberdinez eta iraupen ezberdinez gauzatuko dute. Bigarren aroaren iraupenaz dihardudanean zera adierazi nahi dut: aditz-kategoria erabiltzen hasten diren unetik INFL funtzio-kategoria erabiltzen hasten diren arteko aldia (ikus 8. taula).

Jarraian, ikus ditzagun, banan banan, bigarren aro honetako hizkuntza-berezitasunak:

## 8. Taula

Bigarren aroaren iraupena, adinaren eta ebbl-neurriaren arabera

	Adina	Ebbl-a
Oitz .....	2;00;05 - 2;02;00	1,77 - 2,28 (II)
Mikel .....	1;09;04 - 1;09;22	1,35 -1,44 (I)
Peru .....	2;02;14 /	1,56 /
	2;03;12 - 2;04;15	1,36 - 2,10 (I-II)

### 4.2.1. Izen-sintagmaren mugaketa eta osagaiak

Bigarren aro honetan, lehen aroan ez bezala, haurrek *-a* markaz gain beste mugatzaileak ere erabiltzen hasten dira. Gainera behin baino gehia-

gotan nabaria da hitz beragaz mugatzaile ezberdinak darabiltzatela. Hona hemen zenbait adibide:

- (137) *azal bat* (O. 2;00;05)
- (138) *azala izan da* (O. 2;00;05)
- (139) *txaluek holan ez!* (O. 2;00;05)
- (140) *eta hau, beste hau?* (P. 2;03;12)
- (141) *beste sulula hemen* (P. 2;03;12)

Nabarmena da, halaber, sarritan hitzak *-a* marka barik ekoizten hasten direla. Hona hemen adibideak (batzutan kontrajarriak ere jarri ditut):

- (142) *beste artazia* (O. 2;00;05)
- (143) *o(ra)in bestia* (O. 2;00;05)
- (144) *txotxo txarra* (O. 2;00;05)
- (145) *t(r)ipa<sup>40</sup>-azala* (O. 2;00;26)
- (146) *tutu handia hemen* (P. 2;03;12)
- (147) *be(s)te ba(t) sa(r)tu* (M. 1;09;22)

Eta genitiboen erabilera ere une honetan burutzen hasten direla ikus dezakegu:

- (143) *o(ra)in zure ulea* (O. 2;00;05)
- (144) *Teo(re)n laguna* (O. 2;00;26)
- (145) *nire etxian* (O. 2;00;26)
- (146) *bere aita* (O. 2;00;26)
- (147) *hau amama(re)n erregalua* (O. 2;01;19)

Adibide hauen bidez argi dakusagu haurrak dagoeneko izen-sintagmak era ezberdinetan mugatzeko gai direla: *-a*, *-ak*, *bat*, *hau*, ... Izen-sintagmaren egitura ere badarabiltela esan dezaket, izen biren, izen eta adjektiboen eta genitibo eta izenen elkarketetan eskumatako hitza baino ez dute mugatzen eta. Gainditu egin dute, beraz, lehen aroko *-a* markaren erabilera lexikaldua, eta gramatikaren erabilera gauzatu dutela edo gauzatzen dihardutela baiets daiteke.

Laburbilduz, izen-sintagmaren jabekuntza dagoeneko lortu dutela edo badarabiltela baietsiko dut.

#### 4.2.2. Gramatika-kasuen erabileraren hasiera

Oitzengan aro honen hasiera beretik ergatibo-, absolutibo- eta datibo-kasuen erabilera ikus daitekeen bitartean, Mikelengan ergatiboaren eta absolutiboaren erabilera baino ezin daiteke ikus. Perurengan, aitzitik, absolutiboa bai-

<sup>40</sup> Hitz honek *-a* marka balu *tripia* edo *tripie* izatea eskatuko luke.

no ez dakusagu aro honetan. Baina ez-agertzearen arrazoia grabaketa hauetan haur honek burutzen duen ekoizpen-urritasunari zor zaiola iruditzen zait, zeren, geroago ikusiko dugun legez, ergatibitatearen erabilera gauzatzen baitu bigarren aro honetan. Baina azter ditzagun fenomeno hauek banan banan.

Ergatiboaren markaren erabilera oso nabaria gertatzen da euskararen eremuan, eta horrelaxe ikus dezakegu haurren ekoizpenetan. Haurrek darabiltenentz erabakitzea erraz samarra gertatzen da gehienetan. Hona hemen erabilera hau erakusten diguten zenbait adibide:

- (148) *eba(g)i nik (O. 2;00;05)*
- (149) *nik dana hartu (O. 2;00;05)*
- (150) *zuk (O. 2;00;26)*
- (151) *hori, nik hor punba (O. 2;01;19)*
- (152) *Asunek eka(rr)ita (O. 2;01;19)*
- (153) *guk ikusi (O. 2;01;19)*
- (154) *ta zuk (M. 1;09;04)*

Baina ergatiboari dagokion markaren ekoizpenaz zera esan behar dut: ez dutela berau beti ekoizten. Hona hemen ekoizpen-eza erakusten duten adibideak:

- (155) *Peru(k) ezin du (P. 2;04;15)*
- (156) *gu(k) eba(g)i (O. 2;00;05)*
- (157) *pianoa gu(k) ezin ko (O. 2;00;05)*
- (158) *ni(k) argia ikutu (O. 2;00;26)*
- (159) *gu be(re) kan (O. 2;01;19)*
- (160) *nor(k) izetu? (O. 2;01;19)*

Peruk ergatibo-markarik une honetan ez darabilen arren, ergatibitatearen erabilera adizki laguntzaile iragankorrek gauzatzean baderakusa. Hona hemen adibide bi:

- (161) *bota du (P. 2;04;15)*
- (162) *Peru(k) ezin du (P. 2;04;15)*

Argi dago, beraz, haurrak dagoeneko ergatibo-marka egoki erabiltzeko gai direla. Baina baieztapen honek ez du esan nahi beti erabiliko dutenik. Nolabait, ergatibo-markaren erabileraren hasieran daudela iruditzen zait. Agian, sarritan ez erabiltzearen arrazoia oraindik aurreko aroko egiturak gauzatzen dituztelako izan daiteke.

Absolutiboaren erabilera gauzatzen denentz zailagoa gertatzen zait erabakitzea, jakina baita euskararen eremuan absolutiboak ez diola inolako atzizkirik eransten izen-sintagmari, entzun daitekeen atzizkirik behinik behin. Absolutiboaren erabilera baieztatzeke, bada, kasu honek bete ditzakeen funtzio bien erabileraren arabera egitea erabaki dut.



Haurren ekoizpenetan argi ikus dezakegu hurrek absolutibo-kasua subjektutzat eta osagarri zuzentzat darabiltela.

Hona hemen absolutibo-subjektuak:

- (163) *azala izan da* (O. 2;00;05)
- (164) *ez da(g)o zezena* (O. 2;00;26)
- (165) *han da(g)o zezena* (M. 1;09;22)
- (166) *han da(g)o kotxie* (M. 1;09;04)
- (167) *Amaia da* (P. 2;02;14)

Absolutiboa osagarri zuzen bezala darabilten adibideak ere ugari dira:

- (168) *ni(k) argia ikutu* (O. 2;00;26)
- (169) *buruhaundia ipini* (O. 2;00;26)
- (170) *pianoa gu(k) ezin jo* (O. 2;00;05)
- (171) *txapela ipini* (O. 2;00;26)
- (172) *nik pentsa(t)u beste ipuina, dana* (O. 2;01;19)
- (173) *be(s)te bat sa(r)tu* (M. 1;09;22)
- (174) *ura ekarri* (M. 1;09;22)
- (175) *apatila kendu* (M. 1;09;22)
- (176) *(b)e(s)te sudurra hemen* (P. 2;03;12)
- (177) *lula (lurra) bota* (P. 2;04;15)

Adibide hauek ikusirik, eta ergatiboa ere badarabiltela baieztaturik, frogatutzat jo daiteke absolutiboaren jabekuntza edo erabilera burutzen hasiak direla.

Datiboa aro honetan, ostera, Oitzek baino ez darabil. Baina argia da kasu honen erabilera. Hona hemen adibide apur batzuk:

- (178) *zuri* (O. 2;00;05)
- (179) *hori niri Jurgi(k) [bururu] ekarri* (O. 2;00;05)
- (180) *zure iloari(ileari)* (O. 2;00;05)

Gramatika-kasuak hurrak, beraz, bigarren aro honetan erabiltzen hasten direla baietsi ahal izan dut. Alabaina, honek ez du esan gura beti erabiliko dituztenik. Ene ustez, hurrek aurreko aroko egiturak sarritan erabiltzen jarraitzen dute, horrela, askotan, ergatiboaren edo beste gramatika-kasuen erabilera baztertuz.

Partitiboaren erabilera baieztza dezakeen adibiderik, ostera, ez dut ikusi.

Bestalde, Elosegiren (1991) lana begiratu ezker, bertan Peruren ekoizpena baino ez du aztertzen, bat nator bere eritziagaz ergatibo-marka Peruren korpusean lehen aldiz 2;05;26ko adinaz agertzen zaigula dioenean, hurrengo aroan, alegia.

### 4.2.3. Beste kasu-marken erabilera

Gramatika-kasuen erabileraz gain, nabaria da beste kasuen erabilera-  
ren hasiera bigarren aro honetan. Dagoeneko genitiboaren erabilera ere  
ikusia dugu (ikus 4.2.1. azpiatala). Jarraian beste zenbait kasuren erabilera  
erakutsiko dut. Nolanahi ere, ez da nire asmoa kasu guztien agerrera ze-  
hatza egitea, eta horrexegatik zenbait adibide baino ez dut erakutsiko.  
Hona adibideok:

- (181) *hori eskuan (O. 2;00;05)*
- (182) *mediku(ar)ena (O. 2;00;05)*
- (183) *ez, dantzan ez! (O. 2;00;05)*
- (184) *Idoia(re)na (O. 2;00;26)*
- (185) *Amaia(re)na (O. 2;00;26)*
- (186) *Arantzagaz (O. 2;00;26)*
- (187) *ni Arantza(re)kin (O. 2;00;26)*
- (188) *aitita Akardokin (O. 2;00;26)*
- (189) *bakar(r)i(k) etxian (O. 2;00;26)*
- (190) *zu zure botekin (O. 2;01;19)*
- (191) *lehen soloti(k) (O. 2;01;19)*
- (192) *g(r)ua ga(ra)jean (P. 2;02;15)*
- (193) *hau atzean, hau (P. 2;04;15)*
- (194) *hau aita(re)na bezala (P. 2;04;15)*
- (195) *Pelu(re)na bezala (P. 2;04;15)*

### 4.2.4. Adizki jokatuaren erabilera

Adizki trinkoak aurreko aroan ere erabili dituzte hurrek, baina bigar-  
ren aro honetan, adizki jokatuaren artean trinkoak eta laguntzaileak bereizi  
egiten dituztela dirudi. Honez gain, Peru haur elebidunak adizki jokatu la-  
guntzaile iragankorrak eta iragangaitzak ere bereizten ditu. Hona hemen  
adibideok:

- (196) *hau ez da (M. 1;09;04)*
- (197) *ezin, jausi (eg)in da (M. 1;09;04)*
- (198) *hemen ez da(g)o (M. 1;09;04)*
- (199) *hemen dato(r) prolema (P. 2;04;15)*
- (200) *joan da etxe(r)a (P. 2;04;15)*
- (201) *Peru(k) ezin du (P. 2;04;15)*
- (202) *bota du (P. 2;04;15)*
- (203) *ez da(g)o hemen (O. 2;00;05)*
- (204) *azala izan da (O. 2;00;05)*
- (205) *argie izetu da (O. 2;01;19)*
- (206) *hortxe egon da (O. 2;01;19)*

Baina adizki jokatuak erakusten duten pertsona-komuntzadura badirudi ez dutela erabiltzen, zeren aditz-forma bakarra baitarabilte singularreko lehen pertsona, singularreko hirugarren pertsona edo pluraleko hirugarren pertsona adierazteko. Hona hemen, beraz, subjektuarekiko pertsona-komuntzadura okerra erakusten duten hainbat adibide:

(207) *lau sei da(g)o(z)* (M. 1;09;22)

(208) *(nik) ez daki(t)* (M. 1;09;22)

(209) *bi da(g)o(z)* (O. 2;00;05)

(210) *(nik) ez daki(t)* (O. 2;01;19)

Gainera, hiru hurrek darabiltzaten adizki trinko guztiak orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak dira: *da*, *dago* eta *daki*, hain zuzen. Adizki laguntzaile iragangaitza *da* dugu beti. Eta azkenik, adizki laguntzaile iragankorraren arloan *du* da Peruk darabilena.

Honegatik, badirudi bigarren aro honetan, lehen aroan bezalaxe, inolako pertsona-komuntzadurarik ez darabiltela. Aditzen bidez adierazten dutena, nire ustez, honetan datza: adizki jokatuak eta jokatugabeak, eta adizki jokatu trinkoak eta laguntzaileak bereiztean. Eta agian, lagun-tzaile iragangaitzak eta iragankorrak bereizten, zeregin honetan ergatibotasunak ere laguntzen dielarik. Haatik, aditz-kategoriaren nolabaiteko erabilera mintza naitekeela uste dut, baina ez INFL funtzio-kategoriaren erabileraz.

Hau horrela izanik, pentsatzekoa da beharbada euskal aditz-sistemak ez duela pertsona-komuntzadurarik erakusten singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak erabiltzean, eta komuntzadura lehen eta bigarren pertsonak agertzen zaigula. Eritzi honen arabera orainaldiko hirugarren pertsonen *d-* marka ez litzateke pertsona-marka izango, ez bailuke pertsona-komuntzadurarik adieraziko.

#### 4.2.5. Adizki jokatu bageen aspektua

Oitzek eta Peruk ez darabilte inolako aspektu kontrajarririk bigarren aro honetan. Geroxeago erabiliko dituzte lehen ekoizpenak (ikus. 9. taula).

Hona hemen une honetan ekoizten dituzten zenbait adibide:

(211) *han hartu* (O. 2;00;26)

(212) *argie izetu da* (O. 2;01;19)

(213) *hori itxi hor* (O. 2;01;19)

(214) *hemen sartu* (P. 2;04;15)

(215) *bota du* (P. 2;04;15)

Mikelen korpusean, aitzitik, kontua nahasitxoago dago. Batetik, badi-rudi Mikelek 1;09;04 adinaz aspektu burutua (zortzitan) eta ez-burutua (behin) ezberdintzen dituela. Baina hurrengo grabaketan ez da halakorik agertzen (ikus 9. taula). Gainera, 1;09;04 adineko aspektu ez-burutudun adibide kontrajarri bakar hau apur bat arakatu ezker, ez dago hain argi aspektu ez-burutuaren erabilera isladatzen duenik.

Ikus ditzagun Mikelek 1;09;04 grabaketan ekoizten dituen zenbait adibide:

(216) *kendu (eg)in da (M. 1;09;04)*

(217) *ezin, jausi (eg)in da (M. 1;09;04)*

(218) *hau pite(ipintzen) da (M. 1;09;04)*

Azkeneko adibidean Mikelek ustez darabilen aspektu burutugabeak edo ez-perfektuak, ez dago hain argi dagokion aspektutasuna isladatzen duen. Badirudi hori dioela, baina dudarentzat ere atea zabalik utz daiteke ingurua arakatur. Adibide bakar eta zalantzezko hau ikusirik, ez dut aditz-aspektu ezberdinak erabiltzen hasi denik esango.

Eritzi hau sendotzeko aspektu ezberdinen erabilera derakusan taula begiratzea guztiz gomenigarria da. Bertan aditz jokatu gabe guztien forma aztertzen da 2;06ko adina duten arte (ikus 9. taula). Taula honetan argi dago, ene ustez behinik behin, Mikel 1;11 edo 2;00ko adina duenean hasten dela aspektu kontrajarriak erabiltzen.

#### 4.2.6. Modu-Adizkiak

Aditz-moduaz dihardugunean, indikatibokoez gain subjuntibo, ahalera eta agintera-adizkiez ari gara normalean. Baina une honetan indikatiboaz gaineko beste aditz-modurik ez darabilenez, *ezin* eta *ahal* partikulez ekoizten dituzten adibideak aztertzen saiatuko naiz.

Hona hemen bigarren aro honetan hurrek ekoitzi dituzten adibideak:

(219) *ezin da (O. 2;00;05)*

(220) *o(ra)intxe ezin da (O. 2;00;05)*

(221) *horti(k) ezin da (O. 2;01;19)*

(222) *ezin atara Antonio(k) (O. 2;01;19)*

(223) *Peru(k) ezin du (P. 2;04;15)*

(224) *ezin da (P. 2;04;15)*

Haur bik baino ez dute *ezin* partikula erabiltzen, eta *ahal* batek ere ez.

Gainera, ez dago bat ere argi zelan darabilten *ezin*, zeren baliteke aditz nagusi legez erabiltzea, kontutan hartzen badugu egundo ere ez dutela ekoizten beste aditz nagusiren bati laguntzen.

## 9. Taula

Aditz jokatugabeen aspektu-marken agerrera

	Esaldiak guztira	Burutua (-tu)	Burutugabea (-tzen)	Gertakizuna (-ko)
Oitz:				
1;05;19	1	1	—	—
1;06;22	3	3	—	—
1;07;20	3	3	—	—
1;08;28	3	3	—	—
1;10;02	1	1	—	—
1;11;05	11	11	—	—
2;00;05	8	8	—	—
2;00;26	2	2	—	—
2;01;19	23	23	—	—
2;02;00	7	7	—	—
2;03;09	30	29	1	—
2;04;11	27	23	3	1
2;04;24	49	39	6	4
2;05;05	39	25	13	1
2;05;21	42	25	5	12
2;06;05	68	45	11	12
2;06;25	42	20	14	8
Mikel:				
1;06;27	—	—	—	—
1;07;14	—	—	—	—
1;07;27	2	2	—	—
1;09;04	9	8	1	—
1;09;22	8	8	—	—
1;10;12	7	7	—	—
1;11;06	13	11	2	—
2;00;00	21	19	1	1
2;00;22	7	6	—	1
2;01;06	9	8	1	—
2;02;11	19	17	2	—
2;03;11	22	17	3	2
2;04;11	25	14	7	4
2;05;10	29	21	1	7
2;06;11	10	5	1	4
Peru:				
1;11;00	4	—	—	—
1;11;10	—	—	—	—
1;11;29	2	2	—	—
2;01;03	4	4	—	—
2;02;14	6	6	—	—
2;03;12	—	—	—	—
2;04;15	16	16	—	—
2;05;26	12	9	—	3
2;07;09	8	4	—	4
2;07;30	28	11	14	3
2;09;05	23	12	9	2

Ene ustez, *ezin* partikulak nolabaiteko modu-balioa izan dezan laguntzaile legez erabili beharko lukete, aditz nagusiren bati lagunduz. Eta argi dagoenez, hori ez da gertatzen goiko adibideetan. Hortaz, ez dut uste inolako aditz-modurik erabiltzen dutenik aro honetan.

#### 4.2.7. *Ez eta bai* partikulen erabilera

Orain arte egin dudan moduan, ikus dezagun ea *ez* ezeztapen-partikulak eraginik duen esaldiaren hurrenkera burutzerakoan.

Lehenago esan dudan bezala, aditzekaz izan ezik, beste lexiko-kategoriako unitate guztiekaz *ez* ezeztapen-partikula atzean jartzen dute. Eta jokabide hau horrelakoxea da lehen zein bigarren aroetan hiru haurrengan.

- (225) *hemen ez* (M. 1;09;04)
- (226) *hori ez* (M. 1;09;04)
- (227) *hori ez* (P. 2;04;15)
- (228) *guagua ez* (P. 2;03;12)
- (229) *ez, dantzan ez* (O. 2;00;05)
- (230) *bakar(r)i(k) ez* (O. 2;00;26)
- (231) *txaloak holan ez* (O. 2;00;05)
- (232) *honi honek ez* (O. 2;02;00)
- (233) *ume txikiak bakari(k) ez* (O. 2;02;00)

Gauza bera esan dezakegu *bai* baieztapen-partikulaz. Hona hemen adibide batzuk:

- (234) *hemen bai* (P. 2;03;12)
- (235) *hau bai* (M. 1;09;04)
- (236) *ni bai* (O. 2;00;05)
- (237) *hori be(ere)bai* (O. 2;01;19)
- (238) *honek bai* (O. 2;02;00)

Halere, *ez* ezeztapen-partikula zein *bai* baieztapen-partikula, komak adierazten duen etentxo batez berezirik, esaldiaren hasieran ere ekoizten dituzte. Baina, egoera horretan, aurretik haurrak berak edo bere mintzaidak esandakoa, egindakoa edo proposatutakoa ezeztatzeko edo baieztatzeko erabiltzen dute. Erabilera anaforikoa da, beraz. Hona hemen zenbait adibide:

- (239) *ez, aitita akardokin* (O. 2;00;26) (*Mintzaide helduak ea amagaz egon den galdetzerakoan*)
- (240) *ez, pintto bakar(r)i(k)* (O. 2;00;26) (*Mintzaide helduak beste abesti bat kanta dezan proposatzerakoan, berak pintto pintto baino ez duela kantatuko ihardesten dio*)

*Ez* ezeztapen-partikula aditzekaz ekoizten dutenean, gauzak ez dira hain erabatekoak, alde batetik adizki jokatuak eta bestetik jokatugabeak ditugulako, eta bi moztatako adizkiekaz jokabide ezberdinak dituztelako.

Adizki jokatugabeekaz, badirudi *ez* ezeztapen-partikula aurrean zein atzean jar dezaketela. Baina jokabide bikoitza haur elebakarrarengan baino ez dut ikusi, Peru haur elebidunak beti ekoizten baitu ezeztapen-partikula adizki jokatugabearen atzean eta Mikel haur elebidunarengan adibiderik ez baitut bildu. Hona hemen adibideak:

- (241) *ez ipini!* (O. 2;00;05)
- (242) *ez kantatu trulalai!* (O. 2;00;26)
- (243) *Amaia etorri bapez* (O. 2;02;00)
- (244) *ez, izetu ez* (O. 2;00;26)
- (245) *o(ra)in punba ez* (O. 2;02;00)
- (246) *inor(k) ez kendu bere gol* (O. 2;02;00)
- (247) *inor(k) ez kendu* (O. 2;02;00)
- (248) *hau sartu ez* (P. 2;04;15)

*Bai* baieztapen-partikula adizki jokatugabeen inguruan behin baino ez dut ikusi ahal izan. Hona hemen:

- (249) *amata(t)u bai!* (O. 2;00;26)

Adizki jokatuakaz, ostera, jokabidea beti da berbera, hiru haurrengan zein edozein arotan: *ez* ezeztapen-partikula beti jartzen dute adizki jokatuaren aurre-aurrean. Halere adizki jokatu hauek, bigarren aro honetan, beti dira trinkoak. Hona adibideak:

- (250) *ez da(g)o hemen* (O. 2;00;05)
- (251) *ez da(g)o zezena* (O. 2;00;26)
- (252) *ez daki(t)* (O. 2;01;19)
- (253) *horti(k) ezin da* (O. 2;01;19)
- (254) *ez da(g)o garbian* (O. 2;02;00)
- (255) *hemen ez da(g)o* (M. 1;09;04)
- (256) *e(z) daki(t)* (M. 1;09;04)
- (257) *holantxi ez da* (M. 1;09;04)
- (258) *bat e(z) da* (M. 1;09;22)

Kontutan izan behar dugu *ezin* partikula ere beti adizki trinkoen aurrean jartzen dutela (ikus 4.2.6. azpiatala).

Adizki jokatuakaz doanean *ba(i)*-baieztapen-partikulak ere egongune bera hartzen duela dirudi. Hona hemen adibide apur batzuk:

- (259) *Oitz txikik badeko handia* (O. 2;01;19)  
 (260) *ni ni ni(k) kertsia badeka(t)* (O. 2;02;00)  
 (261) *hau balbu(bai du(t))*<sup>41</sup> (P. 2;04;15)

Badirudi *ez*, *ezin* eta *bai* beti jartzen dituztela adizki jokatuaren aurrean, lehen aroan bezala. Alabaina, adizki jokatuagabeekaz jokabide bikoitza dutela esan dezaket, berauekaz *ez* eta *bai* ezeztapen-partikulak aurrean zein atzean jartzen baitituzte. Jokabide bikoitza haur elebakarrarengan baino ez dudala ikusi zehaztu behar dut, ordea. Agian, jokabide bikoitz honen oinarrian helduen mintzairan arras ezberdintzen diren bideak egon daitezke: agindu-perpau bakunak eta perpau elkartuak<sup>42</sup>.

#### 4.2.8. Menderagailuen erabilera

Hiru haurren ekoizpenei so eginik, hirurotan mendeko perpau denboragabeko adizki jokatuagabeei erasten zaizkien menderagailuak (*-ta*, *-tzen*, *-tze-ko*, ...) mendeko perpau denboraduneko adizki jokatuari erasten zaizkien konplementagailuak (*-en*, *-ela*, ...) baino lehenago agertzen direla ikus dezakegu.

Adizki jokatuagabeei itsasten zaizkien menderagailuen artean, *-ta* menderagailua da erabiltzen duten lehena. Apika, berau arlo honetako eragin-garrizat ere jo dezakegu. Mikelengan ikus ditzakegun lehen ekoizpenak, alabaina, ez dira aro honetakoak, beranduagoak baino.

Hona hemen lehen ekoizpenak hurrez haur:

- (262) *konponduta* (O. 2;00;05)  
 (263) *zapatak kenduta* (O. 2;00;05)  
 (264) *Asunek eka(rr)ita* (O. 2;01;19)  
 (265) *zuk eka(rr)ita* (O. 2;01;19)  
 (266) *hori eba(g)ita* (O. 2;01;19)  
 (267) *o(ra)in hori apu(r)tuta* (O. 2;02;00)  
 (268) *belarra eba(g)iten honekin* (O. 2;02;00)  
 (269) *dana da(g)o apu(r)tute*<sup>43</sup> (M. 2;02;11)  
 (270) *be(s)tie da(g)o apu(r)tute* (M. 2;02;11)  
 (271) *apu(r)tuta (birritan)* (P. 2;03;12)

Bigarren aro honetan Mikelek menderagailurik ekoizten duen frogarik ez dudan arren, beste haur biek badarabiltzate *-ta* menderagailua, eta aroaren azkenean, Oitzek *-tzen* menderagailua ere bai, baina behin baino ez.

<sup>41</sup> Horrela dago interpretaturik *balbu* hitza.

<sup>42</sup> Perpau elkartuetan sarritan *ez* ezeztapena mendeko aditzaren ostean jartzen dugu: *jaterik ez dut gura*.

<sup>43</sup> Ohar honen bidez adibide hau ez dela bigarren arokoa birgogorazi nahi dut. Gauza bera esan behar dut Mikelen hurrengo adibideaz.



Hortaz, *-ta* menderagailuaren erabilera baino ez dut argi aro honetan, eta agian beraren menderagailutasuna ez dagoela hain argi ere pentsa liteke, hots, haurrek beharbada *-ta* partikula aditz-lagunak egiteko atzizkitzat hartu dutela. Baliteke, beste barik, aditz-lagunen aurrean egotea, beraz. Alabaina, Oitzek sarritan esaldi osoa *-ta* menderagailuaren barruan ekoizten duela argi dago (ikus aurreko adibideak), eta menderagailu honen balio osoaren erabilera nabaria da, beraz.

#### 4.2.9. Konplementagailuen erabilera

Mendeko perpaus denboraduneko adizki jokatuerei erantzen zaien konplementagailurik, ostera, ez dut ikusi haur hauen bigarren aroko ekoizpenetan.

#### 4.2.10. Aditz-multzoaren egongunea

Gogora dezagun lehen aroan Oitzek beti jartzen duela aditza amaieran esaldi deklarataileetan, baina agindu-esaldietan jokabide bikoitza duela, aditza amaieran zein hasieran jartzen baitu; Mikelek ekoizten duen esaldi deklarataile bakarrean ere aditza amaieran jartzen duela; eta Peruk, ostera, gehienetan aditz-multzoa amaieran jartzen duen arren (% 85 alditan), esaldi-hasieran ere jartzen duela esaldi deklarataileetan.

Bigarren aro honetan esaldi deklarataileetako aditz-multzoen egongunea zabaldu egiten dela esan dezaket, haurrek aditza esaldiaren hasieran, amaieran zein erdian jar baitezakete (ikus 10. taula).

### 10. Taula

Bigarren aroko aditzaren egongunea esaldi deklarataileen barruan

	Esaldi kopurua	Aditza hasieran	Aditza erdian	Aditza amaieran
Oitz:				
2;00;05	12	2	—	10
2;00;26	9	1	—	8
2;01;19	24	—	5	19
2;02;00	33	2	7	24
Mikel:				
1;09;04	8	—	1	7
1;09;22	13	1	2	10
Peru:				
2;03;12	—	—	—	—
2;04;15	16	3	1	12

Argi dagoenez, bada, bigarren aro honetan aditz-multzoa esaldi deklaratuaren hasieran ere jartzeko joera hiru haurren ikus dezakegu, nagusiki aditz-multzoa oraingoz amaieran darabilten arren.

#### 4.2.11. Hitzordena

Hagitx interesgarria deritzot aditzen batez ekoitziriko esaldi deklaratuaren osagai ezberdinek hartzen dituzten egonguneak aztertzeari.

Horretarako honela sailkatuko ditut osagaiok: aditzak (A), subjektuak (S), osagarri zuzenak zein zeharkakoak (O), adberbioak eta aditzondoak (Adb) eta mintzagai izan daitekeen edozein osagai. Lokailuak eta indarkailuak, lehenago ere esan dudan legez, kanpoan utziko ditut.

Mintzagaiak, lehen aroan egin duten legez, aro honetan ere esaldiaren hasieran jarriko dituzte, ezkerretara hain zuzen.

Baina nire asmoa aditzek, subjektuek eta osagarriek hartzen dituzten egonguneak aztertzea denez, berauetaz gauzaturiko esaldietara mugatuko naiz, baina halako esaldietan, mintzagairen bat badago, ez dut kontutan izango hurrenkerak mugatzean (ikus 11. taula).

Halako osagai biz gauzaturiko esaldietan ondoko osagai-hurrenkerak ekoizten dituzte haurrek:

SA, AS, OA eta OA

Hiru osagaiz gauzaturikoetan, ostera, honako hauek:

SOA, SAO eta OAS

Baina ikus ditzagun adibideak hurrenkeraz hurrenkerak:

SA:

- (272) *gu(k) eba(g)i* (O. 2;00;05)
- (273) *azala izan da* (O. 2;00;05)
- (274) *Teo ibili* (O. 2;00;26)
- (275) *argie izetu da* (O. 2;01;19)
- (276) *berak emon* (O. 2;02;00)
- (277) *Teo ga(rb)itu* (M. 1;09;22)
- (278) *lau sei da(g)u* (M. 1;09;22)
- (279) *Amaia da* (P. 2;02;14)
- (280) *Peu ezin du* (P. 2;04;15)

AS:

- (281) *eba(g) nik* (O. 2;00;05)
- (282) *ez da(g)u zezena* (O. 2;00;26)

(283) *han da(g)u astue* (M. 1;09;22)

(284) *apu(r)tu pupila* (P. 2;02;14)

OA:

(285) *txapela ipini* (O. 2;00;26)

(286) *o(ra)in tena pasa(t)u* (O. 2;01;19)

(287) *hankia kendu* (O. 2;02;00)

(288) *hau balbu (nahi du)* (P. 2;04;15)

(289) *lula bota* (P. 2;04;15)

AO:

(290) *ipini hauek* (O. 2;02;00)

(291) *sa(r)tu itena(gizona)* (M. 1;09;22)

SOA:

(292) *gu hori eba(g)i* (O. 2;00;05)

(293) *nik dana hartu* (O. 2;00;05)

(294) *ni argia ikutu* (O. 2;00;26)

(295) *ni kertsia badeka* (O. 2;02;00)

### 11. Taula<sup>44</sup>

Haurren aditzen batez osaturiko esaldi deklaratzailerak  
osagai-hurrenkera ezberdinez sailkatuak

	Guzt.	SA	AS	OA	AO	SOA	SAO	OAS
<b>Oitz:</b>								
2;00;05	9	5	1	1	—	2	—	—
2;00;26	9	4	1	3	—	1	—	—
2;01;19	15	9	—	4	—	—	2	—
2;02;00	24	16	—	3	1	2	1	1
2;03;19	26	13	2	10	2	1	—	—
2;04;11	25	10	1	9	—	1	3	1
<b>Mikel:</b>								
1;09;04	3	2	1	—	—	—	—	—
1;09;22	12	4	2	4	1	—	—	1
1;10;12	10	3	3	3	1	—	—	—
1;11;06	10	5	3	2	—	—	—	—
<b>Peru:</b>								
2;02;14	7	6	1	—	—	—	—	—
2;03;12	—	—	—	—	—	—	—	—
2;04;15	7	1	1	5	—	—	—	—
2;05;26	8	1	4	—	1	—	1	1
2;07;09	15	9	2	2	1	1	—	—

<sup>44</sup> Taula honetan bigarren aroko grabaketez gain haur bakoitzaren hurrengo grabaketa bien datuak ere erakustea erabaki dut.

SAO:

(296) *nik pentsa(t)u beste ipuina, dana (O. 2;01;19)*(297) *Oitz txikik badeko handia (O. 2;01;19)*(298) *inor ez kendu bere gol (O. 2;02;00)*

OAS:

(299) *bestie atara nik (O. 2;02;00)*(300) *ura eka(r)ri ni(k) (M. 1;09;22)*

Hau guztiau ikusirik badirudi Ouhalla-k (1991, 1992) dioena egiazta daitekeela haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza azterturik. Gogora dezagun Ouhalla-ren arabera (ikus 4.2. azpiatala) AS-en erabilera burutzean, hurrek SAO, AOS, SOA eta OAS osagai-hurrenkerak eraiki ditzaketela (AS-en egitura erabiltzean buruaren -A-, espezifikatzailearen -S- eta osagarriaren -O- egongune ezberdinak gauzatuz), baina ez OSA eta ASO hurrenkerak.

Haurren ekoizpenetan SOA, SAO eta OAS hurrenkerak argi ikus ditzakegu. Gainera osagai biz eraikitako adibideetan ikusi ditugun hurrenkerak, hots, SA, AS, OA eta AO hurrenkerak ere, osagaien bat gauzatzeke edo isilik egon daitekeela kontutan izanik, horietan sar ditzakegu: SA hurrenkerak SAO edo SOA, AS hurrenkerak AOS edo OAS, OA hurrenkerak SOA edo OAS, eta AO hurrenkerak SAO edo AOS.

OSA eta ASO hurrenkerarik, ostera, ez dut aurkitu.

Halere, oraindik bigarren aro honetan osagai-hurrenkerak batzuk erabiliagoak dira: aditzaren egongunea esaldiaren amaieran onartzen dutenak.

Bestalde, egia da, halaber, daturik gehienak Oitzenak direla, agian bera delako ekoizpen ugarien eskaintzen diguna.

#### 4.2.12. Ezezko zein baiezko esaldien osagai-hurrenkerak

Baina bada bereziki azpimarratu nahi dudana beste ekoizpen-mota bat, ezezko zein baiezko esaldietan gertatzen den hurrenkerak hain zuzen ere.

Ezezko esaldien ekoizpen-mota hau Oitzengan da batez ere berezia. Haur honek bigarren aro honetan 7 ezezko esaldi ekoizten ditu, eta hauek hirutan aditz-multzoa, ez ezeztapen-partikula barne, esaldiaren hasieran jartzen du. Hona hemen adibideak:

(301) *ez da(g)u hemen (O. 2;00;05)*(302) *ez da(g)u zezena (O. 2;00;26)*(303) *ez da(g)u garbian (O. 2;02;00)*

Beste lau adibideetan, aditz-multzoaren aurrean dagoen osagaia mintzagaian dagoela dirudi, edo honela iruditzen zait niri inguruak azterturik. Hona hemen:

(304) *o(ra)intxe ezin da (O. 2;00;05)*

(305) *hor ez da(g)o (O. 2;00;26)*

(306) *han ez da(g)o (O. 2;00;26)*

(307) *horti(k) ezin da (O. 2;01;19)*

Ezezko aditz-multzoa esaldiaren hasieran duten adibideetarako ez dut uste aski denik Ouhalla-k proposatzen duen azalpena, harrigarria bailitzateke aukera zabal horiek jarraiturik ezezkoetan beti aditza hasieran burutzea, osagai mintzagaituez kanpo, noski.

Ezezko adibide hauez gain, badu haur honek *ba(i)*-baieztapen-partikularekin gauzaturiko beste antzeko adibide bat. Hona hemen berau:

(308) *Oitz txikik badeko(dauka) handia (O. 2;01;19)*

Adibide honetan, antzeko zerbait gertatzen dela esaterakoan zera esan nahi dut: *ba(i)*-baieztapen-partikuladun aditza esaldiaren hasierara aurreratua dagoela, bertoko subjektua mintzagaian atxikirik dagoelarik (gogoan izan haurra bere buruaz ari dela).

Badirudi, beraz, Oitzek, *ez* ezeztapen-partikuladun eta *ba(i)*-baieztapen-partikuladun aditzak esaldiaren hasierara aurreratzen dituela, berauen ezkerretan, batzuetan, mintzagaian beste osagairen bat atxiki dezakelarik. Fenomeno hau bigarren aro honen hasiera-hasieran ikus dezakegu, AS-en egitura erabiltzen hasten den une berean.

Pentsatzekoa da, edo horrela uste dut nik behintzat, jabekuntza-garapenean haur honek baieztapena eta ezeztapena biltzen duen ustezko kategoria darabilela. Antzeko kategoria baten izateaz Laka-k (1991) hitzegin du lehenago, nahiz berak kategoria hau, euskararen perpausaren egiturari, INFLS-en gainean dagoela uste duen. Nire ustea zuzena baldin bada, haurrak, agian AS-en egituraren erabileragaz batera edo beluxeago has daitezke ezeztapena eta baieztapena biltzen duen kategoria erabiltzen.

Beste haur bien ekoizpenek eremu honetan eta aro honetan ez digute arazoa larregi argitzen. Peruk adibide bakarra ekoizten du (aroren amaieran eta agian hurrengo aroan kokatu behar den grabaketan), eta bertan subjektua jartzen du ezezko aditz-multzoaren aurre-aurrean. Baliteke subjektua mintzagaian izatea (kontutan izan behar dugu haur honek ere bere buruaz diharduela). Hona hemen adibidea:

(309) *Pe(r)u(k) ezin du (P. 2;04;15)*

Mikelen aro honetako ekoizpenean, ostera, 7 ezezko aditz-multzodun esaldi bildu ditut, baina zazpiotan ezezko aditz-multzoa esaldiaren

amaieran dago. Halere, gehienetan, nabaria da ezezko aditz-multzoaren aurrean dagoen osagaia deiktikoa edo mintzagaia dela. Hona hemen adibide batzuk:

(310) *hemen ez da(g)o (M. 1;09;04)*

(311) *hemen ez da (M. 1;09;04)*

(312) *bat ez da (M. 1;09;22)*

(313) *ha be(ere) ez da (M. 1;09;22)*

Edozelan ere, geroago, hurrengo aroetan, haur guztien ekoizpenean nabarmena da ezezko zein baiezko aditz-multzoak esaldien hasieran jartzeko jokabidea. Hona hemen zenbait adibide:

(314) *ba(d)oie(doa) (M. 1;11;06)*

(315) *bai da tutie (M. 1;11;06)*

(316) *ba(de)ko(t) ni(k) (M. 2;00;22)*

(317) *bai deko(dauka) kotxie (M. 2;02;11)*

(318) *ez da holan hori (M. 2;02;11)*

(319) *ez du nahi amak (P. 2;05;26)*

(320) *bai daki (O. 2;03;09)*

(321) *ta badoia(doa) abioia (O. 2;04;24)*

(322) *ez da jausten hori (O. 2;04;24)*

(323) *ez da bizikleta jausiko (O. 2;05;05)*

#### 4.2.13. NZ-esaldiak

Bigarren aro honetan hurrek ekoizten dituzten NZ-esaldiak 12. taulan ikus daitezke kopuruka eta grabaketaz grabaketa adierazirik.

NZ-esaldiak, bestalde, osagai-hurrenkeratan sailkatu ezkerro, hona hemen eraikitzen dituzten egiturak ([IzS] hizkiek izen-sintagma, [Adl] hizkiek aditz-laguna edo aditzondoa, [X] hizkiak izen-sintagma zein aditzondoa edo aditz-laguna, [()] ikurrek tarteko osagaia ez agertzearen aukera, [A-] hizkiak aditz-multzo jokatugabea eta [A] hizkiak aditz-multzo jokatua adierazten dutelarik):

(324) IzS - NZ

(325) Adl - NZ

(326) (X) - NZ - A-

(327) (X) - NZ - A

Osagai-hurrenkera ekoizpena grabaketaz grabaketa eta hurrez haur zelan gertatzen den ikusteko 13. taulari begira diezaiokegu.

Jarraian bigarren aro honetan erabiltzen dituzten osagai-hurrenkera ezberdinetako adibideak jarriko ditut hurrenkeraz hurrenkera.

IzS - NZ:

- (328) *hori nun?* ((O. 2;00;05)  
 (329) *zu zer?* (O. 2;00;26)  
 (330) *bere aita nun?* (O. 2;00;26)  
 (331) *ama, gu nora?* (O. 2;01;19)  
 (332) *Tximino nun?*<sup>45</sup> (O. 2;01;19)  
 (333) *hau noru(n)tz?* (O. 2;01;19)  
 (334) *amama, aitite zelan?* (O. 2;01;19)  
 (335) *kotxie nun?* (M. 1;09;04)  
 (336) *e(s)tie nun?* (M. 1;09;04)  
 (337) *hau zer?* (P. 2;04;15)

## 12. Taula

Bigarren aroko NZ-esaldien ekoizpen-kopuruak grabaketen arabera

Haurra	Kop	Haurra	Kop	Haurra	Kop
Oitz:		Mikel:		Peru:	
2;00;05	6				
2;00;26	13	1;09;04	2	2;03;12	2
2;01;19	18	1;09;22	2	2;04;15	2
Guzt.	37	Guzt.	4	Guzt.	4

## 13. Taula

Bigarren aroko NZ-esaldiak osagai-hurrenkera ezberdinez sailkatutik

	Guzt.	IzS - NZ	Adl - NZ	(X) - NZ - A-	(X) - NZ - A
Oitz:					
2;00;05	6	2	1	3	—
2;00;26	13	9	—	1	3
2;01;19	18	13	—	3	2
Guzt.	37	24	1	7	5
Mikel:					
1;09;04	2	2	—	—	—
1;09;22	2	—	—	—	2
Guzt.	4	2	—	—	2
Peru:					
2;03;12	2	—	—	—	2
2;04;15	2	1	—	—	1
Guzt.	4	1	—	—	3

<sup>45</sup> Haur honek *Tximino* hitza darabilenean bere panpinari buruz dihardu.

Adl - NZ:

(338) *hor nor?* (O. 2;00;05)

(X) - NZ - A-:

(339) *hori nun margotu?* (O. 2;00;05)

(340) *nundi(k) zabaldu?* (O. 2;00;26)

(341) *nun ibili* (O. 2;01;19)

(342) *nik hau nora bota?* (O. 2;01;19)

(X) - NZ - A

(343) *hori zer da?* (O. 2;00;26)

(344) *Tibis nor da?* (O. 2;00;26)

(345) *zer da?* (O. 2;01;19)

(346) *nun da(g)o?* (M. 1;09;22)

(347) *bestie nun da(g)o?* (M. 1;09;22)

(348) *non dago?* (P. 2;03;12)

(349) *non da?* (P. 2;03;12)

(350) *nor da?* (P. 2;04;15)

IzS - NZ osagai-hurrenkerako multzoko adibideak hiru haurrek ekoizten dituzte. NZ-esaldiaren hasieran deiktikotzat edo subjektutzat har dezakegun izen-sintagma aurki dezakegu, eta honen ondoren, esaldiaren azkenean, NZ-hitza. Lehen aroan Oitzek ekoitzirikoak bezalakoak dira, eta badirudi aro horretan gauzatutakoak oraingoan ere erabiltzen jarraitzen duela. Lehen aroan Peruk eta Mikelek halakorik ez darabilten arren, pentsatzekoa da erabiltzeko gai izan direla behintzat. Bigarren aro honetako IzS - NZ multzoko adibideak, beraz, mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez eraikiak daude, eta inola ere ez gramatika edo sintaxiarauren batez. Nire ustez, haurrek lehengo ekozpenei eusten diete, berriak ere eraikitzen dituzten arren.

Adl - NZ osagai-hurrenkeraren multzoko adibide bakarra dugu, eta beraz Oitzek ekoizten du. Izatez aurreko multzokoen antzekoa da. Ezberdintasuna honetan datza: esaldiaren hasieran ikus dezakegun osagaia aditzondoa dela. Baina hasierako osagai honen deiktiko-izaera argi dagoenez, NZ-esaldi hau ere mintzagai-galdegai hatsarre pragmatikoez egina izan dela uste dut.

(X) - NZ - A- osagai-hurrenkeraren multzoko adibideak ere Oitzek baino ez ditu ekoizten. Berauetan NZ-hitza adizki jokatu gabearen aurre-aurrean aurki dezakegu, sarritan esaldiaren hasieran beste osagai bat ere ikus dezakegularik. NZ-esaldiaren hasieran sarritan, baina ez beti, ekoizten dituen osagaiak mintzagaiak edo deiktikoak dira guztiak. Horregatik, badirudi haur honek AS-en egitura darabilela adibide hauek gauzatzean, baina mintzagaia atxiki diezaiokeela egitura honi ezkerretara, hots, esaldiaren hasieran.



(X) - NZ - A osagai-hurrenkeraren multzoko adibideak hiru haurrek burutzen dituzte. Berauetan NZ-hitza adizki jokatu trinkoaren aurre-aurrean ikus dezakegu, sarritan esaldiaren hasieran beste osagai bat ere gauzatzen dutelarik. Hasieran maiz, baina ez beti, ekoizten dituzten osagaiak mintzagaiak edo deiktikoak dira denak. Bigarren aro honetan adizki trinko hauek pertsona-komunztadurarik, aditz-denborarik eta aditz-modurik adierazten ez dutenez, pentsatzekoa da, funtsean, aurreko multzokoak bezala eraikiak izan direla. Badirudi, beraz, AS-en egituraren erabilerari zor diotela, nahiz egitura honi ezkerretara mintzagaia atxiki diezaioketen. Gogoan izan, bestalde, adizki trinko hauek adibide guztietan *da* edo *dago* direla.

Bigarren aro honetan ekoizten dituzten NZ-esaldiak, osagai-hurrenkeraren arabera berbildurik, beraz, honela bildu behar ditut:

(351) X - NZ

(352) (X) - NZ - A-

Hortaz, bigarren aro honetan haurrek ekoizten dituzten NZ-esaldiak lehen aroan Oitzek ekoizten dituen bezalakoak, hots, mintzagai-galdegai hatsarre pragmatikoez eraikiak, edo AS-en egituraz eraikiak direla uste dut. Edozelan ere, argi dago, AS-en egituraz eraikitako NZ-esaldiei mintzagaia ezkerretan atxiki diezaioketela.

Hau guztiau ikusirik, argi dago, bada, NZ-esaldiak gauzatzeko ez dutela KS-en egitura erabiltzen, mintzaide helduek darabilgun bezala bederen.

#### 4.2.4. Laburbilketa

Bigarren aroko haur hauen ekoizpenei buruz, laburbildurik, zera esan dezaket: aditz-kategoriaren eremuko gramatika-ezaugarriak erabiltzeaz gain AS-en egitura ere badarabilgela esaldi deklaratzailak zein NZ-esaldiak gauzatean. AS-en egitura erabiltzeak ondoko osagai-hurrenkeretako esaldiak gauzatea ahalbideratzen die: SOA, SAO eta OAS. Kontutan izan AOS osagai-hurrenkerako adibiderik ez dugula aurkitu.

AS-en egitura honi, esaldiaren ezkerretara, hots, hasiera-hasieran, mintzagaien osagaien bat edo gehiago ere erants diezaioke.

Mintzagaiaren erabilera honek, beraz, baieztatu egiten du gramatikagaitasuna ez dela gaitasun semantiko-pragmatikoetatik sortu, zeren lehen aroko mintzagai-egitura bigarren aro honetan ere lehen bezala egiten jarraitzen baitute.

Baina AS-en egituraren erabileraz gain, beste bi fenomeno iruditzen zaizkit azpimarragarriak. Batetik, badirudiela haur hauek, Oitz behinik behin, *ez* ezeztapen-partikuladun eta *bai* baieztapen-partikuladun esaldiak biltzen dituen kategoriaren bat erabiltzen hasi direla. Oitzen korpusan nabaria da ezezko zein baiezko esaldietan aditz-multzoak hartzen duen egongunea esaldiaren hasieran dagoela, bertara aurreratua dirudielarik.


Bestetik, bigarren aro honetan INFL funtzio-kategoriaren erabilera ez dakusadanez, pentsatzekoa dela menderagailuen erabilera, *-ta* menderagailuaren erabilera bederen, ez diotela funtzio-kategoria horri zor.

#### 4.3. HIRUGARREN AROA EDO INFL FUNTZIO-KATEGORIAREN ERABILERAREN HASIERAK MUGATZEN DUEN AROA

Jarraian arakatzen hasiko naizen hirugarren aro honetan, aurkezturiko hipotesiaren arabera, haurrek orain arte erabili dituzten gramatika-ezaugarriak sendotu eta tinkotuz ihardungo duten bitartean, INFL funtzio-kategoriari dagozkion gramatika-ezaugarri berriak ekoizteari ere ekingo diote.


Bigarren aroan egin duten erabilera berria aditz-kategoriarena izan bada, hirugarren aro honetan INFL funtzio-kategoriarena izango da. Aurrrerapen hau gramatikaren garabidean perpausaren egitura hierarkikoari jarraituz hurrengo urratsa gauzatzean datza: INFLS<sup>46</sup> hain zuzen ere.

Hona hemen, bada, hirugarren aro honetan erabiliko duten egitura berria:



<sup>46</sup> INFLS (inflexio-sintagma) eta I'' gauza bera da, AS (aditz-sintagma) eta A'' edo IzS (izen-sintagma) eta Iz'' ere gauza bera diren bezala.

Kontutan izan hirugarren aroko oinarrizko egitura honi mintzagaia eta adberbioak erants diezazkioketela ezkerretara beste honako egitura hau ere gauzatuz:



INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak ere hirugarren aro honetan agertzen hasiko direla itxaroten dut.

Gogora dezagun zein gramatika-ezaugarri jotzen diren eremu honetakoak: subjektuarekiko, zehar-osagarriarekiko eta osagarri zuzenarekiko pertsona-komuntadura, aditz-denbora eta aditz-modua.

INFL funtzio-kategoriaren konplexutasuna ikusirik (ikus Laka 1988, adibidez), gramatika-ezaugarri hauek era mailakatuan agertuko zaizkigula iruditzen zait.

Hirugarren aro honen hasieran, subjektuarekiko pertsona-komuntadura ikusiko dugula uste dut. Gainerantzekoak ondoren ikusi ahal izango ditugu (horretarako 4.5. azpiatalera jo).

Bestalde, aurreko aroan erabiltzen hasi diren hainbat gramatika-ezaugarri aro honetan sendotu eta zabaldu egingo direlakoan nago, hala nola, gramatika-kasuak (ergatiboa, absolutiboa eta datiboa), gainerantzeko kasuak eta menderagailuak (*-ta*, *-tzen*, *-tzeko*, *-tzea*, ...).

Aditz-aspektuak ere (burutua, burutugabea eta gertakizuna) hirugarren aro honetan gauzatuko dituztela uste dut. Eta *ezin* eta *ahal* partikulen bidez eraiki daitezkeen aditzak ere ea une honetan hasten diren erabiltzen arakatu beharko dut.

Baina badira, aitzitik, erabiliko ez dituzten hainbat egitura edo gramatika-ezaugarri. Hona hemen garrantzitsuenak:

Ez dute KONP funtzio-kategoriarik erabiliko. Gogoan izan dezagun KONP funtzio-kategoriak, bi ezaugarri nagusi dauzkala. Batetik, konplementagailuak, eta bestetik hainbat hitzen aurreratze-prozedurako lurreragunea. Ene ustez ezin izango dituzte bata ez bestea erabili.

Aurrerago esan dudan legez, INFL funtzio-kategoriaren hainbat ezaugarri, ene irudiko behinik behin, ez dituzte aro honen hasieran erabiliko, eta beranduago agertuko zaizkigu. Hona hemen zeintzuk: komunztadura-sistema konplexu osoa (batez ere zehar-osagarriarekikoa eta osagarri zuzenarekikoa), aditz-denbora (orainaldiko adizkiei iraganaldekoak kontrajarriz) eta aditz-modua (indikativoko adizkiei subjuntibokoak edo ahalerakoak kontrajarriz).

Araketa hasi orduko, haurrek burutzen duten hirugarren aro honen iraupena (INFL funtzio-kategoriaren erabileraren hasieratik KONP funtzio-kategoriaren erabileraren hasierara arte) eta aro honetan erdiesten duten ebbl-aren neurria erakutsiko ditut 14. taulan.

Jarraian, aurkezturiko hipotesiaren alde bildu ditudan frogak aurkeztuko ditut. Baina lehenengo gramatika-ezaugarri berrien edo aurreko aroan erabilitakoen indartzearen ekoizpenaz ihardungo dut.

#### 14. Taula

Haurren hirugarren aroaren iraupena, adinaren eta ebbl-neurriaren arabera

	Adina	Ebbl-a
Oitz: .....	2;02;00/2;03;19	2,28/2,36
	- 2;04;11	- 2,45
Mikel: .....	1;10;12	1,71
	- 2;02;11/2;03;11	- 2,41/2,76
Peru: .....	2;04;15/2;05;25	2,10/1,83
	- 2;07;09	- 2,61

##### 4.3.1. Izen-sintagmaren osaketa

Bigarren aroan lehen aldiz gauzatu dute izen-sintagmaren erabilera. Une honetan, beraz, bere sendoketa ikustea itxaroten dut. Hona hemen zenbait adibide:

- (355) *zikin zikinak* (O. 2;04;11)
- (356) *trator honek e(g)in bai* (O. 2;04;11)
- (357) *kaketak* (P. 2;05;26)
- (358) *tutu elea(berdea)* (P. 2;05;26)
- (359) *paltlo tukutun bat* (P. 2;07;09)
- (360) *bete ba(t)* (M. 2;00;00)
- (361) *amat(x)o bi* (M. 2;00;22)
- (362) *bere etxe(r)a* (M. 2;02;11)

Aurreko aroan hurrek erabili ez dituzten mugatzaileak edo sintagma-egiturak ikus ditzakegu adibideotan. Baina agian interesgarriena Mikelek hirugarren aro honen amaieran burutzen duen sintagma mugagabea izanen da:

(363) *zenbat kotxe! (M. 2;02;11)*

Edozelan ere, sintagma mugagabe hau, hirugarren aro honetako bakarra dela esan behar dut.

#### 4.3.2. Gramatika-kasuen erabileraren bermaketa

Bigarren aroan agertu diren gramatika-kasuak ere sendotuz eta ugalduz doaz hirugarren aro honetan. Dagoeneko haur guztien adibideak ugaltzeaz gain, errakuntzak edo ez-erabilerak gutxitu egin dira, oraindinko badiren arren.

Adibideak erakustean, kasuz kasu sailkatuko ditut. Absolutiboaz gauzaturikoak, ostera, subjektu eta osagarri zuzenetan bereiziko ditut. Halere, kontutan izan behar dugu behin baino gehiagotan gramatika-kasu bi ager dakizkigukeela esaldi berean.

Ergatibo-kasuaz eraikitakoak:

- (364) *bestie atara nik (O. 2;03;09)*
- (365) *nik ibili(erabili) lehen (O. 2;03;09)*
- (366) *berak badaki zubia e(g)iten (O. 2;04;11)*
- (367) *nik ulia ebatu(oratu) (O. 2;04;11)*
- (368) *zuk zer pentsa(t)u? (O. 2;04;11)*
- (369) *nik hau (M. 2;00;00)*
- (370) *bota du Peruk (P. 2;05;26)*
- (371) *nik kakikia hartuko dut (P. 2;07;09)*
- (372) *hau nik (P. 2;07;09)*
- (373) *nik baka(r) bakar(r)i(k) (P. 2;07;09)*

Absolutibo-kasuaz eraikitako subjektuak:

- (374) *hemen da(g)u komune (O. 2;03;09)*
- (375) *ba makila bat da (O. 2;03;09)*
- (376) *hemen da(g)u harria (O. 2;03;09)*
- (377) *ez da(g)uz zikinak (O. 2;04;11)*
- (378) *ipune han da(g)u (M. 1;10;12)*
- (379) *kotxie apu(r)tu da (M. 2;02;11)*
- (380) *joan da Peru (P. 2;05;26)*
- (381) *busti da bankua (P. 2;07;09)*
- (382) *busti da brotxa (P. 2;07;09)*

Absolutibo-kasuaz eraikitako osagarri zuzenak:

- (383) *etxiek egiten (O. 2;04;11)*
- (384) *eta biharrak egin tratorak (O. 2;04;11)*
- (385) *ez, zuk ipini zubie (O. 2;04;11)*
- (386) *be(s)te be(s)te ba(t) ha(r)tu (M. 1;10;12)*
- (387) *paper bat hartu dut (P. 2;07;09)*
- (388) *nik kakikia hartuko dut (P. 2;07;09)*

Datibo-kasuaz eraikitakoak:

- (389) *ba zer mineri(mihiri)<sup>47</sup> sakatu? (O. 2;03;09)*
- (390) *honeri(honi) hobatu (O. 2;03;09)*
- (391) *o(ra)in honeri sakatu (O. 2;03;09)*
- (392) *nik pailazuari ko honeki (O. 2;03;09)*
- (393) *ni(r)i bai (M. 2;01;06)*
- (394) *gizonai (P. 2;07;09)*

Bestalde, Oitz haur elebakarraren korpusean ergatibo-markaren ekoizpen-eza lantzean behin ikus dezakegun bitartean, haur elebidun biengan ergatibo-markaren ekoizpen-eza sarritan ikus dezakegu. Hona hemen zenbait adibide:

- (395) *o(ra)in ni(k) nun marraztu? (O. 2;03;09)*
- (396) *ni(k) ez ikutuko oholak (O. 2;04;11)*
- (397) *Peru(k) e(r)osi kotxi bat (P. 2;05;26)*
- (398) *bale ni(k) deitu holan (M. 1;10;12)*
- (399) *Andoni(k) jan dau(du) (M. 2;00;22)*
- (400) *Ana(k) nahi (d)au(du) (M. 2;01;06)*
- (401) *ni(k) jan (eg)in do(t) (M. 2;01;06)*
- (402) *ze(r)gati(k) Ana(k) esan dau(du) ez (M. 2;02;11)*

Partitibo-markaren adibiderik, aitzitik, ez du oraingoz haur batek ere ekoitzi.

#### 4.3.3. Gainerantzeko kasuak

Bigarren aroan ere ikusi ditugu hainbat adibide. Oraingo aro honetan erabilera apurka apurka zabaldu eta ugaldtu egiten da. Hona hemen zenbait adibide:

- (403) *barrukue (O. 2;03;19)*
- (404) *barraketako pailazuak ... (O. 2;03;19)*
- (405) *ta o(ra)in zubitik (O. 2;04;11)*

<sup>47</sup> Horrelaxe erabiltzen da hitz hau haur honen inguruan, grabaketak ikusirik behintzat.

- (406) *amatxo(re)na* (M. 2;02;11)  
 (407) *aitatxo(re)na* (M. 2;02;11)  
 (408) *amatxogana* (M. 2;02;11)  
 (409) *hankien eta kotxien ...* (M. 2;02;11)

#### 4.3.4. Aspektu-marken erabilera

Hirugarren aro honetan adizki jokatu gabeek erakusten dizkiguten aspektu ezberdinak ere lehen aldiz ikus ditzakegu, era kontrajarrian bederen, haurren ekoizpenetan.

Hiru aditz-aspektu kontrajarrien erabilera hau, halere, hurrengo aroan sendotu egingo da, hirugarren aro honetako erabilerak, zuzena eta egokia den arren, hastapena baino ez dirudielarik. Aditz-aspektu erabilerari buruzko datu orokorrak 15. taulan ikus daitezke, hirugarren aro honetakoei zein besteetakoei buruzkoak hain zuzen. Hirugarren aroko datu zehatzagoak begiratu nahi izan ezker 9. taulara jo dezakegu.

### 15. Taula

Haurrek burutzen dituzten aditz-aspektuen kopuruak aroen<sup>48</sup> arabera

	Guzt.	Burutua (-tu)	Burutugabea (-tzen)	Gertakizuna (-ko)
<b>Oitz:</b>				
1. aroa	22	22 - %100	—	—
2. aroa	40	40 - %100	—	—
3. aroa	57	52 - % 91	4 - % 7	1 - % 2
4. aroa	737	394 - % 53	190 - %26	153 - %21
<b>Mikel:</b>				
1. aroa	2	2 - %100	—	—
2. aroa	18	17 - %94	?1 <sup>49</sup>	—
3. aroa	98	85 - %87	9 - % 9	4 - % 4
4. aroa	229	134 - %59	30 - %13	65 - %28
<b>Peru:</b>				
1. aroa	10	10 - %100	—	—
2. aroa	22	22 - %100	—	—
3. aroa	20	13 - % 65	—	7 - %35
4. aroa	127	63 - % 50	43 - %34	21 - %17

<sup>48</sup> Laugarren aroko datuak 3;00 adina duten artekoak dira.

<sup>49</sup> Aurreko aroan zalantzakotzat jo dut ekoizpen hau.

Datu orokorrean so egin ezkeren argi ikus dezakegu, batez ere Mikelen-gan eta Oitzengan, hirugarren aroan aspektu burutua adierazten duten adizki jokatu-gabeak oso nagusi direla, eta aspektu ez-burutua eta gertakizuna adierazten dutenak erabiltzen hasi baino ez direla egin.

Baina aspektu forma hauen jabekuntza-garapenean bada beste berezitasun garrantzitsu bat: aspektu burutua hiru haurren aurki dezakegun lehen den bitartean, aurkakotasuna sortuz Oitzek eta Mikelekk aspektu ez-burutua lehenago erabili dutela, eta Peruk, oster, gertakizuna adierazten duena.

Baina hona hemen hau guztiau baieztatzeko bildu ditudan adibideak:

- (410) *hau izen(izan) da (O. 2;03;19)*
- (411) *holakue nun da(g)u?, sartuten da (O. 2;03;19)*
- (412) *bai kausten da (birritan) (O. 2;04;11)*
- (413) *ez da kausten (O. 2;04;11)*
- (414) *hemen ez da ka(b)iten (M. 1;11;06)*
- (415) *hau ez da (i)bi(l)xen (M. 1;11;06)*
- (416) *holan (eg)in dau(du) mu (M. 1;11;06)*
- (417) *ez da (a)pu(r)tu (M. 1;11;06)*
- (418) *holan ipiniko (dog)u, e? (M. 2;00;00)*
- (419) *ez da jausiko (M. 2;00;22)*
- (420) *joan da Peru (P. 2;05;26)*
- (421) *bota du Peruk (P. 2;05;26)*
- (422) *hemen jausiko da (P. 2;05;26)*
- (423) *konponduko du nire kakikia (P. 2;07;09)*
- (424) *aita, hau topa(t)uko dut (P. 2;07;09)*

Bestalde, Oitzek baino ez darabil, eta oso gutxitan gainera (aro honetan behin eta hurrengo aroaren hasiera-hasieran beste behin), aspektu kontrajarriren bat (ez-burutua edo gertakizuna) pertsona-komunztadurarik gabeko aditzen batez gauzaturiko esaldietan. Hona aro honetako adibidea:

- (425) *ni(k) ez ikutuko oholak (O. 2;04;11)*

Gogoan har dezagun Oitzek burutzen dituen halako adibide biak maiztasun kontuetan oso gutxi direla: grabaketa bereko datuak ikusirik % 4ra ere ez dira heltzen; aroko datuei begiraturik % 2ra ere ez; eta datu orokorrean so eginik % 1era ere ez. Erabilera hau, bestalde, guztiz ez-arrunta da haur honen mintzaideen artean.

#### 4.3.5. Adizki jokatuak

Adizki jokatuaren eremuan une honetantxe ikus dezakegu subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabileraren hasiera.



Subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera hau, azpiatal honetan aurkeztean, hurrez haur arakatuko dut, datuek duten garrantzia dela eta.

Oitz haur elebakarrak, hirugarren aro honen hasieran adizki jokatu trinko iragangaitzetan singularreko lehen eta hirugarren pertsoneri dagozkien adizkiak egoki berezteiaz gain, trinko iragankorretan ere bereizten ditu<sup>50</sup>. Hirugarren aro honetako bigarren eta azkena den grabaketan, trinko iragankorretan singularreko bigarren pertsona ere bereizten du, eta trinko iragangaitzetan pluraleko hirugarrena. Subjektuarekiko komunztadura erabiltzen hasi dela dirudi, beraz. Hau guztiau ikusi ahal izateko 16. taulako datuetara jo daiteke.

## 16. Taula

Oitzen subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilerearen hasieraren dataketa

	Adizkia <sup>51</sup>	Morfema	Adina
Iragangaitzak:			
Sing. 1. perts.	na(i)z	n-	2;03;09
Sing. 3. perts.	da	d-	2;00;05
Plur. 3. perts.	da(g)uz	d-, -z	2;04;11
Iragankorrek:			
Sing. 1. perts.	dakit	-t	2;02;00/2;03;09
Sing. 2. perts.	dakizu	-zu	2;04;11
Sing. 3. perts.	daki	-Ø	2;01;19

Arlo honetako eragingarrien<sup>52</sup> eremuan bilatu ezkerreko, singularreko lehen eta hirugarren pertsoneri dagozkien morfemen artean bilatu beharko genukeela uste dut, berauek baitira ekoizten dituen lehenak.

Jarraian Oitzen subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera baieztatzen duten hainbat adibide aurkeztuko dut, baina pertsonaz pertsona taiuturik.

<sup>50</sup> Adizkiak iragangaitzetan eta iragankorretan bereiztean ohiko terminologia baino ez dut jarraitu: NOR eta NOR-NORI motetakoak iragangaitzat hartuz eta NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motetakoak iragankortzat onartuz.

<sup>51</sup> Hemen agertzen zaizkigun adizkiak laguntzaileak zein trinkoak dira.

<sup>52</sup> Eragingarritzat, gramatika-ezaugarri berri bakoitzean beronen lehen erabilera bultzatzen duten berezitasunak jotzen ditut. Beste berba batzuek ezanik: ezagupen edo erabilera berriaren bidea zabaltzen duten lehen marka kontrajarriak.

## Singularreko hirugarren pertsona iragangaitza:

- (426) *ba makila bat da* (O. 2;03;09):  
 (427) *hau izan da* (O. 2;03;09)  
 (428) *ez dabil* (O. 2;03;09)  
 (429) *hemen bestie da(g)u* (O. 2;03;09)  
 (430) *ez da kausten* (O. 2;04;11)

## Singularreko lehen pertsona iragangaitza:

- (431) *ni naz* (O. 2;03;09)  
 (432) *hola ni naz* (O. 2;03;09)  
 (433) *ni naz onbe ume!* (O. 2;03;09)

## Pluraleko hirugarren pertsona iragangaitza:

- (434) *ez da(g)uz zikinak* (O. 2;04;11)

## Singularreko hirugarren pertsona iragankorra:

- (435) *bai daki* (O. 2;03;09)  
 (436) *ez deko(dauka)* (O. 2;04;11)  
 (437) *berak badaki zubia e(g)iten* (O. 2;04;11)

## Singularreko lehen pertsona iragankorra:

- (438) *ez dakit* (O. 2;03;09)  
 (439) *badakit* (O. 2;03;09)  
 (440) *hau ez dekot(daukat) ipinita* (O. 2;04;11)

## Singularreko bigarren pertsona iragankorra:

- (441) *badakizu zer?* (O. 2;04;11)

Mikel haur elebidunaren ekoizpena aztertu ezker, hirugarren aro honen hasieran subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera adizki jokatu laguntzaile iragankorren bidez burutzen duela ikus dezakegu. Erabilera hau adizki iragankor laguntzaileen pertsona-komunztaduraren eremura mugatzen da, baina sistema berezia eraikirik. Subjektuarekiko komunztadura-sistema berezi honen bidez singularreko lehen eta hirugarren pertsonen gain pluraleko lehena ere bereizten du. Baina ondoren ikusiko dugun legez, berak egin duen subjektuarekiko komunztadura-sistema berezia ezin du adizki trinko iragankorrekin erabili, edo erabili arren ez lioke emankortasunik ekarriko. Bestalde, adizki jokatu laguntzaile iragangaitzen artean burutzen duen lehen bereizketa singularreko lehen eta hirugarren pertsonen dagozkiena da (baina hirugarren aroa hasi eta 3 hilabetetara). Hau guztiau ikusteko 17. taulara jo dezakegu.

Adizki iragankor laguntzaileak burutzean komunztadura-sistema berezia eraiki duela diodanean, zera esan nahi dut: bereizten dituen pertsona ezberdinentzat adizki ezberdinak darabiltzala (ikus 17. taula). Kontutan izan behar dugu sistema hau eraikitzean bizkaiera ikasteak lagundu egin diola.

Jarraian subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera baieztatzen duten hainbat adibide erakutsiko ditut, baina pertsonaz pertsona taiuturik.

Singularreko lehen pertsona iragankorra:

- (442) *ez do(t) ipini (M. 1;10;12)*  
 (443) *ez do(t) topa(t)u (M. 2;00;00)*  
 (444) *hau ken(d)u gu(ra) (d)o(t) (M. 2;00;00)*  
 (445) *be(g)itu, zabaldu do(t) (M. 2;00;00)*  
 (446) *ba (d)ako(t) ni(k) (M. 2;00;22)*  
 (447) *ni(k) nahi do(t) tena (M. 2;03;11)*

Singularreko hirugarren pertsona iragankorra:

- (448) *ez dau(du) gure (M. 1;10;12)*  
 (449) *holan (eg)in dau(du), mu (M. 1;11;06)*  
 (450) *Andoni(k) jan dau(du) (M. 2;00;22)*

Pluraleko lehen pertsona iragankorra:

- (451) *holan ipiniko (dog)u, e? (M. 2;00;00)*

Singularreko lehen pertsona iragangaitza:

- (452) *ni susta(t)u e(g)in na(i)z (M. 2;01;06)*

Singularreko hirugarren pertsona iragangaitza:

- (453) *ipune da hau (M. 1;10;12)*  
 (454) *hemen da(g)u petetie (M. 1;10;12)*  
 (455) *hor (d)oie (M. 2;00;00)*

## 17. Taula

Mikelen subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilerearen hasieraren dataketa

	Adizkia	Morfema	Adina
<b>Iragangaitzak:</b>			
Sing. 1. perts.	do(t)/(d)o(t)	-o(t)	1;10;12
Sing. 3. perts.	dau	-au	1;10;12
Plur. 1. perts.	(dog)u/do(g)u	-(o)u	2;00;00
<b>Iragankorrak:</b>			
Sing. 1. perts.	na(i)z	n-	2;01;06
Sing. 3. perts.	da/da(g)u	d-	1;10;12

Bildu ahal izan ditudan datuen arabera, adizki trinko iragankorretan Mikelek ez ditu hirugarren aro honetan singularreko lehen eta hirugarren pertsoneri dagozkien adizkiak bereizten, ez baitu *-t* morfemarik ahoskatzen. Hona hemen adibidea:

(456) *ez daki(t) (M. 2;02;11)*

Alabaina, bada Mikelen korpusean erabilera berezi bat: *da* adizki laguntzailearen pertsona-komuntadurarik gabekoa, alegia. Mikelen ekoizpen-inguruak arakaturik badirudi *da* adizki laguntzailearen pertsona-komuntadurarik gabeko erabilera hirugarren aro honetan ere gertatzen dela. Hona hemen adibide bi:

(457) *Mikel: bota e(g)in da (M. 2;00;22)*

*Mintzaidea: bota e(g)in dau(du)?*

*Mikel: bai*

*Mintzaidea: no(r)k bota dau(du) ba?*

*Mikel: ni(k)*

*Mintzaidea: zuk bota (d)ozu?*

*Mikel: bai*

(458) *Mintzaidea: ikusten dozu?*

*Mikel: e(z) ta (i)kusi*

*Mintzaidea: hantxe, ez dozu ikusten ala?*

*Mikel: e(z) ta (i)ku(s)te(n) (M. 2;01;06)*

Jokabide hau, ene ustez, jabe-kuntza mailakatuaren ondorioa da, eta bigarren aroko tipikoa den arren, hirugarren aro honetan oraindik ere Mikelek badarabil batzuetan.

Peruren ekoizpena arakatu ezker, subjektuarekiko pertsona-komuntaduraren erabilera ere ikus dezakegu bildu ditudan datuetan. Haur honek, hirugarren aro honetan, adizki jokatu laguntzaile iragankorren artean singularreko lehen eta hirugarren pertsoneri dagozkien adizkiak bereizten ditu (ikus 18. taula). Hauek gain darabiltzan adizki jokatu eta laguntzaile guztiak dagozkie singularreko hirugarren pertsoneri.

Segidan Peruren korpuseko subjektuarekiko pertsona-komuntaduraren erabilera baieztatzen duten hainbat adibide erakutsiko ditut, baina pertsonaz pertsona aurkezturik.

Singularreko hirugarren pertsona iragankorra:

(459) *bota du<sup>53</sup> (P. 2;04;15)*

(460) *hau bota du Peruk (P. 2;05;26)*

(461) *ez du nahi amak (P. 2;05;26)*

<sup>53</sup> Haur honek adizki jokatuak ekoiztean, gehienetan behintzat, hirugarren pertsonari dago-kion hasierako *d-* fonema *l-* bihurtzen du. Ulermena errazteko asmoz, eta horretarako baino ez, nik *d-* hizkiak erakutsiko dut.

Singularreko lehen pertsona iragankorrak:

(462) [xx] dut [be] bota (P. 2;04;15)

(463) jan dut (P. 2;05;26)

(464) paper bat ha(r)tu dut (P. 2;07;09)

Singularreko hirugarren pertsona iragangaitza:

(465) hori beltza da (P. 2;05;26)

(466) joan da Pe(r)u (P. 2;05;26)

(467) ulin(urrin) dago (P. 2;07;09)

### 18. Taula

Peruren subjektuarekiko pertsona-komuntaduraren erabilerearen hasieraren dataketa

	Adizkia	Morfema	Adina
Iragankorrak:			
Sing. 1. perts.	dut	-t	2;04;15/2;05;26
Sing. 3. perts.	du	-Ø	2;04;15
Iragangaitzak:			
Sing. 3. perts.	da	d-	1;11;29

Hau guztiau laburbiltzeko, hiru haurren subjektuarekiko pertsona-komuntadura adierazten duten aditz iragankor zein iragangaitzen erabilerearen hasiera-datak biltzen dituen taula aurkeztuko dut, 19. taula hain zuzen. Taula honetan 3 urtera arteko korpusetan aurkitutako forma bakoitzaren lehen adibidearen ekoizpen-data adieraziko dut:

### 19. Taula

Subjektuarekiko pertsona-komuntadura adierazten duten adizkien lehen ekoizpen-datak haurren korpusetan

	Oitz	Mikel	Peru
Iragankorrak:			
Sing. 1. perts.	2;02;00/2;03;19	1;10;12	2;04;15/2;05;26
Sing. 2. perts.	2;04;11	2;03;11	2;07;30
Sing. 3. perts.	2;01;19	2;03;11	2;04;15
Plur. 1. perts.	2;04;24	2;00;00	2;09;05
Plur. 2. perts.	2;07;05	—	—
Plur. 3. perts.	2;06;05	2;08;19	3;00;17
Iragangaitzak:			
Sing. 1. perts.	2;03;09	2;01;06	2;09;05
Sing. 2. perts.	2;04;24	2;11;16	—
Sing. 3. perts.	2;00;05	1;11;06	1;11;29
Plur. 1. perts.	2;08;13	2;07;01	2;10;11
Plur. 2. perts.	—	—	—
Plur. 3. perts.	2;04;11	2;00;22	2;11;25

Azkenik, adizki jokatuaren ekoizpenaren arloan zera esan behar dut: subjektuarekiko komuntadura-erabilera hau ez dutela beti erabiltzen, hots, oraindik sarritan ekoizten dituztela adizki jokaturik gabeko esaldiak, batez ere aro honen hasieran. Hona hemen halako zenbait adibide:

- (468) *bale, nik lagundu* (O. 2;04;11)  
 (469) *nik ulia(ilea) obatu* (O. 2;04;11)  
 (470) *bale, ni(k) deitu holan* (M. 1;10;12)  
 (471) *bixo(k) batatu(baxatu)* (M. 1;11;06)  
 (472) *Peru (er)osi kotxe bat* (P. 2;05;26)

Honez gain, Mikelen korpusean aurkitu dugun *da* laguntzailearen pertsona-komuntadurarik gabeko balioa ere birgogorazi gura dut.

#### 4.3.6. *Ahal eta ezin partikulen erabilera*

Lehenago ere esan dudan arren, hirugarren aro honetan hurrek ez darabilte aditz-modu ezberdinik. Indikatiboaren erabilera nabaria da, baina ez dut aurkitu beste erabilera kontrajarririk.

Alabaina, *ezin* eta *ahal* partikulen bidez hurrek ekoizten dituzten adibideak aurkitu ditut.

Bigarren aroan ekoitziriko *ezin* partikuladun esaldiak ere kontutan izan behar ditugu, nahiz hurrek *ezin* partikula beti aditz nagusi bezala erabili duten, eta inoiz ez beste aditz baten laguntzaile legez.

Hirugarren aro honetan, bigarren aroan bezalaxe, hiru hurrek *ezin* aditz nagusi legez erabiltzen jarraitzen dute. Hona hemen adibideak:

- (473) *hau ezin da* (O. 2;04;11)  
 (474) *ezin da hau* (M. 1;10;12)  
 (475) *ezin du* (P. 2;07;30)

Oitzen ekoizpenean, halere, laguntzaile legez darabilen adibide bakarra ikus dezakegu:

- (476) *ta ezin da ipini* (O. 2;04;11)

Haatik, eta adibide bakarra aurkitu dudan arren, eta gainera haur bakarrarena, *ezin* partikularen bidez osatzen diren ahalera-adizkiak hirugarren aro honetan ekoitz ditzaketela iruditzen zait. Gogoan izan adibide bakarra den arren, bere egokitasuna oso-osoa dela eta halakoen maiztasuna oso txikia izaten dela. Edozelan ere, geroago ikusiko dugun legez, ez dago batere argi *ezin* modu-aditz bezala ala aditz nagusi bezala darabilten.

#### 4.3.7. Menderagailuen erabilera

Mendeko perpaus denboragabeetako adizki jokatugabeei dagozkien menderagailuak ere badarabiltzate hirugarren aro honetan.

Bigarren aroan, *-ta* menderagailua ikusi ahal izan dugu Peruren eta Oitzen korpusetan. Hirugarren aro honetan menderagailuen erabilera hedatu eta sendotu egiten dela esan dezaket, beste halakoak ere agertzen baitira: *-tzen*, *-tzeko*, *-tzea*.

Hona hemen zenbait adibide:

- (477) *ipuina sartuta* (O. 2;03;09)
- (478) *hemendi(k) atarata* (O. 2;03;09)
- (479) *makila joten* (O. 2;03;09)
- (480) *ba aititari makila konpontzen* (O. 2;03;09)
- (481) *ba har(r)ia ekartzen* (O. 2;03;09)
- (482) *berak badaki zubia e(g)iten* (O. 2;04;11)
- (483) *ba etxia e(g)iteko* (O. 2;04;11)
- (484) *ikusteko* (O. 2;04;11)
- (485) *apu(r)tute da(g)o* (M. 2;02;11)
- (486) *dana da(g)o apu(r)tute* (M. 2;02;11)
- (487) *bestie da(g)o apu(r)tute* (M. 2;02;11)
- (488) *ni(k) be(ere) gure do(t) ba(z)ka(l)tzie* (M. 2;03;11)
- (489) *ze e(g)iten na(g)o buztena* (M. 2;03;11)
- (490) *(i)biltzen doa* (P. 2;05;26)
- (491) *lolo (e)giteko* (P. 2;05;26)
- (492) *dena dena apu(r)tuta* (P. 2;05;26)
- (493) *pintatzeko da kotxea* (P. 2;07;09)
- (494) *bai [eske] apu(r)tuta dago hau* (P. 2;07;09)

Bi zehaztapen egiteari garrantzitsu deritzot. Batetik, hiru haurren mendeko perpaus denboragabeetako menderagailuak denboradunetako konplementagailuak baino lehenago ikus ditzakegula.

Bestetik, Oitzek eta Peruk bigarren aroan *-ta* menderagailua erabiltzeaz gain, hirugarren aro honen hasiera-hasieran beste hainbat menderagailu ere (*-tzen*, *-tzeko* batez ere) darabiltzaten bitartean, Mikelek ia hirugarren aroaren amaierara arte ez darabilela menderagailurik, arakatu dudak korpusen behinik behin.

#### 4.3.8. Konplementagailuen erabilera

Mendeko perpaus denboradunetako adizki jokatuerei eransten zaizkien konplementagailuen ekoizpena, badirudi hirugarren aro honetan ez dutela gauzatzen. Halere, azter dezagun zehatzago baieztapen hau.

Oitzen korpusean baditugu zalantzazko adibide bi hirugarren aro honetan. Ekoizpen hauen ingurua arakaturik zera esan dezaket: ez dagoela bate-re argi, haur honek darabilen *-eta* kausazko mendekoari dagokion konplementagailua ala koordinagailua den. Hona hemen direlako adibideak:

(495) *holakue da ta (O. 2;03;09)*

(496) *atara da ta (O. 2;03;09)*

Horregatik, ez dut uste haur honek oraindinoko konplementagailurik darabilen aldeko frogarik dugunik.

Mikelen ekoizpenean nabariago geratzen da konplementagailuen erabilera-eza, arauak *-(e)n* eta *-etz* konplementagailuak gauzatzea eskatzen dionean ez baitarabiltza. Hona hemen adibideak<sup>54</sup>:

(497) *e(z) daki(t) nun da(g)o(en) (M. 1;11;06)*

(498) *be(g)itu zelan doie(doa)(n) (M. 2;00;00)*

(499) *bestie ez daki(t) nun da(n) (M. 2;00;22)*

(500) *esan dau(du) ez(etz) (M. 2;02;11)*

(501) *ze(rg)aiti(k) Ana(k) esan dau(du) ez(etz) (M. 2;02;11)*

(502) *be(g)itu zer e(g)in dau(du)(en) kotxie(k) (M. 2;03;11)*

(503) *be(g)itu zer e(g)in do(t)(n) (M. 2;03;11)*

(504) *be(g)itu zer deka(t)(n) ni(k) (M. 2;03;11)*

Adibideotan ikus dezakegun bezala, *-(e)n* eta *-etz* konplementagailuak ez ekoizteaz gain, esaldiaren hasieran NZ-hitzen bat gauzatzeko joera ere badu. NZ-hitzen ekoizpen hauen azterketa hurrengo atalean egingo dudanez, hemen ez dut ezer esango berauetaz.

Peruk ere Mikelen antzera jokatzeko du *-(e)n* konplementagailua ez ekoiztean, arauak gauzatzeko eskatzen dion arren. Halere halako adibideak aroaren amaieran baino ez ditut bildu, eta bi baino ez guztira. Hona hemen:

(505) *be(g)itu zer alaloe da(n) hau! (P. 2;07;09)*

(506) *be(g)itu zer da(n) hau! (P. 2;07;09)*

Badirudi, beraz, haurrek aro honetan ez dutela konplementagailurik erabiltzen, batzuetan arauak horrela eskatzen dien arren.

#### 4.3.9. *Ez eta bai* partikulen erabilera

Azpiatal honetan *ez* ezeztapen-partikularen eta *bai* baieztapen-partikularen erabilera arakatzeari ekingo diot.

<sup>54</sup> Haurrek ekoizten ez dituzten konplementagailuak nik parentesi artean adierazi ditut.



Aurreko aroetan ikusi dugun legez, hirugarren aro honetan ere, aditze-kin izan ezik, beste lexiko-kategorietako elementuen atzean jartzen dute haurrek *ez* ezeztapen-partikula. Hona hemen zenbait adibide:

- (507) *burdinie ez* (O. 2;03;09)
- (508) *horra ez* (O. 2;03;09)
- (509) *danak ez* (O. 2;04;11)
- (510) *hemen zu ez* (M. 2;00;00)
- (511) *o(rai)ntxe ez* (M. 2;00;00)
- (512) *za(ra)ta ez* (M. 2;01;06)
- (513) *ez, gaileta ez, bokata* (P. 2;05;26)
- (514) *paltlo tukutun bat ez* (P. 2;07;09)

Jokabide bera ikus dezakegu *bai* baieztapen-partikulagaz. Hona hemen adibide batzu:

- (515) *zuk bai* (O. 2;03;09)
- (516) *lehen bai* (O. 2;03;09)
- (517) *zu bai* (M. 2;00;00)
- (518) *hemen bai* (M. 2;02;11)
- (519) *ai, hemen kotxia be(ere) bai* (M. 2;03;11)

Baina ezeztatutakoa aditza denean, jokabidea ezberdina dela dirudi. Halere, ezberdindu egin behar ditugu adizki jokaturgabeak eta jokatuak. Edozelan ere, gauza bera ikusi ahal izan dugu aurreko aroetan.

Adizki jokaturgabea denean, orokorrean bi aukera ditugu, esaldiak aginduak edo deklaratzailak izatea. Aurreko aroan, bigarren aroan hain zuzen, ikusi dugun moduan, batzuetan zein besteetan *ez* ezeztapen-partikula aurrean zein atzean jartzen dute Peruk eta Oitzek. Hirugarren aro honetan, Oitzek aurrean jartzearen adibideak baino ez ditu, hurrengo aroan agindu baten atzean jartzearen azken adibidea ere baduen arren. Mikelek aurrean jartzen du ekoizten dituen adibide apurretan. Peruk bi adibide baino ez ditu ekoizten eta aukera biak ikus ditzakegu.

Nire ustez, eta hau batez ere Oitzi dagokio, *ez* ezeztapen-partikula adizki jokaturgabearen aurrean jartzeko joera sendotu giten da.

Hona hemen hau guztiau erakusten duten adibideak:

- (520) *ni bapez busti* (O. 2;03;09)
- (521) *ez, bapez jolastu* (O. 2;03;09)
- (522) *hau ez kendu!* (M. 1;11;06)
- (523) *Itzi(k) jan ez, ez!* (P. 2;05;26)
- (524) *ez utitu(ukitu) txi hori!* (P. 2;07;09)

*Bai* baieztapen-partikula ere adizki jokatugabearen aurreko egongunea hartzen ari da. Hona hemen:

(525) *nik bai ututxi(ukitu)* (P. 2;07;09)

(526) *hau bai apu(r)tuta* (M. 2;02;11)

Adizki jokatuetakaz, ostera, orain arteko aro guztietan bezala, haur guztiek, salbuespenik gabe egiten duten legez, *ez* ezeztapen-partikula berauen aurre-aurrean jartzen dute:

(527) *ez dakit* (O. 2;03;09)

(528) *ez dabil* (O. 2;03;09)

(529) *holan ez da* (O. 2;03;09)

(530) *ez dau(du)gure* (M. 1;10;12)

(531) *hemen ez da kabitzen* (M. 1;11;06)

(532) *ez du nahi amak* (P. 2;05;26)

Azpimarragarria deritzot ondoko adibideari, bertan *bai* baieztapen-partikula ekoizten baitu aditz perifrastiko baten aurrean:

(533) *bai kausten da* (O. 2;04;11)

#### 4.3.10. *Ez eta bai* partikulen eragina perpausaren eraketan

Azpiatal honetan ezezko perpausetan edo bereziki markaturiko baieztapen-partikula haurren esaldiek hartzen duten eraketa aztertu nahi dut, jakina baita aditz-multzoaren hurrenkera-aldaketa ezezkoetan gertatzen dela, eta baieztapen-partikula ere gerta daitekeela.

Adizki jokatua laguntzailea denean, aditz-multzoko aldarazketa gertatzen da beti ezezkoetan. Salbuespenik gabe. Fenomeno hau, gainera, hirugarren aro honetan ikus dezakegu lehen aldiz hiru haurrengan. Hona hemen adibideak:

(534) *ez da kausten* (O. 2;04;11)

(535) *hau ez da apu(r)tu* (M. 1;11;06)

(536) *ez da kausiko* (M. 2;00;22)

(537) *e(z) da (i)kusten* (M. 2;01;06)

(538) *ez du nahi amak* (P. 2;05;26)

Baieztapen-partikula ez dut halako adibiderik ikusi, ez hirugarren aro honetan, ez nik aztertu dudako korpus osoan.

Bestalde, aditz-multzoak hartzen duen egongunea dela eta, bigarren aroko datuak aztertzekoan ikusi dugun legez, *ba(i)* baieztapen-partikula duen *ez* ezeztapen-partikuladun aditz-multzoek esaldiaren hasierara joteko joera agertzen dute. Halere, zenbaitetan osagaien bat ere ager daiteke aurre-aurrean. Adibideak bereizirik erakutsiko ditut.

**Baiezkoak:**

- (539) *bai daki* (O. 2;03;09)  
 (540) *badaki* (O. 2;03;09)  
 (541) *berak badaki zubia e(g)iten* (O. 2;04;11)  
 (542) *ha(hura) bai dako* (M. 2;01;06)  
 (543) *bai deko kotxie* (M. 2;02;11)  
 (544) *badoie* (M. 2;02;11)  
 (545) *badiez(dira)* (M. 2;03;11)

**Ezezkoak:**

- (546) *ez da hau* (M. 2;00;22)  
 (547) *ez da holan hori* (M. 2;02;11)  
 (548) *ez du nahi amak* (P. 2;05;26)  
 (549) *ez da(g)oz zikinak* (O. 2;04;11)

Orokorrean, bigarren aroko datuak aztertzean esandakoa berrets dezakedala uste dut: *ez* ezeztapen-partikuladun eta *bai* baieztapen-partikuladun aditz-multzoak esaldiaren hasierara aurreratzeko joera agertzen dutela, nahiz berauen aurrean mintzagaian beste osagaien bat edo batzuk ager daitezkeen.

Gainera, jokabide hau, lehen Oitzen korpusean baino ez bada izan ikusgarri, oraingoan hiru haurrengan baiezta dezaket.

Halere, azpimarragarria iruditzen zait, lehenago ere esan dudan bezala, Oitzen hurrengo adibidea:

- (550) *bai kausten da* (O. 2;04;11)

Adibide honetan, haur honek *bai* baieztapen-partikula darabil aditz-multzoaren aurrean beharrezkoa ez denean<sup>55</sup>, eta gainera erabilera honek ez dakar aditz-multzoaren hurrenkera-aldaketa, *ez* ezeztapen-partikulak haur honen ekoizpenean beti, salbuespenik gabe, dakarren legez.

**4.3.11. Aditz-multzoaren egongunea**

Esaldiaren osagai ezberdinen hurrenkeraren arloan ikusiko dugun lehen gertakaria aditz-multzoaren egongunea izango da.

Esaldi deklaratzailen barruan aditz-multzoak hartzen duen egongunea aztertzeke asmoz, 20. taula prestatu dut. Berton, hurrez haur, eta aroz aro, aditz-multzoaren egongunea (esaldiaren hasieran, tartean edo amaieran) adierazi dut.

<sup>55</sup> Halakoetan, eskuarki, *bai* baieztapen-partikulak isildu egiten dira.

Aditz-multzoaren egongunea gauzatzean, hiru hurrek dituzte antzeko jokabideak. Hala nola, lehenengo aroetan, lehen eta bigarren aroetan hain zuzen, aditza esaldi-amaieran jartzea, eta hasieran, ostera, oso gutxitan; eta jokabide hau hurrengo aroetan aldatzea, eta apurka-apurka aditz-multzoa esaldiaren hasieran zein tartean sarriagotan gauzatzea.

Baina ezberdin jokatzen dute besteetan, hala nola, Mikelek eta Oitzek lehenengo aroetan aditz-multzoa amaieran jartzea eta hasieran ez-jartzea ia beti gauzatzen dute. Jokabide honekiko haustura, alabaina, lehenago gauzatzen du Mikelek (hirugarren aroan) Oitzek baino (laugarren aroan).

Ikus ditzagun hirugarren aro honetako adibide batzu:

- (551) *hemen da(g)o komuna (O. 2;03;09)*
- (552) *nik ulia ebatu (O. 2;04;11)*
- (553) *eta biharrak egin tratorak (O. 2;04;11)*
- (554) *bota du Peruk (P. 2;05;26)*
- (555) *bokata da (P. 2;05;26)*
- (556) *da zezena (P. 2;05;26)*
- (557) *busti da brotxa (P. 2;07;09)*
- (558) *apu(r)tu da hau (M. 1;11;06)*
- (559) *Ana eto(rr)i da (M. 2;00;00)*
- (560) *hor sartu da hau (M. 2;00;00)*

#### 4.3.12. Esaldi deklaratzailen hurrenkera

Hurrenkeraren eremuan osagai-ordena ezberdinak aztertzeari lotuko natzaio jarraian.

Bigarren aroan AS-en egiturak ahalbideratzen dizkien osagai-hurrenkera ezberdinak erabiltzen hasi badira ere, hirugarren aro honetan osagai-hurrenkera ezberdinen aukera haur guztiengan hedatzen dela esan dezakegu (ikus 21. taula).

Mikelek eta Peruk, hirugarren aro honetan, lehenago erabili izan dituzten osagai-hurrenkerak sarriagotan gauzatzeaz gain, berriak ere erabiltzen hasiko dira, hala nola SAO multzokoak. Hona hemen zenbait adibide:

- (561) *ni(k) nahi dot tena (M. 2;03;11)*
- (562) *Andoni(k) e(g)in dau(du) kotxe bat (M. 2;03;11)*
- (563) *Pe(r)u otxi(erosi) kotxi bat (P. 2;05;26)*

#### 4.3.13. NZ-esaldiak

Azpiatal honetan hirugarren aroko NZ-esaldiak aztertzeari ekingo diot. Ekoizten dituzten esaldi-kopuruak, grabaketaz grabaketa eta hurrez haur, 22. taulan ikus daitezke.

## 20. Taula

Aditzaren egongunearen garapena aroz aro, korpurutan eta ehunekotan esaldi deklaratuazaleetan

	Aditza hasieran	Aditza tartean	Aditza amaieran
Oitz <sup>56</sup> :			
1. aroa	—	—	19 - %100
2. aroa	5 - % 6	12 - %15	61 - % 78
3. aroa	1 - % 1	13 - %17	61 - % 81
4. aroa	34 - %19	32 - %18	113 - % 63
Mikel:			
1. aroa	—	—	1 - %100
2. aroa	1 - % 5	3 - %14	17 - % 87
3. aroa	21 - %18	20 - %17	77 - % 65
4. aroa	15 - %33	10 - %22	21 - % 46
Peru:			
1. aroa	2 - %14	—	12 - %86
2. aroa	3 - %19	1 - % 6	12 - %75
3. aroa	8 - %20	8 - %20	24 - %60
4. aroa	12 - %17	21 - %29	39 - %54

## 21. Taula

Aditzen batez osaturiko esaldi deklaratuak osagai-hurrenkera ezberdinez sailkatuta

	Guzt.	SA	AS	OA	AO	SOA	SAO	OAS
Oitz:								
2;03;19	26	13	2	10	2	1	—	—
2;04;11	25	10	1	9	—	1	3	1
Mikel:								
1;10;12	10	3	3	3	1	—	—	—
1;11;06	10	5	3	2	—	—	—	—
2;00;00	8	3	2	2	1	—	—	—
2;00;22	5	4	1	—	—	—	—	—
2;01;06	8	5	—	2	1	—	—	—
2;02;11	18	9	5	1	2	—	1	—
2;03;11	16	5	1	1	3	1	3	2
Peru:								
2;05;26	8	1	4	—	1	—	1	1
2;07;09	15	9	2	2	1	1	—	—

<sup>56</sup> Oitzen eta Mikelen datuak 2;06ko adina duten arte baino ez ditut kontutan izan. Perurenak, ostera, 2;09ko adina duen arte arakatu ditut.

## 22. Taula

## Hirugarren aroko NZ-esaldiak kopuruka eta grabaketaka

Adina	Kopur.	Adina	Kopur.	Adina	Kopur.
Oitz: 2;02;00	31	Mikel: 1;10;12	4	Peru: 2;05;26	—
2;03;09	22	1;11;06	3	2;07;09	7
2;04;11	10	2;00;00	12		
		2;00;22	1		
		2;01;06	2		
		2;02;11	4		
Guzt.	63	Guzt.	26	Guzt.	7

Hirugarren aro honetan aurkitu ditudan NZ-esaldiak osagai-hurrenkera hauetan berez daitezke ([IzS] hizkiek izen-sintagma, [AdI] hizkiek aditz-laguna edo aditzondoa, [X] hizkiak izen-sintagma zein aditzondoa edo aditz-laguna, [Y] hizkiak [X] ez-bezalako izen-sintagma zein aditzondo edo aditz-laguna, [()] ikurrek tarteko osagaia ez agertzearen aukera, [A-] hizkiak aditz-multzo jokatu gabea eta [A] hizkiak aditz-multzo jokatu adierazten dutelarik):

- (564) X - NZ (IzS - NZ edo AdI - NZ)
- (565) NZ - IzS
- (566) (X) - NZ - A-
- (567) (X) - NZ - A
- (568) NZ - A - IzS
- (569) (X) - NZ - A - Y
- (570) bestelakoak

Osagai-hurrenkera ezberdin hauen ekoizpena grabaketaz grabaketa eta hurrez haur, baina NZ-esaldi bakunak eta mendekoak bereizirik, 23. taulan aurki daiteke.

Jarraian hirugarren aro honetan erabiltzen dituzten osagai-hurrenkera ezberdinetako adibideak jarriko ditut:

X - NZ:

- (571) *hori zer? (O. 2;03;09)*
- (572) *honek zer? (O. 2;04;11)*
- (573) *hemen zer? (O. 2;03;09)*
- (574) *ba honekin zer? (O. 2;03;09)*

NZ - IzS:

- (575) *nun Tamaru? (O. 2;02;00)*

(X) - NZ - A-:

(576) *hori zer bota?* (O. 2;02;00)(577) *o(ra)in ni nun marraztu?* (O. 2;03;09)(578) *hemendi(k) zer sartu?* (O. 2;03;09)(579) *ez daki(t) nun ipini* (M. 2;02;00)

## 23. Taula

Hirugarren aroko NZ-esaldiak, bakunak zein mendekoak,  
osagai-hurrenkera ezberdinez sailkaturik

	X NZ	NZ IzS	(X) NZ A-	(X) NZ A	NZ A- X	X NZ A Y	beste
Oitz:							
Bakunak:							
2;02;00	12	1	12	5	—	1	—
2;03;09	4	—	9	7	—	1	1
2;04;11	1	—	5	2	1	—	1
Guzt.	17	1	26	14	1	2	2
Mikel:							
Bakunak:							
1;10;12	—	—	—	3	—	1	—
1;11;06	—	—	—	1	—	1	—
2;00;00	—	—	—	7	—	2	—
2;00;22	—	—	—	—	—	—	—
2;01;06	—	—	—	2	—	—	—
2;02;11	—	—	—	3	—	—	1
Mendek.:							
1;10;12	—	—	—	—	—	—	—
1;11;06	—	—	—	1	—	—	—
2;00;00	—	—	1	1	1	—	—
2;00;22	—	—	—	1	—	—	—
2;01;06	—	—	—	—	—	—	—
2;02;11	—	—	—	—	—	—	—
Guzt.	—	—	1	19	1	4	1
Peru:							
Bakunak:							
2;05;26	—	—	—	—	—	—	—
2;07;09	—	—	—	3	—	2	—
Mendek.:							
2;05;26	—	—	—	—	—	—	—
2;07;09	—	—	—	—	—	2	—
Guzt.	—	—	—	3	—	4	—

## (X) - NZ - A:

- (580) *zer da?* (O. 2;03;09)  
 (581) *hau zer da?* (O. 2;03;09)  
 (582) *hemen zer da(g)o?* (O. 2;03;09)  
 (583) *kotxie nun da(g)o?* (M. 1;10;12)  
 (584) *bestie zer da?* (M. 1;10;12)  
 (585) *kotxie nun da(g)o?* (M. 2;00;00)  
 (586) *zer e(g)in dau(du)?* (M. 2;02;11)  
 (587) *ez daki(t) nun da(g)u(en)* (M. 1;11;06)  
 (588) *Buli nun dago?* (P. 2;07;09)  
 (589) *hau zer da?* (P. 2;07;09)

## NZ - A- IzS:

- (590) *no(r)k izetu argia?* (O. 2;04;11)  
 (591) *ez daki(t) nun ipini hau* (M. 2;00;00)

## (X) - NZ - A - Y:

- (592) *zer da hori?* (O. 2;02;00)  
 (593) *nun da(g)o holakue?* (O. 2;03;09)  
 (594) *nun da(g)u hau?* (M. 1;10;12)  
 (595) *nun da(g)u kotxie?* (M. 1;11;06)  
 (596) *nun da(g)u bestie?* (M. 2;00;00)  
 (597) *nun dago kakilia?* (P. 2;07;09)  
 (598) *non dago alakiak?* (P. 2;07;09)  
 (599) *be(g)itu zer alaloo da(n) hau!* (P. 2;07;09)

## Bestelakoak:

- (600) *'apura' zer da 'apura'?* (O. 2;03;09)  
 (601) *badakizu zer?* (O. 2;04;11)  
 (602) *ze(r)gati(k) ni(k) bota do(t) ni(k)?* (M. 2;02;11)

Aditzik gabeko NZ-esaldiak aztertuko ditut lehenago. Halakoak, hirugarren aro honetan Oitzek baino ez ditu ekoizten, eta euren erabilera zeharo jaisten da aro honetan zehar. Horrela, aro honen hasieran NZ-esaldi guztien % 35 diren bitartean, hurrengo bi grabaketetakoek % 10 baino ez dute osatzen.

Aditzik gabeko NZ-esaldiak, haur honek, lehen eta bigarren aroetan ere erabili ditu, baina lehen aroan honelakoak baino ez ditu erabili, hots % 100 aldiz, eta bigarren aroan % 65 aldiz.

Lehenago ere esan dudan moduan, aditzik gabeko NZ-esaldi hauek gramatika-ezaugarririk eta sintaxi-araurik gabeko lehen aroko esalditzat jo ditut, ustez mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez erai-kiak daudelako. Horrela, halakoetan esaldiaren hasieran ekoizten duen



osagaia mintzagaia edo deiktikoa litzateke, eta esaldiaren amaierako NZ-hitza informazio berriaren eskatzailea (ikus (571), (572), (573) eta (574) adibideak).

Baina hirugarren aro honetan NZ - IzS osagai-hurrenkerako adibide bat ere badugu (ikus (575) adibidea). Bertan NZ-hitza esaldiaren hasieran ikus dezakegu, eta beste osagaia, subjektutzat har daitekeena, esaldiaren amaieran. Egitura hau, beraz, X - NZ hurrenkeraren alderantzizkoa da.

Interesgarria iruditzen zait Oitzek aditzik gabeko NZ-esaldiak korpus osoan zehar nola gauzatzen dituen ikustea. Horretarako 24. taula prestatu dut. Bertan Oitzek ekoitziriko aditzik gabeko NZ-esaldiak aurkeztuko ditut, baina osagai-hurrenkerara bi hauetan berezirik: X - NZ eta NZ - X.

#### 24. Taula

Oitzek ekoizten dituen aditzik gabeko NZ-esaldiak, adinaren eta NZ-hitza betetzen duen egongunearen arabera: esaldiaren hasiera edo amaieran

	NZ-esaldiak guztira	Aditz gabekoak guztira	NZ-hitza amaieran	NZ-hitza hasieran
1;08;28	1	1	1	—
1;10;02	2	2	2	—
1;11;05	5	5	5	—
2;00;05	6	3	3	—
2;00;26	13	9	9	—
2;01;19	18	13	13	—
2;02;00	31	13	12	1
2;03;09	22	4	4	—
2;04;11	10	1	1	—
2;04;24	21	1	1	—
2;05;05	19	2	1	1
2;05;21	7	1	—	1
2;06;05	18	1	1	—
2;06;25	16	—	—	—
2;07;05	22	2	—	2
2;08;13	29	—	—	—
2;08;19	13	—	—	—
2;09;00	9	—	—	—
2;10;12	10	—	—	—
2;10;29	19	1	1	—
2;11;12	6	—	—	—
3;00;12	4	—	—	—

Argi ikus dezakegunez, 2;02;00ko grabaketara arte ekoitziriko aditzik gabeko NZ-esaldietan NZ-hitza egituraren amaieran darabil beti. Une honetan alderantzizko lehen adibidea ekoizten du, hots, NZ-hitza egituraren hasieran. Baina geroago, 2;05;05ko grabaketatik aurrera ekoitziko dituen aditzik gabeko NZ-esaldien % 50k izango du osagai-hurrunkera bera, hots NZ-hitza esaldiaren hasieran.

Bestalde, argi dago helduen hizkuntza mintzatuan egitura biak erabil daitezkeela, baina noski, inguru zehatzetan. Haur honengan berezia dena, helduen hizketarekiko ezberdin, alegia, jabekuntzaren aro goiztiar hauetan hain maiztasun handiaz erabiltzea da. Baina, 2;05;05ko adina duenetik aurrera mintzaide helduen antzeko maiztasunez darabiltzala esan daiteke. Eta une honetatik aurrera, 2;05;05ko adinetik aurrera, egitura biak antzeko maiztasunez darabiltza haur honek, hots, NZ-hitza esaldiaren hasieran zein amaieran. Hau guztiau aditzik gabeko NZ-esaldietan, noski.

Oitzek 2;02;00ko adinaz burutzen duen NZ - IzS osagai-hurrunkerako adibideari so eginez inguru berezian ekoizten duela esan dezakegu. Haurrarentzat *Tamaru* mamua da, eta mintzaideak *Tamaru* badatorrela esaten dionean, haurrak, alde guztietara begira, delako adibidea gauzatzen du. Guztiz arduraturik, hirutan errepikatzen du ekoizpen bera. Badirudi, beraz, orain arte X - NZ osagai-hurrenkerako ekoizpenentzat erabili dudan azalpen berbera erabil dezakedala NZ - IzS osagai-hurrenkerako adibide bakar honentzat ere.

Hirugarren aro honetan Oitzek eta Mikelek adizki jokatu gabe osaturiko NZ-esaldiak ere ekoizten dituzte. Halakoek ez dute adizki jokaturik, adizki jokatu gabe hutsez osaturik baitaude, eta aurreko aroan, hots, bigarren aroan, hiru haurrek erabili izan dituzte.

Baina adizki jokatu gabe hutsez osaturiko NZ-esaldi hauek, (X) - NZ - A- eta NZ - A- - IzS osagai-hurrenkeretakoak izanik, ezberdinak dira. Horrela, (X) - NZ - A- osagai-hurrenkerakoak dira Oitzek gehien darabiltzanak, hirugarren aro honen % 41 osatzen dutelarik (ikus (576), (577), (578) eta (579) adibideak). Mikelek, ostera behin baino ez darabil halako adibide bat, % 4 alegia. Halakoetan NZ-hitza aditz jokatu gabearen aurre-aurrean ikus dezakegu, eta sarritan, ezen ez beti, esaldiaren hasieran, NZ-hitzaren aurrean, mintzagaitzat hartu dudan hirugarren osagai bat. (X) - NZ - A- osagai-hurrenkerako NZ-esaldi hauek erabilgarriak dira helduen hizkuntzan, baina inguru berezietan. Haurren ekoizpenean, Oitzek darabilen maiztasuna da azpimarragarri. Baina hurrengo aroan maiztasun hau zeharo jaitsiko da haur honengan, % 7-ra alegia. Eta hiru urtetik lau urterako korpusean ez dugu halako adibiderik ikusi ahal izan.

Beste haur biek, lantzean behin baino ez darabilte egitura hau hirugarren arotik aurrera.

Adizki jokatu gabez osaturiko (X) - NZ - A- osagai-hurrenkerako NZ-esaldiak, AS-en egitura erabiliz eraiki dituztela uste dut, mintzagaia, sarritan, egituraren ezkerretara atxikirik.

NZ - A - - IzS osagai-hurrenkerako adizki jokatu gabe hutsezko adibideek, ostera, zera derakusate: NZ-hitza eta aditz jokatu gabearen ostean hirugarren osagaiaren bat (ikus (590) eta (591) adibideak). Hirugarren aro honetan halako ekoizpen bana darabilte Mikelek eta Oitzek, Mikelena mendeko NZ-esaldi baten ikus dezakegularik. Hemendik aurrera, Oitzek baino ez darabil egitura hau, hurrengo grabaketan, 2;04;24ko adinaz alegia, eta birritan soilik.

Mintzaide helduen hizkuntzan egitura hau erabilgarria da, baina inguru jakinetan. Azpimarragarria dena, Oitzek halako 3 adibide 2;04;11 eta 2;04;24ko adinetako grabaketetan ekoiztea eta ondoren berau desagertzen dela da. Nire ustez, NZ - A - - IzS osagai-hurrenkerako NZ-esaldi hauek AS-en edo IS-en egitura erabiliz ekoizti dituzte haurrek. Kontutan izan behar dugu esaldiaren amaieran, NZ-hitza eta aditz jokatu gabearen ostean agertzen zaigun osagaia subjektua dela Oitzek darabiltzan hiru adibideetan eta osagarri zuzena Mikelek darabilen adibide bakarrean. Egitura hauek une honetan esaldi deklaratuak burutzeko darabiltzaten egiturak gogorazten dizkigute, hots S-a eta O-a aditzaren ostean dituzten egiturak.

Adizki jokatu gabe hutsez eginiko (X) - NZ - A- zein NZ - A - - IzS osagai-hurrenkeretako adibideetan NZ-hitza une horretan darabilten egiturari atxikirik legoke, beti aditzaren aurre-aurrean agertuz. Eraiketa hauei, ezkerretara, mintzagaia ere atxiki diezaiekete.

Adizki jokatuaren batez osaturiko NZ-esaldiak, hirugarren aro honetan, hiru haurrek darabiltzate. Baina adizki jokatuak, Mikelen azkeneko grabaketan izan ezik (adibide bakarra baino ez, gainera), beti da trinkoa, *da* eta *dago* batez ere. Edozelan ere, bereizi egin behar ditut (X) - NZ - A, (X) - NZ - A - Y eta 'bestelakoak' osagai-hurrenkeretakoak.

(X) - NZ - A osagai-hurrenkerakoek NZ-hitza eta aditz jokatuaren aurrean, esaldiaren hasieran, osagaiaren bat izan dezakete mintzagaian (ikus (580).etik (589).erainoko adibideak). Hiru haurrek gauzatzen dituzte halako NZ-esaldiak.

(X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkerakoek NZ-hitza eta aditz jokatuaren ostean, esaldiaren amaieran, osagai bat izan dezakete (ikus (592).etik

(599).erainoko adibideak). Holakoak ere hiru hurrek darabiltzate, baina maiztasun txikiagoz.

‘Bestelakoak’ osagai-hurrenkerako adibide bi Oitzek ekoizten ditu eta Mikelek hirugarrena. Baina ezberdinak dira adibide guztiak. Oitzek behin, esaldiaren hasieran mintzagaian ekoitziriko osagaia, esaldiaren amaieran, NZ-hitzaren eta aditz jokatuaren ostean, errepikatu egiten du. Ikus adibidea:

(603) *‘apura’ zer da ‘apura’? (O. 2;03;09)*

Oitzek ekoitziriko ‘bestelakoak’ multzoko bigarrenari buruz zera esan dezaket, hurrengo aroan ekoitziko dituen mendeko NZ-esaldien aitzindaria dirudiela. Guztiz arrunta da hizkuntza mintzatuan halakoak burutzea. Hona hemen:

(604) *badakizu zer? (O. 2;04;11)*

Adizki jokaturen batez gauzaturiko adibide hauek, nire ustez, AS-en edo IS-en egituraz eraikiak dira, une honetan esaldi deklaratzailleak gauzatzerakoan haur guztiak darabiltzaten osagai-hurrenkera berberak baitutuzte. Gainera, (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkerako adibideetan aditz jokatu beti da trinkoa, *da* eta *dago* hain zuzen.

Ezberdina da Mikelek ekoizten duen ‘bestelakoak’ osagai-hurrenkera-ko adibidea. Berton subjektutzat har dezakegun osagaia errepikaturik ikus dezakegu NZ-hitza eta aditz perifrastikoaren artean eta esaldiaren amaieran, aditzaren ostean:

(605) *ze(rg)ati(k) ni(k) bota do(t) ni(k)? (M. 2;02;11)*

Adibide honetan badirudi haurrak zalantzak dituela subjektua ekoiztera-koan. Subjektuaren egonguneaz zalantzak ditu, alegia. Ene irudiko haurrak KS-en egitura erabili nahi izan du, eta NZ-hitza KONP-en espezifikatzaile-egongunera aurreratu du, baina gero, aditz-multzoa KONP-egongunera aurreratzean subjektua ere beragaz eroan du. Baina haurrak zerbait berezi dakusa edo sumatzen du, eta subjektua berriro ekoitzi du esaldiaren amaieran.

Badirudi, beraz, KS-en egituraren erabileraren atarian aurkitzen dela Mikel. Hurrengo aroan, erabileraren aldeko frogak biltzen saiatu beharko dut.

Honegatik, hirugarren aroan NZ-esaldiak burutzean KS-en egiturarik ez darabiltela esan dezaket. Mikel, agian, azkeneko grabaketan erabiltzen hasten da, baina orokorrean ez darabiltela esan dezaket.

Darabiltzaten egiturak, ordea, AS-enak eta IS-enak dira. Oitz, horietaz gain, mintzagai-galdegai hatsarre pragmatikoez ere sarri baliatzen da, nahiz baliapen hau esaldiko hatsarre bakartzat, aroan zehar, alboratuz edo gutxituz doan.

Bestalde, darabilten egiturari, mintzagaia ere atxiki diezaiokezte ezkerretara, esaldiaren aurre-aurrean agertuz.

Mintzagaiaren ezarpenaz ere bada beste gauza interesgarririk: mintzagaiaren egongunea mendeko NZ-esaldietan. Mintzagaiaren egongunea, NZ-esaldi bakunetan, NZ-hitzaaren aurre-aurrea den bitartean, mendeko NZ-esaldietan, aditz nagusiaren aurre-aurrean ere egon daiteke, Mikelen ekoizpenean behintzat. Hona hemen adibidea:

(606) *be(s)tie ez daki(t) nun da(n)* (M. 2;00;22)

#### 4.3.14. **Laburbilketa**

Hau guztiau ikusirik, badirudi hirugarren aro honetan erabiltzen dituzten zenbait gramatika-ezaugarri berri INFL funtzio-kategoriari dagozkio, hala nola, adizkien bidez isladatzen den subjektuarekiko pertsona-komunztadura. Nolanahi ere, azpimarragarria da INFL funtzio-kategoriaren beste hainbat gramatika-ezaugarri ez dituztela haurrek hirugarren aro honen hasieran erabiltzen, hala nola, adizkien bidez isladatzen diren osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura, zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura, aditz-denbora eta aditz-modua.

KONP funtzio-kategoriaren konplementagailurik edo berari dago-kion egiturarik, ostera, oraindik ez darabilte haurrek hirugarren aro honetan.

Hirugarren aro honetako datuek, haatik, baieztatu egiten dute hasierako hipotesi nagusia, hots, jabe-kuntza edo erabilera ez dela bapatekoa, mailakatua baino, eta mailakatze honek ordena zehatz eta jakina duela, hots, perpausaren egitura hierarkikoarena, KONP funtzio-kategoria oraingoz ez darabiltenean INFL funtzio-kategoria baitarabilte.

Mailakatzearen hipotesia gainera, ez da soilik sintagma ezberdinen arteko jabe-kuntzan edo erabileran gertatzen, ezpada kategoria beraren ezaugarri ezberdinen artean ere. Fenomeno hau argi ikus dezakegu INFL funtzio-kategoriaren erabileran, subjektuarekiko pertsona-komunztadura zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura eta osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura edo aditz-denbora eta aditz-modua baino lehenago agertzen baita.

## 4.4. LAUGARREN AROA EDO KONP FUNTZIO-KATEGORIAREN ERABILERAREN HASIERAK MUGATZEN DUEN AROA

Laugarren aro honetan, aurkezturiko hipotesiaren arabera, hurrek KONP funtzio-kategoriaren eta egituraren erabilera gauzatuko dituzte. Beste berba batzuek ez esanda, KONP funtzio-kategoriaren erabilerearen hasierak mugatuko du laugarren aro hau.


Laugarren aro edo urratsean, beraz, INFL eta KONP funtzio-kategoriak erabiliko dituzte hurrek.

INFL funtzio-kategoria erabiliko dutela diodanean, gogoan izan behar dugu aurreko aroan, hirugarren aroan hain zuzen, delako funtzio-kategoria dagoeneko erabili dutela, edo erabiltzen hasi direla.

KONP funtzio-kategoriaren erabilerearen bidez, hurrek konplementagailuak erabiltzeko gaitasuna izanen dute. Horrela, denboradun mendeko perpausak gauzatu ahal izanen dituzte. Pentsatzekoa da hasieran erabiliko dituzten konplementagailuak *-ela*, *-en* eta *-elako* izango direla.


Honez gain, KONP funtzio-kategoriaren erabilereak egitura-egongune berri baten gauzatzea ere badakarkie. Hurrek, hemendik aurrera, hainbat fenomenotan erabil dezaketen ezkerretzeko mugimenduaren lurreragunea ezagutuko dute: KS-en (K" egituraren) espezifikatzailea hain zuzen. Egongune horretara, esaterako, galdegaiak zein NZ-hitak aurreratu ahal izango dituzte.

Hortaz, pentsatzekoa da, laugarren aroan menderatuko duten egitura honelakoa izango dela, hots, perpausaren oinarritzko egitura<sup>57</sup>:



<sup>57</sup> Gogoan izan 2.2.4. azpi-atalean, Ortiz de Urbinak (1986, 1987, 1988) dioenez, KS-en burua ezkerretan gauza daitekeela onartu dudala.

Aurreko aroetan gertatu den bezala, mintzagaia, une honetan ere darabilten egiturari ezkerretan datxekie, hots, KS-en egituraren ezkerretan:



Lehenago ere aipatu dudan bezala, INFL funtzio-kategoriaren konplexutasuna ikusirik, pentsatzekoa da funtzio-kategoria honen gramatika-ezaugarriak mailakaturik erabiliko dituztela haurrek, eta ez bapatean. Gogora dezagun aurreko aroan subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki jokatuak erabili dituztela. Uste dezakegu, beraz, laugarren aro honetan INFL funtzio-kategoriaren beste ezaugarriren bat edo batzuk ere erabiliko dituztela.

KONP funtzio-kategoriaren ezaugarrien erabileraz ere beste horrenbeste esan dezaket. KONP funtzio-kategoriaren ezaugarriez dihardudanean ondokoaz ari naiz: konplementagailuak, NZ-esaldietako NZ-hitzak eta aditz-multzoak ezkerretara mugitzea (KONP-en espezifikatzaile-egongunera eta KONP-egongunera), mendeko NZ-esaldietan NZ-hitza eta aditz-multzoa aurreratzeaz gain aurreratutako adizki jokatuari konplementagailua eranstea, NZ-hitzen urruntasun luzeko deritzan mugimendua, eta abar.

Laugarren aro hau noiz hazten den mugatuko dut lehenengo eta behin. Horretarako, ekoizpenak arakaturik, 25. taulan aurkezten ditut haurren adinak eta ebbl-ak.

**25. Taula**

Laugarren aroaren hasiera adinaren eta ebbl-neurriaren arabera

	Adina	Ebbl-a
Oitz: .....	2;04;24	3,34 - IV
Mikel:.....	2;03;11	2,76 - IV
Peru:.....	2;07;30	3,27 - IV

#### 4.4.1. Izen-sintagmaren mugaketa

Aurreko aroaren bukaeran sintagma mugagabe bat ekoitzi du Mikelek. Oraingo honen hasieran adibideak ugariago ikus ditzakegu. Hona hemen:

- (609) *zein kamioi?* (O. 2;05;05)  
 (610) *hormie, zein horma?* (O. 2;07;05)  
 (611) *zein pelota?* (O. 2;07;05)

Badirudi, bada, haurren gaitasuna arlo honetan sakonduz eta hedatuz doala.

#### 4.4.2. Gramatika-kasuak

Gramatika-kasuen arloan ergatibo-kasuaren sendoketa igar daiteke. Errakuntzak edo ezabaketak gutxiago dira edo desagertu egiten dira, Oitz haur elebakarraren ekoizpenean batez ere. Absolutibo-kasua, subjektutzat zein osagarri zuzentzat, eta datibo-kasua, lehenago ere ikusi dugun moduan, badarabiltzate. Gainera partitibo-marka ere sasoi honetan erabiltzen hasten dira. Baina ikus ditzagun adibide batzuk:

Ergatibo-markaz gauzaturiko adibideak:

- (612) *hori amatxok aukin(eduki) dau(du)* (O. 2;04;24)  
 (613) *hore(r)ek ez dau(du) erueten(eroaten)* (O. 2;04;24)  
 (614) *Mikelek hartu dau(du)* (O. 2;05;05)  
 (615) *eske ez deko bestiek palarik* (O. 2;05;05)  
 (616) *berak hartu dau(du)?* (M. 2;05;10)  
 (617) *zuk hor dekozu moto(r)rie eta nik kamioie* (M. 2;06;11)  
 (618) *nik dekot hemen* (M. 2;04;00)  
 (619) *honek lolo e(g)in bi(bihar) dau(du)* (M. 2;04;11)  
 (620) *honek egiten du punbala* (P. 2;07;30)  
 (621) *ta hemen jaten du Potxok* (P. 2;07;30)  
 (622) *nik ezin du(t) jarri*<sup>58</sup> (P. 2;09;05)  
 (623) *zuk ez dakizu* (P. 2;09;05)

Absolutibo-markadun subjektuak:

- (624) *ta badoie(doa) abioie* (O. 2;04;24)  
 (625) *be(g)itu, euri-hotsa ikusten(entzuten) da* (O. 2;05;05)  
 (626) *kamiona badatorrela etxera* (O. 2;06;05)  
 (627) *ez da kabitzen kamioie* (M. 2;04;00)  
 (628) *hor ez da(g)o Jurgi* (M. 2;04;00)

<sup>58</sup> Geroago ikusiko dugun legez, haur honek oraindik ere sarritan ez du *-t* morfema ekoitzen.



- (629) *ta kotxe bat apurtu e(g)in da dana dana (M. 2;05;10)*  
 (630) *hemen bizi da oiloa (P. 2;07;30)*  
 (631) *eske hemen tratota dago (P. 2;07;30)*  
 (632) *gasolina hemen barruan dago (P. 2;07;30)*

Absolutibo-markadun osagarri zuzenak:

- (633) *hau gizona gure dau(du) (Jurgik) (O. 2;04;24)*  
 (634) *dana jan dau(du) (O. 2;04;24)*  
 (635) *garajie e(g)ingo dotza(g)u(diogu) (O. 2;04;24)*  
 (636) *egiten dau(du) majia (O. 2;05;05)*  
 (637) *garajie kendu e(g)in dau(du) (M. 2;04;00)*  
 (638) *nik hau kotxie gure (d)ot (M. 2;04;11)*  
 (639) *hartu e(g)in bi(behar) (d)ot kotxie (M. 2;04;11)*  
 (640) *hau zarata egiten du (P. 2;07;30)*  
 (641) *tena egingo det (P. 2;07;30)*  
 (642) *hemen dago belarra jaten [xx] (P. 2;07;30)*

Datibo-markadunak:

- (643) *honeri(honi) ez ipini! (O. 2;04;24)*  
 (644) *ta niri no(i)z itxi? (O. 2;05;05)*  
 (645) *Mikeli be(ere) bai (O. 2;05;05)*  
 (646) *gizonari erueteko(eroateko) (O. 2;05;05)*  
 (647) *beste kotxiei ipini bi(behar) (d)otzegu(diogu) pegatina (M. 2;07;01)*  
 (648) *esan dugu agur aitari agur (P. 2;10;11)*

Partitibo-markadunak (subjektuak zein osagarri zuzenak):

- (649) *ez deko(dauka) hankarik gainera (O. 2;05;05)*  
 (650) *ez deko(dauka) hankarik (O. 2;05;05)*  
 (651) *eske ez deko bestiek palarik (O. 2;05;05)*  
 (652) *ez da(g)o kotxerik (O. 2;05;05)*  
 (653) *ez da(g)o beste kotxerik (O. 2;05;05)*  
 (654) *honek ez deko txapelik (M. 2;08;19)*  
 (655) *Migel Marik ez daka belarririk (P. 3;03;07)*  
 (656) *baina e daka palarik (P. 3;04;04)*

Halere, Oitzen ekoizpenean ergatiboaren erabilera-eza desagertutzat jo dezakegun bitartean, ehuneko hamarrera ere ez baitira heltzen errakuntzak, Perurengan eta Mikelengan oraindino sarritan ikus dezakegu ergatibo-markaren gauzatze-eza. Hona hemen zenbait adibide:

- (657) *hau(k) ez du balio (P. 2;10;11)*  
 (658) *nahi (du)zu zu(k) hau? (P. 2;10;11)*  
 (659) *ni(k) limoia hatu dut (P. 2;11;25)*  
 (660) *apurtu eban(zuen) gizon bat(ek) (M. 2;10;04)*

(661) *ni(k) beste bat e(g)in bi(bihar) (d)ot (M. 2;04;00)*

(662) *Ana(k) emo(n) (d)osta(dit) (M. 2;07;01)*

Honegatik, badirudi laugarren aro honen hasieratik gramatika-kasuen erabilera, orokorrean hitzeginez, zabaldu eta sendotu egiten dela.

#### 4.4.3. Gainerantzeko kasuen erabilera

Hirugarren aroan ere ugari izan dira haurrek erabili dituzten kasu ezberdinak. Laugarren aro honetakoei buruz beste hainbeste esan dezaket. Hona hemen zenbait adibide:

(663) *baserriko gizona (M. 2;05;10)*

(664) *o(ra)in niretako, bale? (M. 2;05;10)*

(665) *Oitxongana (M. 2;07;01)*

(666) *ekarri ha, kartoizkue, euria da ta! (O. 2;05;05)*

(667) *ta gero Gorka(re)nera joan behar da (O. 2;06;05)*

(668) *ta jueten naz zuregana ... (O. 2;07;05)*

(669) *bezalakoa (P. 2;09;05)*

#### 4.4.4. Subjektuarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizki jokatuak

Adizki jokatuaren arloan, zehar-osagarriarekiko komunztadura erakusten duten adizkiak agertzeaz gain, Oitzen eta Mikelen korpusetan behintzat, subjektu ezberdinei dagozkien morfemen ugaltza ere gertatzen da hiru haurrengan.

Lehenengo, subjektuarekiko pertsona-komunztadura aditz iragan-gaitzetan zein iragankorretan zelan doan zabaltzen ikusiko dugu. Jarraian zenbait adibide aurkeztuko dut, baina iragangaitzetan eta iragankorretan sailkatuz.

Iragangaitzak:

(670) *ta badoie abioie (O. 2;04;24)*

(671) *ni banue bultze barik (O. 2;04;24)*

(672) *entzuten da, be(g)itu! (O. 2;05;05)*

(673) *ez da sartzen hori (M. 2;04;00)*

(674) *honek diez lagunak, kotxiek (M. 2;04;11)*

(675) *banoie (M. 2;04;11)*

(676) *hau aita(re)na da (P. 2;07;30)*

(677) *ta badoa (P. 2;07;30)*

(678) *beti beti formal egoten naiz kotxean (P. 2;09;05)*

## Iragankorrak:

- (679) *ez, nik badakit botatzen (O. 2;04;24)*  
 (680) *hau bota e(g)in bi(behar) (d)ot (O. 2;05;05)*  
 (681) *zuk ez dakizu (O. 2;04;24)*  
 (682) *zer eruen dozu? (O. 2;06;05)*  
 (683) *hori amatxok aukin dau(du) (O. 2;04;24)*  
 (684) *guk e(g)in dogu, Mikel (O. 2;04;24)*  
 (685) *hemen dozue (O. 2;07;05)*  
 (686) *ez dabe(dute) entzuten (O. 2;06;05)*  
 (687) *hau ipini bi(behar) (d)ot hemen (M. 2;04;00)*  
 (688) *baina hori dekozu (M. 2;04;11)*  
 (689) *[xx] jo (eg)in dozu (M. 2;04;00)*  
 (690) *ekarri (d)ozu? (M. 2;05;10)*  
 (691) *garajie kendu eg(in) dau(du) (M. 2;04;00)*  
 (692) *hau ipiniko (dogu) kamioien? (M. 2;04;11)*  
 (693) *nahi dut ikusi hau (P. 2;07;30)*  
 (694) *behar (du)zu (P. 2;07;30)*  
 (695) *zuk ez dakizu (P. 2;09;05)*  
 (696) *hemen jaten du Potxok (P. 2;07;30)*  
 (697) *ikusi behar dugu [pitia] (P. 2;09;05)*

#### 4.4.5. Zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizki jokatuak

Zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura erakusten duten adizkiak laugarren aro honen hasieran hasten dira ekoizten, Oitz eta Mikel behintzat. Peru, ostera, beranduago hasten da halakoak ekoizten (4.5. azpiatalean datu zehatzagoak aurki daitezke).

Hona hemen Oitzek eta Mikelek zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura erakusten duten zenbait adibide:

## Iragangaitzak:

- (698) *hala!, kausi jate(zait) (O. 2;04;24)*  
 (699) *jausi e(g)in jate(zait) (O. 2;05;05)*  
 (700) *ta o(ra)in galdu jata (M. 2;07;01)*

## Iragankorrak:

- (701) *ta nik ipiniko (do)tzet(diot) (O. 2;06;05)*  
 (702) *nik e(g)ingo dotzut(dizut) (O. 2;06;05)*  
 (703) *hau no(r)k apurtu dozte(dit) (O. 2;05;05)*  
 (704) *Iratik lagundu (d)ozte(dit) (O. 2;06;05)*  
 (705) *garajie e(g)ingo dotza(g)u(diogu) (O. 2;04;24)*

- (706) *ze bestela kenduko (do)zku(digu) (O. 2;04;24)*  
 (707) *nun ipiniko (do)tzet(diot)? (M. 2;04;00)*  
 (708) *baina hau, baina hori eruengo (do)tzut(dizut) (M. 2;05;10)*  
 (709) *baina hori emon bi(behar) (d)otzut(dizut) (M. 2;05;10)*  
 (710) *Ana(k) emo(n) (d)ozta(dit) (M. 2;07;01)*  
 (711) *beste kotxiei ipini bi(har) (d)otzegu(diogu) pegatina  
 (M. 2;07;01)*

Bestalde, eta lehenago esan dudan legez, Peruk ez du sasoi honetan zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura adierazten duen adizki jokatutik erabiltzen. Hona hemen erabilera-eza edo erabilpen okerraren zenbait adibide:

- (712) *Jokin(en)a gustatu dut<sup>59</sup> (P. 2;09;05)*  
 (713) *esan dugu abu(agur) aitari abu(agur) (P. 2;10;11)*  
 (714) *ez d(iz)ut utziko<sup>60</sup> (P. 3;00;17)*

#### 4.4.6. Osagarri zuzenarekiko komunztadura derakusaten adizki jokatutak

Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura erakusten duten aditzen erabileraren adibideak ere ikus ditzakegu aro honen hasieran. Baina haur bakoitzak behin baino ez darabil halakorik. Erabilera-ezaren adibideak ugariagoak dira, ordea. Hasteko, hona hemen erabilera derakusaten adibide bakanak:

- (715) *bota e(g)in dauz(ditu) hona (O. 2;06;05)*  
 (716) *ekarri (do)zuz(dituzu) bi kotxiek? (M. 2;04;11)*  
 (717) *nahi (di)ttuzu klomoak? (P. 2;10;11)*

Osagarri zuzenarekiko komunztadura-arloan adibide ez-zuzenak:

- (718) *eta horregatik pilotak jan dut (P. 2;10;11)*  
 (719) *hartuko dut klomoak (P. 2;10;11)*  
 (720) *eta erosi badugu klomoak (P. 2;10;11)*  
 (721) *ze deko(dauka) granok (M. 2;05;10)*  
 (722) *hemen da(g)o kotxiek (M. 2;07;01)*  
 (723) *palak hartu dau(du) (M. 2;08;19)*  
 (724) *ekarri dozunak? (O. 2;06;05)*  
 (725) *jan dot hiru (O. 2;06;25)*

<sup>59</sup> Adibide honen ez-egokitasuna garbiago ikusteko, jarraian mintzaide helduak eta haurrak duten elkarrizketatxoak transkribatuko dut: *Mintzaidea: Zer ba? Gustatzen zaizu zuri asko tarta ta. Haurra: Jokin(en)a gu(s)tatu dut. Mintzaidea: Jokinena gustatzen al zaizu? Haurra: Bai. Ama: Nola esan duzu? Jokinena gustatzen ...? Haurra: zaitut.*

<sup>60</sup> Adibide honen ez-egokitasuna ikusteko ekoizpen honen ingurua erakutsiko dut: *Haurra: E! Hori ez da zurea. Ez du(t) utziko. Mintzaidea: ez didazu utziko ere (sic).*

#### 4.4.7. Adizki jokaturik eza

Guzti honez gain, zera ere esan behar dut: laugarren aro honen hasieran, oraindik ere, ez dutela adizki jokaturik beti erabiltzen, arauak horrelakorik eskatzen duenean, noski.

Hona hemen laugarren aroaren hasierako erabilera-eza erakusten duten adizki jokaturik gabeko adibideak:

- (726) *ezebez emongo* (O. 2;04;24)  
 (727) *nik ho(rreg)atik hau hartu* (O. 2;05;05)  
 (728) *hare- hareri gizonari bapez pasau* (O. 2;06;05)  
 (729) *gero momorruak kendu* (O. 2;06;05)  
 (730) *beste makina hau nik ipini* (O. 2;06;05)  
 (731) *ta peasoak be(g)itu* (M. 2;04;11)  
 (732) *hau be bai osatu gero* (M. 2;05;10)  
 (733) *orain jan tarta* (P. 2;09;05)

Hiru haurren adizki jokatudun zein jokatugabeko esaldien kopuruak eta ehunekoak erakusteko 26. taula prestatu dut. Berton datuak aroka aurkezten ditut, baina gogoan eduki taula honetako laugarren aroko datuak beronen hasierakoak baino ez direla. Bestalde, menderagailudun adizkiak ez ditut kontutan izan. Taula honetan argi igar daiteke adizki jokatugabeen eginiko esaldiak gutxituz doazela aroetan zehar, eta jokatudunak, ostera, gehituz. Jokabide honek, besteak beste, haurren garapena eta gaitasuna erakusten dizkigu.

### 26. Taula

Adizki jokatudun/jokatugabekoen esaldi-kopuruak eta ehunekoak aroka

	Guzt.	Jokatudunak	Jokatugabeak
<b>Oitz:</b>			
1. aroa:	136	—	136 - %100
2. aroa:	153	35 - %23	118 - % 77
3. aroa:	108	52 - %48	56 - % 52
4. aroa	405	341 - %84	64 - % 16
<b>Mikel:</b>			
1. aroa:	2	2 - %100	—
2. aroa:	28	20 - % 71	8 - %29
3. aroa:	206	191 - % 93	15 - % 7
4. aroa	324	315 - % 97	9 - % 3
<b>Peru:</b>			
1. aroa:	14	2 - %14	12 - %86
2. aroa:	24	11 - %46	13 - %54
3. aroa:	48	45 - %94	3 - % 6
4. aroa	105	94 - %99	1 - % 1

#### 4.4.8. Modu-adizkiak

*Ezin* eta *ahal* partikulen bidez ekoizten dituzten nolabaiteko ahalera-adizkien ekoizpena arakatuko dut jarraian. Oitz aurreko aroaren amaieran *ezin* partikula legez edo laguntzaile moduan erabiltzen hasi dela ikusi dugu. Laugarren aro honetan, halako erabilera hiru hurrek burutzen dute.

Hona hemen Mikelek eta Peruk laugarren aro honetan *ezin* partikula erabilirik ekoizten dituzten ahalera-modu berezitzat jo ditzakegun zenbait adibide:

- (734) *zergatik ezin dau(du) hor sartu?* (M. 2;04;11)
- (735) *ezin dau(du) pasa(t)u?* (M. 2;05;10)
- (736) *ezin da ipini* (M. 2;05;10)
- (737) *ezin da pasa(t)u kotxie?* (M. 2;05;10)
- (738) *nik ezin du(t) jarri* (P. 2;09;05)

Laugarren aro honetan Oitzen korpusean *ahal* partikularen erabilera ere ikus dezakegu. Baina nire ustez, *ahal* partikula hau, adibide honetan behintzat, aditz nagusi legez darabil, eta ez partikula laguntzaile legez. Hona hemen delako adibidea:

- (739) *bai ahal dau(du)* (O. 2;06;05)

#### 4.4.9. Adizki nagusien aspektu-markak

Adizki jokatu-gabeek erakusten dizkiguten aspektuak hirugarren aroan erabiltzen hasten direla ikusi dut. Laugarren aro honetan aspektua erakusten duen aditz-multzoaren adizki jokatu-gabe hauen erabilera sendotu eta bermatu egiten da. Lehenago erakutsi dudana legez (ikus 4.3.4. azpiatala), haur guztien ekoizpenetan edozein aditz-aspektuk %20ren ingurua betetzen du. Gogoan izan dezagun 3. aroan ez dela horrelakorik gertatzen aspektu burutu-gabea eta gertakizuna adierazten dutenekaz.

Hona hemen laugarren aroko erabileraren adibideak hurrez haur:

- (740) *hau jausi da* (O. 2;04;24)
- (741) *dana apurtu da* (O. 2;04;24)
- (742) *ez da ez da jausten hori* (O. 2;04;24)
- (743) *ez, gainien ez da kabitzen* (O. 2;04;24)
- (744) *ez da apurtuko* (O. 2;04;24)
- (745) *ze bestela kenduko (d)ozku(digu)* (O. 2;04;24)
- (746) *garajie kendu (eg)in dau(du)* (M. 2;04;00)
- (747) *eta apurtu e(g)in da hori* (M. 2;04;11)
- (748) *ez da kabitzen kamioie* (M. 2;04;00)
- (749) *ez da ipintzen holan* (M. 2;04;00)

- (750) *eta hau nun ipiniko (d)ot?* (M. 2;04;00)  
 (751) *nun ipiniko (d)otzet(diot)?* (M. 2;04;00)  
 (752) *ikusi nola egin dun punbala!* (P. 2;07;30)  
 (753) *ikusi nola egiten du(n) punbala!* (P. 2;07;30)  
 (754) *ikusi nola egingo dun txoin-txoin!* (P. 2;07;30)  
 (755) *ikusi!, apurtu da* (P. 2;09;05)  
 (756) *beti beti formal egoten naiz kotxean* (P. 2;09;05)  
 (757) *harrapatuko du Amaia (induskailuak)* (P. 2;09;05)

#### 4.4.10. Menderagailuen erabilera

Mendeko perpaus denboragabeetako adizki jokatu gabeen eranstean zaizkien menderagailuak bigarren eta hirugarren aroetan ekoizten dituzte la ikusi dugu lehenago. Laugarren aro honetan berauen erabileraren jarraipena ikus dezakegu. Hona hemen zenbait adibide hurrez haur:

- (758) *banue erueten kamioie* (O. 2;04;24)  
 (759) *ez, nik badakit botatzen* (O. 2;04;24)  
 (760) *ni banue bultze barik* (O. 2;04;24)  
 (761) *hemendik sartzeko* (O. 2;05;05)  
 (762) *tiktak e(g)iteko* (O. 2;05;05)  
 (763) *emon ha, txintxaune e(g)iteko* (O. 2;05;05)  
 (764) *hau jezartzeko da* (O. 2;05;05)  
 (765) *ez dozu nahi medikuen(era) joatea ala?* (O. 2;06;05)  
 (766) *kola(s)teko* (M. 2;04;11)  
 (767) *dana da(g)o apurtute, hauxe be bai* (M. 2;04;11)  
 (768) *bai, ba(z)karie e(g)iteko* (M. 2;08;19)  
 (769) *ta hau da jateko* (M. 2;08;19)  
 (770) *t(r)enera sartzen* (P. 2;07;30)  
 (771) *ipintzeko* (P. 2;07;30)  
 (772) *ipintzeko t(r)a(k)tora* (P. 2;07;30)  
 (773) *saltatzeko da* (P. 2;09;05)

#### 4.4.11. Konplementagailuen erabilera

Mendeko perpaus denboradunetako adizki jokatu egi eranstean zaizkien konplementagailuak laugarren aro honetan ikus ditzakegu lehen aldiz. Konplementagailuen ekoizpena zehatzago dakusagun, jarraian, haur bakoitzak laugarren aroaren hasieran ekoizten dituen adibide ugari emanen ditut.

Hona hemen adibideok, baina hurrez haur eraturik:

- (774) *hori zurie izen dala* (O. 2;04;24)  
 (775) *bakarrik egon dala* (O. 2;04;24)

- (776) *be(g)itu hemen hemen hemen, txikie da ta!* (O. 2;04;24)  
 (777) *be(g)itu behien zer dekoten(daukadan) nik!* (O. 2;05;05)  
 (778) *be(g)itu zelan jueten dan!* (birritan) (O. 2;05;05)  
 (779) *Mikel, itxi piskaten hori ze nik ez dekot eta* (O. 2;05;05)  
 (780) *ekarri ha, kartoizkue, eurie da ta* (O. 2;05;05)  
 (781) *ez, txikie da ta* (O. 2;05;05)  
 (782) *ze nirie da* (O. 2;05;05)  
 (783) *kamioie badatorrela etxera* (O. 2;06;05)  
 (784) *hau zure laguna da ta* (O. 2;06;05)  
 (785) *piskat Mikel oker bat dala* (O. 2;06;05)  
 (786) *ba hau egon dalako* (O. 2;06;05)  
 (787) *esan dau(du) beste bat hartu bi(behar) dauela(duela)*  
 (O. 2;06;05)  
 (788) *ekarri dozu(ze)nak?* (O. 2;06;05)  
 (789) *zuk eruen dozuna nun da(g)o?* (O. 2;06;05)  
 (790) *ze e(g)iten na(g)o bu(z)tena* (M. 2;03;11)  
 (791) *ze(rg)aiti(k) lolo (eg)in bi(behar) dau(du) txakurre(k)*  
 (M. 2;04;11)  
 (792) *ze(rg)aiti(k) lolo (eg)in bi(behar) dau(du)* (M. 2;04;11)  
 (793) *ze(rg)aiti(k) kozinero (eg)in bi(behar) (d)o(t)* (M. 2;04;11)  
 (794) *zetako lolo (eg)in bi(behar) dau(du)* (M. 2;04;11)  
 (795) *hori ez dau(du) apurtu, ze(rg)aitik da(g)o apurtute*  
 (M. 2;05;10)  
 (796) *hori aparkatute da(g)uela e* (M. 2;07;01)  
 (797) *bestelan jo (eg)ingo (do)tzutela(dizudala)* (M. 2;07;01)  
 (798) *ze(rg)aiti hartu dau(du) pintura bat* (M. 2;08;19)  
 (799) *be(g)itu ves zelan egon dan tonta!* (M. 2;09;04)  
 (800) *be(g)itu zelan e(g)in daben(duen) Itsasok* (M. 2;09;04)  
 (801) *nik hartu (d)otela* (M. 2;09;04)  
 (802) *heldu dala* (M. 2;09;04)  
 (803) *ia sartzan dan (birritan)* (M. 2;09;04)  
 (804) *ze balio du* (P. 2;07;30)  
 (805) *behar du eta* (P. 2;07;30)  
 (806) *ikusi nola egin dun punbala!* (P. 2;07;30)  
 (807) *ikusi nola egingo dun txoin-txoin!* (P. 2;07;30)  
 (808) *orain doala kotxea!* (P. 2;09;05)

Lehenago hirugarren aroan Mikelengan eta Perurengan ikusi dugun bezala, arauak konplementagailuren bat eskatzen duen arren, konplementagailurik gabeko esaldiak ere burutzen dituzte laugarren aro honetan haurrek. Jokabide hau Mikelengan oso nabaria baldin bada ere, batez ere aro honen hasieran, adibide bana baino ez dut ikusi ahal izan beste haur biengan.



Hona hemen konplementagailurik gabeko adibiderik gehienak:

- (809) *zelan mugitzen da(n) be(g)itu!* (O. 2;05;05)  
 (810) *ez dakit nun (eg)in bi(behar) (d)ot(n)* (M. 2;04;00)  
 (811) *be(g)itu hau nun ipini bi(behar) da(n) hau!* (M. 2;04;11)  
 (812) *be(g)itu zelan apurtu da(n) kotxie!* (M. 2;05;10)  
 (813) *ikusi zelan apurtu da(n) kotxie* (M. 2;05;10)  
 (814) *zure kamioie ez dakit nun da(g)o(en)* (M. 2;06;11)  
 (815) *nik pentsetan(pentsatzen) do(t) bai(etz)* (M. 2;07;01)  
 (816) *be(g)itu zelan da(g)o(en) apurtute* (M. 2;07;01)  
 (817) *ez dakit nun da(g)oz(en) txoritxuek* (M. 2;08;19)  
 (818) *niriek ez dakit nun da(g)oz(en)* (M. 2;09;04)  
 (819) *ikusi nola egiten du(en) punbala!* (P. 2;07;30)

Konplementagailudun eta konplementagailugabeko adibideak ikusirik hainbat zehaztapen egin behar ditut.

Hasteko, aro honen hasieran Oitzek eta Peruk adizki jokatupei erantsitako konplementagailuak erabiltzen dituzten bitartean, badirudi Mikelek esaldiaren aurrean ekoizten dituela konplementagailu askeak.

Horrela, Oitzek *-(e)la* eta *eta* darabiltza laugarren aroko lehen grabaketan. Harridurazko eta erlatibozko *-(e)n* eta kausazko *-elako* konplementagailu erantsiak eta *ze* esaldi hasieran jartzen den konplementagailua, laugarren aro honetako hurrengo grabaketan ikus ditzakegu. Gainera, behin baino ez du uzten *-(e)n* konplementagailua gauzatu barik.

Mikelek, oster, 2;07;01 adineko grabaketara arte esaldiaren hasieran jartzen ditu *ze(rg)aiti(k)*, *zetako* eta *ze* konplementagailuak. Gainera, sarri gertatzen da adin horretara arte konplementagailuren bat eskatzen duten esaldiak delako konplementagailurik gabe gauzatzea. Behin 2;07;01-ko adina duen grabaketatik aurrera *-(e)la* hasten da erabiltzen eta 2;09;04-ko adinetik aurrera *-(e)n* (harridura eta zehargaldera) konplementagailu erantsia ere erabiltzen hasten da.

Peruk laugarren aro honetako lehen grabaketan *ze* konplementagailu askeaz batera, *eta* eta *-(e)n* konplementagailu erantsiak darabiltza, azkenea behin baino ez darabilen arren. Hurrengo grabaketan *-(e)la* konplementagailua ere ikus dezakegu beraren ekoizpenean.

Hau guztiau ikusirik argi dago laugarren aro honen hasiera-hasieran hiru hurrek darabiltzatela KONP funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak, hots, konplementagailuak.

Baina nabaria da, halaber, Oitzen eta Peruren ekoizpenetan konplementagailu ezberdinen arteko mailakatze kronologikorik ikusten ez den bitartean, Mikelen ekoizpenean argia dela lehenengo konplementagailu askeen erabilera, geroxeago esaldi deklaratzailuetako adizki jokatupei

eransten zaizkien konplementagailuena, eta azkenik, mendeko harridura-eta zehargaldera-esaldietako adizki jokatuari eransten zaien *-(e)n* konplementagailuarena.

#### 4.4.12. Aditz-multzoaren egongunea

Aditzaren egongunearen azterketari lotuko natzaio jarraian.

Laugarren aro honetan nabarmena da aditza esaldiaren hasieran jartzen duten esaldi deklaratzailleen kopurua (ikus 27. taula).

Horrela, Mikelek % 33 aldiz jartzen du aditza esaldi deklaratzailleen hasieran (aurreko aroetan % 0, 5 eta 18 bider); Oitzek % 19 aldiz (aurreko aroetan % 0, 6 eta 1 bider); eta Peruk % 17 aldiz (aurreko aroetan % 14, 19 eta 20 bider). Aldaketa, beraz, Mikelengan eta Oitzengan gertatzen dela esan dezaket.

#### 4.4.13. Ezeztapena eta ezezko aditz-multzoaren eraketa

*Ez* ezeztapen-partikulak betetzen duen egongunea aztertzeari ekingo diot oraingoan. Aurreko aroetan ikusi dugun legez, adizki jokatuak aurrean agertzen da beti, adizki ez den beste edozein lexiko-kategorietakoak beti atzean, eta adizki jokatuak ez, azkenik, atzean zein aurrean.

Laugarren aro honen hasiera-hasieran Oitzek *ez* ezeztapen-partikula adizki jokatuak atzean jartzen duen azken adibidea ikus dezakegu (ikus (820) adibidea). Gero aurrean jarriko du beti. Hona hemen adibide bi:

(820) *baloia ekarri ez!* (O. 2;04;24)

(821) *ez izetu!* (O. 2;04;24)

Bestalde, ezezko aditz-multzoen hurrenkera-aldarazketa aro honetan beti burutzen dute egoki, hots, arauak eskatzen duen legez. Joera bera ikusi dugu aurreko aroan ere. Hona hemen zenbait adibide:

(822) *ez da ipintzen* (O. 2;04;24)

(823) *ez, gainien ez da kabitzen* (O. 2;04;24)

(824) *hor(r)ek ez dau(du) eruten(eroaten)* (O. 2;04;24)

(825) *nik ezin dut jarri* (P. 2;09;05)

(826) *[x] ez da mugitzen* (P. 2;09;05)

(827) *ez da ipintzen holan* (M. 2;04;00)

(828) *ez da kabitzen kamioie* (M. 2;04;00)

Hauez gain, laugarren aro honetan, lehen aldiz ikus ditzakegu ezezko aditz-multzoko aditz laguntzaile eta aditz nagusien artean beste osagaien bat tartekaturik duten esaldiak. Hona hemen berauek:

(829) *ez da biziketa jausiko* (O. 2;06;05)

(830) *ez dot manta bat hartu* (O. 2;06;05)

(831) *ze(rg)aitik ezin dau(du) hor sartu?* (M. 2;04;11)

Adibide hauetan argi ikusten da *ez* ezeztapen-partikula eta adizki laguntzailea esaldiaren hasierara aurreratu dituztela haur hauek. Aditz nagusiak mugitu gabe geratu dira esaldiko beste osagaien baten ostean. Jakin badakigu guztiz arrunta dela eraiketa hau euskara mintzatuan.

Lehenengo adibide bietan, ezeztapenak berak eragin duela mugimendua pentsa daiteke. Orain arte mugimendu honi buruz ihardun dugunez, ez dut besterik esango.

Azken adibidea, aldiz, argi dago KS-en egitura erabiliz eraiki duela Mikelek. Berton NZ-hitza eta ezeztapen-partikula eta aditz laguntzailea esaldiaren hasierara aurreraturik ikus ditzakegu. NZ-hitzen mugimendua aztertzean zehatzago ikusi ahal izango dugu fenomeno hau.

## 27. Taula

Aditzaren egongunearen garapena aroz aro, kopurutan eta ehunkoetan esaldi deklarataileetan

	Aditza hasieran	Aditza erdian	Aditza amaieran
Oitz:			
1. aroa:	—	—	19 - %100
2. aroa:	5 - % 6	12 - %15	61 - % 78
3. aroa:	1 - % 1	13 - %17	61 - % 81
4. aroa:	34 - %19	32 - %18	113 - % 63
Mikel:			
1. aroa:	—	—	1 - %100
2. aroa:	1 - % 5	3 - %14	17 - % 87
3. aroa:	21 - %18	20 - %17	77 - % 65
4. aroa:	15 - %17	10 - %29	21 - % 54
Peru:			
1. aroa:	2 - %14	—	12 - %86
2. aroa:	3 - %19	1 - % 6	12 - %75
3. aroa:	8 - %20	8 - %20	24 - %60
4. aroa:	12 - %17	21 - %29	39 - %54

#### 4.4.14. *Egin aditza*

Galdegaiaren araketa egitea, ez da ikerketa honetako asmoa izan. Baina hain interesgarria iruditu zait Oitzen jokaera arlo honetan, ezen ekar-pentxo hau egitea erabaki baitut.

Oitz laugarren aro honen hasieran aditza galdegaia den esaldietan *egin* erabiltzen hasten da, bere inguruan erabiltzen den legez. Hona hemen zen-bait adibide:

- (832) *bota e(g)in dot (O. 2;05;05)*
- (833) *ez, ipini e(g)iten da (O. 2;05;05)*
- (834) *jausi e(g)in jate(zait) (O. 2;05;05)*
- (835) *jausi e(g)in da hara behera (O. 2;05;05)*
- (836) *galdu e(g)in da (O. 2;05;05)*
- (837) *hau bota e(g)in bi(behar) (d)ot (O. 2;05;05)*

Kontutan izan behar dugu, halako egituretan, Ortiz de Urbina-k (1987a) dioenez, aditz nagusia KONP-en espezifikatzaile-egongunera eta *egin* eta aditz laguntzailea KONP-egongunera aurreratzen direla. Badirudi, beraz, ekoizpen hauek KS-en egituraren erabileraren aldeko argudioa osatzen dutela.

Halere, datuok ez dira hain argiak, arlo honetan, Mikelen ekoizpena aztertu ezker.

#### 4.4.15. **NZ-esaldiak**

Laugarren aroko NZ-esaldien araketa egiterakoan 3:00 adinean jarri dut muga. Aldi honetako datu orokorrak ikusi ahal izateko 28. taula pres-tatu dut. Bertan NZ-esaldien kopuruak grabaketaz grabaketa eta haurrez haur ikus daitezke.

Bestalde, laugarren aro honetan aurkitu ditudan NZ-esaldiak osagai-hurrenkera hauetan berez daitezke ([IzS] hizkiek izen-sintagma, [Adl] hizkiek aditz-laguna edo aditzondoa, [X] hizkiak izen-sintagma zein aditzondoa edo aditz-laguna, [Y] hizkiak [X] ez-bezalako izen-sintagma zein aditzondo edo aditz-laguna, [()] ikurrek tarteko osagaia ez agertzearen aukera, [Z] hizkiak [X] eta [Y] ez-bezalako izen-sintagma zein aditzondo edo aditz-laguna, [A-] hizkiak aditz-multzo jokatugabea eta [A] hizkiak aditz-multzo jokatua adierazten dutelarik):

- (838) X - NZ (IzS - X eta Adl - X)
- (839) NZ - X (NZ - IzS)
- (840) (X) - NZ - A-
- (841) (X) - NZ - A

- (842) NZ - A - IzS  
 (843) (X) - NZ - A - Y  
 (844) (X) - NZ - Y - A - (Z)  
 (845) bestelakoak

Deskribaketa zehatzetan hasi baino lehen, osagai-hurrenkera hauen ekoizpena grabaketaz grabaketa eta hurrez haur erakusten digun taula prestatu dut (ikus 29. taula), baina esaldi bakunak eta mendekoak bereiziz (azken hauek taulako bigarren partean jarri ditudalarik).

Jarraian laugarren aro honetan erabiltzen dituzten osagai-hurrenkera ezberdinetako adibideak jarriko ditut, baina aditzik gabekoak, adizki jokatuturik gabekoak eta adizki jokatudunak bereiziz.

Has gaitezen aditzik gabeko adibideak erakutsiz:

X- NZ (IzS - NZ eta Adl - NZ):

- (846) *hau nun?* (O. 2;04;24)  
 (847) *hau nun?* (M. 2;07;01)  
 (848) *hor no(r)k?* (O. 2;06;05)  
 (849) *hemen zer?* (M. 2;06;11)

NZ - X (edo NZ - IzS):

- (850) *nun gizona?* (O. 2;05;21)  
 (851) *nun eskabadorie?* (O. 2;07;05)

## 28. Taula

Laugarren aroko NZ-esaldiak kopuruka eta grabaketaka

Oitz		Mikel		Peru	
2;04;24	22	2;03;11	14	2;07;30	8
2;05;05	22	2;04;00	14	2;09;05	2
2;05;21	7	2;04;11	9	2;10;11	4
2;06;05	18	2;05;10	11	2;11;25	3
2;06;25	16	2;06;11	6	3;00;17	3
2;07;05	24	2;07;01	6		
2;08;13	30	2;08;19	10		
2;08;19	13	2;09;04	12		
2;09;00	18	2;10;04	2		
2;10;12	14	2;11;09	1		
2;10;29	22	2;11;16	6		
2;11;12	11	3;00;20	9		
3;00;10	4				
<b>Guzt.</b>	<b>221</b>	<b>Guzt.</b>	<b>99</b>	<b>Guzt.</b>	<b>20</b>

Laugarren aroko aditzik gabeko NZ-esaldiak Oitzen eta Mikelen ekoizpenetan baino ezin ditugu ikusi. Aurreko aroetan ere ikusi ditugu halakoak, eta orokorrean mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoez eraikiak daudela esan dut.

Laugarren aro honetan azpimarragarria da aditzik gabeko NZ-esaldi hauen erabilera guztiz jaitsi egiten dela Oitzen ekoizpenean, % 5era ere iristen ez direlarik. Mikelen ekoizpenean, dagoeneko hirugarren aroan jaitsi egin dela ikusi dugu lehenago.

Jarraian ikus ditzagun adizki jokaturik gabeko adibideak. Hauek ere Oitzek eta Mikelek baino ez dituzte ekoizten. Hona hemen adibide batzuk:

(X) - NZ - A-:

(852) *hau gizona no(r)k bota?* (O. 2;04;24)

(853) *zein tapa(t)u?* (O. 2;07;05)

(854) *zer eukin?* (M. 2;05;10)

(855) *ta hau nun kabitzeko?* (M. 2;07;01)

NZ - A- IzS:

(856) *no(r)k mobidu hau?* (O. 2;04;24)

(857) *no(r)k zabaldu atie?* (hiru aldiz) (O. 2;04;24)

Bestelakoak:

(858) *no(r)k hau, no(r)k hau, bota hau?* (O. 2;04;24)

Laugarren aro honetan (X) - NZ - A- osagai-hurrenkerako adibideak Oitzek eta Mikelek ekoizten dituzten bitartean, NZ - A- IzS eta 'bestelakoak' osagai-hurrenkerakoak Oitzek baino ez ditu gauzatzen.

Adizki jokaturik gabeko NZ-esaldi hauek, laugarren aroan jaitsi egiten dira guztiz haur hauen ekoizpenetan, batez ere Oitzen ekoizpenean, berak erabili baititu aurreko aroetan gehien (ikus 30. taula).

Adizki jokaturik gabeko NZ-esaldi hauek, lehenago ere esan dudan legez, AS-en edo IS-en egituraz eraikitzen dituzte, ezkerretan mintzagaia atxiki diezaieketelarik.

Halere, azpimarragarria deritzot Oitzek ekoizten dituen NZ - A- - IzS eta 'bestelakoak' osagai-hurrenkerako adibideei. Kontutan izan behar dugu NZ - A- - IzS osagai-hurrenkerako beste adibide bat aurreko aroko azken grabaketan ekoizti duela eta hiru hauek laugarren aro honen lehenengo grabaketan ekoizten dituela. Ondoren, aztertu ahal izan dudan korpusan behintzat, bat bera ere ez. IS-en egituraz eraikiak dirudite. KS-en egituraren erabilerarik behintzat, ez dut ikusten.

29. Taula

Laugarren aroko NZ-esaldiak, bakunak zein mendekoak,  
osagai-hurrenkeraren arabera sailkatuta

	Guzt.	(838)	(839)	(840)	(841)	(842)	(843)	(844)	(845)
<b>Oitz:</b>									
2;04;24	22	1	—	4	10	2	4	—	1
2;05;05	19 + 3	1	1	5	10 + 2	—	1 + 1	1	—
2;05;21	7	—	1	—	5	1	—	—	—
2;06;05	18	1	—	1	13	—	3	—	—
2;06;25	16	—	—	—	8	7	—	1	—
2;07;05	22 + 2	—	2	2	10 + 2	—	8	—	—
2;08;13	20 + 1	—	—	1	12	—	15 + 1	1	—
2;08;19	12 + 1	2	—	—	6	4 + 1	—	—	—
2;09;00	9 + 9	—	—	—	7 + 8	—	2 + 1	—	—
2;10;12	10 + 4	—	—	—	9 + 4	—	1	—	—
2;10;29	19 + 3	1	—	—	15 + 3	—	3	—	—
2;11;12	6 + 5	—	—	—	3 + 4	—	3 + 1	—	—
3;00;10	4	—	—	—	2	—	2	—	—
<b>Guzt.</b>	<b>185</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>13</b>	<b>114</b>	<b>2</b>	<b>46</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>Mikel:</b>									
2;03;11	11 + 3	—	—	—	8 + 2	—	3 + 1	—	—
2;04;00	12 + 2	—	—	—	8 + 1	—	3 + 1	—	1
2;04;11	9	—	—	—	5	—	3	—	1
2;05;10	9 + 2	—	—	1	4	—	4 + 2	—	—
2;06;11	5 + 1	2	—	—	2 + 1	—	1	—	—
2;07;01	6	1	—	1	3	—	1	—	—
2;08;19	9 + 1	—	—	1	4	—	4 + 1	—	—
2;09;04	9 + 3	—	—	—	5 + 2	—	4 + 1	—	—
2;10;04	1 + 1	—	—	—	1 + 1	—	—	—	—
2;11;09	1	—	—	—	1	—	—	—	—
2;11;16	5 + 1	—	—	—	3 + 1	—	2	—	—
3;00;20	8 + 1	—	—	—	5	—	3 + 1	—	—
<b>Guzt.</b>	<b>99</b>	<b>3</b>	<b>—</b>	<b>3</b>	<b>56</b>	<b>—</b>	<b>35</b>	<b>—</b>	<b>2</b>
<b>Peru:</b>									
2;07;30	5 + 3	—	—	—	2	—	3 + 3	—	—
2;09;05	2	—	—	—	1	—	1	—	—
2;10;11	3 + 1	—	—	—	2	—	1 + 1	—	—
2;11;25	3	—	—	—	2	—	1	—	—
3;00;17	3	—	—	—	2	—	1	—	—
<b>Guzt.</b>	<b>20</b>	<b>—</b>	<b>—</b>	<b>—</b>	<b>9</b>	<b>—</b>	<b>11</b>	<b>—</b>	<b>—</b>

Bestalde, adizki jokaturen batez gauzaturiko laugarren aroko NZ-esaldiak nagusi bihurtzen dira hiru haurren ekoizpenetan, 30. taulan ikus dezakegun legez. Hona hemen zenbait adibide osagai-hurrenkeraren arabera sailkatuturik:

## (X) - NZ - A:

- (859) *no(r)k apurtu dau(du)? (O. 2;04;24)*
- (860) *hau no(r)k ipini dau(du)? (O. 2;04;24)*
- (861) *hau no(r)k apurtu (d)ozte(dit)? (O. 2;05;05)*
- (862) *nire zaldie nun da(g)o? (O. 2;05;05)*
- (863) *hau holan no(r)k ipini dau(du)? (O. 2;06;05)*
- (864) *nor(k) pinta(t)u dau(du)? (M. 2;03;11)*
- (865) *o(ra)in zer e(g)in bi(behar) (d)ogu? (M. 2;04;00)*
- (866) *ta hau nun ipiniko (do)t? (M. 2;04;00)*
- (867) *ze(r) esan dau(du)? (M. 2;04;11)*
- (868) *ta hau nun ipiniko (d)ot? (M. 3;00;20)*
- (869) *zenbat balio du? (P. 2;07;30)*
- (870) *nola egiten da? (P. 2;10;11)*
- (871) *nora juen ba(behar) gara? (P. 2;11;25)*

## (X) - NZ - A - Y:

- (872) *no(r)k apurtu dau(du) holakue? (O. 2;04;24)*
- (873) *nun da(g)o nire zaldie? (O. 2;05;05)*
- (874) *nun da(g)oz nire egurrek? (O. 2;06;05)*
- (875) *honek zer esaten dotze(dio) mutilari? (O. 2;08;13)*
- (876) *zer dozu ukuan(eskuan)? (M. 2;03;11)*
- (877) *nun ipiniko (dog)u kotxie? (M. 2;04;00)*
- (878) *ze(rg)atik kendu dau(du) nire kamioie? (M. 2;04;11)*
- (879) *zelan ipintzen jako(zaio) begie? (M. 2;11;16)*
- (880) *nun da gasolina? (P. 2;07;30)*
- (881) *non dago nire pilota? (P. 2;09;05)*
- (882) *nun dago pegatina? (P. 2;10;11)*

## (X) - NZ - Y - A - (Z):

- (883) *hau zergatik zuzen dabil? (O. 2;05;05)*
- (884) *ze(rg)aitik hau ez dau(du) hartu? (O. 2;06;25)*
- (885) *ze(rg)atik honek jo e(g)in bi(behar) dau(du) trenan?*  
*(O. 2;08;13)*

## Bestelakoak:

- (886) *nun (ez) da kabitzen? (M. 2;04;00)*
- (887) *ze(g)aitik ezin dau(du) hor sartu? (M. 2;04;11)*



Adizki jokatudun X - NZ - A eta (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkereta-ko NZ-esaldiek hiru haurrek ekoizten dituzte, eta gorago esan dudan legez, laugarren aro honetako erabilien bihurtzen dira. NZ-esaldi hauek KS-en egituraz eraikiak daude. Jarraian uste honen aldeko frogak biltzen ahaleginduko naiz.

Batetik, (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkerako adibideetan dagoeneko aditz perifrastikoak erabiltzen hasten dira haurrak. Hauetan NZ-hitzaren eta aditz-multzoaren ostean beste osagaien bat gauzatzen dute. Helduen hizkuntza mintzatuko adibide beraiek dira, hots, KS-en egituraz eraikiak. Hauetan, beraz, NZ-hitza KONP-en espezifikatzaile-egongunera eta aditz-multzoa KONP-egongunera aurreratzen dituzte.

Bestetik, Mikelen azken adibidea ere badugu (ikus 'bestelakoak' multzoko azken adibidea, alegia). Adibide honetan argi dakusagu aditz-multzoko aditz nagusia esaldiaren amaieran geratu dela, KONP-egongunera ezeztapen-partikulagaz eta adizki jokatuagaz batera aurreratu gabe. Aukera hau badakigu badela euskaraz. Baina horretarako KS-en egitura erabili behar da. Adibide honetan, noski, NZ-hitza KONP-en espezifikatzaile-egongunera aurreratu du haurrak, eta adizki laguntzailea eta ezin ezeztapen-partikula KONP-egongunera.

### 30. Taula

NZ-esaldiak kopuruka eta aroka, aditz-multzoaren arabera sailkatuturik

	Guzt.	Aditzik gabekoak	Aditz jokatu gabek	Aditz jokatudunak
<b>Oitz:</b>				
1. aroa:	8	8 - %100	—	—
2. aroa:	37	24 - % 65	7 - %19	5 - %14
3. aroa:	63	18 - % 29	27 - %43	18 - %29
4. aroa:	221	10 - % 5	15 - % 7	196 - %88
3-4 urteak:	223	3 - % 1	—	220 - %99
<b>Mikel:</b>				
1. aroa:	—	—	—	—
2. aroa:	4	2 - %50	—	2 - %50
3. aroa:	26	—	2 - %7	24 - %93
4. aroa:	100	3 - % 3	3 - %3	94 - %94
3-4- urteak:	70	—	2 - %3	68 - %97
<b>Peru:</b>				
1. aroa:	—	—	—	—
2. aroa:	4	1 - %25	—	3 - % 75
3. aroa:	7	—	—	7 - %100
4. aroa:	20	—	—	20 - %100
3-4 urteak:	70	—	2 - % 3	68 - % 97

Froga hauei hirugarren aroko azken grabaketako Mikelen adibide be-zeziari buruz esandakoa ere gaineratu beharko nieke (ikus 4.3.13. azpiatala).

Gainera badira beste zenbait froga ere. Esate baterako esaldi deklarazio-zailetan ekoitziriko konplementagailuak.

Gainera, Oitzen eta Peruren ekoizpenetan mendeko NZ-esaldietan KONP-egongunera aurreratutako adizki jokatuari erantzen zaion konplementagailua ere ikus dezakegu. Edo Oitzek aditza galdegaia dutelarik ekoizten dituen adibideak ere (ikus 4.4.14 azpiatala).

Hortaz, (X) - NZ - A - Y, 'bestelakoak' zein (X) - NZ - A osagai-hurrenkeretako adibideak KONP funtzio-kategoria erabilirik ekoitzi dituztela esan dezaket. Horrela, NZ-hitza espezifikatzaile-egongunera eta aditz-multzoa KONP-egongunera aurreratu dituzte. Eta mendeko NZ-esaldietan, Oitzek eta Peruk KONP-egongunera aurreratutako adizki jokatuari konplementagailua erantzen diote. Mikelek, ostera, 2;09;00-ko adina izan arte ez die mendeko NZ-esaldietako aurreratutako adizki jokatuari konplementagailurik erantsiko.

Baina badira laugarren aro honetan beste zenbait fenomeno aipagarri. Batetik, ezezko NZ-esaldiak ere ikus ditzakegu. Arlo honetan azpimarragarria da Mikelek ekoitzi duen hurrengo adibidea:

(888) *nun (ez) da kabitzen?*<sup>61</sup> (M. 2;04;11)

Berton ezeztapen-partikula gauzatzen ez duen arren aditz-multzoko osagaien hurrenkera-aldaketa egoki burutzen duela ikus dezakegu. Beste berba batzuek: ezeztapen-partikula ekoizten ez duen arren, beraren eragin sintaktikoa bada. Beste ezezko NZ-esaldi-adibideak Oitzen ekoizpenean baino ez ditut aurkitu. Aditz-multzoaren hurrenkera-aldaketa eta NZ-hitzaren aurreratzea konp-egongunera ohikoak dira adibide guztietan. Hona hemen adibidetariko bat:

(889) *ta ze(rg)aitik ez da bustiko?* (O. 2;08;13)

Bestetik, Oitzen ekoizpenean, araua gordez, NZ-hitzaren eta aditzaren artean *ote* partikuladun adibidea ere ikus dezakegu. Hona hemen berau:

(890) *nor ete da? (bost aldiz ekoitzia)* (O. 2;10;29)

Hirugarrenez, mintzagaiaren ekoizpenaz berba bi esan gura dut. Lehengo ere ikusi dugu mintzagaia ezkerretan atxikitzen diotela une horretan erabiltzen duten egiturari. Gauza bera gertatzen da KS-en egitura erabiltze-

<sup>61</sup> Ezezkoa denez baieztatzeko, ikus dezagun ekoizpen honen ingurua. Oitzek eta Mikelek olatzen dihardute eta zera dio Oitzek: *Hori edo beste hori. Hor, hemen, txabolan. Ez. Ez, gainen ez da kabitzen.* Eta zera erantzuten dio Mikelek: *Nun da kabitzen?*

rakoan. Baina aipagarria iruditzen zait mendeko NZ-esaldietan mintzagaia har dezakeen egongunea esaldiaren barruan. Hirugarren aroan, Mikelen ekoizpenean mendeko NZ-esaldi baten mintzagaia aditz nagusizat har dezakegunaren aurre-aurrean ikusi dugu. Orain, laugarren aro honetan jokatibide bera ikus dezakegu Mikelen zein Oitzen ekoizpenetan. Baina beste zenbaitetan, mintzagaia NZ-hitzaren aurre-aurrean jartzen dute, aditz nagusizat jo dezakegunaren ostean, alegia. Hona hemen bietariko adibideak:

(891) *eta Jurgi ez dakit no(i)z etorriko dan gure etxera (O. 2;08;13)*

(892) *hau badakizu nun dan? (O. 2;09;00)*

(893) *badakizu hau nun dan? (O. 2;09;00)*

(894) *zure kamiona ez dakit nun da(g)o(en) (M. 2;06;11)*

(895) *niriek ez dakit nun da(g)uz(en) (M. 2;09;04)*

Azkenik, mendeko NZ-esaldietan KONP-egongunera aurreratzen den adizki jokatuari eransten zaion konplementagailuaren ekoizpenaz ihardungo dut. Lehenago ere aurreratu dudan bezala, laugarren aro honen hasiera-hasieratik Oitzek eta Peruk badarabiltzaten bitartean, Mikelek ez du 2;09;04 adina duen arte erabiliko. Halere, zehazpen gehiago ere egin behar ditut. Hirugarren aroan Mikelek eta Peruk ekoizten dituzten mendeko NZ-esaldietan ez dutela konplementagailurik gauzaten. Eta batzuetan, batez ere Mikelek eta Peruk, halako konplementagailuak ekoizten hasi eta gero, sarritan utziko dituztela gauzatu barik. Hau guztia bildurik 31. taulan ikus dezakegu (bertan izarrak araua gordetzen dutela edo haurrak etena izan duela adierazten du).

### 31. Taula

Mendeko NZ-esaldiak, konplementagailuaren ekoizpenaren arabera

	Guzt.	+/- konpl.		Guzt.	+/- konpl.		Guzt.	+/- konpl.
Oitz:			Mikel:			Peru:		
2;05;05	3	2 / 1	1;11;06	1	- / 1	2;07;09	2	- / 2
2;06;05	—		2;00;00	3	- / 3	2;07;30	3	2 / 1
2;07;05	2	2 / -	2;00;22	1	- / 1	2;09;05	—	
2;08;13	1	1 / -	2;03;11	3	- / 3	2;10;11	1	1 / -
2;08;19	1	1 / -	2;04;00	2	- / 2	2;11;25	—	
2;09;00	9	8 / 1*	2;04;11	—		3;00;17	—	
2;10;12	4	3 / 1	2;05;10	2	- / 2			
2;10;29	3	3 / -	2;06;11	1	- / 1			
2;11;12	5	3 / 2 *	2;07;01	—				
3;00;10	—		2;08;19	1	- / 1			
			2;09;04	3	2 / 1			
			2;10;04	1	1 / -			
			2;11;16	1	1 / -			
			3;00;17	1	1 / -			

Hau ikusirik badirudi Oitzek eta Peruk ia batera erabiltzen dituztela KS-en egitura NZ-esaldietan, konplementagailuak esaldi deklaratuaretan eta konplementagailuak mendeko NZ-esaldietan. Baina Mikel, aitzitik, mendeko NZ-esaldietan konplementagailua erabiltzen hasi orduko 6 hilabete pasatu behar dira KS-en egitura NZ-esaldietan eta konplementagailuak esaldi deklaratuaretan erabiltzen hasi denetik. Gainera, gogora dezagun, Mikelek, laugarren aro honen hasieran esaldi deklaratuaretan darabiltzan konplementagailuak esaldiaren hasiera-hasieran jartzen dituen partikula askeak direla. Konplementagailu erantsirik, esaldi deklaratuaretan, 2;07;01-ko adina duen arte, 4 hilabete beranduagora arte, ez du erabiltzeko.

Bestalde, KONP funtzio-kategoriaren beste berezitasun batzuk agertu ez direnez, NZ-hitzen uruntasun luzeko mugimendua, alegia, NZ-esaldien ikerketa 4;00-ko adina duten arte luzatzeari gomenigarri deritzot, eta hurrengo azpiatalean zeregin horri lotuko natzaio<sup>62</sup>.

#### 4.4.16. NZ-esaldien ekoizpena hiru urtetik lau urte bitartean

Hasteko, gomenigarria da aldi honetako ekoizpen-kopurua mugatzea, hots, NZ-esaldi-kopuruak grabaketaz grabaketa eta hurrez haur bereiztea (ikus 32. taula).

Bestalde, aldi honetan aurkitu ditudan NZ-esaldiak osagai-hurrenkera hauetan bereiz daitezke ([IzS] hizkiek izen-sintagma, [X] hizkiak izen-sintagma zein aditzondo edo aditz-laguna, [Y] hizkiak [X] ez-bezalako izen-sintagma zein aditzondo edo aditz-laguna, [O] ikurrek tarteko osagaia ez agertzearen aukera, [Z] hizkiak [X] eta [Y] ez-bezalako izen-sintagma zein aditzondo edo aditz-laguna, [A-] hizkiak aditz-multzo jokatu-gabea eta [A] hizkiak aditz-multzo jokatu adierazten dutelarik):

- (896) X - NZ
- (897) (X) - NZ - A-
- (898) (X) - NZ - A
- (899) (X) - NZ - A - Y
- (900) (X) - NZ - Y - A - (Z)

Osagai-hurrenkera hauen ekoizpena grabaketaz grabaketa eta hurrez haur erakusten digun taula 33.a da. Bertan NZ-esaldiak bakunetan eta mendekoetan bereizirik aurkeztu ditut.

<sup>62</sup> 3;00 - 4;00 bitarteko NZ-esaldien araketa 4.4. azpi-atalaren barruan egitea erabaki dut, KONP funtzio-kategoriaren jabekuntza zehatzago aztertzeko asmotan, hain zuzen ere.

Aldi honetan aditzik gabeko NZ-esaldiak Oitzen korpusean baino ez ditut ikusi. Guztira hiru adibide burutzen ditu, bere ekoizpenaren % 1 osatzen dutelarik. Hona hemen adibide bat:

X - NZ (edo IzS - NZ)

(901) *Jurgi, eta hemen zer?* (O. 3;01;12)

Adizki jokaturik gabeko NZ-esaldiak Mikelen eta Peruren korpusetan baino ez ditut ikusi. Bakoitzak adibide bina burutzen du, beren ekoizpenen % 3 osatuz. Hona hemen haurren adibide bana:

(X) - NZ - A-

(902) *zein zabaldu?* (M. 4;00;17)

(903) *zerekin egiten?* (P. 3;01;24)

Oitzen inolako aditzik gabeko adibideak, zein Peruren eta Mikelen adizki jokaturik gabekoak guztiz bat datoz arauarekin, eta euren maiztasuna ikusirik hitzun helduen hizketan gertatzen diren antzera gertatzen direla esan dezaket. Lehenago hitzegin dudan legez adibide hauei buruz, ez dut uste gauza berririk esateko daukadanik.

### 32. Taula

3 urtetik 4 urte bitarteko NZ-esaldiak kopuruka eta grabaketaka

Oitz		Mikel		Peru	
3;01;12	9	3;01;02	4	3;01;24	5
3;01;28	18	3;02;15	8	3;02;14	14
3;03;25	26	3;03;01	—	3;04;14	5
3;04;22	21	3;04;12	9	3;05;09	6
3;05;27	27	3;05;10	4	3;06;17	2
3;06;24	13	3;06;26	5	3;07;11	2
3;07;23	17	3;07;27	13	3;07;28	7
3;08;24	17	3;08;23	4	3;09;02	3
3;09;11	25	3;09;22	2	3;10;10	3
3;10;14	14	3;10;17	5	3;11;17	19
3;11;25	19	3;11;17	9	4;00;15	4
4;00;24	18	4;00;17	7		
<b>Guzt.</b>	<b>223</b>	<b>Guzt.</b>	<b>70</b>	<b>Guzt.</b>	<b>70</b>

Adizki jokaturen batez osaturiko NZ-esaldiek, aldiz, ekoizpenen % 99, 97 eta 97 osatzen dute Oitz, Mikel eta Peru haurrengan. Halere, osagai-hurrenkerak aztertuz, (X) - NZ - A eta (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkeretako adibideak hiru haurrek gauzatzen dituzten bitartean, (X) - NZ - Y - A - (Z) osagai-hurrenkerakoak Oitzek baino ez ditu burutzen.

Hona hemen (X) - NZ - A eta (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkeretako adibide batzuk:

(X) - NZ - A:

- (904) *eta zezenak zer jaten dabie(dute)? (O. 3;04;22)*
- (905) *eta urtxintxak zelan e(g)iten di(r)e? (O. 3;09;11)*
- (906) *ta zelan ez da jausten? (O. 3;10;14)*
- (907) *txakurre nun da(g)o? (M. 3;02;15)*
- (908) *ta o(ra)in nori e(g)in bi(behar) (d)otzet(diot)? (M. 3;07;27)*
- (909) *muskerra(k) zer egiten du? (P. 4;00;15)*

(X) - NZ - A - Y:

- (910) *zergatik bota (d)otzezu(diozu) nire kamioia? (O. 3;01;12)*
- (911) *eta zertarako eukiten dabiez(dituzte) patinetako mutilek honenek (hauek)? (O. 3;05;27)*
- (912) *ze bestelan nun ipiniko (d)ogu barkue? (O. 3;06;24)*
- (913) *eta zuk txanogorritxuri ze(r)gatik ez diozu abesten hori kanta hori? (O. 3;08;24)*
- (914) *nora juen da kotxie? (M. 3;04;12)*
- (915) *zerena izen da hori zatie? (M. 3;07;27)*
- (916) *baina zer pasatzen da korona(re)kin? (P. 3;02;14)*
- (917) *zergatik apurtu duzu sue? (M. 3;10;10)*

Adibide hauek ikusirik, ondoko berezitasun-multzoa bildu dut:

1) NZ-hitza beti jartzen dute aditz-multzoaren aurre-aurrean, Oitzen (X) - NZ - Y - A - (Z) osagai-hurrenkerako adibideetan izan ezik; 2) ezezkoetan, aditz-multzoaren hurrenkerak-aldaketa buruturik, NZ-hitza beti jartzen dute adizki jokatuaren aurrean dagoen ezeztapenaren aurre-aurrean; 3) batzuetan, NZ-hitza aurre-aurrean, esaldiaren hasieran, mintzagaian, beste osagai bat edo batzuk ere gauzatzen dituzte; 4) (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkerako adibideetan aditzaren ostean ikus ditzakegun osagaiek NZ-hitza eta aditzaren KONP-en espezifikatzaile-egongunerako eta KONP-egongunerako mugimendua baieztatzen digute; 5) hortaz, (X) - NZ - A zein (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkeretako adibideak gauzatzekoan KS-en egituraren erabilera baieztatu dezaket, lehenago ere esan dugun moduan.

Baina beste hainbat zehazpen ere egiteko geratzen zaizkit oraindik. Batetik (X) - NZ - Y - A - (Z) osagai-hurrenkerako Oitzen adibideen azterketa egiteko geratzen zait. Bestetik mendeko NZ-esaldiena.

## 33. Taula

3 urtetik 4 urte bitarteko NZ-esaldiak, bakunak zein mendekoak<sup>63</sup>,  
osagai-hurrenkera ezberdinez sailkatutik

	Guzt.	(896)	(897)	(898)	(899)	(900)
<b>Oitz:</b>						
3;01;12	7 + 2	1	—	4 + 1	1 + 1	—
3;01;28	5 + 13	—	—	5 + 12	— + 1	—
3;03;25	25 + 1	—	—	12	13 + 1	—
3;04;22	19 + 2	—	—	9 + 1	10 + 1	—
3;05;27	26 + 1	—	—	16 + 1	10	—
3;06;24	12 + 1	1	—	5	6 + 1	—
3;07;23	15 + 2	—	—	9 + 2	4	2
3;08;24	13 + 4	—	—	5 + 4	4	4
3;09;11	18 + 7	—	—	11 + 5	5 + 2	2
3;10;14	11 + 3	—	—	6 + 3	5	—
3;11;25	17 + 2	—	—	5 + 2	10	1
4;00;24	16 + 2	1	—	7 + 2	7	1
<b>Guzt,</b>	<b>223</b>	<b>3</b>	<b>—</b>	<b>127</b>	<b>82</b>	<b>11</b>
<b>Mikel:</b>						
3;01;02	2 + 2	—	—	1 + 2	1	—
3;02;15	5 + 3	—	—	5 + 3	—	—
3;03;01	—	—	—	—	—	—
3;04;12	7 + 2	—	—	5 + 1	2 + 1	—
3;05;10	4	—	—	—	4	—
3;06;26	4 + 1	—	—	4	— + 1	—
3;07;27	6 + 6	—	— + 1	4 + 5	2	—
3;08;23	2 + 2	—	—	2 + 1	— + 1	—
3;09;22	1 + 1	—	—	1 + 1	—	—
3;10;17	3 + 2	—	—	3 + 2	—	—
3;11;17	6 + 3	—	—	5 + 2	1 + 1	—
4;00;17	4 + 3	—	1	2 + 3	1	—
<b>Guzt,</b>	<b>69</b>	<b>—</b>	<b>2</b>	<b>52</b>	<b>15</b>	<b>—</b>
<b>Peru:</b>						
3;01;24	3 + 2	—	1	1 + 2	1	—
3;02;14	8 + 6	—	—	5 + 4	3 + 2	—
3;04;14	3 + 2	—	—	1 + 2	2	—
3;05;09	4 + 2	—	—	2 + 2	2	—
3;06;17	1 + 1	—	—	1 + 1	—	—
3;07;11	— + 2	—	—	— + 1	— + 1	—
3;07;28	4 + 3	—	— + 1	1 + 2	3	—
3;09;02	1 + 2	—	—	— + 1	1 + 1	—
3;10;10	2 + 1	—	—	1 + 1	1	—
3;11;17	16 + 3	—	—	13 + 1	3 + 2	—
4;00;15	3 + 1	—	—	3	— + 1	—
<b>Guzt,</b>	<b>70</b>	<b>—</b>	<b>2</b>	<b>45</b>	<b>23</b>	<b>—</b>

<sup>63</sup> Mendekoak, daudenean, + ikurraren ostean agertzen direnak dira.

Oitzek baino ez ditu burutzen (X) - NZ - Y - A - (Z) osagai-hurrenkerako adibideak. Hiru urtera arteko aldian ere halako adibide 2 gauzatu dituela ikusi dugu (% 1). Aldi honetan, oster, 11 adibide (% 5) ikus ditzakegu. Hona hemen zenbait:

- (918) *zegatik Arantza(re)n zalduna bota dozu? (O. 3;01;12)*  
 (919) *Jurgi, zegatik holan nahi dozu zeluaz? (O. 3;07;23)*  
 (920) *zuk zegatik otsoari ez diozu<sup>64</sup> kontatzen hori ipuina? (O. 3;08;24)*  
 (921) *zuk zegatik kamioi bat ez dozu probatzen? (O. 3;08;24)*  
 (922) *zegatik basoetako landetan izkutatu e(g)iten dira? (O. 3;09;11)*  
 (923) *zegatik azeriek untxie jaten dabie(dute)? (O. 3;09;11)*  
 (924) *ta zegatik hemen ez da(g)o? (O. 3;09;11)*  
 (925) *zegatik hori eukiten dabie(dute) garabiuek? (O. 3;11;25)*  
 (926) *zegatik holan ipini dozu? (O. 4;00;24)*

*Zegatik* galdetzailea, beraz, ez darabil beti NZ-hitz bezala. Esan gura dudana zera da, *zegatik* galdetzailea, batzuetan KONP-en espezifikatzaile-egongunera aurreratzen duen bitartean, beste batzuetan mintzagaian ekoizten duela. Azken hau litzateke (X) - NZ - Y - A - (Z) osagai-hurrenkerako adibideetan gertatzen dena. Jokabide hau ohikoa da helduen hizketan, haur honen inguruan behinik behin, eta badirudi halako adibideetan *zegatik* mintzagaian dagoela, perpausaren ezkerretan. Gainera, Oitzen ekoizpen hauek arakatu ezkerro zera ikus dezakegu:

1) *Zegatik* mintzagaian ezezko aditz-multzoa duten esaldietan ere ekoizten duela; 2) *zegatik* galdetzailearen aurrean, mintzagaian ere, beraz, beste osagaien bat ere ekoitz dezakeela; 3) *zegatik* eta aditz-multzoaren artean tartekaturik ikus ditzakegun osagaiak subjektuak, zehar-osagarriak, osagarri zuzenak, aditz-lagunak eta aditzondoak izan daitezkeela; 4) *zegatik* eta aditz-multzoaren artean osagai bat baino gehiago ere ekoitz dezakeela; 5) esaldiaren amaieran, aditz-multzoaren ostean, osagaien bat ere gauza dezakeela; 6) aditz-multzoa trinkoa zein perifrastikoa izan daitezkeela; 7) guztiak bat datozela hiztun helduek haur honen inguruan egin ditzaketenekaz, alabaina haurrak sarritasun handiagoaz burutzen dituela.

Bestalde, mendeko NZ-esaldiak ere ekoizten dituzte aldi honetan, eta berauen osagai-hurrenkerak 33. taulan kontutan izan ditut. Halere, taula honetan ez ditut osagai bakarreko mendeko NZ-esaldiak kontutan izan. Hona hemen zenbait adibide:

<sup>64</sup> Oitzek ekoizpen honetan euskara batuko forma darabil. Hainbaten eskolaratzearen ondorioa izan daiteke.



NZ:

(927) *eta juen nintzen, badakizu nora?* (O. 3;06;24)

(928) *orduen, badakizu zer?* (M. 3;11;17)

(929) *badakizu nola?* (P. 3;11;17)

Horiez gain (X) - NZ - A-, (X) - NZ - A eta (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkeretako adibideak ekoizten dituzte. (X) - NZ - A eta (X) - NZ - A - Y osagai-hurrenkeretakoak dira gehienak, eta (X) - NZ - A- osagai-hurrenkerako adibide bana Peruk eta Mikelek burutzen dute. Hona hemen zenbait adibide:

(X) - NZ - A-:

(930) *badakit zer e(g)in?* (M. 3;07;27)

(931) *begira zelako kohete e(g)iten Peru(k)!* (P. 3;07;28)

(X) - NZ - A:

(932) *Andoni, ikusi zer e(g)in doten!* (O. 3;01;28)

(933) *hau zer dan?* (O. 3;05;27)

(934) *begira nun sartu duen?* (P. 3;02;14)

(935) *begira nola egiten zuten!* (P. 3;04;04)

(936) *eta o(ra)in badakit nori e(g)ingo (do)tzetten(diodan)?*  
(M. 3;07;27)

(937) *aititek esango (d)ozta zelan e(g)iten dan* (M. 3;11;17)

(X) - NZ - A - Y:

(938) *nik badakit zelan izaten diezen(diren) barkuek* (O. 3;03;25)

(939) *be(g)itu zelan da(g)uen katue!* (O. 3;04;22)

(940) *ez, baina ikusi hor zelan da(g)uen kanpue!* (O. 3;09;11)

(941) *begira nola mugitzen den hau!* (P. 3;02;14)

(942) *be(g)ira zenbat ditugun orain!* (P. 3;11;17)

(943) *ez dakizu nun bizitzen diren azeriek?* (M. 3;04;12)

Osagai-hurrenkera hauek esaldi bakunen antzekoak direnez gero, interesgarriagoa iruditzen zait mendeko NZ-esaldietako konplementagailuen ekoizpena eta mintzagaiaren egongunea arakatzea. Zeregin horietan murgilduko naiz jarraian.

Hasteko, mintzagaiaren egongunea aztertuko dut. Jakin badakigu mintzagaia esaldiaren hasiera-hasieran, NZ-hitzaren aurre-aurrean hain zuzen, edo esaldi nagusitzat jo dezakegunaren aditzaren aurre-aurrean agertzen dela (ikus 34. taula).

Horrela, Peruk mintzagaia beti NZ-hitzaren aurre-aurrean ekoizten duen bitartean, Oitzek eta Mikelek esaldi nagusiaren hasieran ekoizten dute. Hona hemen bietariko adibideak:

- (944) *jo!, eske hankie be(g)itu nun sartu (d)oten!* (O. 3;10;14)  
 (945) *ez, baina ikusi hor zelan da(g)uen kanpue!* (O. 3;09;11)  
 (946) *ta gordinflonek badakizu zer e(g)in zaban(zuen)?* (M. 3;11;17)  
 (947) *begira hor nola kabitzen, hor nola kabitzen naiz(en)!*  
 (P. 3;11;17)

Mendeko NZ-esaldietako konplementagailuen erabilpenari buruz zera esan dezaket: aldi honetan gehienetan badarabiltela, lantzean behin ekoizten ez duten arren. Hona hemen ekoizte-ezaren adibide guztiak:

- (948) *be(g)itu zelan ahal dot(en)!* (O. 3;04;22)  
 (949) *ama, ikusi zelan e(g)iten dau(du)(en)!* (M. 3;04;12)  
 (950) *badakit zer ikusi dau(du)(en) hortik* (M.3;11;17)  
 (951) *begira zer egiten ari da(n)!* (P. 3;04;04)  
 (952) *begira hor nola kabitzen, hor nola kabitzen naiz(en)*  
 (P. 3;07;11)  
 (953) *ama, begira nola pintatu dut(n) hau, ama!* (P. 3;09;02)

Bada aipatu nahi dudan beste fenomeno bat, *ea* partikularen erabilera alegia. *Ea* partikula honen itxura *aber* edo *ia* izan daiteke haurren hizketan, eta mendeko NZ-esaldietan NZ-hitzaren aurre-aurrean edo mintzagaiaren aurre-aurrean ekoizten dute. Hona hemen adibideak:

- (954) *ze ikusi, aber honek zelan e(g)iten daben(duen)?* (O. 3;01;28)  
 (955) *ia nungue dan barkue* (O. 3;06;24)  
 (956) *Andoni, ikusi nahi dot ia zer da(g)uen* (O. 3;10;14)  
 (957) *aber ze zikin da(g)oen!* (O. 4;00;24)  
 (958) *aber zelako ondo urtetzen (d)ozten(didan), ze bestela!*  
 (M. 3;10;17)  
 (959) *ia nork jotzen duen dena* (P. 3;11;17)  
 (960) *ia nor(k) botatzen duen* (P. 3;11;17)

*Ea* partikula NZ-hitzaren aurrean dagoen mintzagaiaren aurre-aurrean ekoitziriko adibide bakarra baino ez dugu (aurreko adibide-multzoko lehen, alegia). Besteetan, partikula hau NZ-hitzaren aurrean agertzen zaigu. Bestalde, ez dut aurkitu mintzagaiaren eta NZ-hitzaren artean ezarririko *ea* partikuladun adibiderik.

Aldi honetako NZ-esaldi guztiak arakaturik, mendekoak zein bakunak, zera esan dezaket laburturik:

1) Ekoizten dituzten NZ-esaldi guztiak helduen hizkuntzaren arabera daudela gauzatuak, hots, arauak eskatzen duen legez. 2) NZ-hitzak eta aditzak KONP-en egonguneetara, espezifikatzaile-egongunera eta KONP-egongunera aurreratzen dituztela. 3) Oitzen ekoizpenean, *zergatik* galde-

tzailea, aldiz, ez darabilela beti NZ-hitz gisa. Batzuetan, galdetzaile hau, mintzagaian ekoizten du, helduen mintzairan egin daitekeen moduan. Inoiz *zergatik* galdetzailearen ostean mintzagaia eta ondoren galdegaia ere ekoitzi ditu. 4) Behin adin zehatz batetik aurrera mendeko NZ-esaldietan konplementagailua egoki eransten diotela aurreratutako aditz jokatuari, arauak horrela eskatzen duenean, noski. Adin jakin honetatik aurrera adibide bakar batzuetan baino ez dut ikusi desegokitasuna, hots, konplementagailu-eza. 5) Aditz-multzorik gabeko, eta beraz konplementagailurik gabeko mendeko NZ-esaldiak ere ekoizten dituztela, baina helduen mintzairan ohikoa den legez. 6) Mendeko NZ-esaldietan urruntasun luzeko deritzan NZ-hitzen mugimendurik ez dudala ikusi. Alabaina, halakoen maiztasun txikian egon daiteke ekoizpen-ezaren arrazoia, eta ez haurren erabilpen-ezean. 7) Mintzagaiaren ekoizpena, aldiz, sarritan gauzatzen dutela. Mintzagaia, ohikoa denez, esaldiaren hasieran gauzatzen dute, NZ-hitzen aurre-aurrean. Azpimarratzekoa da mendeko NZ-esaldietan, mintzagaia mendeko NZ-hitzen aurrean zein esaldi osoaren aurre-aurrean ekoizteko duten gaitasuna. 8) Mendeko hainbat NZ-esalditan erabiltzen den *ea* partikularen erabilera ere azpimarragarria da. Partikula hau *ia* edo *aber* itxurez gauzatzen dute, eta esaldian betetzen duen tokiari buruz zera esan dezaket: batzuetan NZ-hitzen aurrean ekoizten duten bitartean, besteetan NZ-hitzen aurrean doan mintzagaiaren aurre-aurrean ekoizten dutela. Halere, azken hauetariko adibide bakarra baino ez dut aurkitu, Oitzena, hain zuzen.

### 34. Taula

Hiru urtetik lau urte bitarteko adizki jokatudun mendeko NZ-esaldiak, mintzagaiaren arabera sailkatuta

	Guztira	Mintz	NZ-hitzen aurrean	Nagusiaren aurrean
Oitz: .....	40	15	6	9
Mikel: .....	26	6	1	5
Peru: .....	24	3	3	—

#### 4.4.17. Laburbilketa

Laugarren aroko ondorioak laburbilduz, aro honen hasieran badirudi hurrek KONP funtzio-kategoria erabiltzen hasten direla, KONP funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarrien zein egituraren erabilera argi ikus baitezakegu une honetan.

Hortaz, aroetan zehar, AS, INFLS eta KS-en egituren erabilera mailakatu argi dagoela ikusi dugu.

KONP funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarrien erabilera mailakatu, alabaina, ez dago hain argi. Batetik Oitzek eta Peruk konplementagailu-mota ezberdinak ia batera darabiltzatela ikusi dugu. Bestetik, Mikelek kronologikoki mailakatzen dituela dirudi: lehenengo konplementagailu askeak, geroxeago esaldi deklarataileetako konplementagailu erantsiak, eta azkenik mendeko NZ-esaldietako -(e)n konplementagailu erantsia.

KONP funtzio-kategoriaren ezaugarrien jabekuntza haurrengan zelan gertatzen den ikusi ahal izateko 35. taula osatu dut. Bertan ondoko ezaugarriak datatu ditut: KONP-en espezifikatzaile-egongunera eta KONP-egongunera NZ-hitza eta aditz-multzoa aurreratzearen erabilera; konplementagailuen erabilera, askeena zein erantsiena; eta mendeko NZ-esaldietan gertatzen den aurreko ezaugarri bien bateratzearen erabilera. NZ-hitzen urruntasun luzeko deritzan mugimendurik, ostera, ikusi ez dudanez, ezin izan dut adierazi.

### 35. Taula

KONP funtzio-kategoriaren ezaugarrien erabileraren dataketa

	KONP-era aurreratzea	Konplem. askeak	Konplem. erantsiak	KONP-era aurreratzea + konplem.
Oitz:	2;04;24	2;04;24	2;04;24	2;05;05
Mikel:	2;02;11/2;03;11	2;03;01	2;07;01	2;09;04
Peru:	2;07;09	2;07;30	2;07;30	2;07;30

#### 4.5. INFL-EN GRAMATIKA-EZAUGARRIEN ERABILERA MAILAKATUA

Dagoeneko aditz-kategoriaren eta INFL eta KONP funtzio-kategoriaren erabileraren hasierak mugatu ditudalarik, eta KONP funtzio-kategoriaren erabilera ere deskribatu dudalarik, atal honetan INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarrien erabilerak nola eta noiz gertatzen diren arakatzeari ekingo diot, nahiz hauetariko batzuk dagoeneko aztertu ditudan.

Araketa hasi orduko hona hemen atal hau nola taiutuko dugun:

- Aditz-multzoak aditz lexema hutsak direnean.
- Aditz-multzoko lehen ezaugarriaren erabilera: adizki jokatuak trinkoetan eta laguntzailetan bereizten dituztenean.

- Subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera.
- Zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera.
- Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera.
- Aditz-denbora ezberdinen erabilera.
- Aditz-modu ezberdinen erabilera.
- Laburbilketa.

Bestalde, kontutan izan behar dugu hemengo lehen azpiatalak aro edo urratsak deskribatzean ere ikusi ditugula, batzuk behintzat.

#### 4.5.1. Aditz-multzoak aditz lexema hutsak direnean

Haur hauek darabiltzaten aditzen lehenengo agerrera hiru multzo ezberdinetan sailka ditzakegu: batetik, aspektu burutuaren itxuraz eginiko aditz-multzo jokatuak; bestetik, adizki trinko bakar eta berezi batzuek eginikoak; eta azkenik, nini-hizkerako hitz berezietan burutzen dituztenak.

Hona hemen nini-hizkerako aditz bezala har daitezkeen hainbat ekoizpen:

- (961) *aitita apapa* (O. 1;05;19)
- (962) *a(u)pa* (O. 1;06;22)
- (963) *txotxo lolo* (O. 1;08;29)
- (964) *Andoni apatxin* (O. 1;08;29)
- (965) *tita(erlojua) punba* (O. 1;08;29)
- (966) *Arantza hemen apatxin* (O. 1;11;05)
- (967) *apapa* (M. 1;07;27)
- (968) *a(u)pa* (M. 1;07;27)
- (969) *papo* (P. 1;11;10)
- (970) *apapa* (P. 1;11;29)
- (971) *ni punba* (P. 1;11;29)
- (972) *apapo(amaitu)* (P. 1;11;29)
- (973) *hemen punba* (P. 2;01;03)

Aspektu burutuaren itxura duten adibideak honakoak dira:

- (974) *aitita apu(r)tu* (O. 1;06;22)
- (975) *amon(eman) koko!* (O. 1;06;22)
- (976) *hau bota* (O. 1;07;20)
- (977) *Ju(r)gi atara* (O. 1;07;20)
- (978) *Andoni etori!* (O. 1;08;29)
- (979) *ikusi tita!* (O. 1;08;29)
- (980) *hau ipini* (O. 1;10;12)
- (981) *ni igon* (O. 1;11;05)

- (982) *ke(n)du* (M. 1;07;27)  
 (983) *eto(rr)i!* (M. 1;07;27)  
 (984) *za(ba)ldu* (M. 1;09;04)  
 (985) *ha(r)tu!* (M. 1;09;04)  
 (986) *konta(t)u!* (M. 1;09;04)  
 (987) *ha(r)tu* (P. 1;11;00)  
 (988) *kentu* (P. 1;11;00)  
 (989) *utzi* (P. 1;11;00)  
 (990) *ni(ri)a (a)putu* (P. 2;01;03)  
 (991) *apu(r)tu pupila(gurpila)* (P. 2;02;14)

Hona hemen adizki trinkoez eginiko zenbait:

- (992) *han (d)a(g)u* (M. 1;07;14)  
 (993) *e(z) da(g)u* (M. 1;07;27)  
 (994) *e(z) da(g)o aki* (P. 1;11;29)  
 (995) *en(ez) daki* (P. 2;01;03)

Hau guztiau ikusirik, nini-aditzak bezala hartu ditugunen zein aspektu burutuaren itxuraz ekoizten dituztenen erabilera aditz lexematzat jo deza-kegu. Halako formetan aditzak esanahi zehatzaz gain ez du bestelako gramatika-ezaugarriarik adierazten, aldi goiztiar baten behintzat. Lehenago esan dudan legez, aldi hau lehen aroa da, honela izendatzea erabaki dudalako.

Aro goiztiar honetan, bestalde, haurrek darabiltzaten adizki trinkoez ez derakusate gramatika-ezaugarriarik. Hona hemen zenbait adibide<sup>65</sup>:

- (996) *han da(g)o(z)* (M. 1;07;14)  
 (997) *(nik) no tati(daki)(t)* (M. 1;07;14)  
 (998) *(nik) en(ez) daki(t)* (P. 1;11;29)

Ekoizpen hauei begiratzen badiegu berehala konturatuko gara subjektuarekiko pertsona-komunztadura ez dela egokia, singularreko hirugarren pertsonari dagokion adizkia baitarabilte pluraleko hirugarren pertsonari eta singularreko lehen pertsonari dagozkienak erabili beharrean. Argi dago, beraz, singularreko hirugarren pertsonari dagokion adizkia beste edozein pertsonarekin erabiltzen dutela. Badirudi, bada, adizki trinko hauek ere lexema hutsak direla.

Halere, adizki trinkoen erabilera bi ohar egin behar ditut. Batetik, Oitzek ez darabilela lehen aroan halakorik, beraren gurasoak bilduriko egunerokoan agertzen zaizkigun arren.

<sup>65</sup> Adibide hauek lehen ere jarri ditut 4.1.5. azpiatalean. Ingurua zehatzago ikusi ahal izateko bertara jo daiteke.

Bestetik, Oitzek honako ekoizpena ere burutzen duela:

(999) *Mikel guazen! (O. 1;11;05)*

Agintera-adizkiaren erabilera hau, nire ustez, lexikaldurik darabil haur honek, eta inola ere ez era emankor batetan, dagozkion gramatika-ezaugarriak erakutsiz.

Haatik, lehen aldi baten, aztertu ditudan haurrek behinik behin, aditz-multzo guztiak aditz lexema bezala darabiltzate. Aldi honetan, beraz, ez dute aditzaren inguruko inolako gramatika-ezaugarriak adierazten.

#### 4.5.2. Aditz-multzoko lehen gramatika-ezaugarrien agerrera

Lehenago 4.2.4. azpiatalean ikusi dugun legez, bigarren aroan, haurrak, nolabait, adizki jokatuakaz gramatika-ezaugarriak erabiltzen hasten direla dirudi.

Aldi honetan, nini-aditzak eta aspektu burutuaren itxura duten aditzak ere erabiltzen dituzte. Baina, adizki jokatuaren artean gertatzen da nolabaiteko aurrerapena, zeren orain arte trinkoak baino ez badituzte erabili, une honetan laguntzaileak ere erabiltzen hasiko dira. Hona hemen zenbait adibide:

Adizki trinkoak:

- (1000) *ez da(g)u hemen (O. 2;00;05)*
- (1001) *hori zer da? (2;00;26)*
- (1002) *ez daki (O. 2;01;19)*
- (1003) *Oitz txikik badeko(dauka) handia (O. 2;01;19)*
- (1004) *hau ez da (M. 1;09;04)*
- (1005) *han da(g)u (M. 1;09;04)*
- (1006) *e(z) taki (M. 1;09;22)*
- (1007) *Amaia da (P. 2;02;14)*
- (1008) *non da(g)o? (P. 2;03;12)*

Adizki laguntzaileak:

- (1009) *azala izan da (O. 2;00;05)*
- (1010) *argie izetu da (O. 2;01;19)*
- (1011) *hortxe egon da (O. 2;01;19)*
- (1012) *ezin, jausi (eg)in da (M. 1;09;04)*
- (1013) *joan da etxe(r)a (P. 2;04;15)*
- (1014) *bota du (P. 2;04;15)*

Peruk laguntzaile iragangaitzak zein iragankorrak darabiltzan arren, beste haur biek laguntzaile iragangaitzak baino ez darabiltzate.

Bestalde, nabaria da, oraingoz ere, adizki jokatu hauek, trinkoek zein laguntzaileek, pertsona-komuntadurarik ez derakusatela aldi honetan. Hona hemen zenbait adibide:

- (1015) *lau sei da(g)o(z)* (M. 1;09;22)  
 (1016) *(nik) ez daki(t)* (M. 1;09;22)  
 (1017) *bi da(g)o(z)* (O. 2;00;05)  
 (1018) *(nik) ez daki(t)* (O. 2;01;19)

Adizki trinko hauen erabilera lexemen eremura mugatzen dela esan dezaket, aurreko aldian bezala, une honetan darabiltzaten adizki trinko bakarrak singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak baitira, eta berauek singularreko lehen eta hirugarren pertsonaz zein pluraleko hirugarrenaz baitarabiltzate.

Adizki laguntzaileen erabilera goiztiarra, *da* hiru haurrengan eta *du* Perurengan, pertsona-komuntadurarik gabeko balioaz gertatzeak, besteak beste, forma hauek adierazten duten pertsona-komuntaduraren balioa zero edo hutsa dela erakusten digute. Gainera, nabaria gertatzen da *da* laguntzailearen erabilera hau Mikelen ekoizpenean hurrengo urratsean, eta, nolabait, forma honek pertsona-komuntadurarik erakusten ez digun ustearen aldeko argudiotzat har daiteke. Interesgarriak iruditzen zaizkidalako, hona hemen Mikelek hurrengo aroan, dagoeneko subjektuarekiko pertsona-komuntadura isladatzen duten adizkiak eraz darabiltzanean, *da* laguntzaileagaz ekoizten dituen pertsona-komuntadurarik gabeko adibideak:

- (1019) *Mikel: bota e(g)in da* (M. 2;00;22)  
*Mintzaidea: bota e(g)in dau(du)?*  
*Mikel: bai*  
*Mintzaidea: no(r)k bota dau(du) ba?*  
*Mikel: ni(k)*  
*Mintzaidea: zuk bota (d)ozu?*  
*Mikel: bai*  
 (1020) *Mintzaidea: ikusten dozu?*  
*Mikel: e(z) ta (i)kusi*  
*Mintzaidea: hantxe, ez dozu ikusten ala?*  
*Mikel: e(z) ta (i)ku(s)te(n)* (M. 2;01;06)

#### 4.5.3. Subjektuarekiko komuntaduraren agerrera

Aditz-multzoaren jabekuntzaren garapenean ikus dezakegun hurrengo urratsa subjektuarekiko pertsona-komuntaduraren erabilerarena da. Feno-



meno hau, lehenago ere 4.3.5. azpiatalean jorratu dudan arren, zehatz deskribatzen saiatuko naiz. Edozelan ere, gogoan izan behar dugu hirugarren arora arte ez dela agertzen.

Lehenagotik, aurreko aroetatik hain zuzen, hirugarren gramatika-pertsonari dagozkien hainbat adizki erabili izan dituzte, baina komunztadurarik gabe, edozein gramatika-pertsonakaz ekoizten izan baitituzte. Aldi honetan lehen gramatika-pertsonari dagozkion adizkiak ere agertzen dira, eta apur bat gerotxoago bigarren gramatika-pertsonari eta pluraleko lehen eta hirugarrenari dagozkienak ere bai. Hona hemen zenbait adibide, baina hurrez haur eta gramatika-pertsonaz gramatika-pertsona taiuturik:

Oitz haurra:

Singularreko hirugarren pertsona iragangaitza:

- (1021) *ba makila bat da (O. 2;03;09):*
- (1022) *hau izan da (O. 2;03;09)*
- (1023) *ez dabil (O. 2;03;09)*
- (1024) *hemen da(g)u harria (O. 2;03;09)*
- (1025) *bai kausten da (O. 2;04;11)*

Singularreko lehen pertsona iragangaitza:

- (1026) *ni naz (O. 2;03;09)*
- (1027) *ni naz onbe ume! (O. 2;03;09)*

Pluraleko hirugarren pertsona iragangaitza:

- (1028) *ez da(g)uz zikinak (O. 2;04;11)*

Singularreko hirugarren pertsona iragankorra:

- (1029) *ez deko(dauka) (O. 2;04;11)*
- (1030) *berak badaki zubia e(g)iten (O. 2;04;11)*

Singularreko lehen pertsona iragankorra:

- (1031) *ez dakit (O. 2;03;09)*
- (1032) *badakit (O. 2;03;09)*
- (1033) *hau ez dekot(daukat) ipinita (O. 2;04;11)*

Singularreko bigarren pertsona iragankorra:

- (1034) *badakizu zer? (O. 2;04;11)*

Mikel haurra:

Singularreko hirugarren pertsona iragankorra:

- (1035) *ez dau(du) gure (M. 1;10;12)*  
 (1036) *holan (eg)in dau(du), mu (M. 1;11;06)*  
 (1037) *Andoni(k) jan dau(du) (M. 2;00;22)*  
 (1038) *Ana(k) nahi (d)au(du) (M. 2;01;06)*

Singularreko lehen pertsona iragankorra:

- (1039) *ez do(t) ipini (M. 1;10;12)*  
 (1040) *ez do(t) topa(t)u (M. 2;00;00)*  
 (1041) *hau ken(d)u gu(ra) (d)o(t) (M. 2;00;00)*  
 (1042) *be(g)itu, zabaldu do(t) (M. 2;00;00)*  
 (1043) *ba (d)ako(t) ni(k) (M. 2;00;22)*  
 (1044) *ni(k) kan (eg)in do(t) (M. 2;01;06)*

Pluraleko lehen pertsona iragankorra:

- (1045) *holan ipiniko (dog)u, e? (M. 2;00;00)*

Singularreko hirugarren pertsona iragangaitza:

- (1046) *ipuine da hau (M. 1;10;12)*  
 (1047) *ipuine han da(g)u (M. 1;10;12)*  
 (1048) *hor (d)oie (M. 2;00;00)*  
 (1049) *hau ba(d)oie (M. 2;02;11)*

Singularreko lehen pertsona iragangaitza:

- (1050) *ni susta(t)u e(g)in naz (M. 2;01;06)*

Peru haurra:

Singularreko hirugarren pertsona iragankorra:

- (1051) *bota du (P. 2;04;15)*  
 (1052) *hau bota du Peruk (P. 2;05;26)*  
 (1053) *ez du nahi amak (P. 2;05;26)*  
 (1054) *ama, hemen da(u)ka (P. 2;07;09)*

Singularreko lehen pertsona iragankorra:

- (1055) *[xx] dut [be] bota (P. 2;04;15)*  
 (1056) *jan dut (P. 2;05;26)*  
 (1057) *paper bat ha(r)tu dut (P. 2;07;09)*  
 (1058) *hau topauko dut (P. 2;07;09)*

Singularreko hirugarren pertsona iragangaitza:

(1059) *hori beltza da* (P. 2;05;26)

(1060) *joan da Peu* (P. 2;05;26)

(1061) *baluan dago* (P. 2;07;09)

Ikusi ahal izan dugun moduan, adizki trinko iragankorretan Mikelek ez ditu hirugarren aro honen hasieran singularreko lehen eta hirugarren pertsoneri dagozkien adizkiak berezten, ez baitu *-t* morfemarik ahoskatzen. Hona hemen adibideak:

(1062) *badeko(t) ni(k)* (M. 2;00;22)

(1063) *(nik) ez daki(t)* (M. 2;02;11)

Oitzek 2;03-ko adinaz lehen eta hirugarren gramatika-pertsoneri dagozkien adizki iragankorrek zein iragangaitzak darabiltza, eta hurrengo hilean bigarren gramatika-pertsonari eta pluraleko hirugarrenari dagokien adizki iragankor eta iragangaitz bana. Badirudi beraz, une honetan hasten dela subjektuarekiko pertsona-komuntadura erabiltzen.

Mikelek 1;10 - 2;00 bitarteko adinaz lehen eta hirugarren gramatika-pertsoneri dagozkien adizki iragankorrek darabiltza, eta hurrengo hilean iragangaitzak ere bai. Halere, subjektuarekiko komuntadura adierazteko, adizki laguntzaile iragankorren arloan, haur honek sistema berezia eraikitzen du, horretan bizkaierak laguntzen diolarik (ikus 36. taula). Baina komuntadura-sistema berezi hau oztupo da adizki trinkoetan, eta hauetan ez du subjektuarekiko komuntadura adierazten, goiko adibideetan ikusi dugun legez.

### 36. Taula

Mikelen subjektuarekiko komuntadura-era iragankor berezia

Sing. 1. perts.:	do(t)	-o
Sing. 3. perts.:	dau	-au
Plur. 1. perts.:	dou/ou	-ou

Peru 2;04 - 2;05 bitarteko adinaz lehen eta hirugarren gramatika-pertsoneri dagozkien adizki iragankorrek bereizten hasten da. Halere, sarritan utziko du, oraindik, lehen gramatika-pertsonari dagokion morfema gauzatu barik. Hona hemen zenbait adibide:

(1064) *nik ezin du(t) jali* (P. 2;09;05)

(1065) *ni(k) badu(t) tratorea* (P. 2;09;05)

(1066) *ipiniko du(t) musika behean* (P. 2;09;05)

Hau guztiau laburbiltzeko hiru haurren subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten aditz iragankor zein iragangaitzen erabilera-aren hasiera-datak biltzen dituen taula aurkeztuko dut, 37. taula hain zuzen ere. Taula honetan 3 urtera arteko korpusetan aurkitutako lehen adibidearen ekoizpen-data ere adieraziko dut.

Gomenigarria deritzot haurrek 3;00 adineko korpus bitartean ekoitzi dituzten NOR eta NOR-NORK sistemetako adizki trinkoak zein laguntzailak erakusteari. Horretarako 38. (NOR sistemako *izan* adizki trinkoak), 39. (NOR sistemako *egon* adizki trinkoak), 40. (NOR sistemako *joan* adizki trinkoak), 41. (NOR sistemako *etorri* adizki trinkoak), 42. (NOR sistemako *ibili* adizki trinkoak), 43. (NOR sistemako adizki laguntzailak), 44. (NOR-NORK sistemako *jakin* adizkiak), 45. (NOR-NORK sistemako *eduki* adizkiak) eta 46. (NOR-NORK sistemako adizki laguntzailak) taulak egin ditut. Edozelan ere, kontutan izan, taula hauetan jarri ditudan kopuruetan ez ditudala zenbatu hirugarren gramatika-pertsonari dagozkien adizkiak baldin eta une horretan subjektuarekiko pertsona-komunztadurarik ez badarabilte.

### 37. Taula

Subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizkien lehen ekoizpen-datak hiru haurren korpusetan

	Oitz	Mikel	Peru
<b>Iragankorrak:</b>			
Sing. 1. perts.	2;02;00/2;03;19	1;10;12	2;04;15/2;05;26
Sing. 2. perts.	2;04;11	2;03;11	2;07;30
Sing. 3. perts.	2;01;19	2;03;11	2;04;15
Plur. 1. perts.	2;04;24	2;00;00	2;09;05
Plur. 2. perts.	2;07;05	—	—
Plur. 3. perts.	2;06;05	2;08;19	3;00;17
<b>Iragangaitzak:</b>			
Sing. 1. perts.	2;03;09	2;01;06	2;09;05
Sing. 2. perts.	2;04;24	2;11;16	—
Sing. 3. perts.	2;00;05	1;11;06	1;11;29
Plur. 1. perts.	2;08;13	2;07;01	2;10;11
Plur. 2. perts.	—	—	—
Plur. 3. perts.	2;04;11	2;00;22	2;11;25

## 38. Taula

NOR sistemako *izan* adizki trinkoen erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	naiz <sup>66</sup>	zara	da	gara	zarete	dira
Oitz:						
2;03;09	3		15			
2;04;11			8			
2;04;24			19			
2;05;05			19			1
2;05;21	2	1	14			
2;06;05			29			
2;06;25			6			
2;07;05			10			1
2;08;13	1	3	24			1
2;08;19			10			
2;09;00	4		41	1		
2;10;12			21	3		
2;10;29	2		24	1		
2;11;12			14	2		
3;00;10	2		11			
Mikel:						
1;10;12			2			
1;11;06			4			
2;00;00			11			
2;00;22			14			1
2;01;06			3			
2;02;11			5			
2;03;11			15			2
2;04;00			8			
2;04;11			7			1
2;05;10		1	3			
2;06;11			1			
2;07;01			3			2
2;08;19			17			
2;09;04			8			
2;10;04			4			1
2;11;09	1		18			1
2;11;16			3			
3;00;20	3	1	9			3
Peru:						
2;04;15			2			
2;05;26			3			
2;07;09			16			
2;07;30			8			
2;09;05			8			
2;10;11			8			
2;11;25			9			
3;00;17	2		7			

<sup>66</sup> Hemen erakusten ditudan adizkiak batukoak izan arren gogoan izan haurrek era ezberdinetan ekoizten dituztela, ikasten diharduten euskalkiaren arabera edo dituzten zailtasun fonetikoek baldintzaturik.

## 39. Taula

NOR sistemako *egon* adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	nago	zaude	dago	gaude	zaudete	daude
Oitz:						
2;03;09			8			
2;04;11			3			1
2;04;24			11			
2;05;05			15			
2;05;21			9			
2;06;05			3			3
2;06;25			12			3
2;07;05			12			2
2;08;13			14			5
2;08;19			5			4
2;09;00			10			2
2;10;12			4			4
2;10;29			6			2
2;11;12			2			3
3;00;10			10			
Mikel:						
1;10;12			13			
1;11;06			13			
2;00;00			24			
2;00;22			2			
2;01;06			4			
2;02;11			15			
2;03;11			1			
2;04;00			5			
2;04;11			9			
2;05;10			11			
2;06;11			3			
2;07;01			11			
2;08;19			6			1
2;09;04			8			3
2;10;04			5			
2;11;09			3			
2;11;16	1		1			
3;00;20		5				
Peru:						
2;07;09			10			
2;07;30			12			
2;09;05			7			
2;10;11			6			
2;11;25			14			
3;00;17			2			

40. **Taula**NOR sistemako *joan* adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	noa	zoaz	doa	goaz	zoazte	doaz
<b>Oitz:</b>						
2;04;24	3	1	2			
2;05;05	1		3			
2;05;21			5			2
2;06;24			4			
2;07;05	1					2
2;08;19	1		1			
2;10;12			1			
3;00;10	1					
<b>Mikel:</b>						
1;11;06			1			
2;00;00			2			
2;02;11			11			
2;04;00			1			
2;04;11	3					
2;07;01			3	2		2
2;08;19	2					
2;10;04	1		1			
2;11;16	1					
<b>Peru:</b>						
2;05;26			1			
2;07;30			1			
2;09;05			1			
2;10;11			1	1		
3;00;17				2		

41. **Taula**NOR sistemako *etorri* adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	nator	zator	dator	gatoz	zatozte	datoz
Oitz:						
2;05;05			1			
2;06;05						
2;06;25			5			
2;07;05			4			
2;09;00			1			
3;00;10			1			
Mikel:						
2;04;11			2			
2;09;04			1			
3;00;20			1			
Peru:						
2;04;15			1			

42. **Taula**NOR sistemako *ibili* adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	nabil	nabiltza	dabil	gabiltza	zabiltzate	dabiltza
Oitz:						
2;03;09			1			
2;06;24						1
2;07;05						1
2;08;13			1			1
2;09;00			1			
Mikel:						
2;11;16	1					
3;00;20			1			
Peru:						
2;10;11			1			



## 43. Taula

NOR sistemako adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	1. <sup>a</sup>	2. <sup>a</sup>	3. <sup>a</sup>	1. <sup>a</sup>	2. <sup>a</sup>	3. <sup>a</sup>
Oitz:						
2;03;09			3			
2;04;11			7			
2;04;24			14			
2;05;05			16			
2;05;21	9		14			1
2;06;05			9			1
2;06;25	1		20			1
2;07;05	4		11			
2;08;13	9	2	13	1		1
2;08;19			1			2
2;09;00	3	2	20			3
2;10;12	5		16	1		2
2;10;29			20			5
2;11;12	4		19			3
3;00;10	1		4	2		1
Mikel:						
1;11;06			9			
2;00;00			14			
2;00;22			10			
2;01;06	1		2			
2;02;11			17			
2;03;11			4			
2;04;00			10			
2;04;11			10			
2;05;10			12			
2;06;11			3			
2;07;01	1		10			
2;08;19			5	1		
2;09;04	1		9			1
2;10;04			1			1
2;11;09			4			1
2;11;16		1	3			
3;00;20	2		14			5
Peru:						
2;04;15			2			
2;05;26			5			
2;07;09			3			
2;07;30			5			
2;09;05	1		11			
2;10;11	3		7	1		
2;11;25			15	2		1
3;00;17	1		1			

## 44. Taula

NOR-NORK sistemako *jakin* adizkien erabilera kopuruka  
eta adinaren arabera

	dakit	dakizu	daki	dakigu	dakizue	dakite
<b>Oitz:</b>						
2;03;09	3		3			
2;04;11	1	1	1			
2;04;24	2	1				
2;05;21	1					
2;06;05	1		3			
2;06;24	3					
2;07;05	7		1			
2;08;13	11		1			
2;08;19		1				
2;09;00	9	9	1			
2;10;12	12					
2;10;29	2	1	1			
2;11;12	9	3	1			
3;00;10	18	4				
<b>Mikel:</b>						
1;10;12			2			
1;11;06			16			
2;00;00			7			
2;00;22			8			
2;01;06			3			
2;02;11			1			
2;03;11			10			
2;04;00			2			
2;04;11	2					
2;05;10	3					
2;06;11	7					
2;07;01	7					
2;08;19	5		3			
2;09;04	3		4			
2;10;04		1				
2;11;09	5	1				
2;11;16	2					
3;00;20	3					
<b>Peru:</b>						
2;09;05		1				
2;10;11	1		1			
2;11;25	1		1			
3;00;17			1			

## 45. Taula

NOR-NORK sistemako *eduki* adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera<sup>67</sup>

	daukat <sup>68</sup>	daukazu	dauka	daukagu	daukazue	daukate
Oitz:						
2;04;11	1		1			
2;05;05	3		6			
2;06;05		1				
2;06;24			9			
2;07;05			1	1		
2;08;13	4 + 1		3			
2;08;19	3 + 1	2	3	2		
2;09;00	1	1	8 + 1			
2;10;12	1	2	3	1 + 1		
2;10;29	2		8	1 + 1		
2;11;12	2			1		
3;00;10	2		2			1
Mikel:						
1;10;12						
1;11;06						
2;00;00						
2;00;22						
2;01;06			1			
2;02;11	1					
2;03;11	3		1	1		
2;04;00	1					
2;04;11	1		1			
2;05;10	3	2	1			
2;06;11	3	1				
2;07;01	1		2			
2;08;19	1		4			
2;09;04		- + 1				
2;11;09	1		4			
Peru:						
2;07;09			1			
2;09;05	1					
2;10;11			1			
2;11;25			2	1		

<sup>67</sup> Pluraleko formen kopuruak + ikurraren ostean jarri ditut.

<sup>68</sup> Berresanez, hemen erakusten ditudan adizkiak batukoak izan arren gogoan izan haurrek era ezberdinetan ekoizten dituztela, ikasten diharduten euskalkiaren arabera edo dituzten zailtasun fonetikoek baldintzaturik.

## 46. Taula

NOR-NORK sistemako adizkien erabilera kopuruka eta adinaren arabera

	dut	duzu	du	dugu	duzue	dute
Oitz:						
2;03;09						
2;04;11						
2;04;24			9	2		
2;05;05	12	8	19	5		2
2;05;21	12	4	2	3		
2;06;05	14	1 + 1	7			1
2;06;25	10		9	1		
2;07;05	14	1	7		1	1
2;08;13	2	11	1 + 2			4
2;08;19	8	4	7	1		
2;09;00	20	1	8	4 + 2		2 + 1
2;10;12	7 + 4	6	9	2 + 1		- + 1
2;10;29	8 + 3	2	3 + 3	2 + 1		
2;11;12	19	7	6 + 6	- + 1		
3;00;10	18 + 2	1	- + 1	4		
Mikel:						
1;10;12	1		1			
1;11;06			1			
2;00;00	3			1		
2;00;22			1			
2;01;06	2		2			
2;02;11	1		5			
2;03;11	9	4	5			
2;04;00	8	1	2	2		
2;04;11	11	- + 1	11	1		
2;05;10	9	1	4	2		
2;06;11	5			2		
2;07;01	6	1	3	1		
2;08;19	8	2	2	3		1
2;09;04	18		1	2		1
2;10;04	10 + 1			12		
2;11;09	5	1	3	7		
2;11;16	10		2	8		1
3;00;20	5	2	4	3		3
Peru:						
2;04;15	1		2			
2;05;26	1		5			
2;07;09	4		2			
2;07;30	2	1	22			
2;09;05	1		9	2		
2;10;11	10	2 + 1?	15	12		
2;11;25	3		5	4		
3;00;17	9	1	6	1		1

Adizki iragankorrek ikusterakoan argi utzi nahi dut hurrek, lehen unean behintzat, ez dudala uste osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura adierazten dutenik. Komunztadura-mota honen jabekuntza, gutxienez pertsona ezberdin biren agertzean baieztatu ahal izango dut, eta ez bakarra, singularreko hirugarren pertsonari dagokiona agertzean. Horregatik, nahiz gramatika-liburuetan adizki iragankorrek osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura ere adierazi<sup>69</sup>, jabekuntza-garapenean pertsona kontrajarriei dagozkien adizkiak agertzean baino ez dute hori adierazten.

Azkenik, adizki jokatuaren ekoizpenaren arloan zera esan behar dut: subjektuarekiko komunztadura-erabilera gertatzen denean, hasieran hain zuzen, ez dutela beti erabiltzen, hots, oraindik sarritan ekoizten dituztela adizki jokaturik gabeko esaldiak. Hona hemen halako zenbait adibide:

- (1067) *zuk zer pentsa(t)u?* (O. 2;04;11)  
 (1068) *berak apurtu hori* (O. 2;04;11)  
 (1069) *Jurgik zikindu* (O. 2;04;11)  
 (1070) *honek eru(a)n* (O. 2;04;24)  
 (1071) *ba holan altxau nik eta ...* (O. 2;04;24)  
 (1072) *bale, ni(k) deitu holan* (M. 1;10;12)  
 (1073) *bixo(k) batatu(baxatu)* (M. 1;11;06)  
 (1074) *bete bete bat hartu* (M. 1;11;06)  
 (1075) *Peru (er)osi kotxe bat* (P. 2;05;26)

Pertsona-komunztadurarik ez erabiltzearen jokabide honi, Mikelek egiten duen *da* laguntzailearen pertsona-komunztadurarik gabeko erabilera ere erantsi beharko genioke, lehenago erakutsi dudana legez.

#### 4.5.4. Zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera

Aditz-multzoaren jabekuntzaren garapeneko hurrengo urratsa badi-rudi zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizkien erabilera dela. Badirudiela diot, Oitzek eta Mikelek halako adizkiak erabiltzen dituztelako aditz-denbora ezberdinak adierazten dituztenak baino goizago, nahiz Peru azken hauek erabiltzen lehenago hasten den.

Azpiatal honetan, bada, zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizkien erabilera aztertzeari ekingo diot. Hasteko, hona hemen hurrek gauzatzen dituzten lehenetariko adibideak, baina hurrez haur eta iragangaitzetan eta iragankorretan sailkatutik:

<sup>69</sup> Aditz deponenteen arazoa, guztiz interesgarria dirudielarik jokabide hau aztertzean, alboratu egingo dut ikerlan honetatik.

## Oitz haurra:

## Iragangaitzak:

- (1076) *hala!, jausi jate(zait) (O. 2;04;24)*  
 (1077) *jausi e(g)in jate(zait) (O. 2;05;05)*  
 (1078) *hemendik ahal jako(zaio) (O. 2;09;00)*  
 (1079) *be(g)itu zelan mobitzen jakien(zaien)! (O. 2;10;29)*

## Iragankorrek:

- (1080) *garajie e(g)ingo dotza(g)u(diogu) (O. 2;04;24)*  
 (1081) *ze bestela kenduko (do)zku(digu) (O. 2;04;24)*  
 (1082) *hau no(r)k apurtu dozte(dit)? (O. 2;05;05)*  
 (1083) *nik e(g)ingo dotzut(dizut) (O. 2;06;05)*  
 (1084) *ta nik ipiniko (do)tzet(diot) (O. 2;06;05)*  
 (1085) *nik emongo dotziet(diet) (O. 2;06;25)*  
 (1086) *... ta zuk lagundu e(g)iten doztezu(didazu) (O. 2;07;05)*

## Mikel haurra:

## Iragangaitzak:

- (1087) *ez tate(zait) gustetan (M. 2;03;11)*  
 (1088) *ta o(ra)in galdu jata(zait) (M. 2;07;01)*  
 (1089) *galdu jatzu(zaizu) (M. 2;07;01)*  
 (1090) *o(ra)in e(g)in bi(behar) (j)ako(zaio) buelta (M. 2;09;04)*

## Iragankorrek:

- (1091) *nun ipiniko (do)tzet(diot)? (M. 2;04;00)*  
 (1092) *baina hau, baina hori eruengo (do)tzut(dizut) (M. 2;05;10)*  
 (1093) *Ana(k) emo(n) (d)ozta(dit) (M. 2;07;01)*  
 (1094) *beste kotxiei ipini bi(har) (d)otzegu(diogu) pegatina (M. 2;07;01)*

## Peru haurra:

## Iragangaitzak:

- (1095) *be(r)andu egin zaigu (P. 3;02;14)*  
 (1096) *gustatzen zaizu? (P. 3;00;17)*

## Iragankorrek:

- (1097) *pre(s)tatu dizut laranja-ura (P. 3;00;17)*  
 (1098) *entzuten dizut (P. 3;02;14)*  
 (1099) *nik hartuko diot (P. 3;03;07)*  
 (1100) *jaten dio (P. 3;03;07)*  
 (1101) *ematen didazu niri? (P. 3;04;04)*  
 (1102) *nik utziko dizut hau (3;06;17)*

Zehar-osagarriarekiko pertsona-komuntadura derakusaten adizki ezberdinen erabilera biltzeko asmoz 47. taula osatu dut. Bertan hurrek darabiltzaten adizkiak eta bakoitzaren lehen ekoizpen-data adierazten ditut.

#### 47. Taula

Hurrek darabiltzaten zehar-osagarriarekiko pertsona-komuntadura derakusaten adizkiak eta berauen ekoizpen-datarik goiztiarrena

	Oitz	Mikel	Peru <sup>70</sup>
<b>Iragangaitzak:</b>			
zait	2;04;11	2;03;11	3;06;17
zaizkit	2;10;29		
zaizu	3;01;28	2;07;01	3;00;17
zaio	2;09;00	2;09;04	
zaigu		2;11;09	3;02;14
zaie	2;10;29		
<b>Iragankorrak:</b>			
dizut	2;06;05	2;05;10	3;00;17
diot	2;06;05	2;04;00	3;03;07
diet	2;06;24		
didazu	2;07;05		
dit	2;05;05	2;07;01	3;04;04
dizu	3;00;10		
dio	2;08;13		3;03;07
digu	2;04;24		
diogu	2;04;24	2;07;01	3;03;07
dizkit	2;10;29		
dizkiogu	2;11;12		
nizun	2;11;12		
zidan	2;11;12	2;10;04	
genion	2;09;00		

Bestalde, adizki hauen ekoizpen-kopuruak zeintzuk diren ikusi ahal izateko 48. taulara jo daiteke. Bertan 3;00-ko adina bitarteko ekoizpen-kopuruak baino ez ditut adierazten.

<sup>70</sup> Peru 3;00-ko adinaz hasten denez halakoak ekoizten bere korpusaren araketa arlo honetan apur bat gehitxoago luzatzea erabaki dut.

## 48. Taula

Haurrek darabiltzaten zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizki-kopuruak 3;00-ko adina izan arte

	Oitz	Mikel	Peru
Iragangaitzak:			
zait	8	7	
zaizkit	2		
zaizu		1	1
zaio	7	4	
zaigu		1	
zaie	1		
Iragankorrak:			
dizut	3	9	2
diot	10	4	
diet	1		
didazu	5		
dit	8	6	
dizu	2		
dio	7		
digu	2		
diogu	2	1	
dizkit	1		
dizkiogu	2		
nizun	1		
zidan	1	5	
genion	1		

Halere, Peruk arlo honetan zenbait zailtasun izan dituela esan dezakegula uste dut, haur honek, 3;00-ko adina izan arte behintzat, hainbat adibidetan, zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura derakusan adizkiren bat ekoitzi barik uzten baitu. Hona hemen bildu ditudan adibi-deak:

(1103) *Jokin(en)a gustatu dut*<sup>71</sup> (P. 2;09;05)

(1104) *esan dugu abu(agur) aitari abu(agur)* (P. 2;10;11)

(1105) *ez d(iz)ut utziko*<sup>72</sup> (P. 3;00;17)

<sup>71</sup> Adibide honen ez-egokitasuna garbiago ikusteko, jarraian mintzaide helduak eta haurrak duten elkarrizketatxo transkribatuko dut: *Mintzaidea: Zer ba? Gustatzen zaizu zuri asko tartata. Haurra: Jokin(en)a gu(s)tatu dut. Mintzaidea: Jokinena gustatzen al zaizu? Haurra: Bai. Ama: Nola esan duzu? Jokinena gustatzen ...? Haurra: zaitut.*

<sup>72</sup> Adibide honen ez-egokitasuna ikusteko ekoizpen honen ingurua erakutsiko dut: *Haurra: E! Hori ez da zurea. Ez du(t) utziko. Mintzaidea: ez didazu utziko ere (sic).*



#### 4.5.5. Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera

Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera baieztatze-ko, lehenago ere esan dudan legez, pertsona ezberdinei dagozkien adiz-  
kien erabilera kontrajarria ikusi beharko dugu. Jakina da NOR-NORK eta  
NOR-NORI-NORK, hots, aditz-sistema iragankorrak erabiltzean osagarri  
zuzenarekiko pertsona-komunztadura ere agertzen zaigula. Baina ikusi  
dugun legez, hasieran behinik behin, singularreko hirugarren pertsonari  
dagozkion adizkiak pluraleko hirugarren pertsonari dagozkion adizkien  
ordez darabiltzate haur hauek. Horregatik osagarri zuzenarekiko pertsona-  
komunztaduraren erabilera zalantzan jartzen dut une honetan.

Hona hemen erabilera oker honen zenbait adibide:

- (1106) *ekarri dozunak? (O. 2;06;05)*
- (1107) *jan dot hiru (O. 2;06;25)*
- (1108) *ze deko(dauka) granok (M. 2;05;10)*
- (1109) *palak hartu dau(du) (M. 2;08;19)*
- (1110) *nik honek(hauek) bakarrik ipiniko (d)ot (M. 2;09;04)*
- (1111) *eta holegatik pilotak jan dut (P. 2;10;11)*
- (1112) *hartuko dut klomoak (P. 2;10;11)*
- (1113) *nahi duzu klomoak? (P. 2;10;11)*
- (1114) *Jajek ekarri zuen ardiak (P. 2;11;25)*
- (1115) *nik ekarri dut bonboiak (P. 3;01;24)*

Baina une batetik aurrera haur hauek singularreko hirugarren pertso-  
nari dagozkion adizkiez gain, pluraleko hirugarren pertsonari dagozkionak  
ere erabiltzen hasten dira eta une horretan, hainbaten, osagarri zuzenareki-  
ko pertsona-komunztaduraren erabilera gauzaten dutela esan dezakegu.  
Alabaina, kontua ez dago hain argi, zeren une honetan berezten dituztenak  
hirugarren pertsona singularrak eta pluralak baino ez dira. Ikus dezagun  
pluraleko hirugarren pertsonarekiko komunztadura derakusaten adizkien  
erabilera hurrez haur.

Hona hemen Oitzen adibideak:

- (1116) *zuk honek(hauek) bota dozuz<sup>73</sup>(dituzu) (O. 2;06;05)*
- (1117) *bota e(g)in dauz(ditu) hona (O. 2;06;05)*
- (1118) *holan altxatzen dauz(ditu) (O. 2;08;13)*
- (1119) *nik ez dekotez(dauzkat) (O. 2;08;13)*
- (1120) *nik dekuaz(dauzkat) praka haundiek (O. 2;08;19)*
- (1121) *ipurdikuek e(g)ingo doguz(ditugu)? (O. 2;09;00)*
- (1122) *e(g)ingo doguz(ditugu) buruz- ipurdikuek? (O. 2;10;12)*

<sup>73</sup> Oitz eta Mikel hurrek bizkaieraz hitzegiten dutenez, -z morfema atxikitzen diote adiz-  
kiari pluraleko formak gauzatzean.

- (1123) *gordeko doguz(ditugu) gauzak? (O. 2;10;12)*  
 (1124) *sartuko duaz(ditut)? (O. 2;10;12)*  
 (1125) *bi daukaguz(dauzkagu) (O. 2;10;12)*  
 (1126) *honek gero eruengo dauz(ditu) kamioiak (O. 2;10;29)*  
 (1127) *kendu doztez(dizkit) nire kotxiek (O. 2;10;29)*  
 (1128) *honek(hauk) be(ere) ipini e(g)in bi(bihar) dotzeguz(dizkiogu) (O. 2;11;12)*  
 (1129) *hemen erueten zabiezen(zituzten) pistolak eta halako gauzak (O. 2;11;12)*  
 (1130) *ba ipiniko doguz(ditugu) honek dan-danak... (O. 2;11;12)*  
 (1131) *ta holan gauzak eruengo doguz(ditugu) (O. 2;11;12)*  
 (1132) *e(g)ingo doguz(ditugu) garajiek? (O. 2;11;12)*  
 (1133) *baina honek(hauk) be(ere) ipini bi(bihar) dotzeguz(dizkiogu) hemen atzien (O. 2;11;12)*

Adibide bakar batzuetan, aldiz, pertsona-komunztadura okerra ere badarabil haur honek, hots, singularreko pertsonari dagokion adizkia pluraleko pertsonari dagokionaren orde. Hona hemen halako ekoizpenak:

- (1134) *ez dabez(dituzte) e(g)in etxie (O. 2;09;00)*  
 (1135) *ze kamioiak hau bota bi(har) dauz(ditu) (O. 2;10;29)*

Beste behin Oitzek bere burua zuzentzen duela dirudi:

- (1136) *hor be(ere) zelan dekogun(daukagun) errobedak eta zelan dekoguzen(dauzkagun) errobedak (O. 2;11;12)*

Mikel haur elebidunaren ekoizpenean, pluraleko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak ere agertzen zaizkigu. Hona hemen haur elebidun honen korpusean zehar bildu ditudan lehenengo adibideak:

- (1137) *ekarri (d)ozuz(dituzu) bi kotxiek? (M. 2;04;11)*  
 (1138) *zuk badekozuz(dauzkazu)? (M. 2;09;04)*  
 (1139) *bajatuko ditut kartak (M. 2;10;04)*

Baina haur elebidun honek, aldiz, sarriagotan uzten du pluraleko hirugarren pertsona-komunztadura hau ekoitzi barik. Hona hemen zenbait adibide:

- (1140) *ze deko(dauka) granok (M. 2;05;10)*  
 (1141) *palak hartu dau(du) (M. 2;08;19)*  
 (1142) *nik honek(hauk) bakarrik ipiniko (d)ot (M. 2;09;04)*  
 (1143) *holakuek aitite(k) emon oztan(zidan) (M. 2;10;04)*  
 (1144) *bixek [xx] emon oztan(zidan) (M. 2;10;04)*

Halere, 3;01;04ko adinetik aurrera singularreko hirugarren pertsonari dagokion adizkirik ez dut ikusi pluraleko hirugarren pertsonari dagokion adizkien ordeaz. Hona hemen, beraz, zenbait erabilpen zuzen:

- (1145) *hor itxi (egi)zuz(itzazu)!* (M. 3;01;04)
- (1146) *nik gure duaz(ditut) biek* (M. 3;02;15)
- (1147) *guriak ikusiko doguz(ditugu)* (M. 3;03;01)
- (1148) *bolatinek e(g)in dauz(ditu)* (M. 3;04;12)
- (1149) *tripetako minek dekoz(dauzka)* (M. 3;06;14)

Peru haur elebidunak baliteke adibide goiztiar bat ekoiztea. Adibide honen zalantza honetan datza: grabaketaren transkribaketan pluraltzat jo den arren, nire ustez, singularra izan daitekeela. Inguruak pluraleko adizkia eskatzen du, baina haurrak ekoizten duen forma pluraltzat zein singularltzat har daiteke, zeren hortzeko kontsonanteak ezagutzen duen bustidura *nahi* aditzaren azken bokaleari esker ere gerta daiteke. Hona hemen adibide hau:

- (1150) *nahi (di)ttuzu klomoak?* (P. 2;10;11)

Baina ondoren, gorago ikusi dugun legez, erabilera okerra burutzen du eta ez zaigu pluraleko hirugarren pertsonari dagokion besterik agertzen geroago arte, 3;05;09ko adina duen arte, hain zuzen. Hona hemen hainbat ekoizpen egoki:

- (1151) *botako ditugu zuloetatik?* (P. 3;05;09)
- (1152) *nik jarriko ditut* (P. 3;05;09)
- (1153) *hemen jarriko dituzu piezak* (P. 3;05;09)
- (1154) *nire hankak ez ditut* (P. 3;05;09)
- (1155) *gero botako ditugu* (P. 3;05;09)
- (1156) *nik hankak ez ditut* (P. 3;05;09)

Halere, une honetan sarritan ez ditu hirugarren pertsona pluralak be-  
reizten. Hona hemen zenbait adibide:

- (1157) *kotxeak saltzen du* (P. 3;05;09)
- (1158) *nun jarriko dugu hemen hauek?* (P. 3;05;09)

Haurrek darabiltzaten pluraleko hirugarren gramatika-pertsonari dagokion adizkiak bilduz 49. eta 50. taulak osatu ditut. Lehenengoan hiru urtera arteko ekoizpenen adinik goiztiarrenak adierazten ditut; bigarrean ekoizpen-kopuruak hurrez haur.

Alabaina, 51. taulan, grabaketetako elkarrizketak kontutan izanik, hirugarren pluralaren ekoizpenari dagokion inguruak aztertuko ditut, hirugarren pluralari dagokion adizkia erabili beharrean hirugarren singularrari dagokiona noiz darabilten ikusteko asmotan.

49. **Taula**

Hiru urte bitarteko pluraleko hirugarren pertsonaren osagarri zuzenarekiko komunztadura derakusaten lehen adibideen adinak

	Oitz	Mikel	Peru
ditut	2;10;12	2;10;04	
dituzu	2;06;05	2;04;11	2;10;11
ditu	2;06;05		
ditugu	2;09;00		
dituzte	2;09;00		
zituzten	2;11;12		
dizkit	2;10;29		
dizkiogu	2;11;12		
dauzkat	2;08;13		
dauzkazu		2;09;04	
dauzka	2;09;00		
dauzkagu	2;11;12		

50. **Taula**

Hiru urte bitarteko pluraleko hirugarren pertsonaren osagarri zuzenarekiko komunztadura derakusaten adizki-kopuruak

	Oitz	Mikel	Peru
ditut	9	1	
dituzu	2	1	1
ditu	5		
ditugu	16		
dituzte	4		
zituzten	3		
dizkit	1		
dizkiogu	2		
dauzkat	2		
dauzkazu	1		
dauzka	1		
dauzkagu	2		

## 51. Taula

Hirugarren pluralari dagozkion osagarri zuzenarekiko komuntaduraren ekoizpenak, adinaren eta kopuruaren arabera

	Guztira	Egokiak	Ez-egokiak	Gehiegizkoak
Oitz:				
2;05;05	1	—	1	
2;06;05	3	2	1	
2;06;25	1	—	1	
2;08;13	3	3	—	
2;08;19	1	1	—	
2;09;00	5	4	—	1
2;10;12	7	7	—	
2;11;12	14	13	1 <sup>74</sup>	
3;00;10	3	3	—	
Mikel:				
2;04;11	1	1	—	
2;05;10	1	—	1	
2;06;11	—			
2;07;01	—			
2;08;19	1	—	1	
2;09;04	2	1	1	
2;10;04	3	1	2	
2;11;16	2	—	2	
3;00;20	1	—	1	
3;01;04	3	1	2	
3;02;15	1	1	—	
3;03;01	1	1	—	
3;04;12	1	1	—	
3;05;10	—			
3;06;14	1	1	—	
Peru:				
2;10;11	3	1 <sup>75</sup>	2	
2;11;25	1	—	1	
3;00;17	—			
3;01;24	3	—	3	
3;02;14	1	—	1	
3;03;07	2	—	2	
3;04;04	—			
3;05;09	11	7	4	

<sup>74</sup> Oitzek, errakuntza hau zuzendu egiten duela dirudi. Ikus (1136) adibidea.

<sup>75</sup> Adibide hau (1150) da, eta gorago esan dudana legez, zalantzarikoa da.

Hau guztiau, aurrerago ere esan dudan bezala, hirugarren pertsonaren arloan gertatzen da, singularrak eta pluralak bereiziz. Alabaina, zer gertatzen da osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean?

Oitzek eta Mikelek, aztertu dudan korpusean behintzat, osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean, ez dute adizki zuzenik erabiltzen. Halako egoeretan NOR-NORI-NORK sistemako adizkiak darabiltzate. Hona hemen zenbait adibide:

- (1159) *jo e(g)ingo (do)tzut(dizut) (M. 2;05;10)*  
 (1160) *jo e(g)ingo (do)tzutela(dizudala) (M. 2;07;01)*  
 (1161) *Egoitzen laguna ez na(i)z, ze(rg)atik jo e(g)in dozta(dit) (M. 3;01;04)*  
 (1162) *ze(rg)lati(k) jo e(g)in oztan(zidan) (M. 3;01;04)*  
 (1163) *bai, hemendik ikuste(n) (d)otzut(dizut) (M. 3;04;12)*  
 (1164) *Jurgik jo dozte(dit) (O. 2;09;00)*  
 (1165) *ez dotzet(diot) ikusiko Jurgiri (O. 2;10;12)*

*Jo* eta *ikusi* aditzekaz, ostera, osagarri zuzena hirugarren pertsona denean, adizki zuzenak darabiltzate haur hauek, hots NOR-NORK sistema-koak. Hona hemen adibide batzu:

- (1166) *nik jo e(g)in bi(behar) (d)ot (M. 2;08;19)*  
 (1167) *ba nik joko (d)ot honekin (M. 2;10;04)*  
 (1168) *nik jote(n) (d)ot (M. 2;10;04)*  
 (1169) *ikusi e(g)ingo (d)ogu saltatzen (O. 2;09;00)*  
 (1170) *eta ikusiko dozu zelan joten doten (O. 2;10;12)*  
 (1171) *behin ikusi (d)ogun(genuen) (O. 2;11;12)*  
 (1172) *holan joko (d)otela (O. 2;11;12)*  
 (1173) *ez dau(du) joten Marikarmenek (O. 2;11;12)*

Nolanahi ere, Oitzek, 3;09;11ko adina duenean osagarri zuzena lehen pertsona den ekoizpen bat burutzen du. Aztertu dudan haur honen korpuseko adibide bakarra denez inguru eta guzti erakutsiko dut.

- (1174) *(Mintzaide heldua orein-burruka bat kontatzen ari zaio ipuin batetik, eta kontaketa etenik, ondoko elkarrizketa sortzen da)*  
*Mintzaide heldua: Zuk be burrukan egiten dozu Jurgigaz ezta?*  
*Zelan egiten dozu burrukan Jurgigaz ba?*  
*Oitz: holan, hhauh!*  
*Mintzaide heldua: Zezenen moduan?*  
*Oitz: bai*  
*Mintzaide heldua: Zelan ipintzen zara ba?*  
*Oitz: joten nau holan ta, hartzen dot eta arineketa baten ta eperditik sartzen dotzet(diot) (3;09;11)*

Peruren korpusean lehen pertsonari eta bigarren pertsonari dagozkien adizkien erabilera ere ikus dezakegu. Halere, lehen pertsonari dagokion adizkia inguru desegokian darabil (ikus (1176) adibidea), eta bigarren pertsonari dagokion adizkiaren orde, une berean, NOR-NORI-NORK sistemakoa ere badarabil. Hona hemen adibideak:

(1175) *txakurra(k) jango e jango zaitu (P. 3;02;14)*

(1176) *ez nau utzitzen (P. 3;04;04)*

(1177) *berriro hilko zaitut (P. 3;07;11)*

(1178) *joko zaitut (P. 3;07;11)*

(1179) *hil zaitut (P. 3;07;11)*

(1180) *hilko dizut (hiru aldiz) (P. 3;07;11)*

(1181) *baina jo dizut (P. 3;07;11)*

Nolanahi ere, kontutan izan behar dugu Peruk 3;02;14ko adina duenean zuzentasun eta argitasun osoz darabilela NOR-NORK sistemako lehen adizkia, singularreko bigarren pertsonari dagokiona hain zuzen ere.

Hau guztiau ikusirik, badirudi osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizkiak gauzatzean, une batetik aurrera, pluraleko eta singularreko hirugarren pertsonari dagozkien adizkiak baino ez dituztela bereizten Oitzek eta Mikelek. Oitzen ekoizpenean salbuespen berantiarra aurkitu dugu. Peruk, oster, lehenago darabil bigarren pertsonari dagokion adizkia, eta ondoren hiru pertsonari dagozkienak ikus ditzaie bere ekoizpenean. Edozelan ere, hiru haurrak lehen edo bigarren pertsonari dagozkien NOR-NORK motako adizkiak erabili beharrean (*zaitut, nau*) NOR-NORI-NORK motakoak erabiltzen (*dit, diot*) ikusi ditugu.

Laburbilduz, 52 taulan osagarri zuzenarekiko komunztadura derakusaten adizkien erabilera-datak erakusten ditut, nahiz Oitzengan eta Mikelengan hirugarren pertsona singularrak eta pluralak baino ez ditudan aurkitu hain goiz.

## 52. Taula

Pluraleko hirugarren pertsonari dagozkion osagarri zuzenarekiko  
pertsona-komunztadura derakusaten adizkien erabilera-datak  
hiru haurrengan

Oitz.....	2;06;05
Mikel.....	2;04;11 - 2;09;04 - 3;01;04
Peru.....	3;02;14 - 3;05;09

#### 4.5.6. Aditz-denbora ezberdinen erabilera

Orain arte haur hauek orainaldiari dagozkion adizkiak baino ez dituztela erabili erakutsi badut ere, azpiatal honetan iraganaldiko adizkien erabilera aurkeztuko dut. Iraganaldiko adizkiak gauzatzean, kontrajartasuna gauzatzean, alegia, beste arloetan egin dudan legez, aditz-denboraren erabilera baieztatuko dut.

Hona hemen iraganaldiko aditz-denbora derakusaten lehenenatariko adibideak:

- (1182) *otso bat etorri zan eta jan e(g)in zuen (O. 2;07;05)*  
 (1183) *ba ba gero ehiztari bat etorri zan eta han itxi zuen (O. 2;07;05)*  
 (1184) *Tximino Gorri juen zan e azokara ta ja amatxo nahi abala (zuela) eta esan dotzen(dion)<sup>76</sup> (O. 2;07;05)*  
 (1185) *ta gero juen zan eta jausi e(g)in zan, e (O. 2;07;05)*  
 (1186) *zurekin juen nintzen (O. 2;08;13)*  
 (1187) *Andoni, holakuetan Larraitzekin ibili nintzen, holakuetan (O. 2;08;13)*  
 (1188) *nik hemen e(g)in doten(duten) lo (O. 2;09;00)*  
 (1189) *gainien e(g)in aben(zuen) lo (O. 2;09;00)*  
 (1190) *Andoni etorri zan eta Andoni ez aban(zuen) gure (Itsasok) (O. 2;09;00)*  
 (1191) *hemen egon zan txupetie ta hemen sakatzen (d)otzegun(dio-gun) (O. 2;09;00)*  
 (1192) *hor ipintzen ziren kojina (O. 2;10;12)*  
 (1193) *baina ikusi dozun(duzun) tximinue etzunda? (O. 2;10;12)*  
 (1194) *ba atzo ikusi genuena telebistan (O. 2;10;12)*  
 (1195) *hemen erueten zabiezen(zituzten) pistolak eta halako gauzak, bale? (O. 2;11;12)*  
 (1196) *behin, behin ikusi dogun(dugun) (O. 2;11;12)*  
 (1197) *baina atzo be esa(n) (d)otzuten(dizudan) (O. 2;11;12)*  
 (1198) *niri hori esan dotzen(didan) nire lagun batek, ikastolakuek (O. 2;11;12)*  
 (1199) *egun baten apurtu eban(zuen) gizon bat(ek) (M. 2;10;04)*  
 (1200) *apurtu e(g)in zaban(zuen) bera(k) bakarrik (M. 2;10;04)*  
 (1201) *bixek [xxx] emon ozt(az)an(zi(zki)dan) (M. 2;10;04)*  
 (1202) *holakuek aitate(k) emon ozt(az)an(z(izki)dan) (M. 2;10;04)*  
 (1203) *hau zan zurie (M. 2;10;04)*  
 (1204) *bai, gozie eukiko eben(zuten) (M. 2;11;09)*

<sup>76</sup> Berehala ikusiko dugun moduan, iraganaldiko formak eraikitzeke sarritan orainaldiko formei -n morfema eransten diete Oitzek eta Mikelek. Halako formak euskara batura bihurtzean orainaldiko formei -n morfema erantsiko diet.



- (1205) *eta bestien nik ipini (d)oten(duten) atzo (M. 2;11;16)*  
 (1206) *Antxonek e(g)in aban(zuen) atzo (M. 2;11;16)*  
 (1207) *ta hau kotxie konpondu oztan(zidan) aitatxok (M. 3;00;20)*  
 (1208) *eta txikitxue na(i)zen eta (M. 3;00;20)*  
 (1209) *Itsaso ez zan etorri (M. 3;00;20)*  
 (1210) *atzo ikusi nuen (P. 2;10;11)*  
 (1211) *grabatu dugu(n) zintatua ikusi nuen (P. 2;10;11)*  
 (1212) *Jajek ekarri z(it)uen ardiak (P. 2;11;25)*  
 (1213) *ikusi duguna zan tutupunba bat (P. 2;11;25)*  
 (1214) *hori nirea zen (P. 3;00;17)*

Iraganaldiko adizki jokatuena erabilera arakaturik ondoko ondorioak atera ditzakegu hurrez haur:

Oitzek hainbat adizki jokatu laguntzaile ezberdin darabiltzala, eta argi dagoela NOR motatakoak arauak taiutzen dituen modukoak direla (*zan* eta *nintzen*, adibidez); NOR-NORK motatakoen artean, ostera, batzuk arauak taiututakoak diren bitartean (*eban -zuen-*, *genuen* eta *zuen*, adibidez), beste batzuk orainaldiko adizkiei *-n* iraganaldiko morfema erantsiz eraikitakoak direla (*doten*, *dogun* eta *dozun*, adibidez); eta azkenik, NOR-NORI-NORK motatakoak beti osatzen dituela orainaldiko adizkiei *-n* morfema erantsirik ((*d*)*otzuten -dizuten-*, (*d*)*otzegun -diogun-* eta (*d*)*ozten -diten-*, esaterako).

Oitzek eskuarki bizkaierazko formak darabiltzan arren (*eban -zuen-*, *naben -nuen-*, eta *abar*) batuko formak ere badarabiltza lantzean behin (*zuen*, adibidez).

Baina bada haur honen ekoizpenean beste datu azpimarragarri bat. Batzuetan forma ezberdinak darabiltzala adizki bera adierazteko. Horrela, esate baterako, *zuen* eta *aban*, edo *genuen* eta *dogun*.

Mikelek ere badarabil *-n* morfema orainaldiko adizkiei eranstea jokatzea. Horrela, *doten* eta *na(i)zen* adizkiak ekoizten ditu. Bestalde, arauak eskatutakoak ere badarabiltza.

Oitzek eta Mikelek, bizkaierazko hirugarren pertsonari dagozkion zenbait adizki erabiltzean, batzuetan *z-* eransten diete hasieran berauei, hala nola, *zabiezen* eta *zaban*. Edozelan ere, jokabide hau ez dute beti gauzatzen.

Peruk iraganaldiko hiru adizki baino ez darabiltza: *zen*, *nuen* eta *zuen*, eta hirurak dira arauak taiututakoak.

Haurrek hiru urtera arte darabiltzaten iraganaldiko adizkiak 53. taulan taiuturik (parentesi arteko zenbakiak kopurua adierazten duelarik) ikus

daitezke. Aldi honetan darabiltzaten adizki ezberdinak ikusteko, oster, 54. taulara jo daiteke.

Hau guztiau ikusirik, iragantasuna adierazten duen morfemaren erabile-ra eta ezaguera lortu dutela esan dezaket. Gainera, orainaldiko adizkiei iraganaldiko *-n* morfemaren eransketa gauzatzeak froga argiagoa eskaintzen digula iruditzen zait.

Alabaina, honez gain, azpimarragarria deritzot bizkaierazko iraganaldiko hirugarren pertsoneri dagozkien adizkiei *z-* eransteari, nolabait, jokatibide honek iragantasunaren bermaketa isladatzen duelako. Horrela, orainaldiko *d-* morfema iraganean *z-* bihurturik, arauak hala eskatzen duenean (*zan*, *ziren*, adibidez) zein hurrek analogiaz bizkaierazko adizkiei erantsitakoetan (*zaban -zuen-*, *zabiezen -zituzten-*, adibidez).

Ildo honetatik, Oitzen eta Mikelen ekoizpena aztertzean, kontutan izan behar dugu, bizkaieraz, NOR-NORI moietako iraganaldiko adizkiak egitean orainaldiko adizkiei *-n* morfemaren eransketa hutsez egiten dela. Honez gain, jakina da, bizkaieraz egiten den eremu batzuetan NOR-NORI-NORK iraganaldiak egiterakoan *-n* morfema eransten zaiela orainaldiko adizkiei. Antza denez, beste euskalki batzuetan ere honelaxe gertatzen omen da.

Hau guztiau laburbiltzeko asmoz, 55 taulan iraganaldiko adizkien erabilerearen hasiera datatu dut hiru hurrengan.

Baina bada Mikelen eta Oitzen iraganeko formetan azpimarratu nahi dudana beste datu bat ere. Haur hauek erabili dituzten hirugarren pertsonari dagozkion orainaldiko forma guztiak *d-* morfemaz hasten badira ere, iraganeko formak, berriz, *z-*,  $\emptyset$ - zein *d-* morfemaz hasten dira. Zehatzago esanik, batuko hainbat forma, *zuen*, adibidez, bizkaierako beste zenbait, *zan* eta *ziren*, adibidez, eta eurek eraldatu dituzten bizkaierazko beste zenbait, *zaben -zuten-*, adibidez, *z-* morfemaz ekoitzi dituzte; bizkaierako zenbait forma, *aben -zuen-*, adibidez, eta NOR-NORI-NORK sistemako orainaldiko *-n* morfemaz eraldatuko beste zenbait, (*d*)*otzen* - (*d*)*ion-*, (*d*)*otzugun* - (*d*)*iogun-*, adibidez,  $\emptyset$ - morfemaz gauzatu dituzte; eta, azkenik, NOR-NORI-NORK sistemako beste zenbait forma, *dotzegun* - *dioGUN-*, *dozten -diten-*, adibidez, *d-* morfemaz osatu dituzte.

Jokabide honek argumentu bat gehiago eskaintzen dio hirugarren pertsoneri dagozkien adizkien hasierako *d-* zein *z-* morfemak pertsona-komuntadurari ez dagozkiola esaten duen eritziari. Hurrek horrela ulertzen dute, behintzat. Hurrek iraganeko hirugarren pertsoneri dagozkien formetan *z-* morfema beharrezkotzat ulertu ezker, morfema honen ekoizpen sistematikoa ikusiko genukeela uste dut.

## 53. Taula

Haurrek hiru urtera arteko kopusean darabiltzaten iraganaldiko adizkiak grabaketaz grabaketa eta kopuruka

---

Oitz:						
2;07;05	zan 9	zuen 5	abela 1	otzen 1		
2;08;13	nintzen 3	zan 1	aben 3	zaben 1	oten 1	otzegun 1
2;08;19	zan 1					
2;09;00	nintzen 1	zan 6	aben 3	zaben 1	oten 1	otzegun 1
2;10;12	zan 3	ziren 7	naben 1	genuena	ozun 1	
2;10;29	zan 3	ziren 1	zaben 3			
2;11;12	zan 4	ziren 1	zabiezen	2	ozten 1	otzuten 1
3;00;10	nintzen 1	zan 9	ziren 1	abela 1		
Mikel:						
2;10;04	zan 2	eban 2	zaben 1	oztan 2		
2;11;09	eben 1					
2;11;16	aban 1	oten 1				
3;00;20	nazen 1	zan 1	oztan 3			
Peru:						
2;10;11	nuen 2					
2;11;25	zen 1	zuen 1				
3;00;27	zen 2					

---

## 54. Taula

Haurrek hiru urtera arte darabiltzaten iraganaldiko adizki jokatuena zerrenda

---

Oitz:	
NOR	nintzen, zan, ziren
NOR-NORK	naben/oten, ozun, zuen/aben/zaben, ogun/genuena, zabiezen
NOR-NORI-NORK	dotzen(dion), dotzegun(diogun), dotzuten(dizuten), dozten(diten)
Mikel:	
NOR	na(i)zen, zan
NOR-NORK	doten, eban/zaben(zuen), eben(zuten)
NOR-NORI-NORK	doztan(diten)
Peru:	
NOR	zen
NOR-NORK	nuen, zuen

---

## 55. Taula

Iraganaldiko adizkien erabileraren hasiera hiru haurren

---

Oitz .....	2;07;05
Mikel .....	2;10;04
Peru.....	2;10;11

---

#### 4.5.7. Aditz-modu ezberdinen erabilera

Bestalde, arakatu dudana korpusean indikatiboaz gaineko beste moduetako adizkiak ere ikus ditzakegu.

Esan gura dudana zera da, orain arte erakutsi ditudan adibide guztiak indikatibo-moduari dagozkionak direla. Edo batzuetan *ezin* eta *ahal* partikulez indikatiboko adizki horiek aldatzen ahalegindu direla ikusi dugula.

Azpiatal honetan indikatiboaz gaineko beste moduetako adizkien erabilera aztertzeari lotuko naitzaio. Halere, haurrek ekoizten dituzten adibideak oso gutxi dira, *goazen* adizki trinkoaz gain. Hiru urtera arteko ekoizpenetan bildu ditugun adibideak aginterako bi eta subjuntiboko bat baino ez dira. Hona hemen berauek:

(1215) *sartuko naz hemen Jurgik ez dozten(didan) ikusi (O. 2;10;12)*

(1216) *obatu(oratu) e(g)iozu hankiari (O. 2;11;12)*

(1217) *txorroskilue eka(r)zu txorroskilue! (M. 2;11;16)*

Oitzez subjuntiboko adizkia darabilenean, indikatiboko adizkiari *-n* morfema eransten diola ikus dezakegu. Halere, egokia da *-n* morfemaren subjuntibotasuna, eta seguruenik berau izango da eragingarria. Nolanahi ere, subjuntiboaren erabileraren aldeko froga 3;01;28ko adinaz bermatu egingen da haur honen korpusean. Hona hemen adibideak:

(1218) *Batman ipini (d)ot ez daiten(dadin) jausi (O. 3;01;28)*

(1219) *ba nik ez dot gure holan ibili gaitezen (O. 3;01;28)*

Une honetan agintera-modu bereziaren erabilera ere, adizki laguntzailleen edo trinkoen bidez burutzen dena alegia, ikus dezakegu. Hona hemen adibideok:

(1220) *hori, e(g)izu geriza, mahatsa urtetako! (O. 3;01;28)*

(1221) *o(ra)in zuk e(g)iozu holan puntatxue (O. 3;01;28)*

(1222) *e(g)iozu hemen punta (O. 3;01;28)*

Mikelek ere, agintera-moduaren erabileraren bermaketa erakusten digu. Hona hemen:

(1223) *hor itxi (egi)zuz(itzazu)! (M. 3;01;04)*

(1224) *ipini (egi)zu(ezazu) holan! (M. 3;04;12)*

Perurengan, ordea, ez dugu halako adibiderik aurkitu ahal izan.

Laburturik, 56. taulan indikatibokoak ez diren adizkien erabileraren hasiera mugatu dut.

## 56. Taula

Indikatibokoak ez diren adizkien erabileraren hasiera hiru haurrengan

Oitz.....	2;10;12	Subjuntiboa zein agintera Agintera
Mikel.....	2;11;16	
Peru .....	—	

## 4.5.8. INFL-en gramatika-ezaugarrien erabileraren laburpena

Hau guztiau ikusirik, argi geratzen da INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak mailakaturik hasten direla haurrak erabiltzen. Badirudi darabilten lehena subjektuarekiko pertsona-komunztadura erakusten duena dela. Jarraian beste gramatika-ezaugarriak hasiko dira guzatzen apurka-apurka. Hau guztiau laburturik 57. taulan dera-kusat.

Halere, azpimarratu egin behar dut taula honetan adierazi ditudan datetan osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera pluraleko eta singularreko hirugarren pertsonak bereztera mugatzen dela. Alabaina, osagarri zuzenarekiko komunztaduraren jabe-kuntza, lehen eta bigarren pertsonena barru, Peru eta Oitz haurrengan beluago aurkitu dut.

## 57. Taula

INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarrien erabileraren datatzea hiru haurrengan

	Oitz	Mikel	Peru
Komunztadurarik gabeko aroa	1;05;19 - 2;02;00	1;06;27 - 1;09;22	1;11;00 - 2;02;14
Subjektuarekiko komunztadura	2;03;09	1;10;12	2;04;15
Zehar-osagar. komunztadura	2;04;24	2;03;11/ 2;04;11	3;00;17
Aditz-denbora	2;07;05	2;10;14	2;10;11
Osagarri zuzen. komunztadura	2;06;05	2;04;11 - 2;09;04/3;01;04	3;02;14 - 3;05;09
Aditz-modua	2;10;12	2;11;16	—

Inflexio-arloko ezaugarrien jabekuntza-hurrenkerari begiratu ezkerro, argi dago pertsona-komunztaduraren hurrenkera hiru haurrengan: subjektuarekikoa, zehar-osagarriarekikoa eta, azkenik, osagarri zuzenarekikoa.

Bestalde, pertsona-komunztaduraren jabekuntza aditz-denborarena baino lehenago agertzen da hiru haurrengan, nahiz ezberdin agertzen den hirurengan. Honela, Oitzen ekoizpenean subjektuarekiko, zehar-osagarriarekiko eta osagarri zuzenarekiko formen ostean agertzen dira aditz-denbora isladatzen duten formak, hots, iraganekoak; Mikelen ekoizpenean subjektuarekiko eta zehar-osagarriarekiko formen ostean baina osagarri zuzenarekikoen aurretik agertzen dira iraganeko formak; eta, azkenik, Peruren korpusean subjektuarekiko formen ostean baina zehar-osagarriarekiko eta osagarri zuzenarekiko formen aurretik agertzen zaizkigu iraganak.

## 5. Emaitzak eta eztabaida-gaiak

Atal honetan aurretik aurkezturiko hipotesien baieztatzeari zein ezeztatzeari ekingo diot. Horretarako, zilegi denez, haurren jabekuntza-ren garapenean bildu ditudan datuak izango ditut kontutan. Guzti horrez gain, ikerketan zehar aurkituriko beste zenbait fenomeno garrantzitsu ere azaltzen ahaleginduko naiz.

### 5.1. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA-GARAPEN GOIZTIARRA

Datuen arabera haurrek 2;00-ko adina dutenean hasten dira gramatika-ezaugarriak zein sintaxi-arauak erabiltzen euren berbazko ekoizpenak gauzatzean.

Haur bakoitzak bere hasiera-unea duen arren, eta batzuetan urte bi bete aurretik edo bete ondoren hasten bada ere gramatika garatzen, urte biko unea egoki iruditzen zait fenomeno hau orokortasunean azaltzeko.

Bickerton-ek (1991) dioenaren arabera, nire ustez, gramatika-garapen hau haurrek garunaren heltze neurologikoari zor diote, fenomeno honek Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa eskuragarri jartzen baitie. Ez dut uste, aski denik inguruaren eragina hemen deskribatu dudana garabidea azaltzeko, nahiz berau hizkuntza zehatzaz jabetzeko beharrezkotzat jotzen dudana.

### 5.2. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA GOIZTIARRA

Haurrek ikasten diharduten euskararen oinarrizko gramatika-ezaugarriak oso une goiztiarrean erabiliko dituztela esan dut hipotesiak aurkeztean. Orain, ikerketa egin eta gero, baieztapen honi eutsi egin diezaioket.

Haurrak, 3 urte inguru dituztelarik, gai dira euskararen oinarrizko gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-egiturak erabiltzeko. Gai dira egundo entzun ez dituzten perpausak sortzeko eta ulertzeko.

Halere, baieztapen hau zehaztu egingo dut zera esanez: perpausaren oinarrizko egitura eta mendeko perpausari dagozkion egitura oinarrizkoenak baino ez darabiltzatela haurrek adin honetan. Honekin zera esan nahi dut, jabe-kuntza ez dela une honetan amaitzen, baina agian hemendik aurrera haurrek ikasiko duten gehiena eskolaren bidez edo era sistematizatu eta formalizatuan ikasiko dutela. Beste hitz batzuek ez esanda, haurrek, dagoeneko, horni genetikoaren bidez bereganatzen dituzten hatsarreak eta parametroak ikasten diharduten hizkuntzaren balioetara egokitu dituztela.

### 5.3. GRAMATIKAREN BAITARATZE GOIZTIARRA

Orain arte haurrek burutzen duten gramatikaren erabilera goiztiarra erakutsi badut, azpiatal honetan haurrek gramatikaren ezagupena ere badutela, eta ezagupen hori berbazko ekoizpena burutzean isladatu egiten dutela erakusten ahaleginduko naiz.

Haurrak, gai dira euren burua zuzentzeko eta gramatika-arloko akatsak zuzentzeko. Horrela iruditzen zait niri behinik behin, Oitzek bere burua zuzentzeko duen ahalmena ikusirik.

Hona hemen Oitzek bere hizketa berrerratzeko gai dela erakusten duten hainbat adibide:

- (1225) *hori ez dau(du), horrek ez dau(du) eruten (O. 2;04;24)*  
 (1226) *ba nik ni etorri na(i)z zuregana ta ... (O. 2;07;05)*  
 (1227) *Mintzaide heldua: ... ta hau Teoren anai txikie da (ipuina kontatuz)*  
*Oitz: bai, ez dekot (daukat), nik ez dekotez(dauzkat), ez, nik ez dekot (daukat) anai txikirik (O. 2;08;13)*  
 (1228) *ze Jontxuk Jontxu ez zan konturatu (O. 2;10;12)*  
 (1229) *hor be zelan dekogun (daukagun) errobedak eta zelan dekoguzen (dauzkat) errobedak (O. 2;11;12)*  
 (1130) *ni nik holakue badeket (O. 3;00;10)*  
 (1231) *niri niri hau nik niri honek (hauek) gustetan jatez(zaizkit) (O. 3;01;28)*  
 (1232) *hemen da(g)uz, hemen da(g)u pegatinie (O. 3;02;04)*  
 (1233) *hemen da(g)uz ur tantak ze heliziek botatzen dau (du), heliziek botatzen dauz(ditu) (O. 3;02;04)*

Oitzek ekoizten dituen adibide hauetan, argi ikus dezakegu, ergatibokasua eta absolutibokasua berezten dituela, eta behin esaldia desegoki



hasi ezkerro, gai dela bere burua zuzentzeko. Beste horrenbeste esan deza-kegu adizkietako pluralgileaz, hots pluraleko hirugarren pertsona osagarri zuzenari adizkian dagokion morfemaz edo subjektuari dagokion adizkia egoki aukeratzean.

Kontutan izan behar dugu adibide apur batzuk badira ere, zaila dela hain korpus mugatuan adibide ugari biltzea. Nolanahi ere, nire ustez, adibide urri hauek argi derakusate Oitzek gramatika-arloan bere burua zuzentzeko duen ahalmena. Gizaki heldu batek horrela zuzenduko balu bere hizkuntza, gramatikaz jabetu dela esango genuke. Zergatik ez dugu gauza bera pentsatu behar haurra denean zuzenketen egilea?

Bestalde, pentsatzekoa da haur bat bere ekoizpena zuzentzeko gai bada, beste haurrak ere gauza bera egiteko gai izango direla, argi ikusi baitugu ikerketan zehar antzekotasun handiaz garatzen dutela hiru hurrek euskararen gramatika.

#### 5.4. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA MAILAKATUA

Horago ikusi dugun gramatikaren jabe-kuntza goiztiarra aroetan gauzatu dutela ere baieztatu dezaket.

Mailakatzea, hasierako hipotesian esan dudana legez, perpausak duen egitura hierarkikoaren arabera gertatu da, eta horrela lau aro ikusi ahal izan ditugu hiru haurrengan:

- Gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aroa.
- Aditz-kategoriaren erabilera mugatzen duen aroa.
- INFL funtzio-kategoriaren erabilera mugatzen duen aroa.
- Eta azkenik, KONP funtzio-kategoriaren erabilera zabaltzen duen aroa.

Baina zehatz ditzadan aro hauen berezitasunak:

Hitz biko esaldiak erabiltzen hasten direnean, aldi baten, hurrek ez darabilte inolako gramatika-ezaugarriak ez sintaxi-araurik. Hurrek erakitzen dituzten esaldiek, besteak beste, hatsarre semantiko-pragmatikoez eginak dirudite. Ez dut esan nahi hatsarre semantiko-pragmatikoak darabiltzela ekoizpen guztietan, zenbaitetan baino. Edozelan ere, gramatika eta sintaxi-hatsarreen erabilera-eza nabarmena da. Aldi honetan azpimarragarria da izentzat eta adjektibotzat jo dezakegun materiale lexikoa *-a* markaz gauzatzen dutela, nahiz erabilera hau lexiko hutsa den, eta inola ere ez gramatikaren arlokoa.

Gramatikaren jabe-kuntzaren garapenean gauzatzen duten lehen erabilera aditz-kategoriarena da. Aditz-kategoriaren egitura erabiltzeaz gain

aro honetan gramatika-kasuak deituak, aditzen arloko zenbait ezaugarri, hala nola, adizki jokatuabeak eta jokatuak bereiztea eta adizki trinkoak eta adizki laguntzaileak bereiztea, eta denboragabeko mendeko perpausak osatzen dituzten menderagailuak (-*ta* hain zuzen ere) erabiltzen hasten dira. Azpimarragarria da AS-en egituraren erabilera bere burua eta osagarria ezkerretara zein eskumatara gauzaturik burutzen dutela. Ezin ahantz dakiguke, lehenago ere aipatu dudan bezala, AS-en egiturari mintzagaia ezkerretan atxikitzearen jokabidearen erabilera.

Aditz-kategoriaren erabileraren segidan INFL funtzio-kategoriaren erabilera gauzatzen dute. INFLS-en egituraz gain, aro honen hasieran adizkien bidez isladatzen den subjektuarekiko pertsona-komunztadura ere badarabilte haurrek. Hauxe gain, adizki jokatuabeek adierazten duten aditz-aspektu ezberdinak ere ikus ditzakegu une honetan. Halere, nabaria da INFL-en gramatika-ezaugarriak era mailakatuan erabiltzen hasten direla, eta inola ez bapatean. Nabarmena iruditzen zait, bestalde, INFL-en egiturari ezkerretan mintzagaia atxikitzearen jokabidea.

INFL funtzio-kategoriaren erabileraren ostean KONP funtzio-kategoriaren erabilera ikus dezakegu. KONP-en egituraren erabilera NZ-esaldiak zein galdegaiak gauzatzean ikus dezakegu. Honez gain, aro honen hasieran konplementagailuen erabilera ere, mendeko esaldiak eginez, burutzen dute haurrek. Egitura honi ere, sarritan, mintzagaia atxikitzen diote ezkerretan, mintzaide helduek egiten dugun legez.

Perpausaren oinarrizko egitura, INFL eta KONP funtzio-kategoriak osatzen dutena, bada, oso goiz darabilte haurrek, hiru urte egin aurretik, alegia.

## 5.5. FUNTZIO-KATEGORIEN JABEKUNTZA MAILAKATUA

Arlo honetan hasieran aurkezturiko hipotesiari zuzenketa bat egin behar diot.

Batetik argi ikusi dut INFL funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak era mailakatuan erabiltzen dituztela haurrek: subjektuarekiko, zehar-osagarriarekiko eta osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura ezberdinak, aditz-denbora eta aditz-modua.

Alabaina, KONP funtzio-kategoriaren gramatika-ezaugarriak, hots, NZ-hitza eta galdegaiak ezkerretara, mendeko perpaus denboradunetako konplementagailuak gauzatzea eta esaldi bereberetan NZ-hitza ezkerretara eta mendeko aditz denboradunari konplementagailua eranstea, badirudi gai direla batera erabiltzeko, horrela gertatzen baita Oitzen eta Peruren ekoizpenetan. Nolanahi ere, Mikelek, KONP funtzio-kategoria-

ren arloko gramatika-ezaugarrien erabilera mailakaturik gauzatu duela ikusi dut.

Guzti honez gain, zalantzarria iruditzen zait osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera, hirugarren pertsonari dagozkien singularreko eta pluraleko adizkiak baino ez baitarabiltzate 3 urte duten inguruan. Halere, beluago, Peruk eta Oitzek badarabiltela dirudi.

## 5.6. DESKRIBATURIKO JABEKUNTZA MAILAKATUAREN BESTE IKUSPEGI BAT

Azken aspaldian sarritan hitzegiten dute hizkuntza-ikerlariak INFL funtzio-kategoriaren konplexutasunaz: Chomsky (1988), Pollock (1989), Iatrodu (1990), Ouhalla (1992), Mendikoetxea (1992), ... Hauen arabera INFL funtzio-kategoria ezaugarri eta kategoria ezberdinen bilketa baino ez litzakete. Horrela komunztadura eta denbora kategoriak ezberdinu behar direla diote. Antzera jokutzen dute komunztadura ezberdinak aztertzean. Lakak (1988) eta Oyharçabalek (1992), bide hau jarraiturik, euskararentzat ere gauza bera proposatzen dute.

Ikuspegi honetatik, euskararen INFL funtzio-kategoriak, beraz, ezaugarri eta kategoria ezberdinak biltzen dituela esan daiteke, eta hauetariko bakoitzak bere sintaxi-egitura isladatzen du. Hauek lirake, egokitasun txiki bat eginez, sintaxi-buruak interpretazio honen arabera: subjektuarekiko komunztadura, zehar-osagarriarekiko komunztadura, osagarri zuzenarekiko komunztadura eta aditz-denbora.

Ouhallak (1992), bide honetatik abiatuz, hizkuntza ezberdinen hitzordena sintaxi-buruen izate eta hierarkia ezberdinean datzala dio. Beraren ustez, hizkuntza bakoitzak bere nolakotasuna eraikitzean sintaxi-buru ezberdinak gauzatzea edo ez-gauzatzea aukera ditzake eta hauei hierarkia ezberdina eman diezaieke.

Baina, bide honetatik jarraituz, zelan ikasten eta erabiltzen dituzte hurrek sintaxi-buru hauek? Lehenago ikusi dugun legez, ikertzaile batzuen ustez perpausak duen egitura hierarkikoa gordetzen dute ezaugarri hauek erabiltzean edo bereganatzean. Horrela, bada, INFL-en hurrenkera subjektuarekiko komunztadura, zehar-osagarriarekiko komunztadura, osagarri zuzenarekiko komunztadura, aditz-denbora eta, beharbada, aditz-modua<sup>77</sup> izan daiteke.

<sup>77</sup> Aditz-moduaz, hemen, indikatiboaz gaineko moduetako adizki laguntzaileak adierazi nahi dut.

Hauei, edozelan ere, ezeztapena eta baieztapena biltzen duen kategoria eta KONP funtzio-kategoria konplexuan izan daitezkeen ezaugarriak erantsi beharko litzaizkieke: NZ-hitzak eta galdegaiak ezkereratzea eta konplementagailuen gauzatzea, gutxienez. Eta agian aditz-aspektua ere bai.

Azterketan zehar bildu ditudan datuen arabera, eta horretan haur guttien ekoizpena ez bada bateragarria ere, honelako hurrenkera proposa daitekeela uste dut:

- Ezeztapena eta baieztapena biltzen duen kategoria.
- Subjektuarekiko komunztadura.
- Aditz-aspektua.
- Zehar-osagarriarekiko komunztadura, NZ-hitzak eta galdegaiak ezkereratzea eta menderagailuak gauzatzea .
- Osagarri zuzenarekiko komunztadura, hirugarren pertsoneri dagokiena behintzat.
- Aditz-denbora.
- Aditz-modua.

Gorago esan dudan moduan, hiru haurren datuak ez dira hain bateragarriak, eta argudio ugari egon daiteke hurrenkera honen aurka. Adibidez, Peruk aditz-denbora zehar-osagarriarekiko eta osagarri zuzenarekiko komunztadurak baino goizago darabil. Baina hurrenkera hau proposatzera koan, ordena zehatzean baino gehiago gura dut hurrenkeraren aukerari begiraraztea.

Alabaina, nire ustez, bada beste interpretazio bat. Hurrenkeraren beste interpretazio bat, hain zuzen. Eta interpretazio hau haurrek entzuten duten inputak berak ematen digu.

Muga gaitezen, adibidez, komunztadura-arlorra. Hiru haurrek, gorago esan dudan bezala, hurrenkera bera erakusten dute. Baina ez ote liteke hurrenkera hau haurrek entzuten duten inputaren arabera izan? Edozein aditz jokatudunek beti daroa subjektuaren marka, eta berau da, beraz, haurrek gehien entzuten dutena. Eta ez ote dute sarriagotan entzungo zehar-osagarriarekiko komunztaduraren erabilera osagarri zuzenarekikoa baino? Eta osagarri zuzenarekiko komunztadura barruan, ez ote dituzte sarriagotan entzungo hirugarren pertsonenak, lehen eta bigarrenenak baino?

Ez ote ditu, beraz, inputak berak bultzaraziko morfologia-ezaugarri edo sintaxi-buru ezberdinak hurrenkera jakin baten erabiltzera?

Ildo honetatik, ezeztapenak eta baieztapenak eragiten duten aditz-multzoko eta perpauseko aldarazketa eta hurrenkera-aldaketa oso nabarmenak direla pentsa daiteke. Ez ote ditu nabarmentasun honek haurrak egitura hau hain goiz erabiltzera bultzatuko?

Halaber, aditz-moduen erabilera urria, subjuntiboarena eta ahalerarena behintzat, izan daiteke morfologia hau azkenekotzat agertzearen arrazoa.

Laburbildurik zera esan dezaket: hiztun heldu eta gazteengandik hizkuntza ikasten diharduten hurrek jasoten duten inputaren arabera gerta daitekeela gramatika-ezaugarri eta sintaxi-buruen jabekuntza-hurrenkera.

Eritzi hau, berez, ez dago jabekuntza mailakatuaren hurrenkera hizkuntzaren oinarrizko perpausaren egitura hierarkikoak bideratzen duela dioen eritziaren aurka ez alde. Nik inputaren garrantzia azpimarratu baino ez dut nahi.

### 5.7. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA BEREGAIN GERTATZEN DA

Ikusi ahal izan dugun legez, lehen aroan, batzuetan, ezen ez baitut uste beti esateko adinako frogarik dudarik, esaldiak gauzatzean hurrak hatsarre semantiko-pragmatikoez baliatu dira.

Ondoren, hurrengo aroetan, gramatika-garapena burutzen hasten badira ere, gramatika-garapen hau beregain lortzen dute, hatsarre semantiko-pragmatikoetatik berezirik hain zuzen.

Gogoratu behar dugu, hurrek bete dituzten aro guztietan, mintzagaia beti une horretan darabilten egiturari ezkerretara atxikitzeo aukera eta iharduera izan dutela. Hatsarre semantiko-pragmatikoak, beraz, aro guztietan erabili izan dituzte, baina uneko sintaxi-egiturari ezkerretan atxikirik.

Gramatika-garapena, bada, beregain eraiki dute, lehenago esan dudan moduan, garunaren heltze neurologikoak, nolabait, Gramatika Unibertsalaren hatsarreak eta parametroak erabiltzea ahalbideratzen dielako.

### 5.8. GRAMATIKAREN JABEKUNTZAKO ESTRATEGIA BEREZIA

Hurrek hainbat gramatika-ezaugarri bereganatzerakoan edo erabiltzerakoan zailtasunak izan ditzaketela esan dut. Agian egia da zailtasunak edo eragozpenak dituztela, baina bada, nire ustez behinik behin, beste azalpen bat ere.

Baina azalpena aurkeztu baino lehen, deskriba ditzadan zailtasun edo eragozpen batzuk. Horretarako, lehenago esan dudana gain, 3;00-ko adinaz geroko egoera azaltzen ahaleginduko naiz.

### 5.8.1. Ergatibo-kasuen *-k* markaren gauzatze-eza

Gehienetan badarabilten arren, beti ez dute berau ekoizten. Zailtasun hau bi haur elebidunengan ikus dezakegu, Oitz haur elebakarrak, orokorrean, egoki baitarabil berau.

Hona hemen zenbait adibide:

- (1234) *ni(k) nahi dut mermelada* (P. 3;00;17)
- (1235) *ni(k) nahi dut* (P. 3;00;17)
- (1236) *ni(k) nahi dut txikia* (P. 3;02;14)
- (1237) *nire Marga(k) da(u)ka t(r)ipako mina* (P. 3;03;07)
- (1238) *hau ekarri du Marga(k)?* (P. 3;04;04)
- (1239) *ni(k) gatza pixka bat* (P. 3;04;04)
- (1240) *egun baten apurtu eban(zuen) gizon bat(ek)* (M. 2;10;04)
- (1241) *apurtu eban(zuen) gizon bat(ek)* (M. 2;10;04)
- (1242) *holakuek aitite(k) emon ozta(za)n(z(izk)idan)* (M. 2;10;04)

### 5.8.2. Absolutibo-kasuaren ordeztasun erabilteza

Hau ere haur elebidunengan ikus dezakegu. Haur elebakarrak, lehenago ikusi dugun bezala, bere burua zuzentzen du halako egoeretan. Hona hemen zenbait adibide:

- (1243) *nik ibili naz kamioie sartzeko* (M. 3;00;20)
- (1244) *nik ez naiz* (P. 3;00;17)
- (1245) *ba nik ezkonduko (izkutatuko) naiz beste leku baten*  
(P. 3;05;09)
- (1246) *eta zuk ezkonduka (izkutatuta)* (P. 3;05;09)

### 5.8.3. Adizki jokatu iragankorretan singularreko lehen subjektu-pertsonari dagokion *-t* morfemaren ekoizte-eza

Gehienetan badarabilten arren, Peruk askotan ez darabil. Kontutan izan dezagun, Mikelek ere zailtasun bera izan duela, baina hiru urte bete aurretik gairitu egin duela esan dezakegula.

Hona hemen Peruren erabilera-ezaren adibide batzuk:

- (1247) *ez du(t) nahi laranja-ura (hirutan)* (P. 3;00;17)
- (1248) *ez du(t) nahi hau* (P. 3;00;17)
- (1249) *nik ez daki(t)* (P. 3;00;17)
- (1250) *ze hartuko du(t)* (P. 3;03;07)
- (1251) *apurtuko du(t) dena* (P. 3;05;09)
- (1252) *baina tigrearena kontatu du(t)* (P. 3;06;17)

Edozelan ere, gogoan izan behar dugu arazo hau fonetika-arlokoa ere izan daitekeela.

#### 5.8.4. Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura desegokia

Hiru haurrek ezagutzen dute zailtasun edo eragozpen hau, lehenago ere ikusi dugun legez.

Edozelan ere, osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean ba-dirudi haurrek NOR-NORK sistemako adizki laguntzailearen ordez NOR-NORI-NORK sistemako adizkia darabiltela, osagarri zuzena zehar-osagarri bihurtuz. Hona hemen zenbait adibide:

(1253) *eta o(ra)in nik zapalduko (do)tzut(dizut) (M. 3;06;26)*

(1254) *ze(rg)atik hil dotzan(dion)? (M. 4;00;17)*

(1255) *badakizu zeineri hil dotzan(dion)? (M. 4;00;17)*

(1256) *ez dotzut(dizut) jo<sup>78</sup> (O. 3;05;27)*

(1257) *jo e(g)in dotzu(dizu) (O. 3;06;24)*

Halere, osagarri zuzena hirugarren pertsona denean, adizki laguntzailearen erabilera zuzena da. Hona hemen zenbait adibide:

(1258) *eske nik ikusi, ikusi doten, e, nire, ni(re)a, bidiuan (M. 3;06;26)*

(1259) *nik ikusi doten e jan e(g)iten dauela(duela) (M. 3;06;26)*

(1260) *hori ikusi (d)oten funtzioan (O. 3;01;28)*

(1261) *eta ikusi zaban(zuen) baltz bat ... (O. 3;01;28)*

#### 5.8.5. Mendeko perpaus denboradunetako adizki jokatuerei erantzen zaien -n konplementagailuaren ekoizte-eza

Batez ere Mikelek ezagutzen du zailtasun edo eragozpen hau, Peruren ekoizpenean adibideren batzuk ikus ditzakegun arren.

Hona hemen zenbait adibide:

(1262) *be(g)itu zer e(g)in dot(en)! (M. 2;10;04)*

(1263) *ama, ikusi zelan [berba] e(g)iten dau(du)(en)! (M. 3;04;12)*

(1264) *baina ze astoak dira(n) tximinoak! (P. 3;04;04)*

---

<sup>78</sup> Haur honen inguruan, gurasoek halako perpausetan NOR-NORK sistemako adizki laguntzaileak darabiltzatela dirudi, zeren amak honela erantzuten baitio: *ez nauzula jo?*

### 5.8.6. Konplementagailu askeen erabilera

Mendeko perpaus denboradunak konplementagailu askeren bat esaldiaren hasieran jarriz eraikitzea ere ikus dezakegu Mikelen ekoizpenean. Jokabide hau ez dut uste eragozpentzat edo zailtasuntzat hartu behar denik, baina bai berezizat. Hona hemen zenbait adibide:

- (1265) *ze(rg)atik ni jueten na(i)z korriketan (M. 3;05;10)*
- (1266) *ze(rg)atik ez (M. 3;05;10)*
- (1267) *ze(rg)atik beti da(g)o Andere e hasarratuta, ... (M. 3;05;10)*
- (1268) *ze(rg)atik ez (M. 3;05;10)*
- (1269) *bai, ze(rg)atik hor ze(g)uen gainien (M. 3;06;26)*

### 5.8.7. Iraganaldiko adizkien ordeztarainaldiko adizkien erabilera

Iraganaldiko adizkiak orainaldiko adizkiei *-n* morfema erantsiz eraikitzea ere ikus dezakegu haurrengan. Jokabide hau guztiz ohikoa da Oitzengan eta Mikelengan. Jokabide hau NOR-NORK sistemako adizkiak egiterakoan sarritan darabilten bitartean NOR-NORI-NORK sistemako adizkiak osatzerakoan, ostera, beti darabilte. Hona hemen adibide batzu:

- (1270) *eta ez daben(duten) apurtu (M. 3;06;26)*
- (1271) *nik ikusi doten ... (M. 3;06;26)*
- (1272) *eske nik ikusi, ikusi doten, ... (M. 3;06;26)*
- (1273) *ze(rg)atik hil dotzan(dion)? (M. 4;00;17)*
- (1274) *badakizu zeineri hil dotzan(dion)? (M. 4;00;17)*
- (1275) *oi, honek(hauek) nik ez duazen(dituten) e(g)in (O. 3;01;28)*
- (1276) *hori nik e(g)in doten (O. 3;01;28)*
- (1277) *eta esan (d)otzen(dion) untxiak hareri bestiari: 'hemen da(g)o katu baltz bat', esan (d)otzen (O. 3;01;28)*
- (1278) *baina gero garbitu e(g)in doguzen(ditugun) (O. 3;04;22)*
- (1279) *ez doten hartu minik (O. 3;05;27)*
- (1280) *eta esan (d)ozten(diten) ez na(i)zela juengo bere etxera (O. 3;06;24)*
- (1281) *entzun (d)oztezun(didazun) (O. 3;06;24)*
- (1282) *zuk hemen eukitzen (d)ozun amatxo (O. 3;06;24)*
- (1283) *eta ure bota (d)ozkun(digun) guri (O. 3;06;24)*

Bestalde, iraganaldiko NOR-NORK sistemako hirugarren pertsonari dagozkion bizkaierako adizkiei sarritan, ezen ez beti, analogiaz ene irudiko, *z-* eransten diete. Hona hemen zenbait adibide:

- (1284) *bai, ze(rg)atik hor ze(g)uen gainien (M. 3;06;26)*
- (1285) *ta gordinflonek badakizu zer e(g)in zaban(zuen)? (M. 3;11;17)*



- (1286) *be(g)itu, hil e(g)in zaben(zuen) (O. 3;01;28)*  
 (1287) *eta ikusi zaban(zuen) beltz bat .... (O. 3;01;28)*  
 (1288) *nun topa(t)u zaban(zuen) hau Jurgik? (O. 3;05;27)*  
 (1289) *eske e(g)in zabien(zuten) zulo bat (O. 3;06;24)*

Jarri ditudan adibideak, gehienak behintzat, 3;00ko adin-ostekoak diren arren, orokorrean, ikerketan zehar ikusi ahal izan dugun moduan, gramatika-ezaugarri berriren bat erabiltzen hasten direnean berau beti zuzen gauzatu ahal izateko eragozpenak edo zailtasunak dituzte. Horrela ikusi dut gertatzen dela hiru haurrengan ergatibo-kasua eraikitzeke, edo zehar-osagarriarekiko pertsona-komuntadura erakusten duten adizkiak gauzatzeko, edo mendeko NZ-esaldietako konplementagailua ekoizteke. Baina orohar, zailtasun hauek, apurtxo bat beluago gainditu egiten dituzte-la ere ikusi dut.

Halere, hiru urte inguru dituztela, oraingoz zenbait eragozpen izaten jarraitzen dutela dirudi. Zaila egiten zait eragozpen edo zailtasun hauen arrazoia zein den zehaztea. Baliteke hizkuntza-jabekuntzaren garapena horrela izatea, hots, gramatika-ezaugarriren baten hasieran zailtasunak izatea eta ondoren, apur bat geroago, egoki menderatzea. Baliteke, halaber, haur bakoitzaren berezitasunetan oinarriturik egotea zenbait zailtasun. Haur bakoitzaren inguruan hitzegiten den hizketak ere zeresan handia izango duela uste dut. Eta agian, lehen-hizkuntza bi batera ikastea ere baliteke arrazoen artean egotea. Garrantzitsutzat jotzen dut faktore hauen eragina sakon eta zehatz ikertzea.

Alabaina, bada beste azalpen bat ere. Azalpen honek apika ez ditu zailtasuntzat edo eragozpenetzat jo ditudan fenomeno guztiak argituko, baina bai horietariko hainbat.

Jabekuntza-garapena aroka eta mailakaturik gauzatzean, aro berrian sartzean gai dira haurrak aurreko aroan egin izan dituzten egiturak ere gauzatzeko. Hau da, bigarren aroan dauden arren, esaterako, eta egitura berriak darabiltzaten arren, ergatiboa esaterako, oraindik, aurreko aroan, gramatika-ezaugarririk gabeko aroan hain zuzen, erabili izan dituzten formei ere eusten diete, eta ergatibo-markarik gabeko ekoizpenak burutzen dituzte, itxuraz, absolutibodunak. Beste horrenbeste esan dezaket subjektuarekiko komuntaduraren erabileraz, zeren berau erabiltzen hasten direnean, askotan uzten dute adizki jokatuduna gauzatu barik, edo haur batzuk hirugarren pertsonari dagokion adizkia balio neutrotzat darabilte.

Jokaera hau estrategia-arlokoa litzateke. Haurrek aro ezberdinak urratzen dituzten arren, eta honen arabera egitura berriak ekoizteko ahalmena bereganatzen duten arren, gai dira aurreko aroetako egiturez ba-

liatzeko jabekuntza-garapenak dirauen bitartean. Jokabide hau, bada, ez da zailtasuntzat edo eragozpentzat hartu behar, estrategiatzat baino, edo strategiaren ondoriotzat.

Nire ustez, estrategia hau da, neurri handi baten behintzat, hainbat zailtasun edo eragozpenen azalpena. Zailtasuntzat edo eragozpentzat hartzen ditugun hainbat fenomenoren azalpena. Halere, fonetika-arloko haurren ezaguera, lehen hizkuntza bi batera ikastea, egoera soziolinguistikoa, haur zehatzek entzuten duten hizkuntza-mota, eta abar, arlo honetan oinarriko aztergai direla gaineratu behar dut.

## Bibliografia

- ALDRIDGE M. (1986), A first stage in the acquisition of INFL. *Research Papers in Linguistics 1*. 39-58.
- ALMGREN M. eta BARREÑA A. (1991), Aditzaren eta aditz-multzoaren jabekuntz-garapena bi haur euskaldunengan, elebakarra bata eta euskara-gaztelera elebiduna bestea. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz-jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua: Donostia. 137-168.
- ATKINSON M. (1987), Mechanisms for language acquisition: learning, parameter setting and triggering. *First Language 7(1)*. 3-30.
- ALARCOS LORACH (1968), *L' acquisition du langage*. Gallimard: Paris. (*La adquisición del lenguaje por el niño* (1976). Ediciones Nueva Visión: Buenos Aires).
- BARREÑA A. (1993), *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Doktorego-tesia: Gasteiz.
- BARREÑA A. (1994a), Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos. J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt. 231-284.
- BARREÑA A. (1994b), Aditz-denboraren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan. *ZUTABE 35*. HABE: Donostia
- BARREÑA A. (1994c), Funtzio-kategorien jabekuntza-garapenaz. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo XXVIII*
- BARREÑA A. (1994d), Aditz-komuntaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan. *UZTARO 12*, 67-88.
- BARREÑA A. (agertzeko), Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun. *FLV*.
- BEVER T. G. (1970), The cognitive basis for linguistic structure.I. R. Hayes argitaratzaile: *Cognition and the development of language*. New York: Wiley and Sons.
- BICKERTON D. (1991), Syntactic development: the brain just does it. University of Hawai'i at Manoa: eskuizkribua.
- BICKERTON D. (1991), The Pace of Syntactic Acquisition. University of Hawai'i at Manoa: eskuizkribua.
- BLOOM L. (1970), *Language development: form and function in emerging grammars*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

- BOWERMAN M. (1971), *Learning to talk*. Cambridge University Press.
- BOWERMAN M. (1973), *Early syntactic development; a cross-linguistic study with special reference to Finnish*. Cambridge: Cambridge University Press.
- BRONCKART J. P. (1977), *Genèse et organisation des formes verbales chez l'enfant*. Mardaga: Bruxelles.
- BRONCKART J. P. eta IDIAZABAL I. (1986), Las estrategias de comprensión de los enunciados transitivos en vasco. M. Siguan koordinatzaile: *Estudios de psicolingüística*. Piramide: Madrid. 165-194.
- BROWN R. (1976), *A first language. The early stages*. Harvard University Press: Cambridge.
- CHOMSKY N. (1957), *Syntactic Structures*. Mouton: La Haya.
- CHOMSKY N. (1979), *Reflexiones sobre el lenguaje*. Ariel: Madrid.
- CHOMSKY N. (1981), *Lectures on Government and Binding*. The Pisa Lectures, Foris: Dordrecht.
- CHOMSKY N. (1982), *Some concepts and Consequences of the Theory of Government and Binding*. Cambridge/Massachusetts.
- CHOMSKY N. (1986a), *Knowledge of language: Its Nature, Origins and Use*. Praeger: New York.
- CHOMSKY N. (1986b), *El conocimiento del lenguaje*. Alianza Editorial: Madrid.
- CHOMSKY N. (1986c), *Barriers*. MIT Press: Cambridge.
- CHOMSKY N. (1989a), *El lenguaje y los problemas del conocimiento*. Visor: Madrid.
- CHOMSKY N. (1989b), *La nueva sintaxis: teoría de la rección y el ligamiento*. Paidós.
- CHOMSKY N. (1991), Some Notes on Economy of Derivation and Representation. R. Freidin argitaratzaile: *Principles and Parameters in Comparative Grammar*. MIT Press: Cambridge. 417-454.
- CHOMSKY N. (1992), A Minimal Program for Linguistic Theory. *MIT Occasional Papers in Linguistics 1*. MIT Working Papers in Linguistics: Massachusetts / Cambridge.
- CLAHSEN H. (1986), Verb inflections in German child language: acquisition of agreement markings and the functions they encode. *Linguistic*, 24-1 (281). 79-121.
- CLAHSEN H. (1988), Learnability Theory and the Problem of Development in Language Acquisition. Euskara-biltzarra (III. atala), *Euskara eta hizkuntza naturalak eskuratu eta irakasten*. Eusko Jaurlaritza: Donostia, 3-19.
- CLAHSEN H. (1990), Functional categories in early German. *Fifth international Congress for the study of child language*: Budapest.
- CURTIS S. (1988), Abnormal language acquisition and the modularity of language. Newmeyer argitaratzaile: *Linguistics, The Cambridge Survey-II*. 96-116.
- EACHEVERRIA M. S. (1978), *Desarrollo de la comprensión infantil de la sintaxis española*. Editorial de la Universidad de Concepción: Concepción.
- EGUZKITZA A. (1986), *Topics in the Syntax of Basque and Romance*. UCLA PhD dissertation. Indiana University Linguistic Club-ek argitaratua (1987).
- EGUZKITZA A. (1986), The Syntax of Focus. *ASJU XX-3*. 755-586.
- EGUZKITZA A. (1991), Zenbait perpaus txiki euskal gramatikan. J. A. Lakarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria: Donostia. 985-991.
- ELOSEGI K. (1991), La adquisición del sistema de casos en euskara. Eskuizkribua.
- EUSKALTZAINDIA (1985), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*. Euskaltzaindia: Iruñea.

- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak. I. Eranskina*. Euskaltzaindia: Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak. II*. Euskaltzaindia: Iruñea.
- EZEIZABARRENA M. J. (1991), Ezeztapenerako formen bilakaera bi haur elebidunen eta elebakar baten hizkuntz jabekuntzan. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz-jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua: Donostia. 183-195.
- EZEIZABARRENA M. J. (1994), La concordancia con el Sujeto en euskera (formas verbales de simple, doble y triple concordancia). J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt. 181-229.
- FODOR (1987), *La modularidad de la mente*. Morata: Madrid.
- GALLO M. P. (1990), Como el niño construye hipótesis sobre la gramática de su lengua. *Estudios de Psicología*, 41. 73-92.
- GARAI eta GARAI-GORDOBIL (1991), Euskararen jabekuntza: hizkuntzaurrea. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz-jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua: Donostia. 211-232.
- GILI GAYA S. (1971), *Estudios de lenguaje infantil*. Vox: Barcelona.
- GRÈGOIRE A. (1933), L'apprentissage de la parole pendant les premières années de l'enfance. *Journal Psychology*.
- GRÈGOIRE A. (1937), *L'apprentissage du langage. Les deux premières années*. Droz: Paris.
- GRÈGOIRE A. (1947), *L'apprentissage du langage. La troisième année et les années suivantes*. Droz: Liege.
- GOENAGA P. (1985), Complementacion y nominalizacion en euskara. *ASJU*, XIX-2. 493-570.
- GOENAGA P. (1986), Konpletiboak, zehargalderak eta Erlatiboak. P. Goenaga zuzendari: *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua: Donostia. 155-189.
- GOENAGA P. (1991), Izen sintagmaren egituraz. J. A. Lakarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria. 847-865.
- HERNÁNDEZ PINA F. (1984), *Teorías psico-sociolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*. Siglo XXI: Madrid.
- HERNÁNDEZ PINA F. (1984), Sobre la universalidad de las categorías eje-abierta (pivot-open). M. Siguan argitaratzaile: *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Pirámide: Madrid. 89-110.
- HILLES SH. (1988), Interlanguage and the pro-drop parameter. *Second Language Research*. 33-52.
- HYAMS N. (1983), *The acquisition of Parameterized Grammars*. Doktorego-tesia. New York.
- HYAMS N. (1986), *Language Acquisition and the Theory of Parameters*. D. Reidel Publishing Company: Dordrecht.
- HYAMS N. (1989), The Null Subject Parameter in Language Acquisition. Jaeggli eta Safir argitaratzaile: *The Null Subject Parameter*. Kluwer Academic Publishers: Dordrecht. 215-238.

- IDIAZABAL I. eta BRONCART (1986), Las estrategias de comprensión de los enunciados transitivos en vasco. M. Siguan koordinatzaile: *Estudios de psicolingüística*. Pirámide: Madrid. 165-194.
- IDIAZABAL I. (1987), Psikolinguistika lanak eta euskara. P. Salaburu argitaratzaile: *Euskal morfofintaxia eta fonologia. Eztabaida gaiak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua: Donostia. 175-202.
- IDIAZABAL I. (1988), *Euskarazko egitura iragangaitzen ulermena. Psikolinguistikako lan bat*. Eusko Jaurlearitza Argitarapen Zerbitzua: Donostia.
- IDIAZABAL I. (1991a), Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batzuek beste luzeera (EBBL) edo 'MLU'. J. A. Lakarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria. 1289-1295.
- IDIAZABAL I. (1991b), Euskara eta gaztelania ikasten ari diren haurren hizkuntz bilketa eta azterketaren aurkezpena I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües - Hizkuntza jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 129-136
- IDIAZABAL I. (1991c), Izen Sintagmaren Determinante-artikuluak eta bere jabekuntza. Lehengo emaizak euskaraz eta erdaraz. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 169-181
- IDIAZABAL I. (1994a), Elementos de cohesión y conexión en las primeras fases de la adquisición del lenguaje: Análisis de la producción verbal de un niño bilingüe vasco-hispanófono. J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt, 35-68.
- IDIAZABAL I. (1994b), First Stages in the Acquisition of Noun Phrase Determiners by a Basque-Spanish Bilingual Child. C. Silva-Corvalan argitaratzaile: *Spanish in four Continents: Studies in Language Contact and Bilingualism*. Georgetown University Press.
- KEAN M. L. (1988), Brain structures and linguistic capacity. Newmeyer argitaratzaile: *Linguistics: The Cambridge Survey-II*. 74-95.
- LAKA I. (1988a), Ezeztapena euskaraz. P. Salaburu zuzendari: *Sintaxi teoria eta euskara*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 73-85.
- LAKA I. (1988b), Configurations Head in Inflectional Morphology: The Structure of the Inflected forms in Basque. *ASJU*, XXII-2. 343-365.
- LEBEAUX D. (1987), Parameter-Setting, the Acquisition Sequence, and the Form of the Grammar: The Composition of Phrase Structure. GLOW-en aurkeztutako lana: Utrecht.
- LEOPOLD W. F. (1939), *Speech development of a bilingual child: A linguist's record*. 1. *Vocabulary growth in the first two years*. Northwestern University Press: Illinois.
- LEOPOLD W. F. (1947), *Speech development of a bilingual child: A linguist's record*. 2. *Sound-learning in the first two years*. Northwestern University Press: Illinois.
- LEOPOLD W. F. (1949), *Speech development of a bilingual child: A linguist's record*. 3. *Grammar and general problems in the first two years*. 4. *Diary from age 2*. Northwestern University Press: Illinois.
- LÓPEZ ORNAT S. (1987), On gramaticalization. Acquisition of Verb-Subject agreement in Spanish, from 1;6 to 3;6. Universidad de Madrid: eskuizkribua.

- LÓPEZ ORNAT S. (1990), La formación de la oración simple: las omisiones sintácticas (S-V-O) en la adquisición del español. *Estudios de Psicología*, 41. 41-72.
- MAHLAU A. (1989), La adquisición del orden de palabras del castellano por niños bilingües. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 75-97.
- MAHLAU A. (1989), La modularidad de la mente y la teoría de los parámetros en la adquisición del lenguaje. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 53-73.
- MCNEILL D. (1970). *The acquisition of language; the study of developmental psycholinguistics*. New York: Harper & Row.
- MEISEL J. (argitaratzaile) (1986a), *Adquisición de lenguaje. Aquisicao da linguagem*. Vervuert: Frankfurt/Main.
- MEISEL J. (1986b), Word order and case marking in early child language. Evidence from simultaneous acquisition of two first language: French and German. *Linguistics*, 24. 123-183.
- MEISEL J. (1987), Early Differentiation of languages in bilingual children. Maturity, and Loss. K. Hyltenstam eta L. Obler argitaratzaile: *Bilingualism across the Lifespan: Aspects of Acquisition*. Cambridge: U. P. 13-40.
- MEISEL J. eta MAHLAU A. (1988), La adquisición simultánea de dos primeras lenguas. Discusión general para el estudio del bilingüismo en Euzkadi. Euskara-Biltzarrea (III. atala), *Euskara eta hizkuntza naturalak eskuratu eta irakastea*. Eusko Jaurlaritz: Donostia, 97-120.
- MEISEL J. (1989a), El desarrollo de las nociones de tiempo, aspecto y modo de acción. Estudio basado en el ejemplo de frases tempranas en la adquisición simultánea de primera lengua por niños bilingües. I. Idiazabal argitaratzaile: *Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 11-51.
- MEISEL J. (1989b), Principles of universal grammar and strategies of language use. On some similarities and differences between first and second language acquisition. UCLA, Second Language Research Forum-ean aurkeztutakoa.
- MEISEL J. (1990), INFL-ection: Subjects and Subject-Verb Agreement in Early Child Language. Evidence from Simultaneous Acquisition of two First Languages: German and French. J. Meisel argitaratzaile: *Two First Languages, Early Grammatical Development in Bilingual Children*. Foris: Dordrecht.
- MEISEL J. (1991), Structure and Development of Functional Categories. Hamburgeko Unibertsitatea: eskuizkribua.
- MEISEL J. eta MÜLLER N. (1992a), Verb placement and the position of finiteness in early child grammar. The acquisition of Verb Placement. J. Meisel argitaratzaile: *Functional Categories and V2 Phenomena in Language Development*. Kluwer: Dordrecht.
- MEISEL J. (1992b), Code-switching in Young Bilingual Children: the Acquisition of Grammatical Constraints. Hamburgeko unibertsitatea: eskuizkribua.
- MEISEL J. (1994a), Getting FAT. Finiteness, Agreement and Tense in Early Grammars. In Meisel J. argitaratzaile: *Bilingual First Language Acquisition. French and German Grammatical Development*. John Benjamins: Amsterdam.

- MEISEL J. (1994b), La adquisición de la negación en euskera y español. Sobre la separación temprana de sistemas gramaticales por niños bilingües. J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuert/Iberoamericana: Frankfurt, 151-180.
- MENDIKOETXEA A. (1992), Some Speculations on the Nature of Agreement. J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina argitaratzaile: *Syntactic Theory and Basque Syntax*. Gipuzkoako Foru Alduandia - ASJU gehigarria: Donostia, 231-164.
- NEWMAYER (1983), *Grammatical Theory. Its limits and Its possibilities*. University of Chicago Press.
- ORTIZ de URBINA J. (1986), *Some Parameters in the Grammar of Basque*. University of Illinois: doktorego tesia.
- ORTIZ de URBINA J. (1987), NZ-ren mugimendua. P. Salaburu zuzendari: *Sintaxi arazoak*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzuak: Donostia. 81-101.
- ORTIZ de URBINA J. (1988), *Some Parameters in the Grammar of Basque*. Foris: Dordrecht.
- OTSU Y. (1981), *Universal Grammar and Syntactic Development in Children: Toward a Theory of Syntactic Development*. M.I.T.: Massachusetts.
- OUHALLA J. (1991), *Functional Categories and Parametric Variation*. Routledge: London.
- OUHALLA J. (1992), Functional Categories, Agrammatism and Language Acquisition. Frankfurteko Unibertsitatea: eskuizkribua.
- OIHARTZABAL B. (1985). Erlatibakuntza: Perpaus Erlatiboaren Egitura; Izen Erlatiboaren Betekizuna Haren Barnean. P. Goenaga koordinatzaile: *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzuak: Donostia. 155-189.
- OIHARTZABAL B. (1988), Izenordain espletiboak eta euskal aditzaren morfologia. P. Salaburu zuzendari: *Sintaxi teoria eta euskara*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzuak: Donostia. 109-119.
- OYHARÇABAL B. (1992), Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque. J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina argitaratzaile: *Syntactic Theory and Basque Syntax*. Gipuzkoako Foru Alduandia - ASJU gehigarria: Donostia, 309-342.
- PARODI T. (1989), The acquisition of word order regularities and case morphology. J. Meisel argitaratzaile: *Two First Languages: Early Grammatical Development in Bilingual Children*. Foris: Dordrecht.
- PIAGET J. (1954), *The construction of reality in the child*. Basic Books: New York.
- PIAGET J. eta INHELDER B. (1966), *L' image mentale chez l' enfant*. Presses Universitaires de France: Paris.
- PLATZACK C. (1989), A grammar without functional categories: A study of early swedish child language. University of Lund: eskuizkribua.
- POLLOCK J. I. (1989), Verb Movement, Universal Grammar, and the Structure of IP. *Linguistic Inquiry*, 20. 371-424.
- RADFORD A. (1981), *Transformational Syntax*. Cambridge University Press.
- RADFORD A. (1988), *Introducción a la sintaxis transformativa (Teoría Estandar Extendida)*. Teide: Barcelona.
- RADFORD A. (1986), Small children's small clauses. *Research Papers in Linguistics*, 1. 1-38.
- RADFORD A. (1989), Syntactic Theory and the acquisition of English syntax: the nature of early child grammars of English. University of Essex: eskuizkribua.



- RADFORD A. (1992), The Acquisition of the Morphosyntax of Finite Verbs in English. J. Meisel argitaratzaile: *The acquisition of Verb Placement. Functional Categories and V2 Phenomena in Language Development*. Kluwer: Dordrecht.
- RIJK R. (1969), Is basque on S.O.V. language?. *Fontes Linguae Vasconum*, 1. Iruñea. 319-354.
- RIJK R. (1972a), *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*. Doktorego tesia.
- RIJK R. (1978), *Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of Verb Phrase in Basque*. *Studies in Fronting*: Lisse. 81-112.
- ROEPER T. (1988), Grammatical principles of first language acquisition: theory and evidence. Newmeyer argitaratzaile: *Linguistics, The Cambridge Survey*. 35-52.
- ROEPER T. (1991), Acquisition Architecture: From Triggers to Trees in the Realization of IP. J. Meisel argitaratzaile: *The acquisition of Verb Placement. Functional Categories and V2 Phenomena in Language Development*. Kluwer: Dordrecht.
- RONJAT J. (1913), *Le développement du langage, observé chez un enfant bilingue*. Paris.
- SALABURU P. (1986a), Euskal perpausaren egitura. P. Salaburu argitaratzaile: *Euskal morfosintaxia eta fonologia. Eztabaida gaiak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 103-128.
- SALABURU P. (1986b), La teoría del ligamiento en la lengua vasca. *ASJU*. 359-412.
- SALABURU P. (1989), El movimiento de las frases-QU y el foco en vasco. *Fontes Linguae Vasconum*. 7-26.
- SALABURU P. (1991), Euskal perpausa: zenbait ohar sintaxi eta mintzagai egiturez. J. A. Lakarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria. 927-946.
- SERRA M. eta VILA I. (1986), Para un conocimiento de la psicolingüística en el estado español. Siguán koordinatzaile: *Estudios de Psicolingüística*. Pirámide: Barcelona. 29-34.
- SIGUÁN M. (1978), De la comunicación gestual al lenguaje verbal. Pablo del Rio argitaratzaile: *La génesis del lenguaje. Su aprendizaje y desarrollo*. Pablo del Rio editor: Madrid. 23-50.
- SIGUÁN M. (1984), *Del gesto a la palabra*. M. Siguán argitaratzaile: *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Pirámide: Madrid. 17-31.
- SIGUÁN M. (argitaratzaile) (1984), *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Madrid: Pirámide.
- SIGUÁN M. (argitaratzaile) (1986), *Estudios de psicolingüística*. Pirámide: Madrid.
- SIGUÁN M. eta MACKAY W. F. (1986), *Educación y bilingüismo*. Unesco/Santillana: Madrid.
- SINCLAIR H. (1967), *Acquisition du langage et développement de la pensée: sous-systèmes linguistiques et opérations concrètes*. Dunod: Paris.
- SINCLAIR H. (1974), L'acquisition du langage d'un point de vue piagétien. *Folia Phoniatica* 26. 1-12.
- SKINNER B. F. (1957), *Verbal behavior*. Appleton-Century-Crofts: New York.
- SLOBIN D. I. (1973), Cognitive prerequisites for the development of grammar. Ferguson C. eta Slobin D. I. argitaratzaile: *Studies of Child Language Development*. Holt, Rinehart & Winston: New York.
- SLOBIN D. I. (1985a), Crosslinguistic evidence for the language making capacity. D. I. Slobin argitaratzaile: *The Crosslinguistic Study of Language Acquisition*. Hillsdale, N.J.: Erlbaum. 1159-1256.

- SLOBIN D. I. (argitaratzaile) (1985b), *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume 1: The data. Volume 2: Theoretical issues.* Hillsdale: LEA.
- TAESCHNER T. (1983), *The sun is feminine. A Study of language Acquisition in Bilingual Children.* Springer-Verlag: Berlin.
- TRAVIS L. (1984), *Parameters and Effects of Word Order Variation.* MIT: Ph. D. Dissertation.
- URIAGEREKA J. (1992), The Syntax of Movement in Basque. J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina argitaratzaile: *Syntactic Theory and Basque Syntax.* Gipuzkoako Foru Alduandia - ASJU gehigarria: Donostia, 417-445.
- VILLIERS J. eta VILLIERS P. (1978), *Language Acquisition.* Harward University Press.
- VILLIERS J. eta VILLIERS J. (1985), The Acquisition of English. D. I. Slobin argitaratzaile: *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume 1: The data.* Hillsdale: LEA. 27-139.
- VOLTERRA V. eta TAESCHNER T. (1978), The acquisition and development of language by a bilingual child. *Journal of Child Language* 5. 311-326.
- VOLTERRA V. eta TAESCHNER T. (1983), La adquisición y el desarrollo del lenguaje en niños bilingües. *Infancia y Aprendizaje*, 21. 23-36.
- VYGOTSKY L. S. (1934), *Pensamiento y lenguaje.* La Pléyade: Buenos Aires.

Liburu honetan haur euskaldun clebakar eta elebidunak gramatikaz nola jabetzen diren aztertu du egileak: zein berezitasun dituen haurren hasierako hizkuntzak, nola abiatzen diren gramatikaren bidetik, zernolako urratsak betetzen dituzten gramatika garatzean...

Haur guztiek antzeko garapena gauzatzen dutela konturatuko da irakurlea, beharbada, harriduraz. Ikerlan honetan erakusten zaigun bezala, gramatikaren garapena ez da bat-batean gertatzen, era mailakatuan baino. Hala, hasierako gramatika-hatsarrerik gabeko aroaren ondoren, hilabete batzuen buruan, oinarriko gramatikaz jabetzen dira, beste hizkuntzetan bezala, bi-hiru urte dituztela.

Hau guztiau erakusteko, hiru haur euskaldunek ekoitziriko hainbat eta hainbat adibide eskaintzen dizkigu egileak, guztiak ere hizkuntzaren jabetuntza ikertzeko egitasmo batean Euskal Herriko Unibertsitateko H.E.G.E.H.J. eta Hanburgeko Unibertsitateko B.U.S.D.E. ikertaldekoek bildurikoak.

Hauxe da, euskararen arloan, gai hau aztertzeko duen lehenetariko liburua.